## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 4183

ERABAKIA, 1996ko uztailaren 24koa, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzarena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aukerako irakasgaien ikasketa–planak argitara ematen dituena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 1996ko uztailaren 16ko Aginduak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketa–planean hautaketa egiteko aukera arautzen duenak, baimena ematen dio Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari aipatu agindu horretan ezarritakoa aplikatu, interpretatu eta garatzeko. Bestetik, bere esku uzten du derrigor eskaini beharreko irakasgaien ikasketa–plana, helduen bizimodura igarotzearekin lotura duten irakasgaien ikasketa–planen ereduak eta ikastetxeek eskaintza orekatu eta beregaina eman dezaten, orientabide gisa erabil daitezkeen aukerako irakasgai ez–derrigorrezkoen ikasketa–planen ereduak argitara ematea.

Horiek horrela, hona

ERABAKIA:

*1. atala.–*

1.– Derrigorrezko eskaini beharreko aukerako irakasgaien ikasketa–plana, «Atzerriko Bigarren Hizkuntza» eta «Kultura Klasikoa» delakoei dagokiena, honako Erabaki honen 1. Eranskinean argitaratutakoa izango da.

2.– Atzerriko Bigarren Hizkuntzari buruzko ikasketa–planaren edukia lau Mailatan banatuko da, I., II., III., eta IV.ean alegia, eta maila bakoitzaren iraupena 70 ordutakoa izango da. Irakasgai hau eskaintzea derrigorrezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lau kurtsoetan, 1996ko uztailaren 16ko Aginduaren 10.2. atalak dioenari jarraiki.

3.– Kultura Klasikoari buruzko ikasketa–planen edukiak bi modalitate izango ditu, A eta B hain zuzen, eta bakoitzak 70 ordutako iraupena izango du. Irakasgai hau eskaintzea derrigorrezkoa izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bigarren zikloko bi kurtsoetan, agindu beraren 10.3 atalak dioenari jarraiki.

*2. atala.–*

1.– Orientabide gisa, Erabaki honen II. Eranskinean argitara ematen dira eskaintza ez–derrigorrezkoaren aukerako irakasgaien ondoko ikasketa–plan hauek, eta bertan adierazten da zein ziklotakoak diren eta zein irakaslek irakats ditzakeen.

– Koru–kantua (1. eta 2. zikloa)

– Eguneroko bizimodurako matematika (1. zikloa)

– Elikadura–tailerra, elikadura–ohiturak eta –oreka (1. zikloa)

– Eskulanen tailerra (1. eta 2. zikloa)

– Ikus–entzunezkoen bidezko komunikazioari buruzko tailerra (1. eta 2. zikloa)

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 4183

RESOLUCIÓN de 24 de julio de 1996, de la Directora de Renovación Pedagógica, por la que se publican currículos de Materias Optativas en Educación Secundaria Obligatoria.

La orden de 16 de julio de 1996 del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, que regula las posibilidades de opción en el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria, autoriza a la Dirección de Renovación Pedagógica para aplicar, interpretar y desarrollar lo dispuesto en la misma, y le encomienda la publicación del currículo de las materias de oferta obligatoria, de modelos de currículo de materias referidas al tránsito a la vida adulta y de materias optativas de oferta no obligatoria que puedan servir de orientación para una oferta equilibrada y suficiente por parte de los Centros.

En su virtud

DISPONGO:

*Artículo 1.–*

1.– El currículo de las materias optativas de oferta obligatoria «Segunda Lengua Extranjera» y «Cultura Clásica» será el que se publica en el Anexo I de la presente Resolución.

2.– Los contenidos del currículo de la Segunda Lengua Extranjera se distribuirán en cuatro Niveles, I, II III y IV, con una duración de 70 horas para cada nivel. La oferta de esta materia será obligatoria en los cuatro cursos de la Educación Secundaria Obligatoria, en los términos establecidos en el artículo 10.2 de la Orden de 16 de julio de 1996.

3.– Los contenidos del currículo de Cultura Clásica se organizarán en dos modalidades, A y B, con una duración de 70 horas para cada modalidad. La oferta de esta materia será obligatoria en los dos cursos del segundo Ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria, de acuerdo con el artículo 10.3 de la misma Orden.

*Artículo 2.–*

1.– Con carácter orientativo se publican, en el Anexo II de esta Resolución, con indicación del Ciclo a que corresponden y del profesorado que puede impartirlos, los siguientes currículos de materias optativas de oferta no obligatoria:

– Canto coral. (Ciclo 1.º y 2.º)

– Matemáticas para la vida cotidiana. (Ciclo 1.º)

– Taller de alimentación, hábitos y equilibrio alimentario. (Ciclo 1.º)

– Taller de artesanías (Ciclos 1.º y 2.º)

– Taller de comunicación audiovisual. (Ciclos 1.º y 2.º)

– Herri–kultura eta ondarea berreskuratu eta zaintzeko tailerra (1. eta 2. zikloa)

– Ipuin tailerra (1. zikloa)

– Asmakuntza eta makinen tailerra (1. zikloa)

– Ingurune soziokulturala aztertzeko tailerra

– Osasuna eta norberaren gorputza zaintzeko tailerra (1. zikloa)

– Musika eta instrumentuen tailerra (1. eta 2. zikloak)

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek irakasgai hauetako edozein jaso dezakete aukerakoen eskaintzan, eta ez dute ikastetxetik kanpoko inolako onarpen–prozedurarik behar izango, non eta irakasgai bakoitzarentzat eskatzen denari jarraiki, irakats dezakeen irakaslerik baduten.

*3. atala.–*

1.– Bide beretik, orientabide gisa, III. Eranskinean helduen bizimodura igarotzearekin lotura duten ondoko aukerako irakasgai hauen ikasketa–planen eredua ematen da argitara. Hauek 70 ordutako iraupena izango dute, eta etaparen amaieran irakats daitezke.

– Jendartean moldatzeko gaitasuna

– Lanbide–hastapena
– Lan–munduan sartzea

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek etaparen azken kurtsoan aukerako irakasgaien eskaintzan helduen bizimodura igarotzearekin lotura duen beste irakasgairik bat gutxienez ez baldin badago, aipatu irakasgai hauetako bat hartu beharko dute, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza honen baimenez.

AZKEN XEDAPENA

Honako Erabaki honen indarraldia EHAAn argitara eman eta biharamunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 1996ko uztailaren 24a.

Pedagogi Berrikuntzarako zuzendaria,
MIREN EDURNE GUMUZIO AÑIBARRO.

## I. ERASKINA

### ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA

1.– SARRERA

Arrazoi bat baino gehiago dago atzerriko bigarren hizkuntza bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumaren barruan aukera gisa sartu izana justifikatzen dutenak.

Batetik, Euskal Autonomi Elkartean, atzerriko hizkuntzen gizarte-eskaria gero eta handiagoa da, honako arrazoi hauengatik: kokapen geografikoa, garapen teknologikoa eta komunikazioena, populazioaren joan-etorrien maiztasun handiagoa, atzerriarekiko merkataritza

– Taller de conservación y recuperación del patrimonio y cultura popular . (Ciclos 1.º y 2.º)

– Taller de cuentos. (Ciclo 1.º)

– Taller de inventos y máquinas. (Ciclo 1.º)

– Taller de investigación del entorno socio-cultural (Ciclos 1.º y 2.º)

– Taller de mantenimiento del propio cuerpo y de la salud. (Ciclo 1.º)

– Taller músico e instrumental. (Ciclo 1.º y 2.º)

2.– Los Centros de Educación Secundaria Obligatoria podrán incluir cualquiera de estas materias en su oferta de optativas, sin necesidad de ningún procedimiento de aprobación externo al propio Centro, con tal de disponer de profesorado que pueda impartirla de acuerdo con lo que para cada una se establece.

*Artículo 3.–*

1.– Con carácter igualmente orientativo se publican en el Anexo III modelos de currículo de las siguientes materias optativas relacionadas con el tránsito a la vida adulta, que pueden ser ofrecidas, con una duración de setenta horas, en el último curso de la etapa:

– Habilidades para el desenvolvimiento en la Comunidad
– Iniciación profesional
– Introducción al mundo laboral

2.– Los Centros de Educación Secundaria Obligatoria deberán incluir una materia de las mencionadas si no existe en su oferta de optativas para el último curso de la Etapa otra materia, al menos, referida al tránsito a la vida adulta, con la aprobación de esta Dirección de Renovación Pedagógica.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 1996.

La Directora de Renovación Pedagógica,
MIREN EDURNE GUMUZIO AÑIBARRO.

## ANEXO I

### SEGUNDA LENGUA EXTRANJERA

1.– INTRODUCCIÓN

Son varias las razones que justifican la inclusión de una segunda lengua extranjera como opción dentro del curriculum de la educación secundaria obligatoria.

Por una parte, el aumento de la demanda social de lenguas extranjeras en la Comunidad Autónoma Vasca obedece a varias causas: la situación geográfica, el desarrollo tecnológico y de las comunicaciones, los desplazamientos cada vez mas frecuentes de la población, el

eta industri-interesen garapena, hizkuntza eta kulturelkartrukeen goraldia, eta Europako Elkartekide diren beste herri batzuekin zeinbait udalerrik sortutako senidetzea. Datu horiek kultura berri bat adierazten dute, herri arteko adiskidetasunean eta ulermenean oinarritua; hortik, beraz, hizkuntzaniztasunaren beharra sortzen da mugak -kontzeptu gisa desagertzen ari dena– gainditzeko tresna gisa.

Hezkuntza-sistemak euskal gizartearen komunikazio-eskari berri horiei erantzun behar die.

Bestalde, atzerriko bigarren hizkuntza bat ingurune elebidun batean sartzean, elebitasunak eskaintzen dituen alderdi positiboak aprobetxatu behar dira. Hizkuntza guztiak gizarte-testuinguru batean eta dagoeneko ikasitako beste hizkuntza batzuekin elkarreraginean ikasten direnez, ezinbestekoa izango da ikasleak komunitateko hizkuntzez eta 1AHz aldez aurretik dituen ezagutzak oinarritzat hartzea, ezagutza horiek ikasten hasi den hizkuntza berriaren ikaskuntzara eramateko. Irakaskuntza integratzaile batean prozesua izugarri bizkortzen da, hezkuntza-fase horretan (12-16 urte) ikaslearen heldutasun-etapak ezagutzak erlazionatzeko, esperientziak batzeko eta jakintzak integratzeko gero eta gogoeta-lan konplexuagoak egitea ahalbidetzen baitio.

2AH Bigarren Hezkuntzaren curriculumean sartzeak, batez ere ikaslearen komunikazio-gaitasunaren garapena bultzatzeaz gain, ikasle bakoitzaren hizkuntza-identitatea indartzeko balio behar luke, ez 1AHk ez eta 2AHk ere ezin baitute ordezkatu Euskal Herrian jaiotako ikasleak subjektu elebidun orekatu gisa babesteko behar efektibo-afektiboa. Ikasleek horrela bakarrik garatu ahal izango dute hizkuntza berri bat bereganatzeak ondorioz dakartzan autoestimazioa eta autonomia, hau da, konfiantza handiagoa izatea, batetik, nork bere buruarengan eta, bestetik, oztopoak gainditzeko eta ezagutzetatik ahalik eta etekin handienak ateratzeko duen ahalmenean. Hori guztia ikaslearen famili, aisia eta lanbide-eremuan aplikatu ahal izango da.

Gainera, hizkuntza batek besteekiko harremana sustatzen du, bai eta jarrera malguak, elkartasunezkoak eta tolerantziazkoak indartu ere. Hori guztia talde-ihardueren, eztabaiden eta beste herri batzuetako gazteekiko harremanen bidez praktikatu ahal izango da.

Azkenik, herrien funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoei buruzko azterketa errazten du, jatorrizko dokumentuetatik, komunikabideetatik eta pertsona arteko elkartrukeetatik sortutako informazioa ikuspegi kritiko batez lortu, aukeratu eta lantzea ahalbidetzen baitu. Ikasleak bereganatutako ezagutza horiek etorkizuna zabaltzen, mundu eta aukera berriak ezagutzen lagunduko diote, ondoren lan-munduko eskakizunei erantzun ahal izateko balio izateaz gain.

Hizkuntza guztien helburua zeinu eta egituren sistema batez eta hizkuntzak berak dituen esanahi kultural eta sozial guztiekin besteek diotena ulertzea eta guk dioguna ulertaraztea da. Horregatik, aurreko etapan bezala, irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak globalizatzailea izan beharko du, hizkuntza komunikatzeko eta errealitatea hobeto ulertzeko tresna eraginkorra izan

desarrollo de intereses comerciales e industriales con el extranjero, el auge de intercambios lingüísticos y culturales así como el hermanamiento de algunos municipios con otros países miembros de la Unión Europea. Estos datos reflejan una nueva cultura, basada en la concordia y la comprensión entre los pueblos y de la cual surge la necesidad de un plurilingüismo como instrumento de superación de unas fronteras cuyo concepto tiende a desaparecer.

El sistema educativo debe dar respuesta a estas nuevas demandas comunicativas de la sociedad vasca.

Por otra parte, la incorporación de una segunda lengua extranjera en un medio bilingüe, deberá aprovechar los aspectos positivos que proporciona el bilingüismo. Dado que todas las lenguas se aprenden en un contexto social y en interacción con las otras lenguas ya adquiridas, será imprescindible partir de los conocimientos previos del alumnado en las lenguas de la comunidad y en la LE1, para poder transferir los mismos al aprendizaje de la nueva lengua que se empieza a estudiar. El proceso en una enseñanza integradora se acelera ya que la etapa de maduración del alumno en esta fase educativa (12-16 años) le permite realizar tareas reflexivas cada vez mas complejas para relacionar conocimientos, unir experiencias e integrar saberes.

La inclusión de una segunda lengua extranjera en esta etapa, además de contribuir de forma fundamental al desarrollo de su competencia comunicativa, sirve para potenciar su identidad lingüística como sujeto bilingüe, propia de todo ciudadano vasco, permitiéndole valorar más profundamente la riqueza de esta situación, al mismo tiempo que contribuye a desarrollar en los alumnos y alumnas la autoestima y la mayor autonomía personal y social que conlleva el aprendizaje de una nueva lengua. Ello tendrá aplicación en su mundo familiar, en su mundo del ocio y en el profesional.

Una lengua también fomenta la relación con otros, propiciando actitudes flexibles, solidarias y tolerantes. Todo esto podrá ejercitarse por medio de actividades en grupo, equipo, debates y contactos con jóvenes de otros países.

Por último, también facilitará el análisis de los mecanismos que rigen el funcionamiento de los pueblos, ayudando a obtener, seleccionar y procesar críticamente la información aportada por documentos auténticos, medios de comunicación e intercambios personales. Estos conocimientos adquiridos, contribuyen a ampliar horizontes, descubrir nuevos mundos y posibilitar el dar respuestas a exigencias de la vida laboral posterior.

La finalidad de toda lengua es el comprender y hacerse comprender con un sistema de signos y estructuras y con todos los significados culturales y sociales que la misma conlleva. Por ello, al igual que en la etapa anterior, el proceso de enseñanza/aprendizaje deberá ser globalizador para que la lengua sea un instrumento eficaz para comunicarse y para comprender mejor la realidad. En este pro-

dadin. Prozesu honetan iritsi nahi den xedea mezua igortzean eta josotzean eraginkortasuna lortzea da eta horretarako, hitzegiteko erraztasunaren eta zuzentasunaren arteko oreka lortu beharko da.

Hizkuntza baten ikaskuntzan, aurrerapena ez da lineala, espiralean baizik. Arrerapena honelaxe lortzen da: mezuak gutxinaka-gutxinaka betez, ñabartuz eta aberastuz, subjektua komunikazio-egoera batean sartuta dagoenean eragindako mekanismo kontziente eta inkontzienteen bidez, hain zuzen.

2AHren curriculum-diseinuan ezarritako helburuak etapa guztian zehar lortu beharko dira. Ikastetxearen curriculum-proiektuak eta talde-ikasgela bakoitzaren egoerak gomendutako dute ziklo bakoitzaren barruan izango duen banaketaren erritmo egokia. Programazioak malguak izateak eta bertan ikasgelaren aniztasunera egokituko diren ibilbide batzuk egoteak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzean komunikaziorako gaitasunaren garapen egokia ahalbidetuko dute.

Ezinbestekoa da ikaskuntza bultzatuko duten estrategia eraginkor batzuk sustatzen jarraitzea, alderdi emozionalek, kasuaren arabera, erraztu edo trabatu egingo baitute oroimena eta memoria. Taldean giro afektiboa izateak segurtasuna sortu, akatsa arindu eta partaidetzara bultzatzen du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza guztian, atzerriko hizkuntzen helburua espazioak -ikasgela, herria, Europa, mundua– irekitzea da, ikasleari beste kultura batzuetan eta lan-munduan integratzea eta ondorengo ikasketetan jarraitzea ahalbidetuko diotenak.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Atzerriko hizkuntzan ahozko eta idatzizko mezu errazen informazio globala eta datu garrantzitsuenak ulertzea, pertsonen arteko edo komunikabideetako ohizko komunikazio-egoerei buruzkoak.

2. Atzerriko hizkuntza ahozko egoeretan behar bezala erabiltzea, hizkuntza-baliabideen eta hizkuntzari ez dagozkien baliabideen bidez, ikasleen ingurunetik gertu dauden egoeretan behar bezalako komunikazioa lortzeko.

3. Ikasleen gaitasunei eta interesei egokitutako idatzizko dokumentu errazak ulertuz irakurtzea, kontzienteki errekonozimendu eta identifikazio-estrategietara joz, informazioa lortzeko eta gurea ez bezalako bizimoduak ezagutzeko bide gisa.

4. Eguneroko bizitzan erabil daitezkeen eta beren beharrei eta interesei buruzkoak diren idatzizko testu errazak sortzea.

5. Atzerriko bigarren hizkuntzaren funtzionamenduari buruz gogoeta egitea, ikaskuntzan nork bere produkzioak hobetzeko tresna gisa.

6. Atzerriko hizkuntzak ezagutzeak duen garrantzia

ceso, el objetivo que se pretende conseguir es la eficacia en la transmisión y recepción del mensaje y para ello habrá de lograrse un equilibrio entre fluidez y corrección.

El progreso en el aprendizaje de una lengua no se produce de forma lineal sino mas bien en espiral. El progreso consiste en ir rellenando, matizando y enriqueciendo los mensajes paulatinamente y ello se lleva a cabo por medio de mecanismos conscientes e inconscientes que se activan cuando el sujeto esta involucrado en una situación de comunicación.

Los objetivos marcados en el diseño curricular de la LE2, habrán de lograrse a lo largo de toda la etapa. El proyecto curricular del centro y la situación de cada grupo-aula, aconsejarán el ritmo adecuado de su distribución dentro de cada ciclo. Unas programaciones flexibles, junto a unos itinerarios que se adecuen a la diversidad del aula, permitirán un desarrollo adecuado de la competencia comunicativa al finalizar la secundaria obligatoria.

Resulta imprescindible el seguir fomentando estrategias afectivas que positiven el aprendizaje ya que los aspectos emotivos, facilitan o bloquean, según los casos, el recuerdo y la memoria. Un clima afectivo en el grupo da seguridad, relativiza el error y anima a la participación.

Las lenguas extranjeras en el conjunto de la Educación Secundaria Obligatoria tienen como finalidad abrir espacios: el aula, el país, Europa, el mundo, que faciliten al alumnado tanto su integración en otras culturas como al mundo laboral o continuidad en estudios posteriores.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Comprender la información global y los datos más relevantes de mensajes sencillos orales y escritos en la lengua extranjera, relativos a situaciones habituales de comunicación interpersonal y de los medios de comunicación.

2. Utilizar adecuadamente la lengua extranjera en situaciones orales, haciendo uso de recursos lingüísticos y no lingüísticos, para conseguir una comunicación satisfactoria en situaciones próximas al entorno del alumnado.

3. Leer de forma comprensiva documentos escritos sencillos y adecuados a sus capacidades e intereses, recurriendo conscientemente a estrategias de reconocimiento e identificación, como medio de información y de acceso a formas de vida distintas de las propias.

4. Producir textos escritos sencillos de utilidad en la vida cotidiana y relacionados con sus necesidades e intereses.

5. Reflexionar sobre el funcionamiento de la segunda lengua extranjera como un elemento facilitador de aprendizaje, para mejorar las producciones propias.

6. Valorar la importancia del conocimiento de len-

baloratzea, beste kultura batzuetako pertsonekin komunikatu ahal izateko eta eremu desberdinetako nazioarteko harremanetan parte hartu ahal izateko.

7. Ikasitako hizkuntzari dagokion ingurune soziokulturalaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, errealitatea eta pertsonarteko harremanak antolatzeko modu gisa beste kultura batzuk hobeto ulertzeko.

8. Atzerriko bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan ikasleak dagoeneko bereganatu dituen beste hizkuntzetako aldez aurreko esperientzia aplikatzea, prozesuari buruz gogoeta egitea eta ikaskuntza autonomorako estrategiak garatzea.

9. Atzerriko hizkuntzek transmititzen duten kulturaren aurrean jarrera irekia eta kritikoa erakustea, ikaslearen errealitateari buruz gogoeta egiteko eta munduaren eta pertsonarteko harremanen ikuspegi zabalagoa izateko, konbentzioen eta arau kulturalen balio erlatiboa ulertuz eta elkartasunezko baloreak garatuz.

3.– EDUKINAK

Etapa honetako helburuetako bat den komunikazio-gaitasuna lortzeko elkarlotuta dauden bi ardatz hartu behar dira kontuan: hizkuntzaren ERABILERA eta hizkuntzari buruzko GOGOETA, horren ondoren hobeto erabiltzearren.

Erabilera hizkuntza baten inguruko lanaren oinarria eta helburua denez, horren eraginez prozedurazko edukinek izan behar dute atzerriko hizkuntzei dagokien arlo honetako ardatza. Edukin horien antolamenduan hitzezko iharduera zuzentzen duten eragiketa psikolinguistikoak hartu dira kontuan. Kontzeptuzko edukinak ikasgelan egin beharreko gogoetaren oinarria dira; eta, azkenik, jarrerazko edukinen bidez hizkuntzen eta haien ikaskuntzen aurrean jarrera positiboa izateko ikasleek elkarrekin lan egitea eta erabakiak hartzea sustatu nahi da.

Hiru edukin-mota horiek ez dira multzo jakin batera atxiki behar, iharduera desberdinetan landuko baitira eta irakasleari dagokio, unitate didaktiko bakoitzean, iharduera bakoitzean landu beharreko edukin egokiena eta egokienak zeintzuk izango diren zehaztea.

1. MULTZOA. HIZKUNTZA PERTSONARTEKO HARREMANETAN

Pertsonarteko harremanetan hizkuntzaren erabilerak atzerriko hizkuntzaren komunikazio-behar gehienak betetzen ditu, eta hori ikaskuntza-estrategietan ikusten da.

Multzo hau giza esperientzietan lehena eta maizen murgiltzen garen eremua da; hiztun orok bere ama-hizkuntzan menperatzen duen berbaldia da, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak atzerriko lehen hizkuntzan landutakoa ere. Horregatik, hain zuzen, atzerriko bigarren hizkuntzaren funtsezko oinarria da, komunikazio-egoera ohizkoenak hartzen baititu bere baitan.

Multzo honetako edukinek honako behar hauek

guas extranjeras para comunicarse con personas que pertenecen a culturas diferentes y para participar en relaciones internacionales de ámbitos diversos.

7. Conocer los aspectos fundamentales del medio sociocultural propio de la lengua estudiada para una mejor comprensión de otras culturas, como formas distintas de organizar la realidad y las relaciones interpersonales.

8. Aplicar al aprendizaje de la segunda lengua extranjera la experiencia previa en otras lenguas ya adquiridas y reflexionar sobre el proceso desarrollando estrategias para un aprendizaje autónomo.

9. Mantener una actitud receptiva y crítica hacia las culturas que las lenguas transmiten para reflexionar sobre la realidad propia y obtener una mejor visión del mundo y de las relaciones personales, comprendiendo el valor relativo de las convenciones y normas culturales y desarrollando valores de solidaridad.

3.– CONTENIDOS

La adquisición de la competencia comunicativa que los objetivos de esta etapa pretenden, se apoya en dos ejes que discurren entrelazados: el USO de la lengua y la REFLEXIÓN sobre la lengua para mejorar su utilización posterior.

El uso como punto de partida y de llegada del trabajo en torno a la lengua, impone que sean los contenidos procedimentales el eje de esta área de lenguas extranjeras. En su organización se han tenido en cuenta las operaciones de tipo psicolingüístico que rigen la actividad verbal. Los contenidos conceptuales están en la base de la reflexión que ha de realizarse en el aula y los contenidos actitudinales pretenden fomentar tanto el trabajo cooperativo y la toma de decisiones como actitudes positivas hacia las lenguas y su aprendizaje.

Estos tres tipos de contenidos no deben adscribirse a un determinado bloque, sino que se trabajarán en las distintas actividades y será opción del profesorado determinar, en cada unidad didáctica, cuál o cuales de los contenidos son los más apropiados para trabajar en cada actividad.

BLOQUE 1. LA LENGUA EN LAS RELACIONES INTERPERSONALES

La utilización de la lengua en las relaciones interpersonales cubre una gran parte de las necesidades de comunicación en lengua extranjera y así se refleja en el detalle de las estrategias de aprendizaje.

Este bloque es el primero de la experiencia humana y en el que con mayor frecuencia nos encontramos inmersos; es el discurso que todo hablante domina en su lengua materna y que el alumnado de secundaria obligatoria ha trabajado también en la primera lengua extranjera. Por ello, constituye la base fundamental de la segunda lengua extranjera, ya que comprende las situaciones de comunicación más habituales.

Los contenidos de este bloque se refieren a las nece-

hartzen dituzte kontuan: gizarte-elkarrekintza, informazioa, balorazioa eta iritzia, argudiatzea eta arrazoitzea, limurtzea, nahia, lehentasuna eta borondatea.

2. MULTZOA. HIZKUNTZA KOMUNIKABIDEETAN

Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa da, eta curriculumaren osagai eta ikasgelan material eta baliabide desberdinekin egiten diren ihardueren osagarri dira. Komunikabideak benetako materialen iturria dira, bai eta ikasketa-gai den hizkuntzaren ingurune soziokulturala ezagutzeko ezinbesteko elementua ere.

Komunikabideek pizten duten interesa eta motibazioa kontuan hartzeko modukoak dira ikasleak atzerriko bigarren hizkuntzarekin izango dituen lehenengo harremanetan erabiltzeari begira. Gainera, irudia oso lagungarria da mezua ulertzeko garaian.

Ezinbestekoa da komunikabideetako mezuak arreta handiz aukeratu eta egokitzea, bai eta ikasleen ikaskuntza-mailari eta interesei egokitutako iharduerak diseinatzea ere.

3. MULTZOA. HIZKUNTZA IKASKUNTZAN

Multzo honen asmoa baterako ihardueretan disziplinarteko koordinazioa sustatzea da, horrela ikaslea atzerriko hizkuntzan beste arlo batzuetako gaiak ikasten has baitaiteke.

Atzerriko bigarren hizkuntzan oinarrituz, multzo honetako helburuek ezin dute asmo handikoak izan; ordea, beste arlo batzuetako ezagutzak erabil daitezke, ikaskuntza esanguratsuagoa izan dadin eta, ikasleari atzerriko bigarren hizkuntzaren ikasketan interesgune berriren bat bilatzen lagunduz, pertsona eta aprendiz gisa bilakatzen lagunduko dioten gaiak uler ditzan.

Irakasleak hasieratik barneratuko ditu edukin horiek eskaintza gisa, eta ikasleak berak adieraziko du edukin horiek ikaskuntza-fase batean zein bestean barneratzeko beharra.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Ahozko eta idatzizko komunikazio-egoera ohizkoenak: ezaugarriak eta asmoak (solaskideen kopurua, elkarren arteko harremana, komunikazioaren lekua eta unea, gaia, helburua, etab.).

2. Atzerriko hizkuntzaren oinarrizko hizkuntza-sistemak:

– elementu fonologikoak: erritmoa, intonazioa.

– elementu morfosintaktikoak.

– elementu lexikoak eta semantikoak (sasiadiskideak).

– ahozko eta idatzizko berbaldiaren kohesioa zuzentzen duten arauak.

3. Ikasten den hizkuntzaren, ikasleak ezagutzen dituen eta elkarrengandik hain desberdinak diren eus-

sidades de: interacción social, de información, de valoración y opinión, de argumentación y razonamiento, de persuasión, de deseo, preferencia y voluntad.

BLOQUE 2. LA LENGUA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN

Cada vez es mayor la importancia de los media, que forman parte del curriculum y son complemento de otras actividades de aula ligadas a diferentes materiales y recursos. Los medios de comunicación son la mayor fuente de material auténtico, y un elemento imprescindible para conocer el medio sociocultural de la lengua objeto de estudio.

El interés y la motivación que los mismos aportan, son suficientemente importantes como para utilizarlos desde los primeros contactos con una segunda lengua extranjera. Siendo de gran ayuda en el caso de la imagen que hace el mensaje más comprensible que otro audio solamente.

Es imprescindible un riguroso trabajo de selección y adaptación de los mensajes de los media, junto a un diseño de actividades adecuadas al nivel de aprendizaje y a los intereses del alumnado.

BLOQUE 3. LA LENGUA EN EL APRENDIZAJE

La intención de este bloque es promover la coordinación interdisciplinar en actividades conjuntas, en las que alumnos y alumnas aborden de forma incipiente temas de otras áreas en la nueva lengua extranjera.

Desde la segunda lengua extranjera, los objetivos de este bloque no pueden ser demasiado ambiciosos, sin embargo se pueden utilizar conocimientos de otras áreas para hacer más significativo el aprendizaje y ayudar al alumnado a encontrar un motivo añadido de interés en el estudio de esta segunda lengua extranjera para comprender temas que le ayuden en su desarrollo como persona y aprendiz.

El profesorado introducirá estos contenidos desde el primer momento como oferta y todo el alumnado y será el propio alumno o la alumna el que manifieste la necesidad de introducir estos contenidos en un momento u otro de su proceso de aprendizaje.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Situaciones de comunicación oral y escrita más habituales; sus características e intenciones (número de interlocutores, relación entre ellos, lugar y momento de la comunicación, tema, finalidad...).

2. Sistema lingüístico básico de la lengua extranjera:

– elementos fonológicos: ritmo, entonación;

– elementos morfosintácticos;

– elementos léxicos y semánticos (falsos amigos);

– reglas que rigen la cohesión de un discurso oral y uno escrito.

3. Semejanzas y diferencias básicas entre ciertas palabras y estructuras lingüísticas de esta segunda lengua

kara eta gaztelaniaren, eta atzerriko lehenengo hizkuntzaren zenbait hitz eta egitura linguistikoren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.

4. Ikasten ari den hizkuntza hitz egiten den herrietako kulturaren eta gizartearen ezaugarri nagusiak.

5. Hiztunen arteko gizarte eta kultur erreferente orokorrenak eta ikasleen interesekin zerikusia dutenak: pertsonaia eta data enblematikoak, azturak, ohiturak, jaiak, ikasketa-sistema, etab.

6. Ikasitako hizkuntzaren eta kulturaren agerpena nazioarteko eremuan eta ikasleengandik gertu dagoen ingurunean.

B) Prozedurazko edukinak

Etapa honetan, hizkuntzen komunikazio-ikuspegiak hiru hizkuntza-trebetasunak kontuan hartzera eramaten gaitu: ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko produkzioa eta ikaskuntza-estrategiak, aurreko hiru multzoetako prozedurazko edukinen ardatz gisa.

Estrategia ikasleak betetzen dituen ekintza espezifikoek osatzen dute, ikaskuntza errazagoa, azkarragoa, dibertigarriagoa, nork berak gehiago zuzendutakoa, eraginkorragoa eta egoera berrietara eramaten errazagoa izan dadin.

Irakasleak ezagutzak eskaini eta ikaskuntzaren produktu edo emaitza jakin batzuk ziurtatzeaz gain, produktu horiek lortzea ahalbidetuko duten prozesuak sustatu behar ditu.

Ikaskuntza-estrategia horiek ikasleak bere ikaskuntza zabaltzeko ematen dituen pausuak dira. Estrategiek garrantzi berezia hartzen dute hizkuntzaren ikaskuntzan, komunikatzeko gaitasuna garatzeko funtsezkoa den partaidetza aktiboa eta nork berak zuzendutakoa burutzeko tresna baitira. Ikaskuntza-estrategia egokien emaitza gaitasun handiagoa eta nork bere buruarengan konfiantza handiagoa dira.

Curriculum-proposamen honetan prozedurazko edukinak ardatza izango dira, eta horietan oinarrituz, kontzeptuzko eta jarrerazko edukinak garatu beharko dira, hirurak elkarri lotuta landuz.

a) Ulermena:

– Testu errazak ulertzen lagunduko dioten funtzezko hitzak edo ideiak identifikatzea.

– Informazio nagusia aukeratzea.

– Iturri desberdinetako ahozko mezuak orokorrean ulertzea, informazio nagusia ateratzea eta intonazio, keinu edo beste laguntza paralinguistiko batzuen arabera esanahia ondorioztatzea.

– Estrategi gaitasunaz baliatzea: mezua errepika dezaten eskatzea, hitzak letraka esatea, argitasunak eskatzea, etab., komunikazioa eten ez dadin.

– Ikaslearentzako errazak eta ezagunak diren idatzizko mezuak orokorrean eta espezifikoki ulertzea, ezezagunak diren hitz batzuen esanahaiak testuinguruaren bidez edo beste hizkuntza batzuekiko etomologi antzekotasunagatik ondorioztatuz.

– Ikasgelan dauden kontsultarako materialak erabiltzea, idatzizko mezuak ulertzeko.

extranjera y las de las otras lenguas que el alumno conoce (euskera, castellano y primera lengua extranjera).

4. Aspectos significativos de la cultura y de la sociedad de los países donde se habla la lengua.

5. Referentes sociales y culturales más generalizados entre los hablantes de la lengua y relacionados con los intereses del alumnado: personajes y fechas emblemáticos, hábitos, costumbres, fiestas, sistema de estudios...

6. Presencia de la cultura y la lengua estudiadas en el ámbito internacional y en el entorno próximo al alumnado.

B) Contenidos Procedimentales:

El enfoque comunicativo de las lenguas en esta etapa, conduce a considerar las cuatro destrezas lingüísticas: comprensión oral y escrita, producción oral y escrita y las estrategias de aprendizaje como el núcleo de los contenidos procedimentales en los tres bloques anteriores.

Entendemos por estrategias de aprendizaje las acciones específicas que realiza el alumnado para hacer el aprendizaje más fácil, más rápido, más divertido, más autodirigido, más eficaz y más transferible a situaciones nuevas.

El profesorado no debe solamente proporcionar conocimientos y asegurar ciertos productos o resultados del aprendizaje, sino que debe fomentar procesos mediante los que esos productos pueden alcanzarse.

Estas estrategias de aprendizaje son pasos que da el alumnado para ampliar su propio aprendizaje. Las estrategias son especialmente importantes para el aprendizaje de la lengua puesto que son instrumentos para una participación activa y autodirigida que es esencial para desarrollar la competencia comunicativa. Las estrategias de aprendizaje apropiadas dan como resultado una mejor competencia y mayor autoconfianza.

Los contenidos procedimentales adquieren en esta propuesta curricular el carácter de eje vertebrador, a partir del cual habrán de desarrollarse tanto los contenidos conceptuales como los actitudinales, trabajándose los tres de forma interrelacionada.

a) Comprensión:

– Identificación de palabras o ideas claves que ayuden a la comprensión de texto sencillos.

– Selección de la información relevante.

– Comprensión global de mensajes orales que procedan de distintas fuentes, extrayendo la información relevante y deduciendo significados por la entonación, el gesto u otro apoyo paralingüístico.

– Utilización de la competencia estratégica: pedir que se repita el mensaje, deletrear, pedir aclaración para que no se interrumpa la comunicación.

– Comprensión global y específica de mensajes escritos sencillos y familiares al alumnado, deduciendo el significado de algunas palabras desconocidas mediante el contexto o por analogía etimológica con otras lenguas.

– Utilización de materiales de consulta existentes en el aula, para la comprensión de mensajes escritos.

b) Produkzioa:

– Eguneroko formulak eta adierazpenak ulertuz memorizatzea, nork bere berbaldian barneratzeko.

– Ahozko mezu errazak eta ulergarriak sortzea, ahoskera, intonazioa, keinuak, formulak, ingurunearekiko egokitzapena, etab. konbinatuz.

– Eguneroko bizitzari buruzko ahozko solasaldietan aktiboki parte hartzea, besteen arreta erakartzeko eta solasaldia hasi eta bukatzeko baliabideak erabiliz.

– Beste hizkuntza batzuetan komunikaziorako erabilitako estrategiei buruzko LEGEra transferitzea, mezua ahalik eta modu eraginkorrenean adierazteko.

– Idatzizko testu errazak sortzea, gazteen inguruneari dagozkionak: enkarguak, oharrak, gonbidapenak, gutunak, formularioak, etab. aurkezpena eta zuzentasun formala errespetatuz.

C) Jarrerazko edukinak

– Atzerriko hizkuntzaren hiztunei nork berak ulertzeko eta besteek ulertzeko interesa eta errespetua erakustea, bilakaera pertsonalerako bide gisa.

– Besteekin solasaldian aritzeko interesa erakustea, ikasten ari den hizkuntza batean hizketa egiteak eragin dezakeen lotsa eta segurtasunik eza gainditu.

– Beste hizkuntza bat gero eta era autonomoan ikasteko gaitasuna onartzea, bere ahaleginak eta aurrerapena baloratuz.

– Kultura eta bizitzaren ikuskera desberdinen aurrean jakinmina eta errespetua erakustea, jarrera irekia, tolerantziazkoa eta elkartasunezkoa hartuz, baina kultur berdintasunaren aldeko larderiazko jarreren aurrean kritikoki jokatuz.

– Hizkuntzak lan-mundura sartzeko eta nazioarteko harremanetan parte hartzeko bide gisa baloratzea.

– Errealitate elebiduna beste hizkuntza batzuetara hurbiltzeko bide eraginkor gisa baloratzea.

– Kultur desberdintasunak baloratzea, nork bere identitatea ezagutu eta aberasteko.

– Euskal Herriko hizkuntzak baloratzea, mundu guztiko hizkuntzen kontzertuan.

– Ikasgelako gainerako pertsonenganako errespetuzko, lankidetzazko eta tolerantziazko jarrera erakustea.

– Ikaskideen arteko laguntza baloratzea, ikaskuntza hobetzeko.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1.– Ikasgelan landutako gaiei buruz aurrez aurre sortutako komunikazio-egoeretan edo komunikabideetan adierazitako ahozko eta idatzizko mezuetako informazio orokorra eta datu garrantzitsuenak ateratzea.

Irizpide honekin, hitzezko erantzunen edo hitzezkoak ez direnen bidez, ohizko komunikazio-egoeretan

b) Producción:

– Memorización comprensiva de fórmulas y expresiones cotidianas, incorporándolas al propio discurso.

– Producción de mensajes orales sencillos y comprensibles, combinando pronunciación, entonación, gestos, fórmulas, adecuación al entorno...

– Participación activa en intercambios orales sencillos, relativos a la vida cotidiana, utilizando recursos para atraer la atención, empezar y terminar la conversación.

– Transferencia a la LE2 de las estrategias de comunicación utilizadas en las otras lenguas, para lograr una transmisión del mensaje lo más eficaz posible.

– Producción de textos escritos sencillos, propios del entorno social de los jóvenes: recados, notas, invitaciones, cartas, formularios... respetando la presentación y la corrección formal.

C) Contenidos Actitudinales:

– Interés y respeto por comprender y hacerse comprender en la lengua extranjera con hablantes de la misma, como forma de enriquecimiento personal.

– Interés por realizar intercambios comunicativos con otras gentes, superando la timidez e inseguridad que pueda ocasionar el expresarse en una lengua en fase de aprendizaje.

– Reconocimiento de su capacidad para aprender otra lengua, de manera cada vez más autónoma, valorando su esfuerzo y sus progresos.

– Curiosidad y respeto ante otras culturas y maneras de entender la vida, adoptando una actitud tolerante y abierta ante las mismas, así como un espíritu crítico ante los intentos de uniformización cultural.

– Valoración de las lenguas como medio de acceso al mundo laboral y a la participación en las relaciones internacionales.

– Valoración de la propia realidad bilingüe como medio eficaz de acercamiento a otras lenguas.

– Valoración de las diferencias culturales para descubrir la propia identidad y enriquecerla.

– Actitud de aprecio respecto de las lenguas propias de Euskal Herria en el concierto de las lenguas de todo el mundo.

– Actitud de respeto, colaboración y tolerancia hacia las otras personas de la clase.

– Valoración de la ayuda entre compañeros y compañeras para mejorar el aprendizaje.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1.– Extraer la información global y los datos más relevantes de mensajes orales y escritos emitidos en situación de comunicación cara a cara o procedentes de medios de comunicación, sobre temas trabajados en aula.

Con este criterio se trata de evaluar mediante respuestas verbales y no verbales la comprensión de la

edo komunikabideren baten bidez adierazitako mezuaren garrantzizko informazioa zein neurritaraino ulertu den ebaluatu nahi da.

Gaiak famili eta gizarte-harremanei eta ikaslearen beharrei buruzkoak izango dira: sentsazio fisikoak, jakinmina, iritziak, esperientziak eta zaletasunak. Aldez aurretik ikasgelan aztertutako gai horiek hizkuntza hitz egiten den gizartearen eta kulturaren eguneroko alderdiei egongo dira lotuta, eta ikaslearengan interesa pizten dutela kontuan hartu behar da.

2.– Solasaldi errazetan parte hartzea, ikasgelako lanari eta nor bere esperientziari loturiko gaiei buruzko komunikazioa hasi, iraunarazi eta aurrera eramateko adierazpen egokiak erabiliz, eta solaskidearen iritziak eta kultur ezaugarriak errespetatuz.

Irizpide honen bidez ikasleak ikasitako hizkuntzan komunikazio-behar desberdinak betetzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da (agurtzea, baimena eskatzea, informazioa eskatu/ematea, barkamena eskatzea) bai eta norbere esperientziari buruzko solasaldi laburrak izateko ere.

Sortutako mezuen antolamendu formala, argitasuna eta koherentzia hartuko dira kontuan, bai eta hizkuntza benetako egoeretan erabili ahal izateko aukerak bilatzeko prestasuna ere. Ez dira hainbeste kontuan hartuko komunikazioa etetzen ez duten akatsak.

3.– Jatorrizko edo egokitutako testu idatzietatik informazio orokorra eta espezifikoa ateratzea, testuinguruaren eta beste hizkuntza batzuen ezagutzen laguntzarekin esanahia aurresateko gai izanik.

Irizpide honen bidez jatorrizko testu idatziak, sinpleak edo irudiekin agertzen direnak, ulertzeko duten gaitasuna ebaluatu nahi da, hain zuzen ere hizkuntza hitz egiten den herrietako kulturari eta gizarteari buruzkoak eta ikasleen interes eta ezagutzekin bat etorriko direnak: turismo-liburuskak, kirol, musika, gau egungo pertsonaia, publizitate, etab.i buruzko aldizkariak... Pasarte zailenetan hiztegietara edo gramatikaliburuetara jotzea izango da eskakizunetako bat.

Gainera, ikasleak beste kulturarekiko interesa erakusten ote duen ere baloratuko da, bai eta atzerriko hizkuntzan idatzitako eta bere ingurunean aurkitutako materialak bilatzeko eta ekartzeko prestasuna ere, hau da: pegatinak, aldizkariak, abestiak, publizitatea, etab.

4.– Idatzizko komunikazioan ohizkoak diren testu laburrak eta sinpleak idaztea, aurkezpena zainduz eta hizkuntza zuzen erabiliz, hau da, trabarik gabe ulertzeko moduan idatziz.

Bide horretatik ikasleak idatziz espresatzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da. Horretarako, testuen kohesiorako elementu batzuk erabiltzen ote dituen ikusiko da. Testu horiek batez ere ikaslearen bizitza errealarekin zerikusia izango dute, eta ohar informal, enkargu, postal, gonbidapen, gutun, zorion-txartel, etab.en bidez idatziko dituzte. Akatsak agertzen badira ere formatua eta aurkezpen egokia errespetatu beharko dute.

5.– Ahozko eta idatzizko ohizko testuetan ikasleak

información relevante de mensajes captados en situaciones de comunicación habituales o a través de algún medio de comunicación.

Los temas girarán en torno a las relaciones familiares y sociales, a las necesidades del alumnado: sensaciones físicas, curiosidad, opiniones, experiencias y gustos personales. Estos temas, tratados previamente en el aula, estarán relacionados con aspectos cotidianos de la sociedad y de la cultura de los países donde se habla la lengua y que despierten mayor interés entre el alumnado.

2.– Participar en conversaciones sencillas, utilizando las expresiones adecuadas para iniciar, mantener y hacer progresar la comunicación sobre temas relacionados con el trabajo del aula y la experiencia propia, respetando tanto las opiniones como los rasgos culturales de su interlocutor.

Este criterio trata de evaluar la capacidad de las alumnas y de los alumnos para cubrir diferentes necesidades comunicativas en la lengua estudiada: saludar, pedir permiso, pedir/dar informaciones, excusarse, despedirse, así como para mantener conversaciones breves relativas a su propia experiencia.

Se tendrán en cuenta la organización formal, claridad y coherencia de los mensajes producidos, así como la disposición favorable para buscar oportunidades que permitan usar la lengua en situaciones reales. Se estimarán como menos importantes las incorrecciones que no interrumpan la comunicación.

3.– Extraer la información global y específica de textos escritos auténticos o adaptados, siendo capaz de predecir significados con el apoyo del contexto y de sus conocimientos de otras lenguas.

A través de este criterio se pretende evaluar la capacidad para comprender textos escritos auténticos, sencillos o con apoyo visual, relacionados con la cultura y la sociedad de los países donde se habla la lengua y que se correspondan con los intereses y conocimientos de los estudiantes, como: folletos turísticos, revistas juveniles sobre deporte, música, personajes de actualidad, publicidad... Entre las tareas exigidas se incluirá la consulta de diccionarios o gramáticas en los pasajes que ofrezcan mayor dificultad.

Así mismo, se valorará las muestras de interés hacia la otra cultura como la búsqueda y aportación personal de materiales redactados en la lengua extranjera y que hayan encontrado en su entorno: pegatinas, revistas, canciones, publicidad...

4.– Redactar textos cortos y sencillos habituales en la comunicación escrita, con la presentación adecuada y la suficiente corrección lingüística para poder ser comprendidos sin dificultad.

Por este medio se intenta evaluar la capacidad para expresarse por escrito, aunque de forma elemental, pero utilizando algunos conectores que den cohesión a los textos, los cuales tendrán que ver principalmente con la vida real del alumnado a través de: notas informales, recados, tarjetas postales, invitaciones, cartas, felicitaciones... Aunque presenten incorrecciones deberán respetar el formato y la presentación adecuados.

5.– Identificar y utilizar en textos orales y escritos

bereganatutako ezagutzak identifikatu eta erabiltzea, produkzioak hobeto ulertzeko eta nork bere akatsak antzemateko.

Puntu honetan, ikasleak egin dituen akatsak irakaslearen laguntzarekin eta gogoeta eginez ulertzeko bereganatutako ezagutzak baliagarriak izan ote zaizkion ziurtatu nahi da, akatsak bere kasa zuzendu ahal izateko.

6.– Nork berak ulertzeko eta besteek ulertzeko ikasleak komunikazio-estrategia eta eskueran dituen baliabide guztiak erabiltzea, hizkuntzen komunikazio eta kultur-balioa baloratuz.

Ikasleak hizkuntza erabiltzeko egiten dituen ahaleginak neurtu nahi dira batez ere, egiten dituen akatsak nork berak ulertzeko eta besteek ulertzeko gainditu ezin den oztopo bat ez direla kontuan izanik.

7.– Testuetan agertzen diren ezaugarri soziokulturalak identifikatu eta interpretatzea, eta horiek hobeto ulertzeko erabitzea, hiztunenganako interesa eta errespetua erakutsiz.

Irizpide honen bidez testuetan agertzen diren eta hizkuntzaz kanpokoak diren ezaugarri nabarmenenak ezagutzen ote dituzten ziurtatu nahi da, hau da: sinboloak, bizimoduak, ohiturak, estereotipoak, etab., mezu horiek hobeto ulertzearren.

8.– Beste hizkuntza batzuek ikastean ikasleak bereganatu dituen ikaskuntza-baliabideak erabiltzea, ikasi nahi den hizkuntzara eramatearren, jasotako informazioa aztertzeko dituen estrategiak kudeatuz, bere kasa prozesatu eta azkenik erabiltzeko, hain zuzen.

Irizpide honen bidez ikasle bakoitzak ikaskuntzaprozesuan egindako ibilbidea ziurtatu nahi da, indartzearren. Hori ikasgelan egindako lanetan antzemango da, baliabideen eta materialen aukeraketan (ikus-entzunezkoak, manipulatzekoak) bai eta talde-laneko partaidetzan ere.

KULTURA KLASIKOA

1.– SARRERA

Euskal gizartea, mendebaldeko zibilizazioa delakoan integratuta, oso kultura desberdinek historian zehar izan duten elkarreraginaren emaitza da. Kultura hauen artean, beren garapen-mailagatik eta historian izan duten eraginagatik, grekoa eta latinoa ditugu nabarmenenak. Izan ere, kultura klasikoez hitzegiten dugunean munduaren ikuspegi hauetaz ari gara ia soilik.

Komenigarria da gogoan edukitzea, dena den, gure gizartearen kultur sustraietan badirela, eragin desberdinez, beste ekarpen batzuk ere, judeo-kristauak, arabiarrak edo bizantziarrak, baina, nagusiki, euskaran eta euskarak adierazitako erromatar aurreko jatorria dutenak. Bestalde, irakasgai honen garapenean gure kultur nortasuna eratu duten beste elementu horiek kontuan hartzeak badu bere zentzua.

de uso habitual, los conocimientos adquiridos para una mejor comprensión y autocorrección de las producciones.

En este punto se trata de verificar si los conocimientos adquiridos por el alumnado le sirven para comprender, con ayuda de su profesora y a través de una reflexión, el motivo de sus errores para poder autocorregirse.

6.– Utilizar todas las estrategias de comunicación y los recursos disponibles para comprender y hacerse comprender, reconociendo el valor comunicativo y cultural de las lenguas.

Se trata de evaluar fundamentalmente la actitud del alumnado en esforzarse a usar la lengua utilizando todos los recursos de los que dispone, sin miedo a que sus errores constituyan un obstáculo insalvable para entender y hacerse entender.

7.– Identificar e interpretar los rasgos socioculturales que aparecen en los textos y utilizarlos para una mejor comprensión de los mismos mostrando interés y respeto hacia sus hablantes.

Este criterio pretende comprobar el conocimiento de los rasgos extralingüísticos más relevantes que aparezcan en los textos: símbolos, formas de vida, costumbres, estereotipos... para una mejor comprensión de dichos mensajes.

8.– Utilizar los recursos de aprendizaje adquiridos en el estudio de otras lenguas, para transferirlos a la nueva lengua que se pretende aprender, gestionando sus propias estrategias para el tratamiento de la información recibida, para su procesamiento personal y para su reutilización final.

Este criterio intenta verificar el itinerario individual de cada alumno en su proceso de aprendizaje para potenciarlo. Ello se observará en la realización de las tareas en el aula, en la selección personal de recursos y materiales: visuales, auditivos, de manipulación, así como en su participación en las tareas de grupo.

CULTURA CLÁSICA

1.– INTRODUCCIÓN

La sociedad vasca, integrada en lo que se denomina civilización occidental, es el resultado de la interacción de culturas muy diversas a lo largo de la historia. De entre estas culturas destacan, por su grado de evolución y su decisiva incidencia en la historia, la griega y la latina. De hecho, cuando se habla de culturas clásicas se hace referencia casi exclusivamente a estas visiones del mundo.

Conviene recordar, no obstante, que en el substrato cultural de nuestra sociedad subyace, con un distinto grado de incidencia, otras aportaciones de origen judeocristiano, árabe o bizantino, pero, fundamentalmente, de origen prerromano vehiculadas estas últimas por y en el euskera. Por otro, cobra sentido el que, en el desarrollo de esta materia, se tengan en cuenta oportunamente aquellos otros elementos que han conformado nuestra identidad cultural.

Baina irakasgai honen oinarrizko helburua, alde batetik, gure bizimoduan eta gure ohitura eta tradizio askotan, eta are gure eguneroko bizitzan kultura klasikoak daukan eta eduki duen eragina aintzakotzat hartzea da; baina halaber, bestalde, horren aurrean jarrera kritikoa izatea kontuan hartuko da, jasotako eta barneratutako balore, uste eta kontzeptuak eztabaidatu, aztertu eta ikertzen direlarik.

Irakasgai honen garapenak, alde batetik, ikasleek beren erabilera-hizkuntzetan adierazpen-gaitasuna hobetzeko latinaren eta grekeraren ezagutzara jatorrizko hizkuntza gisa hurbil daitezen eta, bestetik, kultura klasikoa mendebaldeko kulturaren kultur, gizarte eta arte-baloreen oinarri eta funts gisa ikus dezaten lortu behar du. Irakasgaiaren trataerak euskarak Europan iraun duten hizkuntza ez-indoeuropar bakanetako bat izatean duen berezitasuna eta bere oinarrizko lexikoak adierazten duen kultur edukina baloratzea eta ikasleak horretaz ohartaraztea. Planteamenduak disziplinartekoa izan behar du hizkuntz arloarekin, Gizarte-Zientziekin, Teknologiarekin, Matematikarekin eta Etikarekin, maila apalagoan bada ere, planteamendu amankomun bat, ikaskuntza-mekanismo batzuk eta horiekin bat datozen irizpide didaktiko batzuk hainbanatuz, azken helburu amankomuna etapan adierazitako gaitasun orokorrak garatu eta hobetzea izanik.

Gaurko gizarteari Giza-Zientziak mirestea baina ezagutza teknikoak gehiago baloratzea leporatzen zaio. Kultura Klasikoak bi jakintza-moten arteko lotura kontuan hartu eta sustatzeko aukera ematen du, ikuspegi zabalagoa eskainiz. Kultura Klasikoaren bitartez, ikasleek latinaren eta are grekeraren hizkuntz ezagupen batzuk lortzea nahi dugu, ezagutzen dituzten hizkuntzei buruzko hausnarketa eginez, bere lexikoaren zati handi baten latinezko eta grekerazko sustraiak aurkituz, alderdi fonetiko, morfosintaktiko eta semantikoak aztertuz, hizkuntza hauetako hitzak eta adierazpideak eta iraun duten esamoldeak alderatuz. Halaber, lehen hurbilketa batean, mundu klasikoari dagozkion erlijio, gizarte, kultur, famili, zientzi, teknika, etab.en alderdi funtsezkoak ezagutzea nahi dugu -iturri desberdinak kontsultatuz, behaketak eginez, ikerketa-lanen baten bitartez...-, eta halaber, mendebaldeko zibilizazioa Europan aztarna utzi duten kultura desberdinen sinkretismo-prozesuaren emaitza dela ikustea.

Kultura Klasikoko edukinek ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan, hauen etorkizuneko akademi edo lan-orientabideak edozein izanik ere, eta beren erabilerako hizkuntzen, pentsamenduaren eta kulturaren sustraiak ezagutzea ahalbidetu, pentsamenduaren egitura eta goi-mailako adimen-prozesuak mintzairaren menpe bereziki dauden eta nerabeek beren arau logikoak sortzeko gaitasuna garatzen ari diren hezkuntza-etapa honetan, fenomeno konplexuak ulertzeko, interpretatzeko eta beren ondorioak ateratzeko, bizi diren ingurunearekiko beren nortasuna eratzen ari diren unean.

Sin embargo, lal finalidad básica de esta materia será, por una parte, reconocerla influencia que en nuestro modo de entender la vida y en una parte importante de nuestras costumbres y tradiciones, e incluso en nuestra vida cotidiana, han tenido y sigue teniendo la cultura clásica; pero también se tendrá en cuenta, por otra parte, una actitud crítica frente a ellas, de modo que los valores, apreciaciones y conceptos legados y asumidos puedan ser objeto de análisis, discusión y revisión.

El desarrollo de esta materia se debe situar, por una parte, en un acercamiento al conocimiento del latín y del griego como lenguas matrices para que el alumnado mejore su capacidad discursiva en sus lenguas de uso y, por otra, en el descubrimiento de la cultura clásica, como cuna y pilar fundamentales de los valores culturales, sociales y artísticos de la cultura occidental. El tratamiento de la materia permite valorar y hacer consciente al alumnado de la especificidad del euskera, como una de las pocas lenguas no indoeuropeas que han pervivido en Europa y el contenido cultural que deja percibir su léxico primitivo. Su planteamiento debe ser interdisciplinar con el área lingüística, Ciencias Sociales, Tecnología, Matemáticas y Ética aunque en menor grado, compartiendo un enfoque común, unos mecanismos de aprendizaje y unos criterios didácticos coherentes con ellas, de tal modo que el objetivo común y último sea el desarrollo y la mejora de las capacidades generales expresadas en la etapa.

A la sociedad actual se le achaca admirar las humanidades pero valorar más los conocimientos técnicos. Pues bien, la Cultura Clásica ofrece la posibilidad de considerar y fomentar la interrelación de ambos tipo de saberes en una perspectiva más amplia. Con ella se pretende que el alumnado adquiera unos conocimientos lingüísticos del latín e, incluso, del griego, a partir de una reflexión sobre las lenguas que conoce, descubriendo las raíces greco-latinas de gran parte de su léxico, analizando aspectos fonéticos, morfosintácticos y semánticos, comparando palabras y expresiones de estas lenguas y las clásicas, así como giros que perviven. También se pretende que el alumno conozca, en una primera aproximación escolar -a través de la consulta de diversas fuentes, la observación, la realización de algún trabajo de investigación,...– aspectos fundamentales: religiosos, sociales, culturales, políticos, familiares, científicos, técnicos, etc. del mundo clásico y que compruebe cómo la civilización occidental, es el resultado de un proceso de sincretismo, heredero de las diversas culturas que han dejado su huella en Europa.

Los contenidos de Cultura Clásica deben tener en cuenta a todo el alumnado, independientemente de sus futuras orientaciones académicas o laborales, y abrirle la posibilidad de conocer las raíces de sus lenguas de uso, de su pensamiento y su cultura, en una etapa educativa en la que la estructura del pensamiento y el inicio de procesos mentales superiores están especial y más intensamente supeditados al dominio del lenguaje y en la que los y las adolescentes están desarrollando la capacidad de generar sus propias reglas lógicas, para hacer inteligibles fenómenos complejos, interpretar y deducir sus propias conclusiones, y van elaborando su propia identidad en relación con el medio en que viven.

Irakasgaiak ikerketarako jarrera ororen oinarri diren ezagutza eta jakinmina sustatu nahi ditu, eta pertsona kritikoak prestatu, egoera berrietan irudimenezko erantzun hausnartuak emateko gaitasuna dutenak. Horretarako, interpretatzeko eta erlazionatzeko gaitasunak bultzatu behar dira, eta ikasleek beren norberatasuna aurki dezaten, beren lorpenak konstatatu eta beren buruaren eta besteen balorazio positiboa egin behar da; norberaren kulturaren eta besteen arauekiko errespetua sustatu behar du, gaurko gizarte-arauen oinarri diren printzipioak aztertuz.

Ahal den neurrian, Euskal Herriko aztarna arkeologiko klasikoak aprobetxatu behar dira, hauen garrantziaz eta esanguraz eta, halaber, hauen artapenaren eta berreskurapenaren garrantziaz ohartaraziz.

Edukin-multzoen planteamenduak aukera desberdinak eskaintzen ditu beste zehar-gai batzuk lantzeko, ikasleen interesaren arabera, eta are ikasleari ikaskuntza-sekuentzia beraren antolamendurako aukera desberdinak aurkez liezazkioke ikasleari.

Kultura Klasikoa irakasgaia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren baitan aukerakotasunaren espazioan sartzen da, ikastetxeek derrigorrez eskaini beharreko irakasgai gisa. Diseinu honek irakasgaia edukinei, helburuei eta ebaluaziorako irizpideei dagokienez desberdinak diren bi aukeretan, A eta B, garatzeko aukera jasotzen du, baina hauek ez dira bi maila desberdin gisa ulertu behar; ikasleak DBHko bigarren zikloan bien arteko aukera egin edo biak hautatu ahal izango ditu. A aukeran jasotako kontzeptuzko edukinak gizartea, historia, artea, erlijioa, etab.ei dagozkien gaiak dira, eta B aukerakoek berriz, hizkuntza, literatura, filosofia, etab.ei dagozkien alderdiak lantzen dituzte.

KULTURA KLASIKOA – A AUKERA

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Gure gizarteko ezaugarri politiko eta soziopolitikoetan beren sustrai grekolatindarrak eta, halaber, beste kultura batzuen ekarpenak aztertzea.

2. Gure gizartearen funtzionamendua eragiten duten mekanismoen jatorri grekolatindarra ezagutzea eta garapen pertsonal eta kolektiboan dituen eraginak baloratzea.

3. Mendebaldeko kultura besteetatik bereizten duten baloreak antzematea eta mundu klasikoak dituen erroak, hau da, gizakiak unibertsoan duen balorazio bereziaren jatorria, aurkitzea.

4. Garapen zientifikoa eta teknologiko grekolatindarra, bere aplikazioak eta ondorengo aurrerapenetan izan duen eragina eta gaur egungo aztarnak ezagutu eta baloratzea.

5. Kultura klasikoaren alderdi esanguratsuei buruzko ikerketa txikietan besteekin elkarlanean parte har-

La materia trata de fomentar el conocimiento desinteresado y la curiosidad, bases de toda actitud investigadora, formar personas críticas, con capacidad de emitir respuestas reflexivas e imaginativas a situaciones nuevas. Para ello se debe incidir en las capacidades de interpretar y relacionar; en la consecución por el alumnado de su propia identidad, de constatar sus propios logros y una valoración positiva de sí mismo y de los demás; debe fomentar el respeto y la comprensión de las reglas de la propia cultura y de otras por medio del análisis de los principios que fundamentan las reglas sociales actuales.

En la medida de lo posible, se debe aprovechar los restos arqueológicos clásicos presentes en el País Vasco, haciéndoles conscientes de su entidad y significación, así como de la importancia de su conservación y recuperación.

El planteamiento de los bloques de contenido ofrece diversas posibilidades para tratar otros temas colaterales dependiendo del interés del alumnado e incluso se podrían presentar al alumno/a distintas posibilidades de organización de la propia secuencia de aprendizaje.

La materia de Cultura Clásica se incluye en el espacio de opcionalidad dentro de la Educación Secundaria Obligatoria, como materia de oferta obligada por parte de los centros. Este Diseño contempla la posibilidad de que la materia se desarrolle en dos opciones A y B, claramente diferenciadas en cuanto a contenidos, objetivos y criterios de evaluación, que no deben entenderse como dos niveles diferentes, de forma que el alumno o la alumna puede elegir entre ambas o ambas en el segundo ciclo de la E.S.O. Los contenidos conceptuales recogidos en la Opción A van referidos a temas sociales, históricos, artísticos, religiosos,... en tanto que en la Opción B van encaminados a aspectos lingüísticos, literarios, filosóficos, etc.

CULTURA CLÁSICA – OPCIÓN A

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Analizar en las características políticas y socioculturales de nuestra sociedad sus raíces grecolatinas, así como los aportados por otras culturas.

2. Reconocer el origen grecolatino de los mecanismos que rigen el funcionamiento de nuestra sociedad y valorar sus repercusiones en el desarrollo personal y colectivo.

3. Captar los valores distintivos de la cultura occidental que la distinguen de las demás y descubrir su enraizamiento en el mundo clásico, origen de la peculiar valoración del ser humano en el universo.

4. Conocer y valorar el desarrollo científico y tecnológico grecolatino, sus aplicaciones e incidencia en posteriores avances y su pervivencia actual.

5. Participar de forma cooperativa y solidaria en la realización de pequeñas investigaciones sobre aspectos

tzea, alderdi desberdinen informazioak erabiliz eta kontrastatuz eta zuzen transmitituz.

6. Adierazpen artistiko, zientifiko eta teknologikoen bitartez, mundu grekolatindarrak gorputzaren zaintzari, higieneari, ariketa fisikoari eta kirolari ematen zien garrantzia ezagutu eta ulertzea, gure gizarteko ohituretan duten gaurkotasuna baloratuz.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. KULTURA KLASIKOAREN AURKIKUNTZA

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Erakunde politikoak eta gizartea:

– Aristokrazia eta demokrazia Grezian.
– Errepublika eta Inperioa Erroman.
– Gaurko ikuskera politikoei egindako ekarpena.

2. Bizitza publikoa:

– Gizarte-taldeak: libreak eta esklaboak.
– Sistema ekonomikoak: ekonomia eta lana.
– Sistema juridikoa: zuzenbidea.
– Hiritarren esku hartzea bizitza politikoan: erretorikaren garrantzia.
– Aisia: festak, jokoak eta ikuskizunak.

3. Bizitza pribatua:

– Eguneroko bizitza.
– Bizitzako gertakari nagusienen erritoak.

– Elikadura, jantziak.

4. Emakumearen presentzia eta egoera mundu grekolatindarrean.

5. Sinesmenen mundua:

– Mitologia, erlijioa, sineskeria eta magia.

– Mendebaldeko kulturan mitoaren esanahia eta iraupena hiztegian, literaturan, musikan, folklorean eta artean.

– Euskal Mitologia. Kristautasunaren bidez latindar Kunturaren integrazioa Euskal Herrian.

6. Gaur egungo munduko bizitza publikoan eta pribatuan gizarte klasikoak duen eragina.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Ingurunean dugun kultura klasikoaren zenbait aztarnen (ohiturak, hondakin arkeologikoak, etab.) zentzuari eta esanahiari buruzko galderak eta hipotesiak egitea.

2. Gizarte eta politika edo bizitza pribatu greko edo erromatarraren alderdi batzuei buruzko informazio muntaduna jasotzea eta erregistratzea, informazio-iturri desberdinez eta landa-lanez baliatuz.

3. Mota desberdinetako arte eta kultur adierazpenetan (artea, musika...) mito grekolatindarrak antzematea.

4. Komunitate klasikoen eta gaurko mendebaldeko munduaren antolamendu politiko eta sozialaren arteko desberdintasunen eta antzekotasunen interpretazioa.

significativos de la cultura clásica, utilizando y contrastando informaciones de diferentes partes y transmitiéndola de forma correcta.

6. Conocer y comprender, a través de las manifestaciones artísticas, científicas y tecnológicas, la importancia que el mundo grecolatino daba al cuidado del cuerpo, la salud, la higiene, la alimentación, el ejercicio físico y el deporte, valorando su vigencia en los hábitos y costumbres de nuestra sociedad.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. EL DESCUBRIMIENTO DE LA CULTURA CLÁSICA

A) Contenidos Conceptuales:

1. Instituciones políticas y sociedad:

– Aristocracia y democracia en Grecia.
– República e Imperio en Roma.
– Aportaciones a las concepciones políticas actuales.

2. La vida pública:

– Grupos sociales: libres y esclavos.
– El sistema económico: economía y trabajo.
– El sistema jurídico: el derecho.
– Intervención de los ciudadanos en la vida política: Importancia de la retórica.
– El mundo del ocio: fiestas, juegos y espectáculos.

3. La vida privada:

– La vida cotidiana.
– Ritos de los principales acontecimientos de la vida.
– La alimentación, el vestido.

4. Presencia y situación de la mujer en el mundo grecolatino.

5. El mundo de las creencias:

– Mitología, religión, superstición y magia.

– Significado y pervivencia del mito en la cultura occidental en el léxico, literatura, música, folklore y arte.

– La mitología vasca. La integración de la cultura latina en el País Vasco a través del cristianismo.

6. Pervivencia en el mundo actual de formas de vida pública y privada de la sociedad clásica.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Formulación de interrogantes e hipótesis sobre el sentido, significación de determinados vestigios (costumbres, restos arqueológicos, etc.) de la cultura clásica que se conservan en el entorno.

2. Obtención y registro de información relevante sobre la algunos aspectos de políticosociales o de formas de vida privada griegas o romanas, sirviéndose de distintas fuentes de información y trabajos de campo.

3. Reconocimiento de mitos grecolatinos en manifestaciones artísticas y culturales de distinto tipo (Arte, Música,...).

4. Interpretación de diferencias y semejanzas de la organización política y social de las comunidades clásicas y las del mundo occidental actual.

5. Mitologia klasikoarekin zerikusia duten terminoen eta esamoldeen analisia.

6. Mapak, grafikoak, koadro kronologikoak, eskemak, etab. egin eta interpretatzea, horretarako kultura klasikoaren oinarrizko alderdiei dagozkien iturri desberdinak erabiliz (aztarna arkeologikoak, testuak, planoak, artea, etab.).

7. Euskal mitologian mito klasikoak identifikatzea eta beste kulturetakoekin duten erlazioa aurkitzea.

8. Pentsamendu klasikoan planteatutako dilemak, esplikazio mitologikoekin konpondu direnak, aztertzea.

9. Iturri desberdinak erabiliz, mito unibertsal bati buruzko ikerketa txiki bat egitea.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Gizarte-antolamendurako kultur forma gisa, zibilizazio greko eta latindarrarekiko, eta baita gurean eragina izan duten beste batzuekiko ere, interesa eta errespetua.

2. Kultura klasikoak mendebaldeko kulturaren eremu desberdinetan duen presentzia, antzinatetik gaur arte transmititu den ondare gisa.

3. Iragan klasikoa aurkitzeko eta ezagutzeko jakinmina.

4. Kultura klasikoari buruzko informazio-iturriak erabiltzeko eta informazioak komunikatzeko garaian zehaztasuna eta objektibitatea.

2. MULTZOA. GREZIAREN ETA ERROMAREN PRESENTZIA MEDITERRANEOAN

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Gune greziar eta erromatar nagusiak Mediterraneoan:

– Greziarren eta erromatarren presentzia Penintsula Iberikoan.

2. Erroma kultura greziarraren eta beste zenbait zibilizazioaren transmititzaile. Erromanizazioa.

3. Hedapen erromatarraren sistema politiko-administratiboak.

4. Kultura grekolatindarraren aztarna nagusiak Hispanian.

5. Hispaniak kultura klasikoari egindako ekarpenak.

6. Euskal Herriko erromatar aurreko herriak eta Euskal Herriko Erromanizazio-prozesua: Saltus Vasconum, Ager Vasconum.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Erromanizazioari buruz, eta batez ere Euskal Herrikoari buruz, dauden testu klasikoen eta gaur egungoen irakurketa eta iruzkin kritikoa.

2. Mundu grekolatindarraren garapenari eta hedapenari buruzko mapak eta ardatz kronologikoak egitea.

3. Jatorri greziarra eta latindarra duten toponimo hispanoak eta euskaldunak antzematea eta hauen bilakaeraren analisia.

4. Ingurune hurbiletan kultura grekolatindarraren presentzia adierazten duten aztarnen analisia.

5. Análisis de términos y expresiones relacionadas con la mitología clásica.

5. Interpretación y elaboración de mapas, gráficos, cuadros cronológicos, esquemas,... a partir de distintas fuentes (restos arqueológicos, textos, planos, arte etc.) sobre aspectos básicos de la cultura clásica.

7. Identificación de mitos clásicos en la mitología vasca y sus relaciones con los de otras culturas.

8. Análisis de dilemas planteados en el pensamiento clásico y resueltos con explicaciones mitológicas.

9. Elaboración de una pequeña investigación, utilizando diversas fuentes, sobre un mito universal.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés y respeto hacia las civilizaciones griega y latina como formas culturales de organización social, así como por otras culturas que han incidido en la nuestra.

2. Valoración de la presencia de la cultura clásica en los diferentes ámbitos del mundo occidental como un patrimonio transmitido desde la antigüedad clásica hasta nuestros días.

3. Curiosidad por el descubrimiento y conocimiento del pasado clásico.

4. Rigor y objetividad en la utilización de fuentes de información y en la comunicación de informaciones sobre cultura clásica.

BLOQUE 2. LA PRESENCIA DE GRECIA Y DE ROMA EN EL MEDITERRÁNEO

A) Contenidos Conceptuales:

1. Principales enclaves griegos y romanos en el Mediterráneo:

– La presencia griega y romana en la Península Ibérica.

2. Roma vehículo transmisor de la cultura griega y de otras civilizaciones: La Romanización.

3. Los sistemas político-administrativos de la expansión romana.

4. Principales restos de la cultura grecolatina en Hispania.

5. Aportaciones de Hispania a la cultura clásica.

6. Los pueblos prerromanos de Euskal Herria y el proceso de Romanización en el País Vasco: Saltus Vasconum, Ager Vasconum.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Lectura y comentario crítico de textos clásicos y actuales sobre la Romanización, en especial en la del País Vasco.

2. Realización de mapas y de ejes cronológicos sobre el desarrollo y expansión del mundo grecolatino.

3. Reconocimiento de topónimos hispanos y vascos de origen griego y latino y análisis de su evolución.

4. Análisis de restos que indiquen la presencia de la cultura grecolatina en entorno cercanos.

5. Euskal Herriko alderdi erromanizatuen kokapen geografikoa eta hauen banaketari buruzko hipotesien formulazioa.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Aztarna arkeologiko klasikoak aintzakotzat hartu eta hauen artapenaren aldeko jarrera.

2. Iraun duten eraikuntza grekolatindarren sormenezko alderdiak, estetikoak eta funtzionalak ezagutzeko jakinmina.

3. MULTZOA. LORPEN ZIENTIFIKOAK, ARTISTIKOAK ETA TEKNIKOAK

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Aurrerapen zientifiko nagusiak ondoko hauetan: Medikuntza, Fisika, Matematika, Astronomia eta Astrologia.

2. Aurrerapen teknikoak:

– Hirigintza: planoak, hiriak eta kanpamenduak.

– Injinerutza: ura energia-iturri gisa.

– Gudarako eta eguneroko bizitzarako makineria.

– Denboraren neurketa.

3. Arte-garapena:

– Arkitektura: eraikin pribatuak eta publikoak.

– Eskultura, Pintura eta beste zenbait arte.

4. Ondare zientifiko, tekniko eta artistiko grekolatindarraren iraupena. Euskal Herrian duen presentzia.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Informazio-iturri gisa, testu klasiko zientifikoak, teknikoak, literarioak, etab. erabiltzea.

2. Arkitektura eta hirigintza klasikoaren oinarrizko ezaugarriak antzematea.

3. Egutegiaren eta denbora konputatzeko sistema desberdinen analisia eta alderaketa.

4. Antzinate klasikoko aurrerapen zientifiko eta teknologikoei buruzko informazio-iturri desberdinetan eta eskuragarrietan oinarrituz, ikerketa-lan txikiak egitea.

5. Maketa eta makina sinpleak diseinatu eta egitea (Teknologiako arloaren lankidetzaz).

6. Euskal Herrian batez ere, hirien plano eta eraikin zahar eta berrietan aurki daitezkeen mundu klasikoko hirigintza eta eraikuntza-ezagutzen aztarnak aztertu eta alderatzea.

7. Euskal Herrian batez ere, mundu klasikoko eraikuntza, eskultura eta pintura-obra nagusiak informazio-iturri desberdinen bitartez identifikatzea.

8. Mundu grekolatindarreko alderdi desberdinei buruzko mapa, plano eta krokisak (hiriak, eraikinak, makinak...) irakurri eta interpretatzea, eta dokumentu desberdinetan oinarrituta, horiek egitea.

C) Jarrerazko Edukinak:

5. Localización geográfica de las áreas romanizadas del País Vasco y formulación de hipótesis acerca de su distribución.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Aprecio de los restos arqueológicos clásicos existentes y disposición favorable a su conservación.

2. Curiosidad por conocer los aspectos creativos, estéticos y funcionales de las construcciones grecolatinas que perviven.

BLOQUE 3. LOS LOGROS CIENTÍFICOS, ARTÍSTICO Y TÉCNICOS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Los avances científicos fundamentales en: Medicina, Física, Matemáticas, Astronomía y Astrología.

2. Los avances técnicos:

– Urbanismo: planos, ciudades y campamentos.

– Ingeniería: el agua como fuente de energía.

– Maquinaria para la guerra y para la vida cotidiana.

– La medida del tiempo.

3. El desarrollo artístico:

– Arquitectura: edificios privados y públicos.

– Escultura, Pintura y otras artes.

4. Pervivencia del legado científico, técnico y artístico grecolatino. Presencia en el País Vasco.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Utilización de textos clásicos científicos, técnicos, literarios,.. como fuente de información.

2. Reconocimiento de las características básicas de la arquitectura y el urbanismo clásico.

3. Análisis y comparación de la evolución del calendario y los diferentes sistemas de cómputo del tiempo.

4. Realización de pequeños trabajos de investigación a partir de fuentes de información variadas y accesibles sobre avances científicos y tecnológicos de la antigüedad clásica.

5. Diseño y elaboración de maquetas y máquinas sencillas (en colaboración con el área de Tecnología).

6. Observación y comparación de la pervivencia de los conocimientos urbanísticos y arquitectónicos del mundo clásico en planos de ciudades y de edificios antiguos y modernos, especialmente en el País Vasco.

7. Identificación de obras arquitectónicas, escultóricas y pictóricas fundamentales del mundo clásico a través de diversas fuentes de información, especialmente en el País Vasco.

8. Lectura e interpretación de mapas, planos, y croquis sobre diferentes aspectos del mundo grecolatino (ciudades, edificaciones, máquinas,...) y elaboración de los mismos a partir de diversos documentos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Norberaren ahalegina baloratzea, ezagutza berriak egiteko elementu aktibo gisa.

2. Sentiberatasuna obra estetiko klasikoen aurrean, bere sormen-elementuak eta ondorengo arte-adierazpenei egindako ekarpenak baloratuz.

3. Garapenaren eta naturaren arteko oreka bilatzeko beharra, «gizakia, gauza guztien neurria» esaera klasikoa kontuan hartuz.

4. Gizarte klasikoen aurrerapen teknikoak beren egileen asmamen eta antolamenduaren adierazpen gisa eta beharrei edo estetikari erantzun gisa baloratzea.

5. Euskal Herrian zehar zabalduta dagoen ondare teknikoa eta artistiko klasikoa artatzeko eta beereskuratzeko jarrera positiboa.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Mundu klasikoko edozein adierazpen soziokulturaletan ikasitako, hartutako eta/edo oinarritutako ideiak ordenatuta, zuzen, garbi eta koherentziaz ahoz eta idatziz adieraztea, irakasgai honetan landutako oinarrizko hiztegi zehatza erabiliz.

Irizpide honen bitartez, ikasleak ahoz eta idatziz bere eta besteen ideiak ordenatuta, zuzen, garbi eta koherentziaz adierazteko eta irakasgaiari dagokion oinarrizko hiztegia erabiltzeko gai ote den egiaztatu nahi dugu.

2. Mundu klasikoari buruz iturri desberdinetatik informazioa kritikoki jasotzea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiziz, informazioaren sintesia egin eta birsortzea, laburbilduz eta/edo eskema gisa, edo sormenaz, kode desberdinak erabiliz, eta besteei jakinaraztea.

Irizpide honen helburua ikaslea, ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereiztean, edozein informazio-iturritatik funtsezko edukina ulertzeko, kritikoki tratatzeko eta komunikaziorako kode desberdinak (idatzizkoak, ahozkoak, artistikoak, teknikoak...) erabiltzeko gai ote den egiaztatzea da.

3. Antzinate Klasikoko gertaera eta pertsonaia garrantzitsuenak denboran eta espazioan kokatzea, aro horretako kultur adierazpen nagusiak identifikatzea eta gure zibilizazioan duten gaurkotasuna antzeman eta baloratzea.

Irizpide honen asmoa ikasleak zibilizazio grekoa eta latindarra historikoki kokatzeko, beren historia zedarritzen duten gertaera eta pertsonaia garrantzitsuenak eta kultur adierazpen esanguratsuenak ezagutzeko eta, halaber, gaur egungo mendebaldeko kulturan geratu diren elementuak aztertu eta baloratzeko gai ote den egiaztatzea da.

4. Iturri dokumental desberdinetatik jasotako datuetan oinarrituz, mundu klasikoko alderdi soziokulturalei buruzko ikerketa-lan sinpleak planifikatu eta egitea, bakarka nahiz taldeka, eta ateratako ondorioak arrazoituz azaltzea.

Irizpide honen bitartez, iturri desberdinak erabiliz, jasotako datuak aztertuz eta landuz eta ondorioak arra-

1. Valoración del propio esfuerzo personal como elemento activo de descubrimiento de nuevos conocimientos.

2. Sensibilidad ante realizaciones estéticas clásicas, valorando sus elementos creativos y sus aportaciones a posteriores manifestaciones artísticas.

3. Valoración de la necesidad de equilibrio entre desarrollo y naturaleza, teniendo en cuenta la máxima clásica «el hombre como medida de todas las cosas».

4. Aprecio por los avances técnicos de las sociedades clásicas como expresión del ingenio y organización de sus autores y como respuesta a necesidades o estética.

5. Actitud positiva hacia la conservación y recuperación del patrimonio técnico y artístico clásico que se extiende por el País Vasco.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Expresar oralmente y por escrito con orden, corrección, claridad y coherencia ideas adquiridas, concebidas y/o inspiradas en cualquier manifestación sociocultural del mundo clásico, utilizando el vocabulario básico y específico trabajado en esta materia.

Se pretende comprobar con este criterio si el alumno/a es capaz de expresar oralmente y por escrito, de forma ordenada, correcta, clara y coherente ideas propias y ajenas, y de usar el vocabulario básico y específico propio de la materia.

2. Obtener información de forma crítica de diversas fuentes sobre el mundo clásico, distinguiendo las ideas principales y secundarias, sintetizar la información contenida y reproducirla, bien de forma resumida y/o esquemática, bien de forma creativa, utilizando diferentes códigos y comunicarla a los demás.

Este criterio va dirigido a comprobar si el alumno/a es capaz de comprender el contenido esencial de cualquier fuente de información, al diferenciar las ideas principales y secundarias que en ella se expresan, tratarla críticamente y utilizar diferentes códigos válidos para la comunicación: escritos, orales, artísticos, técnicos,...

3. Situar en el tiempo y en el espacio los acontecimientos y personajes más importantes de la Antigüedad Clásica, identificar sus principales manifestaciones culturales y reconocer y valorar su vigencia en nuestra civilización.

Este criterio pretende comprobar si el alumno/a es capaz de situar históricamente las civilizaciones griega y latina, conocer los acontecimientos y personajes más destacados y las manifestaciones culturales más significativas que marcaron su historia y analizar y valorar los elementos presentes en la cultura occidental en la actualidad.

4. Planificar y realizar sencillos trabajos de investigación, de forma individual y colectiva, sobre aspectos socioculturales significativos del mundo clásico a partir de los datos obtenidos en diversas fuentes documentales y plasmar de forma razonada las conclusiones obtenidas.

Con este criterio se pretende determinar si el alumno/a es capaz de diseñar un pequeño trabajo de investi-

zoituz komunikatuz (azalduz), ikaslea kultura edo gizarte klasikoaren alderdiren bati buruzko ikerketalan txiki bat egiteko gai ote den egiaztatzea da.

5. Prozedura desberdinez, hezkuntza, harreman pertsonal eta sozial, higiene, osasun, elikadura, ariketa fisiko eta kirolari buruz eguneroko bizitzaren alderdiak identifikatu, aztertu eta kritikoki baloratzea.

Irizpide honen bitartez ikaslea harreman pertsonal ez-diskriminatzaileek, eta ohitura osasuntsu eta higienikoek duten garrantzia baloratzeko eta eguneroko bizitzan garapen fisiko, sozial eta emozional egokia lortzearren integratzeko gai ote den egiaztatu nahi dugu.

6. Gizakien arazoen erantzun gisa mitologia grekolatindarrak duen garrantzia kultur adierazpen desberdinen bitartez baloratzea.

Irizpide honen asmoa zera da, ikasleak, testu klasiko historiko eta literaturazkoen eta beste zenbait arteadierazpenen bitartez, mitologia grekolatindarrak gizakien arazoen erantzun gisa duen garrantzia baloratzea.

7. Euskal Herrian geratzen diren aztarna tekniko eta artistiko batzuk kokatu, identifikatu eta baloratzea.

Irizpide honen bitartez, ikasleak Euskal Herrian dauden aztarna klasiko garrantzitsuenak kokatu eta identifika ote ditzakeen, beren garrantzia eta presentzia erromatarra zenbaterainokoa izan zen baloratuz, egiaztatu nahi dugu.

KULTURA KLASIKOA – B AUKERA

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Penintsula Iberikoko hizkuntza gehienen eta Europako askoren jatorri grekolatindarra antzeman eta baloratzea, iragan amankomun baten emaitza gisa beren artean dauden hizkuntz elementu amankomunak identifikatuz, eta norbanakoek eta herriek hizkuntza horiek erabiltzeko duten eskubidea errespetatzea.

2. Latina eta grekera norberaren hizkuntza aberastea eta beste batzuk ikastea ahalbidetzen duten hizkuntza gisa eta gure mendebaldeko kulturaren oinarri gisa baloratzea.

3. Hizkuntz, literatur eta filosofi alderdiei buruzko informazioa iturri desberdinak erabiliz (klasikoak eta gaur egungoak) jasotzea, eta ikerketarako duten garrantzia baloratuz, beren edukina kontrastatuz hautatzea, autonomoki eta kritikoki tratatzea eta zuzen transmititzea.

4. Kultura klasikoan ikasitakoa (fonologia, morfologia, lexikoa, sintasia, etab.) ikaskuntza berriak egiteko erabiltzea, eta ikasleak erabiltzen dituen hizkuntzen ulermen eta analisirako, euskararen eta hizkuntza gerkolatindarren arteko erlazioak antzemanez batez ere.

gación sobre algún aspecto de la cultura o de la sociedad clásica, manejando diferentes fuentes, analizando, tratando los datos obtenidos y comunicando (exponiendo) de forma razonada las conclusiones.

5. Identificar y analizar, a través de diferentes procedimientos, aspectos de la vida cotidiana referentes a la educación, relaciones personales y sociales, higiene, salud, alimentación, ejercicio físico y deporte y valorarlos críticamente.

Con este criterio se pretende comprobar si el alumnado es capaz de valorar la importancia que tienen las relaciones personales no discriminatorias, los hábitos saludables e higiénicos, e integrarlos en la vida cotidiana para lograr un adecuado desarrollo físico, social y emocional.

6. Valorar la importancia de la mitología grecolatina como respuesta a cuestiones relacionadas con los problemas de los seres humanos a través de diversas manifestaciones culturales.

Este criterio va dirigido a comprobar si el alumno/a percibe y aprecia a través de textos clásicos, históricos y literarios y otras manifestaciones artísticas, la importancia de la mitología grecolatina como respuesta a las inquietudes problemas de los seres humanos.

7. Situar, identificar y valorar algunos de los restos técnicos y artísticos clásicos que perviven en el País Vasco.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna es capaz de localizar e identificar los restos clásicos más importantes existentes en el País Vasco, valorando su importancia, así como la intensidad de la presencia romana en el mismo.

CULTURA CLÁSICA – OPCIÓN B

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Reconocer y valorar el origen grecolatino de la mayoría de las lenguas de la Península Ibérica y de gran parte de Europa, identificando los elementos lingüísticos comunes que existen en ellas, como resultado de un pasado común y respetar el derecho de los individuos y de los pueblos a utilizarlas.

2. Valorar el latín y el griego como lenguas que permiten el enriquecimiento de las propias y la adquisición de otras y como base de nuestra cultura occidental...

3. Obtener información sobre aspectos lingüísticos, literarios y filosóficos utilizando fuentes diversas (clásicas y contemporáneas), valorando su importancia para la investigación, seleccionarla contrastando su contenido, tratarla de forma autónoma y crítica y trasmitirla de forma correcta.

4. Utilizar los aprendizajes realizados en cultura clásica (fonología morfología, léxico, sintaxis, etc.) para la adquisición de nuevos aprendizajes, y la compresión y análisis de las lenguas de uso del alumno/a, detectando especialmente las relaciones entre el euskera y las lenguas grecolatinas.

5. Testu klasiko desberdinen irakurketa baloratzea, informazio eta gozamen-iturri gisa eta gure garaiko kulturetarako eta bizimoduetarako sarbide gisa.

1. MULTZOA. HIZKUNTZA KLASIKOEN JATORRIA ETA HERENTZIA

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Hizkuntza indoeuroparren ikuspegi orokorra.

2. Latinaren eta grekeraren enborra: hizkuntza europarren jatorri amankomunak.

3. Latinak eta grekerak hizkuntza erromanikoetarako izan duten bilakaera:

– Jatorri grekolatindarreko lexiko zientifiko eta tekniko amankomuna.

– Helenismoak eta latinismoak. Kultismoak eta ondare-hitzak.

– Euskararen eragina latinak gaztelerara izan duen bilakaeran.

4. Latinak euskaran duen eragina eta presentzia.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Gaur egungo hizkera zientifiko, teknologiko eta arruntean sarri aurkitzen diren helenismo eta latinismoen analisia.

2. Hizkuntza klasikoetatik hizkuntza erromanikoetarako bilakaera antzematen den hitz-familien moldaketa.

3. Hizkuntza erromaniko nagusiak antzematea, batez ere Penintsula Iberikoan mintzatzen direnak, eta baita beren arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ere.

4. Euskaran dauden termino lexiko batzuk antzematea.

5. Kultismoen eta ondare-hitzen eta jatorrizko hitz latindarren artean erlazio semantikoak ezartzea.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Erabiltzen dituzten hizkuntzetan termino grekolatindarren presentzia aurkitzeko interesa, hizkuntza horietan dagoen eragin klasikoa ikusteko.

2. Mundu klasikotik datozen hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunen balorazioa eta errespetua, beren bilakaeraren adierazpen gisa.

2. MULTZOA. HIZKUNTZA KLASIKOEN FUNTZIONAMENDUAREN ELEMENTU FORMALAK ETA MEKANISMOAK

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Idazketa-sistemak: alfabeto grekoa eta latindarra.

2. Latina eta grekera hizkuntza flexibo gisa: ikasleek erabiltzen dituzten beste hizkuntzekiko alderaketa. Kasuaren eta deklinabidearen nozioak.

3. Latinaren flexio nominala, pronominala eta aditzarena.

5. Valorar la lectura de textos clásicos diversos como fuentes de información y disfrute y como medio de acceso a culturas y formas de vida subyacentes en nuestros días.

BLOQUE 1. ORIGEN Y HERENCIA DE LAS LENGUAS CLÁSICAS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Panorama general de las lenguas indoeuropeas.

2. El tronco del latín y el griego: Origen común de las lenguas europeas.

3. Evolución del griego y del latín hacia las lenguas románicas:

– Léxico común, científico y técnico de origen grecolatino.

– Helenismos y latinismos. Cultismos y palabras patrimoniales.

– Influencia del euskera en la evolución del latín hacia el castellano.

4. Influencia y presencia del latín en el euskera.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Análisis de helenismos y latinismos frecuentes en el lenguaje científico, tecnológico y común actual.

2. Elaboración de familias de palabras en las que se perciba la evolución desde las lenguas clásicas a las lenguas románicas.

3. Reconocimiento de las principales lenguas románicas, especialmente de las habladas en la península Ibérica y de algunas de sus semejanzas y diferencias.

4. Identificación de algunos términos léxicos presentes en el euskera.

5. Establecimiento de relaciones semánticas entre cultismos y palabras patrimoniales y las palabras latinas originarias.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés por descubrir la presencia de términos grecolatinos en sus lenguas de uso como forma de percibir la influencia clásica en las mismas.

2. Valoración y respeto por las diferencias entre las lenguas y culturas procedentes del mundo clásico como manifestaciones de su propia evolución.

BLOQUE 2. ELEMENTOS FORMALES Y MECANISMOS DE FUNCIONAMIENTO DE LAS LENGUAS CLÁSICAS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Sistemas de escritura: Alfabetos griego y latino.

2. El latín y el griego como lenguas flexivas: comparación con otras lenguas de uso del alumnado. Nociones de caso y de declinación.

3. La flexión nominal, pronominal y verbal del latín.

4. Sintasi latindarraren berezko ezaugarri nagusiak.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. eta ikasleek erabiltzen dituzten hizkuntzen, batez ere euskararen, egitura morfosintaktikoen arteko analisi konparatua.

2. Jatorri latindarra eta grekoa duten aurrizki eta atzizkiak identifikatu, multzotan jarri eta horien bereizgarriak ematea.

3. Latinezko esaldi eta testu sinpleen itzulpena.

4. Inskripzio eta erliebe erromatar sinpleen irakurketa, itzulpena eta definizioa.

5. Ikasleak erabiltzen dituen hizkuntzetan jatorri latindar eta grekoa duten aurrizki eta atzizkiak identifikatu, multzotan jarri eta horien bereizgarriak ematea.

6. Alfabeto grekoko eta latindarreko elementuak antzematea.

7. Hiztegia eta latinari buruzko beste zenbait informazio-iturri erabiltzea.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Mundu grekolatindarrak mendebaldeko kulturari egin dizkion ekarpenen balorazioa.

2. Gaurko formetara iritsi arte, zenbait zeinuk, hitzek, etab. izan duen bilakaera (hitzen prozesu fonetikoak) ezagutzeko interesa edo jakinmina.

3. Latinaren egituren ezagutza baloratzea, ikasleek erabiltzen dituzten hizkuntzak hobeto ezagutzeko oinarri gisa.

3. MULTZOA. PENTSAMENDU GREKOLATINDARRA LITERATURAREN BITARTEZ: GAUR EGUN DUEN PRESENTZIA

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Literatur generoak:

– Gizarte grekoaren eta erromatarraren idealak epikan: Homero eta Virgilio.

– Sentimendu indibidualen sorrera eta garaipena: lirika Grezian eta Erroman. Ordezkari nagusiak.

– Tragedia pentsamenduaren eta mitoetako heroiengan hezurmamitzen diren giza arazoen eszenatoki gisa. Autorerik garrantzitsuenak.

– Politika eta bizitza pribatua Komedian. Autore nagusiak.

– Beste zenbait genero: Historia eta oratoria. Ordezkari nagusiak.

2. Pentsamenduaren gailurra: Filosofia.

– Mitotik Filosofiara: presokratikoak.

– Pentsalari greziar nagusiak: sofistak, Sokrates, Platon eta Aristotele.

– Etika Filosofian: estoizismoaren eta epikureismoaren garaipena Erroman.

– Filosofia grekoaren eta latindarraren eragina gaurko gizakiaren eta gizartearen ikuskeran.

4. Principales rasgos característicos de la sintaxis latina.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Análisis comparado de las estructuras morfosintácticas de la lengua latina con las de las lenguas de uso común del alumnado, especialmente con el euskera.

2. Identificación, agrupación y caracterización de prefijos y sufijos de origen latino y griego.

3. Traducción de frases y de textos sencillos latinos.

4. Lectura, traducción y definición de inscripciones y de relieves romanos sencillos.

5. Identificación, agrupación y caracterización de prefijos y sufijos de origen latino y griego utilizados en las lenguas de uso del alumno.

6. Reconocimiento de los elementos de los alfabetos griego y latino.

7. Utilización del diccionario y de otras fuentes de información sobre la lengua latina.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración de las aportaciones lingüísticas del mundo grecolatino a la cultura occidental.

2. Interés o curiosidad por conocer la evolución de (los procesos fonéticos de las palabras) algunos signos, palabras, etc. hasta llegar a su forma actual elementos.

3. Valoración del conocimiento de las estructuras de la lengua latina como la mejor base para conocer más reflexivamente la lenguas de uso del alumnado.

BLOQUE 3. EL PENSAMIENTO GRECOLATINO A TRAVÉS DE LA LITERATURA: SU PERVIVENCIA EN LA ACTUALIDAD

A) Contenidos Conceptuales:

1. Géneros literarios:

– Los ideales de la sociedad griega y romana en la épica: Homero y Virgilio.

– El surgir y el triunfo de los sentimientos individuales: La lírica en Grecia y en Roma . Principales representantes.

– La tragedia como escenario del pensamiento y los problemas humanos encarnados en los héroes y heroínas de los mitos. Autores más representativos.

– Política y vida privada en la Comedia. Principales autores.

– Otros géneros: Historia y oratoria. Principales representantes.

2. La culminación del pensamiento: La filosofía:

– Del mito a la Filosofía: los presocráticos.

– Principales pensadores griegos: los sofistas, Sócrates, Platón y Aristóteles.

– La ética en la Filosofía: triunfo del estoicismo y epicureísmo en Roma.

– Influencia de la Filosofía griega y latina en el concepto del ser humano y de la sociedad actuales.

3. Kultura grekolatindarraren transmisioa kultura arabiarraren eta kristautasunaren bitartez.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Estilo, literatur edo arte-genero, etab.en baten ebaluazio-prozesuen identifikazioa, analisia eta alderaketa.

2. Garai klasikoko edo gaurko zientzia, literatura, historia, etab.i buruzko testuak erabiltzea.

3. Testu klasiko garrantzitsuen irakurketa eta analisia.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Hizkuntza desberdinetako literatur generoen bilakaeran dauden desberdintasunen balorazioa kultur aberastasunaren adierazpen gisa.

2. Jarrera diskriminatzaileak adierazten dituzten literatur obra latindarren edo grekoen edukinaren aurrean jarrera kritikoa edukitzea.

3. Sentiberatasuna obra klasiko estetikoen aurrean, bere sormenezko elementuak eta ondorengo literatur adierazpenei egindako ekarpenak baloratuz.

4. Jarrera irekia joera literario, filosofiko, etab. berrien aurrean, gaurko gizartearen adierazpen gisa.

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Ikaslearen erabilerako hizkuntzetan termino grekolatindarrak identifikatzea etimologiaren eta eratorpenaren analisiaren bitartez, eta Europako hizkuntza desberdinetan antzeko terminoak aurkitzea. Latina eta grekera hizkuntza hauek ikasteko tresnatzat baloratzea.

Irizpide honek baloratu nahi duena Espainiako eta Europako hizkuntza gehienen jatorri grekolatindarra antzemateko ikasleak duen gaitasuna da, hizkuntza horien arteko hizkuntz elementu amankomunak identifikatuz, batez ere gaztelaniaren eta euskararen lexikoa eta funtsezko egiturak hizkuntza klasikoenekin alderatuz, eta hizkuntza hauen ikaskuntzarako latinak eta grekerak duten garrantzia aintzakotzat hartuz.

2. Kultur eremu desberdinetako testu latindarretako hitzak identifikatu eta aztertzea, testuinguru klasikoan eta gaur egungoan duten balioa alderatuz.

Irizpide honen helburua ikaslea, zientzia, filosofia, literatura, teknika, etab.en eremuko hitzak antzeman eta aztertzeko eta testuinguruen arabera duten balioa alderatzeko gai ote den egiaztatzea da.

3. Testu latindarren oinarrizko elementu eta egitura morfosintaktikoak aztertu eta ikasleak erabiltzen dituen hizkuntzenekin, euskararenekin batez ere, alderatzea, elementu haien iraupena edo bilakaera antzematen saiatuz.

Irizpide honen helburua zera egiaztatzea da, ikaslea latinezko hizkuntz elementuak eta egiturak aztertu eta ezagutzen dituen hizkuntzetan iraun duten edo beste batzuek ordezkatu dituzten ikusteko gai ote den, esakune eta egitura morfosintaktiko desberdinak aldera-

3. La transmisión de la cultura grecolatina a través de la cultura árabe y del cristianismo.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Identificación, análisis y comparación de procesos de evaluación seguido por algún estilo, género literario, artístico, etc.

2. Utilización de textos científicos, literarios, históricos, etc. de la época clásica o actuales como fuente de información.

3. Lectura y análisis de textos clásicos representativos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración de las diferencias existentes en la evolución de los géneros literarios en las distintas lenguas como manifestación de riqueza cultural.

2. Actitud crítica ante el contenido ideológico de las obras literarias latinas o griegas que manifiestan actitudes discriminatorias.

3. Sensibilidad ante realizaciones estéticas clásicas, valorando sus elementos creativos y sus aportaciones a posteriores manifestaciones literarias.

4. Actitud abierta frente a las nuevas tendencias literarias, filosóficas,. como expresión de la sociedad actual.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Identificar términos lingüísticos grecolatinos en las lenguas de uso del alumno/a, a través de análisis etimológicos y de derivación, y reconocer términos similares entre las diferentes lenguas europeas. Valorar el latín y el griego como instrumentos para el aprendizaje de estas lenguas

Este criterio trata de valorar la capacidad del alumno o alumna para reconocer el origen grecolatino de la mayoría de las lenguas de España y Europa, identificando los elementos lingüísticos comunes que existen entre ellas, comparando el léxico y las estructuras fundamentales de la lengua castellana y vasca, especialmente, con el de las lenguas clásicas, apreciando la importancia del latín y del griego para el aprendizaje de las mismas.

2. Identificar y analizar vocablos en textos latinos de diferentes ámbitos culturales comparando su valor en el contexto clásico y en el actual.

Este criterio va dirigido a comprobar si el alumno/a es capaz de reconocer y analizar vocablos del ámbito científico, filosófico, literario, técnico, etc. y comparar el valor que tienen en dependiendo de los contextos.

3. Analizar y comparar elementos y estructuras morfosintácticas básicas de textos latinos con otros en las lenguas de uso del alumno/a, especialmente en euskera, intentando percibir su pervivencia o evolución.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna analiza elementos y estructuras lingüísticas latinas y comprueba su pervivencia o sustitución por otras en las lenguas que conoce, comparando diferentes expresiones y estructuras morfosintácticas, especial-

tuz, batez ere latinetik urrutien dagoen euskararen kasuan.

4. Ikasleak erabiltzen dituen hizkuntzetan, lehenengo zailtasun-maila bati egokitutako latinezko esaldi eta testu laburrak interpretatu eta zuzen adieraztea, oinarrizko hiztegia erabiliz.

Irizpide honen bitartez, ikaslea, ahoz edo idatziz, oinarrizko egitura eta lexikoa duten latinezko esaldi eta testu laburretako mezua zuzen eta garbi adierazteko gai ote den egiaztatu nahi dugu.

5. Kultura klasikoko literatura, filosofia, etab.en eremuko adierazpen nagusiren bat identifikatzea, denboran eta espazioan kokatzea eta bere gaurkotasuna antzeman eta baloratzea.

Irizpide honek egiaztatu nahi duena ikaslea literatura edi filosofia klasikoko autore, obra, estilo, etab. bat ardatz kronologiko batean kokatu eta bere bilakaera eta iraupena gaur arte jarraitzeko gai ote den da.

6. Testu klasikoetan literatur genero desberdinen ezaugarri orokorrak antzematea, ikuskera mitologikoek eta gertakari historikoek bere sorreran izan zuten eragina ikusiz.

Irizpide honen bitartez egiaztatu nahi duguna zera da, ikasleak testuetan literatur generoen (lirikoa, epikoa, dramatikoa, oratoria eta historia) oinarrizko ezaugarriak eta literatur lanen sorreran interpretazio mitologikoek eta gertakari historikoek izan zuten garrantzia antzematen ote dituen.

7. Mundu klasikoko hizkuntz, literatur edo filosofi alderdiei buruz ikerketa-lan soilak planifikatu eta egitea, informazioa iturri dokumental desberdinetatik jasoz eta idatziz edo ahoz ateratako ondorioak adieraziz.

Irizpide honen bitartez zehaztu nahi duguna zera da, ikaslea, bakarka nahiz taldeka, eta iturri desberdinak erabiliz, hizkuntz, literatur edo filosofi alderdiei buruzko ikerketa-lan txiki bat planifikatu eta egiteko gai ote den eta, halaber, lanaren ondorioak ikaskideei ahoz edo idatziz nolabait antolatuta aurkeztuz eta oinarrizko ekarpenaz arrazoituz azaltzeko gai ote den.

8. Gaurko komunikabide, publizitate, literatura, etab.etan kultura klasikoari dagozkion helenismo eta latinismoak, kultismoak eta beste zenbait erreferentzien erabilera antzeman eta aztertzea.

Irizpide honen bitartez egiaztatu nahi duguna zera da, ikasleak gaurko eremu eta egoera desberdinetan (komunikabideak, publizitatea, literatur aipamenak, eguneroko bizitza...) helenismoak, latinismoak edo bestelako adierazpenak erabiltzen direla ikusten ote duen, gaur egun duten zentzua eta bere garaian zutena kontrastatzeko gai izanik.

mente en el caso del euskera como lengua más alejada del latín.

4. Interpretar y expresar correctamente en las lenguas de uso del alumno/a el contenido de frases y de pequeños textos en latín adecuados a un primer nivel de dificultad, utilizando un vocabulario básico.

Se pretende comprobar con este criterio si el alumno/a es capaz de expresar oralmente o por escrito, de forma correcta y clara el mensaje expresado en frases y pequeños textos latinos donde se utilizan estructuras y léxico básicos.

5. Identificar alguna de las principales manifestaciones literarias, filosóficas,... de la cultura clásica, situarla en el tiempo y en el espacio y reconocer y valorar su vigencia en la actualidad.

Este criterio pretende comprobar si el alumno/a es capaz de situar en un eje cronológico algún autor, obra, estilo,... de la literatura o filosofía clásicas y seguir su evolución y pervivencia hasta nuestros días.

6. Reconocer en los textos clásicos las características generales de los diferentes géneros literarios, percibiendo la influencia que las concepciones mitológicas y hechos históricos tuvieron en su creación.

Con este criterio se trata de comprobar si el alumno/a reconoce en los textos las características básicas de los géneros literarios (lírica, épica, dramática, oratoria e historia) y percibe la importancia que las interpretaciones mitológicas y los acontecimientos históricos tuvieron en la creación y en temática de las obras literarias.

7. Planificar y realizar sencillos trabajos de investigación sobre aspectos lingüísticos o literarios o filosóficos significativos del mundo clásico recogiendo información de diversas fuentes documentales y plasmando por escrito o transmitiendo oralmente las conclusiones obtenidas.

Con este criterio se pretende determinar si el alumno/a es capaz de planificar y realizar un pequeño trabajo de investigación, de forma individual o colectiva, utilizando fuentes diversas, sobre aspectos lingüísticos o literarios o filosóficos y si es capaz de exponer las conclusiones del trabajo de forma oral o escrita a sus compañeros con cierta organización en su presentación y razonando sus aportaciones básicas.

8. Reconocer y analizar la utilización de helenismos y latinismos, cultismos y otras referencias a la cultura clásica en los medios de comunicación, publicidad, literatura, etc. actuales.

Con este criterio se trata de comprobar si el alumno/a reconoce la utilización de helenismos, latinismos u otras expresiones en diferentes ámbitos y situaciones actuales (medios de comunicación, publicidad, referencias literarias, vida cotidiana,...), siendo capaz de contrastar el sentido que tienen en la actualidad con el que tenían en su momento.

II. ERANSKINA

KANTU KORALA

1.– SARRERA

Euskal musika funtzionala dela esan izan da: herriak, kantu bidez adierazten ditu bere ametsak eta kezkak.

Goiz Erdi Aroan melodiaz baliatu zen bere gerragogoak kanporatzeko (Beotibarko kantua, Alostorrea, Berterretxeren kantua, etab.); geroago, bake-garaian, herri horrek berak, lirismo handiko kantuez adierazi zituen bere sentimendu, poz eta mitoak (Goizean goizik, Xori kantatzailea, Jaun baruak eta beste hainbat); gaur egun azkenik, herriaren sakoneko kezkak adierazteko berriro ere kantura itzuli da.

Beraz, irudimenetik baino sentimentutik gehiago duen, esan nahi duena adierazteko diskurtsoa baino melodia erabiltzea nahiago duen herria izanik, lehenmailako tokia hartu du musika koralak gizartean. Era guztietako koruak dira gaur egun gure ikasleek (askotan musika-formazioko prozesu paralelotan inplikatutakoak direlarik) Euskal Herriko gizartean berez aurkitzen dituztenak.

Gizarte eta kulturaren aldetik duen balio ukaezin horrez gain, kantu koralak badu eskola-praktikarako guztiz gomendagarri bihurtzen duen beste alderdi pertsonal bat ere.

Baina zer ulertzen da zehazki kantu korala aipatzen denean? Kantu korala, musika koralaren a capella bertsio gisa ulertuta, abesbatzak eratzeko berariazko zereginetan oinarritzen da, non praktikan jartzeko aurrebaldintza bakarra pertsona-kopuru handi bat biltzea den. Kantu koralak musikarekin zuzeneko erlazioa ezartzen du, soinua/norbanakoa erlazioan duen hurbiltasuna dela-eta, edozein instrumentutatik independente eginik. Gorputza bera da bere barnetik sortzen duena, aldi berean jole eta erresonantzi kaxa izanik. Horregatik eman zaio tradizionalki prestakuntza-balio handia. Musika-instrumentu beraren pieza izateak lotzen dituen pertsonen talde gisa abesbatzak duen pisua horren indargarria da.

Egituraren arabera, konposizio koraltzat har dezakegu aldiberekotasuna azpimarratzen duen musika-obra, soinu-plano bakoitzaren nortasuna zaindu eta, aldi berean, osotasunaren soinu orekatua nabarmentzen duena. Interpretazioaren ikuspuntutik, koral terminoa, soinuaren plano bakoitza kontuan hartuz, neurri handi batean handia izan daitekeen talde baten esku-hartzea eskatzen duten musika-obrei aplikatzen zaie. Koral terminoa, beraz, ahotsen orekak egitura trinko eta homogeneoa osatzen duen musikaren aldi bereko dimentsioari dagokio.

Musikaren ikuskera honek etaparen helburu orokorretarako proposatutako gaitasunetako asko garatzen

ANEXO II

CANTO CORAL

1.– INTRODUCCIÓN

Se ha dicho que la musica vasca es funcional: el pueblo expresa sus fantasías y sus preocupaciones por medio del canto.

En la Alta Edad media se servirá de la melodía para exteriorizar sus afanes bélicos (Beotibarko kantua, Alostorrea, Berterretxeren kantua, etc.); más tarde, en tiempo de paz, ese mismo pueblo expresará en cantos de un alto lirismo sus sentimientos, sus alegrías y sus mitos (Goizean goizik, Xori kantatzailea, Jaun baruak, y tantos otros); en nuestros días, por fin, vuelve la canción como manifestación de las inquietudes profundas del pueblo.

De este modo, en un pueblo más dado al sentimiento que a la imaginación, en un pueblo que se expresa mejor por las melodías que por el discurso, han tomado una importancia social de primer orden las manifestaciones de música coral. Las agrupaciones corales de todo tipo son hoy en Euskal Herria un hecho social con el que nuestros alumnos, implicados muchos de ellos en procesos paralelos de formación musical, se encuentran de modo natural.

Además de este valor sociológico-cultural innegable, el canto coral tiene otra dimensión personal que lo sumamente recomendable para la práctica escolar.

Pero, exactamente, ¿qué se entiende por canto coral? El canto coral, entendido como la versión a capella de la música coral, se centra en las tareas específicas de la formación de coros, donde el único requisito previo para su puesta en práctica es el de reunir un grupo de personas. El canto coral establece una relación directa con la música debido a la proximidad en la relación sonido/individuo, haciéndola independiente de cualquier artificio instrumental. Es el propio cuerpo quien la produce desde su interior, que a la vez actúa como ejecutante y como caja de resonancia. De ahí el gran valor formativo que tradicionalmente se le atribuye. Refuerza esta opción el peso que adquiere el coro como grupo de personas cuyo vinculo es ser pieza de un mismo instrumento musical.

Atendiendo a la estructura, por composición coral puede entenderse una realización musical que pone el acento en lo simultáneo, que cuida la personalidad propia de cada plano sonoro y que, a la vez, resalta el sonido equilibrado del conjunto. Desde el punto de vista de la interpretación, se aplica el término coral a las realizaciones musicales que demandan el concurso de un grupo, más o menos amplio, en atención a cada uno de los diferentes planos sonoros en juego. El término coral, pues, alude directamente a la dimensión simultánea de la música en la que el equilibrio de las voces que la componen forma un entramado compacto y homogéneo.

Esta concepción de la música colabora al desarrollo de gran parte de las capacidades propuestas en los obje-

laguntzen du. Honela, norberaren gorputza ezagutu eta ulertzen lagundu behar du ahots nahiz instrumentu bidezko teknika garatuz, trebetasun hauen ikaskuntzan gorputz-funtzionamenduaren oinarrizko alderdi batzuek esku hartzen baitute, hala nola arnas kontrolatua kantuan edo koordinazio eta motrizitate fina instrumentuak erabiltzean. Aldi berean, arte-kodeen bitartez mezuak autonomiaz eta sormenaz interpretatzeak eta sortzeak musika-interpretazioari dagozkion ihardueretan garatzeko alor egokia aurkitzen du.

Irakasgaiaren izaera gehienbat praktikoa dela eta prozedurazko edukinen garrantzia kontuan hartuta, metodologiak aktiboa izan behar du eta, musika-esperientzia orotan bezala, osagai ludikoak eta gozamenezkoak hor egon behar du beti, ikasleen aukerako gaia dela kontuan hartuta batez ere. Era berean, prozeduren bitartez irakasten dira irakasgai honetan planteatzen diren bezalako musika-esperientzietarako ezinbesteko jarrerak.

Bizitza aktiborako eta heldutasunerako heziketak irakasgai honetan garatzeko bide egokia dauka, musika egitea ez ezik, komunikatzeko eta biltzeko ahalmen handia duen honelako iharduera batez denbora librea, aisia eta ingurunean eragiteko mekanismoak erabiltzen ikastea baita asmoa. Bestalde, autoestimazioaren eta harremanetarako gaitasunen garapenak iharduera honetan bitarteko ezin hobea dauka lantzeko, musika-proposamenak gauzatzeak musika-joleak bere ahalmenetan konfidantza handia edukitzea behar baitu.

Azkenik, hainbat garaitako melodiak eta mezuak berreskuratzen dituenez, mundu-mailako beste informazio-kanal batzuek lausotzeko joera duten tradizio propio batekoak izatearen sentimendu aktiboa ikasleengan sendotzeko ere, tresna paregabea da kantu korala.

Edonola ere, kontuan hartu beharko da irakatsi eta ikasteko prozesuan zehar baztertuta sentitzen den ikaslerik ez duela egon behar, egindako lanean denek gero eta konfidantza eta autonomia gehiago har dezaten saiatuz.

Osatzen den abesbatzaren tipologiari dagokionez, konbinazioen menpe dago: ahots berdinetako abesbatza eta ahots mistoetako abesbatza; ikastetxe batean eratzeko errazena hiru ahotsetako abesbatza mistoa da, emakumezkoek bi ahots eginez eta gizonezkoek bat.

Musika korala interpretazioari instrumentuak gaineratzearen ekarpen tinbrikoak aberastuko du. Bestalde, ahotsa/instrumentuak konbinazio anitzen bitartez instrumentuak erabiltzeak ekar litzakeen musika-emaitza interesgarriez gain, ikasgelaren antolamenduaren alor praktikoan gerta daitezkeen arazo puntualak konpon ditzake, adin horretan mutilek izaten duten ahots-aldaketak eragindakoak besteak beste. Irakaslea ahotsaren trataera teknikoan ziur sentitzen ez denean, oso egokia izaten da baliabide instrumentala trebetasunez erabiltzea.

tivos generales de la etapa. Así, debe contribuir al conocimiento y comprensión del propio cuerpo desde el desarrollo de la técnica, tanto vocal como instrumental, pues en la adquisición de estas destrezas se ven involucrados aspectos básicos del funcionamiento corporal como son la respiración controlada en el canto, o la coordinación y motricidad fina en el manejo de los instrumentos. A la vez, la interpretación y producción de mensajes con autonomía y creatividad, a través de la utilización de códigos artísticos, encuentra en las actividades de interpretación musical un eficaz campo para su desarrollo.

Teniendo presente la naturaleza preferentemente práctica de la materia y la importancia de los contenidos procedimentales, la metodología a seguir ha de ser activa y como en toda experiencia musical, el componente lúdico y de disfrute debe estar siempre presente, sobre todo teniendo en cuenta que se trata de una materia de libre elección por parte del alumnado. Asimismo, será a través de los procedimientos como se podrá inculcar aquellas actitudes que son imprescindibles en experiencias musicales del tipo de las planteadas en esta materia.

La educación para la iniciación a la vida activa y adulta tiene en esta materia una vía eficaz de desarrollo, puesto que no sólo se pretende hacer música, sino también aprender a utilizar el tiempo libre, el ocio y los mecanismos de influencia en el medio social del entorno a través de una actividad como ésta, de gran poder de comunicación y convocatoria. Por otra parte, el desarrollo de la autoestima y de las capacidades de relación ven en esta actividad un medio ideal para crecer, ya que la realización libre de propuestas musicales necesita que el intérprete posea una gran confianza en sus posibilidades.

Por último, el canto coral, porque recupera en su repertorio melodías y mensajes de diversas épocas, es un instrumento privilegiado para reforzar en los alumnos el sentimiento de pertenencia activa a una tradición propia que otros canales de información mundial tienden a diluir.

En cualquier caso, deberá tenerse en cuenta que durante el proceso de enseñanza-aprendizaje ningún alumno o alumna se sienta discriminado, intentando que todos vayan adquiriendo un grado cada vez mayor de confianza y autonomía en el trabajo realizado.

En cuanto a la tipología de coro que se forme está condicionada a combinaciones: coro a voces iguales y coro a voces mixtas; la que más fácilmente se puede formar en un centro es la de coro mixto a tres voces, donde las mujeres realizan dos voces y los hombres una.

La música coral se verá enriquecida por las aportaciones tímbricas de la incorporación de instrumentos a la interpretación. Además de los resultados musicalmente interesantes que la aportación de instrumentos puede proporcionar a través de las múltiples combinaciones voz/instrumentos, posee además la virtud de resolver problemas puntuales que pueden darse en el terreno práctico de organización en el aula, entre otros los derivados del cambio de voz de los chicos de esta edad. Cuando el profesor no se encuentre seguro en el tratamiento técnico de la voz, viene muy bien la utilización hábil del recurso instrumental.

Musikaren ikuskera koral batek, halaber, interpretatuko den soinu-materiala bilatzeari dagokionez ere lan egiteko aukera eman dezake. Lan hau soinu-manipulazioari lotutako alderdi guztietan oinarrituko litzateke (soinuak bilatzea, soinuaren trataera), egiturak sortuz eta interpretatuz.

Hautatutako errepertorioak hain ugaria eta anitza den euskal musika koralaren estilo desberdinak bildu behar ditu, musika-kultura horren doinuak, erritmoak eta formak jasoz.

Irakasgai hau ikasleak etaparen 1. edo 2. zikloan zehar hauta dezakeela kontuan hartu behar da; beraz, beharrezkoa da gai honetan landutako edukinek beste arlo batzuetako edukinekiko koherentzia gorde dezaten. Prozedurazko eta jarrerazko edukinei dagokienez, berberak dira bi zikloetan zehar, ikasleen ezagutza eta trebetasunei eta ikastetxearen eta taldearen antolamendu-ahalmenei egokitutako gero eta berariazkotasun eta konplexutasun handiagoa izanik.

Kontzeptuzko edukinei buruzko hausnarketa zehazkiago egin beharko da 2. zikloan, lehen zikloan ikasleen sormena eta prozedurazko eta jarrerazko ikaskuntzak antolamenduaren ardatz izanik.

Lehen esandakoaren zehaztapena taldean eginiko musika-interpretazioan eta teknika eta gaitasun egokiak eskuratzean gauzatzen da. Praktikara eramateko aukerak ikastetxe bakoitzaren baldintzen araberakoak dira, batez ere baliabide materialen eta irakasleen araberakoak.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Ikastetxeko eta ingurune hurbileko eguneroko bizitzan eragina izan dezaketen ihardun publikoak antolatu eta berauetan parte hartzea.

2. Musikaren bidez, Euskal Herriko historia eta tradizioak ezagutzea.

3. Isiltasuna soinua garatzen den eremu gisa eta eta interpretazio on baterako beharrezkotzat baloratzea.

4. Musika korala interpretatzea, euskal musika korala batez ere, teknika zehatzak piskanaka ikasteko interesa izanik.

5. Abesbatzen iharduneraren arauek eta erregelek duten garrantziaz jabetzea eta, talde bateko kide gisa, musikarekin eta kideekin hartzen den erantzukizuna onartzea.

6. Euskal Herrian eskaintzen diren musika-prestakuntzaren eskaintzak eta musika-adierazpenak ezagutzea, horietan integratzearren.

7. Euskal konpositore koral nagusiak ezagutzea, Anxietatik hasi eta Garbizu, Escudero eta gaur egungoetaraino.

Una concepción coral de la música también puede permitir un trabajo desde la tarea de búsqueda del material sonoro que se va a interpretar. Esto se centraría en todos los aspectos relacionados con la manipulación sonora (búsqueda de sonidos, tratamiento del sonido), con la creación de estructuras y con su interpretación.

El repertorio seleccionado debe recoger diferentes estilos de la música coral vasca , tan abundante y variada en los que se recojan melodías, ritmos y formas propios de esa cultura musical.

Hay que tener en cuenta que esta materia puede ser elegida por el alumno o alumna a lo largo del 1.º ó del 2.º ciclo de la etapa por lo tanto es necesario que los contenidos trabajados en esta materia guarden una coherencia con los contenidos de las otras áreas. En cuanto a los contenidos actitudinales y procedimentales son los mismos a lo largo de los dos ciclos, con un progresivo nivel de especificidad y complejidad adecuado a los conocimientos y destrezas del alumnado y a las posibilidades organizativas del centro y del propio grupo.

La reflexión sobre los contenidos conceptuales deberá abordarse de una forma más específica en el 2.º ciclo dejando que la creatividad del alumnado y los aprendizajes procedimentales y actitudinales sean los ejes organizadores en el primer ciclo.

La concreción de lo dicho anteriormente se realiza en la Interpretación musical en grupo y en la adquisición de técnicas y habilidades adecuadas. Las posibilidades de que se lleven a la práctica dependen de las condiciones particulares de cada centro, en especial de aquellas relativas a los recursos materiales y del profesorado.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Organizar actuaciones públicas, o participar en ellas, capaces de influir en la vida cotidiana del centro y en la de su entorno más próximo.

2. Conocer, a través de la música, la historia y tradiciones de Euskal Herria.

3. Valorar el silencio como el marco en el que se desarrolla el sonido y como necesario para una buena interpretación.

4. Interpretar música coral, especialmente música coral vasca, interesándose por adquirir un dominio progresivo de las técnicas específicas.

5. Ser consciente de la importancia que tienen las normas y reglas que rigen la actividad musical de conjunto y aceptar la responsabilidad que, como miembro de un grupo, se contrae con la música y con los compañeros.

6. Conocer la oferta de formación y manifestaciones musicales que se ofrecen en el País Vasco, con el fin de integrarse en ellas.

7. Conocer los principales compositores corales vascos desde Antxieta hasta Garbizu, Escudero y los contemporáneos.

8. Euskal folkloreko kantuak ezagutu eta jotzen jakitea (Maitia nun zire, Boga-Boga, Jeiki-Jeiki, etab.).

9. Gure musika tradizionalean dagoen ugaritasun dialektala, azaletik bada ere, ezagutzea.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. INTERPRETAZIO KORALA

Taldean musika interpretatzeak ikastetxeak aprobetxatu behar dituen inplikazio didaktikoak ditu. Musika korala interpretatzeari tradizionalki egotzi zaion musikaltasuna bere egiturak berak emandakoa da, interpretazio-ekintzaren elementu nagusia, hau da, edozein joaldiren oinarri gisa entzun/erantzun joko dialektikoa ardatz izatea eskatzen baitu. Ondorioz, multzo hau prozedurazkoa izango litzateke nagusiki.

Garrantzitsua da musika-errepertorioaren hautaketa on bat egitea; errepertorio horretan, gure gizarte osoko kulturari eta euskal musika koralari oso lotuta dagoen musika-ondarea ezagutu, ikasi eta gozatzeko aukera izango dugu.

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Euskal musika koralaren erritmo, melodia eta formen ezagutza.

2. Musika koralaren estilo desberdinak, jasoa, herrikoia, erlijiosoa, profanoa, etab. barne hartzen dituen errepertorioa ezagutzea.

3. Ahots-musikako formak historian zehar.

4. Ahots-soinua, artikulatua edo ez, eta bere komunikazio-asmoa.

5. Musika-adierazpeneko sistemak: konbentzionalak eta modernoak; oinarrizko elementuak musika-irakurketan.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Oroimena erabiltzea interpretazioaren printzipio gidari gisa.

2. Interpretazioa denboraren musika-esperientziaren adierazpen gisa isiltasuna, pultsua eta fraseatuaren barneraketaren bitartez.

3. Interpretazioa soinubakarrean.

4. Kantu polifonikoaren interpretazioa: bi eta hiru ahots.

5. Estilo desberdinen praktika:

– «A capella» eta instrumentu-akonpainamenduaz.
– Musika kultua: erlijiosoa eta profanoa, historikoa eta gaur egungoa.
– Musika herrikoia eta arina.

6. Errepertorio korala sortzea eta interpretatzea, batez ere euskal errepertorioa, behaketa eta analisi prozesuen ondorioz:

– Testuen sonorizatzea.
– Egituren bilaketa.
– Inprosibaziorako eskemak.

8. Conocer y saber ejecutar canciones del folkore vasco (Maitia nun zire, Boga-Boga, Jeiki-Jeiki, etc.)

9. Tener conocimiento, aunque sea somero, de la diversidad dialectal que se aprecia en nuestra música tradicional.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. INTERPRETACIÓN CORAL

La interpretación musical en grupo posee implicaciones didácticas que el centro debe aprovechar. La musicalidad que tradicionalmente se otorga al acto de interpretar música coral reside en la condición impuesta por su propia estructura, al exigir ser abordada desde el elemento primordial del acto interpretativo, es decir, desde el juego dialéctico escucha/respuesta como base de cualquier actividad de ejecución. De lo dicho se deduce que este bloque debe ser procedimental preferentemente.

Es importante hacer una buena selección del repertorio musical; en él se dará oportunidad de conocer, aprender y disfrutar de un patrimonio musical fuertemente vinculado al legado cultural de nuestra sociedad en general y del patrimonio músico-coral vasco.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Conocimiento de ritmos, melodías y formas de la música coral vasca.

2. Conocimiento de un repertorio que abarque los diferentes estilos de música coral: culta, popular, religiosa, profana.

3. Formas musicales vocales a lo largo de la historia.

4. El sonido vocal, articulado o no y su intención comunicativa.

5. Sistemas de representación musical: convencionales y modernos; elementos básicos en la lectura musical.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Ejercicio de la memoria como principio rector de la interpretación.

2. La interpretación como expresión de la experiencia musical del tiempo a través de la interiorización del silencio, el pulso y el fraseo.

3. Interpretación al unísono

4. Interpretación de canto polifónico: dos y tres voces

5. Práctica de diferentes estilos:

– «A capella» y con acompañamiento instrumental.
– Música culta: religiosa y profana, histórica y actual.
– Música popular y ligera.

6. Creación e interpretación de repertorio coral, especialmente repertorio vasco, como resultado de procesos de observación y análisis:

– Sonorización de textos.
– Búsqueda de estructuras.
– Esquemas para la improvisación.

– Musika-sormeneko lanak: musika fonetikoa, ausazkoa, zehatza.

7. Barne-entzumenaren garapena afinazioaren, ahots-kalitatearen eta talde osoaren soinu-kolorearen kontrol-elementu gisa.

8. Notazio-sistema konbentzionalaren eta modernoaren irakurketa.

9. Soinuak aztertzeko ohitura bultzatzea.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Euskal musika korala errespetatu eta baloratzea, Euskal Herriaren izaeraren kultur adierazpen eta isla gisa.

2. Interpretazio kolektiboari norbanakoak egindako ekarpena talde osoaren soinu egokia lortzeko beharrezkotzat jotzea.

3. Kantu koralean piskanaka ziurtasun pertsonala lortzea.

4. Isiltasuna interpretazioaren osagai gisa baloratzea.

5. Musika, eskolakideen arteko loturak sendotu eta gizartean txertatzeko elementu gisa baloratzea.

2. MULTZOA. AHOTS-TEKNIKA

Interpretazioaren zereginean dagoen norbanakoa/taldea harremanaren ondorioz, ikasleek entzuteko eta beren ahotsa erregistro-kideei, alde batetik, eta talde osoari, bestetik, egokitzeko jarrera dute. Beraz, interpretazioak taldea irakasgaiari behin-betiko zentzua emango dion iharduera burutzera bultzatuko du.

Garrantzitsua da arnasketa kontrolatuari eta ahotsari dagozkion trebetasunak eskuratzea. Horretarako, kantu koraleko iharduera oro arnasketa, emisio eta ahots-artikulazioaren ariketa batzuekin hasi beharko litzateke.

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Ahots-teknikaren oinarrizko elementuak: erlaxazioa, arnasketa, erresonantzia, emisioa eta artikulazioa.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Ahots-teknikaren oinarrizko elementuak praktikan sakontzea.

2. Gorputz-erlaxazioaren tekniken bitartez tentsioak ezabatzea.

3. Zuzendariaren ahots-eredua imitatu beharreko adibidetzat hartzea.

4. Ahots harmoniko desberdinez egindako grabaketak eta horietako bakoitzak lantzen duen eremua aztertzea.

5. Mugimendua interpretazioan esku hartzen duten elementuak, hau da, afinazioaren zehaztasuna, erritmoa, fraseatua eta ahots-teknikari dagozkion guztia barne-errepresentaziorako baliabidetzat erabiltzea.

C) Jarrerazko Edukinak:

– Trabajos de creación musical: música fonética, aleatoria, concreta.

7. Desarrollo de la audición interna , como elemento de control de la afinación, de la calidad vocal y del color sonoro del conjunto.

8. Práctica de la lectura de los sistemas de notación convencional y moderno.

9. Desarrollo de hábitos de observación de los fenómenos sonoros.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Respeto y valoración de la música coral vasca, como expresión cultural y reflejo de la forma de ser de Euskal Herria.

2. Valorar la aportación individual a la interpretación colectiva como necesaria para lograr un buen sonido del conjunto.

3. Adquisición progresiva de la seguridad personal en el ejercicio del canto coral.

4. Valoración del silencio como marco de la interpretación.

5. Valoración de la música como elemento de cohesión entre compañeros y de afirmación social.

BLOQUE 2. TÉCNICA VOCAL

La relación individuo/grupo que existe en la tarea musical de la interpretación hace que el alumnado tenga una actitud de escucha y adecuación de su voz a la del resto de los compañeros de registro por un lado y a la suma del conjunto por otro. Por lo tanto, la acción interpretativa llevará al grupo a configurar un proyecto de acción que dará sentido definitivo a la materia.

Es importante la adquisición de destrezas referentes a la respiración controlada y a la emisión de la voz. Para ello debiera iniciarse toda actividad de canto coral con unos ejercicios de respiración, emisión y articulación vocal

A) Contenidos Conceptuales:

1. Elementos básicos de la técnica vocal: relajación, respiración, resonancia, emisión y articulación.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Profundización en la práctica de los elementos básicos de la técnica vocal.

2. Eliminación de tensiones a través del dominio de técnicas de relajación corporal.

3. Utilización del ejemplo vocal del director como modelo a imitar.

4. Análisis de grabaciones con las distintas voces armónicas y el ámbito que desarrolla cada una de ellas.

5. Práctica del movimiento como recurso para la representación interior de los elementos que entran en juego en la interpretación: precisión en la afinación, el ritmo, el fraseo y todo lo relativo a la técnica vocal.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Kultura bokal egoki bati dagokion gorputz-higieneari dagozkion ohiturak hartzea.

2. Besteen ahots-ezaugarriak errespetatzea.

3. Erlaxazioa ahots-prestakuntzara igaro aurretiko urrats gisa baloratzea.

4. Gorputza bera instrumentua dela jabetzera daraman jarrera.

5. Ahots-garapenean aurrerapen pertsonalerako interesa.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Euskal tradizio koraleko oinarrizko obra batzuk ezagutzea, beren musika-ezaugarriak eta beren gizarte-esangura eta kultur balioa aztertuz.

Irizpide honen bitartez ikasleek euskal tradizio koralaren obra esanguratsuenetako batzuk ezagutzen ote dituzten baloratu nahi dugu; halaber, obra horien ezaugarri nagusiak (esku hartzen duten ahotsak, erritmo, doinu eta forma-ezaugarriak...), gizarte-zentzua (jatorria, baliagarritasuna eta gizarte-presentzia...) eta, era berean, errepertorio tradizional honen kultur balioa aztertzeko gai ote diren.

2. Interpretazio-estiloa eta baliabideak argi eta garbi azaltzen diren obra bat taldean planifikatu eta antolatzea.

Irizpide honen bitartez taldekide bakoitzak estilo jakin bakoitzari dagozkion interpretazio-baliabideak aplikatzeko izan duen partaidetza eta egin dituen ekarpenak ebaluatu nahi ditugu. Halaber, jarraitutako prozesuaren eta azken lanaren originaltasuna nahiz sormena baloratuko dira.

3. Zailtasun txikia edo ertaina duten obra homofonikoak irakurri ahala abestea, lengoaia konbentzionalak eta modernoak erabiliz.

Irizpide honen bitartez ikasleak lehen aldiz irakurtzean interpretazio on baterako beharrezkoak diren musika-lengoaiaren oinarrizko elementuak antzemateko duen gaitasuna ebaluatu nahi dugu.

4. Testu bat erritmo sinple bati egokitzea eta alderantziz.

Irizpide honen bitartez, testu edo erritmo-eskema jakin batean oinarrituz erritmoak azentuazio bereko hitzei edo esaldiei lotzeko ikasleak duen gaitasuna ebaluatu nahi dugu.

5. Denbora jakin batean musika-testu bat irakurri eta buruz ematea.

Irizpide honen bitartez, partitura bat ikusiz soinu-irudi melodiko-erritmikoak irudikatu, birsortu eta buruz emateko ikasleak duen gaitasuna ebaluatu nahi dugu.

6. Interpretazio koral orori ekin aurretik erlaxazioa, arnasketa eta afinazioa bezalako ariketak egitea, talde-interepretazio on baterako beharrezko elementutzat hartuz.

Irizpide honen helburua talde-interpretazioan kalitate egokia lortzeko beharrezkoak diren lan-ohiturak hartu ote dituen ebaluatu nahi dugu.

1. Adquisición de los hábitos de higiene corporal consecuentes con la asimilación de una cultura vocal sana.

2. Respeto a las características vocales de los demás.

3. Valoración de la relajación como paso previo para acceder a la preparación vocal.

4. Actitud consecuente con la toma de conciencia del propio cuerpo como instrumento.

5. Interés por el progreso personal en el desarrollo vocal.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Conocer algunas obras básicas de la tradición coral vasca, analizando sus características musicales, así como su significado social y su valor cultural.

Con este criterio se trata de valorar si los alumnos y alumnas conocen algunas de las obras corales más representativas de la tradición coral vasca, siendo capaces de analizar sus principales características musicales (voces que intervienen, características rítmicas, melódicas y de forma...), así como el sentido social de la misma (origen, utilidad y presencia social...) y su valor cultural en este repertorio tradicional.

2. Planificar y organizar una obra en grupo en la que aparezca de manera clara el estilo y los recursos interpretativos.

Con este criterio se quiere evaluar la participación y aportaciones de cada miembro del grupo para aplicar los recursos interpretativos adecuados a un determinado estilo. Se valorará también la originalidad y creatividad tanto del proceso seguido como del trabajo final.

3. Repentizar obras homofónicas de poca o mediana dificultad, utilizando lenguajes convencionales y modernos.

Con este criterio se pretende evaluar la capacidad del alumno y alumna para leer a primera vista los elementos básicos del lenguaje musical necesarios para una interpretación bien hecha.

4. Aplicar un texto a un ritmo sencillo y viceversa.

Con este criterio se pretende evaluar la capacidad del alumno y alumna para asociar ritmos con palabras o frases de igual acentuación a partir de un texto dado o de un esquema rítmico.

5. Leer en un tiempo dado un texto musical y reproducirlo de memoria.

Con este criterio se quiere evaluar la capacidad del alumno y alumna para imaginar, reproducir y memorizar imágenes sonoras de carácter melódico-rítmico a partir de la observación de la partitura.

6. Realizar los ejercicios previos a toda interpretación coral tales como la relajación, respiración y afinación como elementos necesarios previos a una buena interpretación de grupo.

Con este criterio se pretende evaluar la adquisición de hábitos de trabajo necesarios para obtener una calidad adecuada en la interpretación de conjunto.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. Gai hori ematea Musikako irakasleei egokituko zaie. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak Musika espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

MATEMATIKA EGUNEROKO BIZITZARAKO

1.– SARRERA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren ikasleak nerabezaroan sartzen dira, eta aro horretan pentsamendu logiko-formala sortu, eta gogoetarako gaitasuna (pentsamenduari buruz pentsatu) eta arrazoiketa hipotetiko-deduktiboa bereganatzen dute. Aldi horretan zehar, nortasuna finkatzen hasten da eta horren ondorioz interesak aniztu egiten dira, nork bere indibidualtasuna baieztatzeko nahiz berau bilatzeko. Irakasleak ikasle heterogenoak topatuko ditu ikasgelan, eta matematika-arloan izan duten esperientzia, gainera, ez dela beti emaitza onekoa izan konturatuko da. Eskola-erakundea ikasleari egokitu beharrean da irtenbideak bilatzean, eta esparru horretan kokatzen da, hain zuzen, «Matematika eguneroko bizitzarako» izena duen aukerako arloaren proposamena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen zikloko ikasleei eskainiko zaiena.

Jakintzagai honek, bere aukerako izaerari dagokionez, orokorrean ikasle guztiei zuzendutako derrigorrezko arloak baino interes zehatzagoak hartu behar ditu kontuan. Bere diseinuari ekiteko garaian, bi bide ikusten dira: jakintzagaiari dagozkion kontzeptuak gehiago garatzea edo jarrerei garrantzi handiagoa ematea matematika-ezagutzei ekiteko beste modu bat sustatuz. DBHren lehen zikloko ikasleei zuzendutako aukerako arloa denez, horrek suposatzen duen matematika-gaitasuna kontuan izanik, bigarren bidetik jo dugu. Asmoa hauxe da, matematika egiteko ikaslearen mundura hurbiltzea, bertan ikasleak dagoeneko eskuratutako matematika-ezagutzak topatzea, eremu desberdinetan erabiltzea: arazoak konpontzeko tresna gisa, komunikaziorako elementu gisa, etab., eta ezagutza horiei buruzko gogoeta bultzatzea (horien erabilera, eraketa, adierazpena, etab.); azken finean, matematika tresna gisa eta zientzia gisa baloratzeko jarrera positiboak eta errealistak garatzea da kontua, matematika egunero erabiltzeko sorkuntzazko jarrerak eta matematika-ezagutzaren ahalbideei eta ingurune fisiko eta kulturalarekin duen erlazioari buruzko gogoetazko jarrerak garatzea. Horretarako, matematika-edukinak ikaslearengandik gertu dauden hiru iharduera-eremutan (giza gorputza, kontsumoa eta kirol eta jokoak) ikastea proposatu da.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Canto coral).

1. Su impartición corresponderá a los profesores de Música, pudiendo impartirla también aquellos profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de Música.

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación Pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

MATEMÁTICAS PARA LA VIDA COTIDIANA

1.– INTRODUCCIÓN

Los alumnos y alumnas que estudian la Educación Secundaria Obligatoria entran en el periodo de la adolescencia, en el que nace el pensamiento lógico-formal, se adquiere la capacidad de la reflexión (pensar sobre el pensamiento) y la capacidad del razonamiento hipotético-deductivo. Durante este periodo, comienza la definición de la personalidad lo que implica una diversificación mayor de intereses, bien para afirmar la propia individualidad, bien para su búsqueda. El profesor se encontrará en el aula con un alumnado heterogéneo, cuya experiencia matemática, además, no siempre habrá resultado satisfactoria. Es la institución escolar la que debe adaptarse al alumno en la búsqueda de soluciones y en este marco, es donde se encuadra la propuesta de un área optativa que respondiendo al título de «Matemáticas para la vida cotidiana» se ofertará a los alumnos y alumnas del primer ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria.

Esta materia, en su carácter opcional, debe atender intereses más concretos que el área obligatoria, dirigida a la generalidad de los alumnos. A la hora de abordar su diseño se contemplan dos caminos: un mayor desarrollo conceptual de la materia o hacer una mayor incidencia en lo actitudinal promoviendo una manera distinta de abordar los conocimientos matemáticos. Al tratarse de un área opcional dirigida a los alumnos del primer ciclo de la ESO, con lo que ello supone de competencia matemática, se ha optado por la segunda vía. Se trata de acercarse al mundo del alumno a hacer matemáticas, encontrar allí los conocimientos matemáticos que el alumno ya posee, utilizarlos en distintos ámbitos: como herramienta para resolver problemas, como elemento de comunicación, etc., y propiciar la reflexión sobre ellos (su utilización, su construcción, su comunicación, etc.); en definitiva desarrollar actitudes positivas y realistas en cuanto a la valoración de las matemáticas como herramienta y como ciencia, actitudes creativas en lo que se refiere a su uso cotidiano y actitudes reflexivas sobre las posibilidades del conocimiento matemático y su relación con el medio físico y cultural. Para ello se propone estudiar los contenidos matemáticos presentes en tres ámbitos de actuación próximos al mundo del alumno: el cuerpo humano, el consumo y los deportes y juegos.

Ikaslearentzako, ikasiko diren matematika-ezagutzak ez dira berriak izango -hori ez baita asmoa-, ez eta abstrakzio-maila handikoak ere, asmoa hauxe baita: ikasleak bere eguneroko ingurunean batez ere matematika-arloko oinarrizko kontzeptuak eta egiturak erabil ditzan lortzea, bi helbururekin: ingurune horretan matematika-gaitasunaren maila sendotzea eta, horrekin, bertan (ikaslearen munduan) matematika-iharduerarako gune bat sortzea. Batetik, matematika-ezagutzei zentzua eta funtzionaltasuna aurkitu nahi zaie, testuinguru errealetan aplikatuz, eta, bestetik, errealitatea deskribatzeko eta bertan gerta daitezkeen arazoak konpontzeko tresna gisa matematikak gizartean duen presentzia agerian utzi nahi da. Kontua ez da derrigorrezko arloko ezagutzak berreskuratzea edo beste berri batzuk eskaintzea, ikasleak dituen matematika-ezagutzen hedadurari eta mugei buruzko gogoeta egiteko eta ezagutza horiek eskola-eremutik kanpo aplikatzeko gune baten sorkuntza ahalbidetzea baizik, ezagutza horiek egunero erabiltzeko behar den konfiantza horrela garatuko baitu.

Jakintzagai hau aukeratzen duten ikasleen artean maila eta kezka anitzak topatzea espero den arren, guztiak egongo dira interesatuta beren matematika-ezagutzak, urriak baldin badira ere, eguneroko ingurunean eraginkortasunez erabiltzen. Aniztasunari arreta eskaintzeko, maila desberdinetan aztertu eta konpon daitezkeen iharduerak proposatu behar dira, ikaslearen autoestimazioaren kaltetan izan beharrean matematika-arloan dituen gaitasunen irudi egokia eskainiz, gaitasun horiek sarritan erabiltzeko beharrezko segurtasuna emango baitio horrek. Aukerako arlo batean aniztasunari arreta eskaintzeko modu honek (arlo amankomunean baino zehaztapen-maila handiagokoa), nahitaez, taldean lan egitea eskatzen du, eraginkortasun-maila handiagoa lortzea helburu izanik, eta talde-lan hori ikasleen ezagutza-mailak ez ezik heldu dioten gaiaren inguruko motibazio eta interes-mailak zehazten du. Horrela, talde-lana bultzatzeaz gain, matematika-arloan prestakuntza-maila urria duten ikasleak jakintzagai honetara modu egokiagoan hurbil daitezen lortu nahi da, bai eta, hain formalista ez den ikuspegitik, prestakuntza-maila egokia duten ikasleak ere. Ikaslearen eguneroko ingurunean oinarrituta arazoak konpontzea edo ikerlanak egitea jakintzagaiaren alderdi praktikoagoa garatzeko eta biltzen dituen edukinei buruzko gogoeta egiteko asmoaren erantzuna dira.

Hala eta guztiz ere, Matematikaren ikaskuntzak jakintzagai hau zuzentzen zaien ikasleak zein garapenfasean dauden kontuan hartu behar du. Hala, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehen ziklorako, manipulazioan oinarrituta heldu nahi zaio Matematikari, egoera zehatzenetatik hasi eta ordura arte arloari dagokion irakaskuntza-sisteman aztertutako kontzeptu abstraktuenak berreraikitzeraino. Dena den, horrek ez dakar berekin zientziaren eta teknologiaren aurrerapenei ezikusia egitea, beharrezkotzat jo baita kalkulagailua eta ordenadorea bezalako elementu teknologikoak erabiltzea, beti ere horiek erabiltzeko dauden ahalbideen arabera, eta ikasleen ezagutzei eta garapen-mailari egokituta.

Los conocimientos matemáticos que se abordan no son nuevos para el alumnado, no es eso lo que se pretende, y tampoco son de un alto nivel de abstracción, lo que se pretende es fundamentalmente el uso de conceptos y estructuras matemáticas elementales en el entorno cotidiano del alumno con una doble finalidad, reforzar el nivel de competencia matemática en dicho entorno y, con ello, crear, allí (en el mundo del alumno) un espacio para la actividad matemática. Se quiere encontrar sentido y funcionalidad a los conocimientos matemáticos aplicándolos en contextos reales y poner de manifiesto la enorme presencia social de las matemáticas como instrumento para la descripción de la realidad y la resolución de problemas que en ella pudieran presentarse. No se trata de recuperar conocimientos del área obligatoria o proporcionar otros nuevos, sino de facilitar la creación un espacio para la reflexión sobre el alcance y los límites de los conocimientos matemáticos que se posean y su aplicabilidad fuera del ámbito escolar, desarrollando la confianza necesaria para su uso cotidiano.

Aun cuando cabe esperar diversidad de niveles e inquietudes en los alumnos que elijan esta materia, todos ellos estarán interesados en hacer un uso eficaz de sus conocimientos matemáticos, por escasos que estos sean, en su entorno cotidiano. La atención a la diversidad se debe contemplar proponiendo actividades que se puedan abordar y resolver a diferentes niveles, sin que esto suponga menoscabo de la autoestima del alumno, sino, por contra, proporcionándole una imagen ajustada de sus propias capacidades matemáticas que le aporte la seguridad que necesita para hacer uso habitual de ellas. Esta manera de atender a la diversidad en un área opcional, de mayor nivel de concreción que el área común, lleva inevitablemente, en aras a conseguir un grado adecuado de eficiencia, a la realización de trabajos en grupo, siendo estos determinados, no sólo por el nivel de conocimientos de los alumnos, si no, mejor, por el grado de motivación o interés sobre la materia tratada. Además de propiciar el trabajo en grupo, de esta manera, se pretende conseguir un mejor acercamiento a la materia de aquellos alumnos con una preparación matemática deficiente y otro punto de vista, menos formalista, para aquellos con preparación suficiente. La resolución de problemas o la realización de investigaciones enraizadas en el entorno cotidiano del alumnado, responde a este propósito además de desarrollar el aspecto mas practico de la materia y propiciar la reflexión sobre sus contenidos.

Ahora bien, esta forma de enfocar el estudio de las Matemáticas ha de contemplar el estadio de desarrollo en que se encuentran los alumnos y las alumnas a las que va dirigido. Así para el primer ciclo de la Educación Secundaria Obligatoria se propone abordar las Matemáticas desde la manipulación, desde las situaciones más concretas hasta la reconstrucción de los conceptos mas abstractos de los tratados hasta entonces en el sistema de enseñanza del área. No obstante, esto no implica dar la espalda a los avances científicos y tecnológicos, al contrario, se considera necesario hacer uso de elementos tecnológicos tales como la calculadora y el ordenador, en la medida de las posibilidades para su utilización, y adecuándolos a los conocimientos y grado de desarrollo de los alumnos y alumnas.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Unitate desberdinetan estimazioak eta neurketak egitea, horretarako, beste edozein tresna balitz bezala, gorputzaren dimentsioak erabiliz, neurriaren prozesuari, unitate-sistemei eta azken hauek komunitatean baliagarriak izateko hartu behar dituzten ezaugarriei buruz gogoeta eginez.

2. Giza gorputzaren ezaugarriei (dimentsioak, proportzioak, simetria, funtzionamenduaren eraginkortasuna, etab.) buruzko ideia zehatza izateko matematika erabiltzea eta matematika-ezagutzaren garapenean duen eraginaz gogoeta egitea (zenbaki-sistemak, neurri-sistemak, espazioa antolatzeko sistemak, etab.).

3. Eguneroko esparruan, kontsumotik, ekonomiatik, eta jolas eta kirol-iharduera batzuetatik sortutako arazoak konpontzeko nork bere estrategiak lantzea, beharrezko matematika-ezagutzak baloratuz, horien aurrean matematika-ihardueararako ohiturak hartuz, teknologiak eskaintzen dituen tresnak eraginkortasunez erabiliz (kalkulagailua, ordenadorea, etab.) eta matematikaren izaera instrumentala baloratuz.

4. Eguneroko esparruan, batez ere kontsumoari eta ekonomiari buruzko informazioaren tratamendua eraginkortasunez eta era antolatu batean aztertzea, dagozkion ezaugarriak behar bezala interpretatuz, matematika-arloko metodoak eta estrategiak erabiliz, eta arlo horretan nork berak dituen trebetasunak ondo ezagutuz, horrek emango baitie konfiantza eta segurtasuna matematikaren eguneroko erabileran, hain zuzen ere iritzi eta irizpide pertsonalak hartzea erraztearren.

5. Jolas eta kirol-ihardueretan agertzen diren matematika-ezagutzak ezagutu, baloratu eta horiekin gozatzea, sor daitezkeen egoerak aztertu, deskribatu, jakinarazi, etab.erako eta egoera horietan erabaki bat hartzeko garaian matematika erabiltzeko ohiturak garatuz.

6. Ohiko hizkuntzan matematika-arloko hitzak barneratzea eguneroko egoerak deskribatzeko, eta egoera horiek jakinarazi, kritikatu eta baloratzeko matematika-ezagutzak erabiltzeko ohitura hartzea.

7. Komunikabideetan agertzen diren matematika-izaerako datuak interpretatzea, eta albisteak ikuspegi kritiko batez aztertzeko eta ikerketa sinpleak egiteko erabiltzea.

3.– EDUKINAK

Edukinak hiru multzo handitan banatzen dira, eta ikaslearen eguneroko ingurunean matematika barneratu eta garatzeko oinarri gisa balioko dute. Edukin-multzoak lantzean, aztertu nahi diren matematika-arloko alderdiak kontuan hartu dira: zenbakizko kalkulua, oinarrizko geometria, estrategien lanketa eta eguneroko erabilera, informazioaren manipulazioa, etab. Matema-

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Realizar estimaciones y medidas en distintas unidades utilizando para ello, como una herramienta mas, las dimensiones del propio cuerpo, reflexionando sobre el proceso de la medida, los sistemas de unidades y las características que estos últimos deben tener para ser útiles a la comunidad.

2. Utilizar las matemáticas para hacerse una idea ajustada de las características del cuerpo humano (dimensiones, proporciones, simetría, eficacia de funcionamiento,...), y reflexionar sobre su influencia en el desarrollo del conocimiento matemático (sistemas de numeración , sistemas de medida, sistemas de ordenación del espacio,...).

3. Elaborar estrategias personales para la resolución de problemas derivados del consumo, la economía y otras actividades lúdicas y deportivas. en él ámbito cotidiano, valorando los conocimientos matemáticos necesarios, adquiriendo hábitos de actuación matemáticos ante los mismos, haciendo uso eficaz de las herramientas que proporciona la tecnología (calculadoras, ordenadores,...) y apreciando el carácter instrumental de las matemáticas.

4. Abordar eficaz y ordenadamente el tratamiento de la información dentro de su ámbito cotidiano, en especial de aquella que hace referencia al consumo y la economía, interpretando correctamente sus elementos característicos, haciendo uso de métodos y estrategias propios de las matemáticas y adquiriendo una idea ajustada de las propias habilidades matemáticas que le proporcione confianza y seguridad en su uso cotidiano con el fin de facilitar la adopción de juicios y criterios personales.

5. Conocer, apreciar y disfrutar los conocimientos matemáticos presentes en las actividades lúdicas y deportivas, desarrollando hábitos de utilización de las matemáticas para analizar, describir, comunicar,... las situaciones que se puedan presentar y en la toma de decisiones en las mismas.

6. Incorporar al lenguaje habitual términos matemáticos para describir situaciones cotidianas y adquirir el hábito de usar los conocimientos matemáticos para, comunicar, criticar y valora dichas situaciones.

7. Interpretar los datos de carácter matemático presentes en los medios de comunicación y utilizarlos para abordar de manera crítica las noticias y realizar investigaciones sencillas.

3.– CONTENIDOS

Los contenidos se agrupan en los tres grandes bloques que sirven de soporte para la introducción y desarrollo de las matemáticas en el entorno cotidiano del alumno. En la elaboración de los bloques de contenidos se ha tenido en cuenta los aspectos de las matemáticas que se quieren abordar: el cálculo numérico, la geometría elemental, la elaboración de estrategias y su uso

tikaren garapen-maila ikasle bakoitzaren araberakoa dela aipatu beharra dago, eta kontzeptuen abstrakzio-maila, hizkuntza-maila, etab. nork bere trebetasun-mailara egokitu behar da, matematika ikaslearen eguneroko ingurunean erabiltzeko ohitura bultzatu eta bere ikaskuntza, garapen eta erabilerari buruzko gogoeta piztu nahi dela ahaztu gabe. Denboran izango duten garapenari dagokionez, multzoak independenteak dira, eta ez da beharrezkoa horietako bat aurreratzea beste bietako edozeini heltzeko.

### 1. MULTZOA. GIZA GORPUTZAREN MATEMATIKA

Multzo honekin ikaslea matematika bere gorputzean oinarrituz ikasten hastea lortu nahi da. Pubertaroan ikaslearen gorputzean gertatzen diren aldaketa fisiologikoak multzo hau ikasteko erakargarriak izan daitezkeela uste dugu. Bi helbururi erantzun nahi zaie horrekin: begiratu batez distantziak ondo kalkulatzea eta espazioa gorputzaren dimentsioekin neurtzea; pertsona eta kultura desberdinen arteko komunikazioa erraztuko duten neurri-unitateen sistema ezartzearen beharra onartzea, merkataritza-iruzurrak eragotziz; giza gorputzaren fisiologiak matematika-kontzeptuen garapenean duen eragina behatzea, esaterako, zenbaki-sistema desberdinak, zenbakizko kalkulua giza gorputzaren ikuspegi berri bat ezartzeko erabiltzea, makina desberdinekin konparatuz, eta dimentsioei eta iraupenari dagokienez, egunerokotasunaren testuinguruan eta unibertso ezagunean kokatzea, eta forma geometriko naturaletan edo giza eraikuntzako formetan erlazio estetikoen deskribapenerako frakzioen erabilera ikertzea.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Giza gorputza neurri-eredu gisa:

– Unitate naturalak: pausuak, oinak, arrak, behatzak, taupadak, etab.

– Unitate naturalen alde onak eta txarrak.

– Neurri-sistemen bilakaera historian zehar. Nazioarteko Sistema Metrikoa.

– Giza gorputzaren zenbakiak: bihotzaren taupadak eta automobil bateko motorearen biraketak, birikek airea ponpatzeko duten gaitasuna, etab.

– Giza gorputza eta unibertsoa, magnitude-ordenak.

2. Giza gorputza eta zenbaki-sistema:

– Giza gorputzak zenbatzeko moduan duen eragina: behatzak, eskuak, oinak, etab.

– Zenbaki-sistema erromatarra.

– Zenbaki-sistema hamartarra.

– Beste zenbait zenbaki-sistema: bitarra, hexadezimala, hogei oinarria.

– Unitate eta azpiunitate naturalak, zatikizko zenbakiak.

cotidiano, la manipulación de la información, etc. Cabe señalar que el nivel de desarrollo matemático está en función de cada alumno, adaptando el grado de abstracción de los conceptos, el nivel de lenguaje, etc. al grado de dominio particular, sin perder de vista que se quiere propiciar el hábito de utilización de las matemáticas en el entorno cotidiano del alumno y una reflexión sobre su aprendizaje, desarrollo y uso. En lo que se refiere a su desarrollo temporal, los bloques son independientes, no siendo necesario el adelanto de uno de ellos para abordar cualquiera de los otros dos.

### BLOQUE 1. LAS MATEMÁTICAS DEL CUERPO HUMANO

Con este bloque se pretende introducir al alumnado en el estudio de las matemáticas desde su propio cuerpo. Suponemos que los cambios fisiológicos que se operan en el cuerpo del alumno durante la pubertad pueden hacer atractivo el estudio de este bloque. Responde a varios objetivos: calcular acertadamente distancias a simple vista y medir el espacio con las dimensiones del propio cuerpo.; reconocer la necesidad de establecer un sistema de unidades de medida que faciliten la comunicación entre distintas personas y culturas evitando fraudes en el comercio; observar la influencia de la fisiología del cuerpo humano en el desarrollo de conceptos matemáticos tales como los distintos sistemas de numeración, utilizar el cálculo numérico para, comparándolo con distintas máquinas, establecer una nueva visión del cuerpo humano y situarlo, en lo que se refiere a sus dimensiones y duración, en el contexto de lo cotidiano y el universo conocido, investigar la utilización de las fracciones para la descripción de relaciones estéticas en formas geométricas naturales o de construcción humana.

A) Contenidos Conceptuales:

1. El cuerpo humano como patrón de medida:

– Unidades naturales: pasos, pies, palmos, dedos, latidos,...

– Ventajas e inconvenientes de las unidades naturales.

– Evolución histórica de los sistemas de medidas. El Sistema Métrico Internacional.

– Los números del cuerpo humano: los latidos del corazón y las revoluciones del motor de un automóvil, la capacidad de bombeo de aire de los pulmones, etc.

– El cuerpo humano y el universo, órdenes de magnitud.

2. El cuerpo humano y el sistema de numeración:

– Influencia de forma del cuerpo humano en la forma de contar: dedos, manos, pies,...

– El sistema de numeración romano.

– El sistema de numeración decimal.

– Otros sistemas de numeración: binario, hexadecimal, de base veinte.

– Unidades y subunidades naturales, números fraccionarios.

3. Giza gorputzaren geometria:

– Giza gorputzaren simetria eta espazioaren antolamendua: ezker-eskuina, aurrea-atzea, goia-behea.

– Forma naturaletako urrezko zenbakia eta giza gorputzaren proportzioak.

B) Prozedurazko edukinak

– Lengoaia desberdinen erabilera

1. Unitate naturalak espazioa neurtzeko erabiltzea.

2. Zenbaki-sistema erromatarra erabiltzea.

– Algoritmoak eta trebetasunak

1. Unitate natural desberdinen arteko bihurketa.

2. Unitate naturalak Nazioarteko Neurri Sistemara transformatzea.

3. Datak eta ordinalak zenbaki-sistema erromatarrean adieraztea.

4. Erregelaz eta konpasaz urrezko proportzioak esku hartuko duen irudiak egitea (laukizuzena, pentagonoa, bost puntako izarra, etab.).

– Estrategia orokorrak

1. Unitate natural desberdinak neurriaren magnitudearen arabera aukeratzea.

2. Gorputza neurriak hartzeko erabiltzea.

3. Datuak zenbatzeko nork bere estrategiak lantzea.

4. Nork bere estrategiak lantzea estimazio baliagarriak ondorioztatzea ahalbidetuko duten gutxi gorabeherako kalkuluak egiteko.

C) Jarrerazko edukinak

– Matematika baloratzeko erreferenteak

1. Objektu, espazio edo iraunaldien neurriak hartu edo estimatzeko prest egotea.

2. Beharren arabera neurri-sistema desberdinen erabilera behatu eta baloratzea.

3. Asmoaren eta motibazio estetikoen arabera zenbaki-sistema desberdinen erabilera baloratzea.

4. Giza gorputzaren fisiologiak zenbaki-sistema desberdinen sorkuntzan izan duen eragina aitortzea.

5. Matematika-kontzeptuen jatorria eta espazioa antolatzeko eran giza gorputzaren fisiologiaren, ingurune fisikoaren eta kulturaren eragina ikertzeko jakinmina eta interesa erakustea.

6. Naturan agertzen diren eta urrezko zenbakiek esku hartzen duten irudien estetika baloratzea.

– Lan-antolamendurako eta ohiturarako erreferenteak

1. Erabiltzen diren unitateetan neurrien emaitza adierazteko ohitura hartzea.

2. Neurriak aldez aurretik estimatzea eta emaitzak esperotakoen arabera sistematikoki berrikustea.

3. La geometría del cuerpo humano:

– La simetría del cuerpo humano y la ordenación del espacio: izquierda-derecha, delante-detrás, arriba-abajo.

– El número áureo en las formas naturales y las proporciones del cuerpo humano.

B) Contenidos Procedimentales:

– Utilización de diversos lenguajes.

1. Utilización de unidades naturales para la medida del espacio.

2. Uso del sistema de numeración romano.

– Algoritmos y destrezas.

1. Conversión entre distintas unidades naturales.

2. Transformación de unidades naturales al Sistema Internacional de Medidas.

3. Expresión de fechas y ordinales en el sistema de numeración romano.

4. Construcción con regla y compás de figuras en las que intervenga la proporción áurea (rectángulo, pentágono, estrella de cinco puntas,...).

– Estrategias generales.

1. Selección de las distintas unidades naturales en función del magnitud de la medida.

2. Utilización del propio cuerpo para la realización de medidas.

3. Elaboración de estrategias personales para el recuento de datos.

4. Confección de estrategias personales para la realización de cálculos aproximados que permitan inferir estimaciones útiles.

C) Contenidos Actitudinales:

– Referentes al aprecio de las matemáticas

1. Disposición a realizar o estimar medidas de objetos espacios o duraciones.

2. Observación y valoración del uso de los distintos sistemas de medidas según las necesidades.

3. Valoración del uso de distintos sistemas de numeración en función del propósito a que se destinen y motivaciones estéticas.

4. Reconocimiento de la influencia de la fisiología del cuerpo humano en la creación de los distintos sistemas de numeración.

5. Curiosidad e interés por investigar el origen de los conceptos matemáticos elementales y la influencia de la fisiología del cuerpo humano, el medio físico y la cultura en la forma de ordenar el espacio.

6. Aprecio de la estética de las figuras construidas con intervención del número áureo y su aparición en la naturaleza.

– Referentes a la organización y hábitos de trabajo.

1. Hábito de expresar el resultado de las medidas en las unidades que se utilizan.

2. Estimación previa de medidas y revisión sistemática de los resultados en función de los esperados.

3. Estimazioa eta gutxi gorabeherako zenbakizko kalkulua sarritan erabiltzea.

2. MULTZOA. MATEMATIKA KONTSUMOAN

Multzo honen asmoa matematika nabarmenen agertzen den arloan, hau da, kontsumoan erabiltzea da. Ikaslea fakturak interpretatzen eta eratzen hastea; testuinguru desberdinetan banaketen arazoei irtenbidea ematea; aurrekontuak egitea (horretarako beharrezkoa izanik aurreko edukinak nolabait menperatzea) eta matematika gastua razionalizatzeko erabiltzea. Algebrizazio-mailan, lehentasunezkoa izango da nork berak dituen ezagutzen bidez eguneroko arazoak konpontzeko trebatzea; hala, arazoen konponbiderako metodoetan eraginkortasuna eta argitasuna bilatzeak lehentasuna izango du matematika-teknika edo lengoaia aurreratuen erabileraren gainetik.

Multzo honetako edukinen izaerak zehar-lerroen tratamendua errazten du, beste edozeinek baino gehiago beharbada, ikerketa-iharduerak edo lanak egingo baitira, esaterako, kontsumorako ohiturak ingurugiroan, osasunean, edo aisian duen eraginari, baliabideen erabilera razionalari, etab. buruz.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Fakturak interpretatu eta eratzea:

– Etxean ohizkoak diren fakturak: gasa, elektrizitatea, telefonoa, etab.

– Bestelako fakturak: BEZa, deskontuak, gainordainak, etab.

2. Aurrekontuak, gastuen (ekonomikoak, energiarenak, etab.) kontrola eta optimizazioa.

3. Banaketa proportzionalak.

B) Prozedurazko edukinak

– Lengoaia desberdinen erabilera:

1. Fakturei buruzko informazioak interpretatu eta adierazteko hiztegi egokia erabiltzea.

2. Banaketa-arazoak, planteatu diren terminoak eta horiek konpontzeko erabilitako prozesua eta kalkuluak ahoz adieraztea.

3. Matematika-arloko kodeak erabiltzen dituzten komunikabideetan kontsumoari buruz agertzen diren datuak interpretatu eta erabiltzea.

– Algoritmoak eta trebetasunak

1. Faktura baten zenbatekoa kalkulatzea, produktuaren eta salerosketako baldintzen arabera.

2. Ikaslearen eguneroko ingurunean (familiar, sozial edo indibiduala) aurrekontuak eta kontsumoari buruzko azterlanak egitea.

3. Banaketa-arazoak konpontzeko nork bere estrategiak eratu eta erabiltzea.

4. Kontsumoari buruzko kalkuluak egiteko kalkulagailua edo horretarako beste tresna batzuk erabiltzea.

3. Uso habitual de estimación y el cálculo numérico aproximado.

BLOQUE 2. LAS MATEMÁTICAS DEL CONSUMO

Este bloque pretende la utilización de las matemáticas donde mas evidente parece, en el mundo del consumo. Se pretende que los alumnos y alumnas se acerquen a la interpretación y confección de facturas; la resolución de problemas de repartos en diferentes contextos; la elaboración de presupuestos (para lo que será necesario cierta soltura en los contenidos anteriores) y la utilización de las matemáticas para la racionalización del gasto. En el grado de algebraización lo primordial será la capacitación para la resolución de problemas cotidianos con los conocimientos propios; así, la búsqueda de eficacia y claridad en los métodos de resolución, prevalecerán sobre el uso de técnicas o lenguajes matemáticos mas avanzados.

El carácter de los contenidos de este bloque facilita, quizá más que ningún otro, el tratamiento de las líneas transversales, realizando actividades o trabajos de investigación sobre, por ejemplo, la incidencia de los hábitos de consumo en el medio ambiente, la salud, o el ocio, la utilización racional de los recursos, etc.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Interpretación y confección de facturas:

– Facturas habituales en el hogar: gas, electricidad, teléfono,...

– Otro tipo de facturas: el I.V.A., descuentos, recargos, etc.

2. Presupuestos, control y optimización de gastos (económicos, energéticos,...).

3. Repartos proporcionales.

B) Contenidos Procedimentales:

– Utilización de diversos lenguajes.

1. Utilización del vocabulario adecuado para interpretar y trasmitir informaciones relativas a facturas.

2. Formulación oral de problemas de reparto, de los términos en los que se plantean y del proceso y cálculos utilizados para resolverlos.

3. Interpretación y utilización de los datos relativos al consumo presentes en los medios de comunicación que utilicen códigos matemáticos

– Algoritmos y destrezas.

1. Cálculo del importe de una factura en función del producto y las condiciones compra o venta.

2. Elaboración de presupuestos y estudios de consumo en el entorno cotidiano del alumno tanto familiar, como social o individual.

3. Construcción y utilización de estrategias personales para la resolución de problemas de reparto.

4. Utilización de la calculadora u otros instrumentos de cálculo para la realización de cálculos relacionados con el consumo.

– Estrategia orokorrak

1. Fakturetan agertzen diren termino desberdinak eta horien artean dauden matematika-erlazioak identifikatzea, errazago ulertzearren.

2. Zenbatekoak banatu behar diren egoerak justiziaz eta berdintasunez konpontzeko nork bere estrategiak lantzea.

3. Kontsumorako ohiturek baliabide desberdinen erabileran duten eragina ebaluatzea.

C) Jarrerazko edukinak

– Matematika baloratzeko erreferenteak

1. Gastuaren optimizazio handiagoa lortzeko matematikaren erabilera baloratzea.

2. Kontsumoari buruzko arazoei aurre egiteko eta konpontzeko nork berak dituen ahalbideetan konfiantza izatea.

– Lan-antolamendurako eta ohiturarako erreferenteak

1. Nork bere ekonomiari, etxekoari edo sozialari buruzko arazoak konpontzean malgua, iraunkorra eta saiatua izatea.

2. Ekonomi egoerei lotutako kalkuluen emaitzak sistematikoki berrikusteko prest egotea.

3. Kontsumoari eta ekonomiari lotutako dokumentuetan agertzen diren datuen aurkezpen antolatua eta argia baloratzea.

### 3. MULTZOA. MATEMATIKA KIROLETAN ETA JOKOETAN

Hemen, geometria, estatistika eta probabilitatearloko matematika-kontzeptuen sarrerarako eta azterketa aplikaturako ezagunenak diren kirolak eta jokoak erabili nahi dira. Intuizioaren bidez usteak adieraztea eta logikaren bidez uste horiek kritikatzea lan-metodo aproposena izango da oraingo honetan; matematikaren ikasketaren oinarri den kirolak interes handia pizten du ikasleengan eta hori izango da bide onena abstrakzio-maila jakin bateko matematika-kontzeptuak barneratzeko eta erabiltzeko. Hemen, aurreko multzoetan bezala, manualizaziora joko da egoerak zailtasun berezko eta abstrakzio-maila handiko matematika-kontzeptuak erabiltzea eskatzen duenean; hala, saskibaloian taularako jaurtiketari buruzko gaiari heltzen zaionean, kartulina gainean moztutako profil parabolikoak erabiliko dira baloiaren ibilbidea aztertzeko.

Azkenik, aipatu beharra dago hemen informazioaren hornitzaile gisa eta aztergai gisa komunikabideek, albisteak irakurri eta interpretatzean jarrera kritikoa garatuz, eta matematikak helburu horretarako hartzen duten garrantzia.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Kiroletako zenbakiak:

– Saskibaloiko estatistikak.

– Estrategias generales.

1. Identificación de los diferentes términos que intervienen en las facturas y las relaciones matemáticas que entre ellos existen para facilitar su comprensión.

2. Elaboración de estrategias personales para resolver, con justicia y ecuanimidad, situaciones de reparto de cantidades.

3. Evaluación de la incidencia de los hábitos de consumo en la utilización de los distintos recursos.

C) Contenidos Actitudinales:

– Referentes al aprecio de las matemáticas

1. Aprecio del uso de las matemáticas para conseguir una mejor optimización del gasto.

2. Confianza en las propias posibilidades para afrontar y resolver problemas relacionados con el consumo.

– Referentes a la organización y hábitos de trabajo.

1. Flexibilidad, tenacidad y perseverancia para resolver problemas relacionados con la economía personal, doméstica o social.

2. Disposición favorable a la revisión sistemática de los resultados de los cálculos ligados a situaciones económicas.

3. Sensibilidad y aprecio de la presentación ordenada y clara de los datos que intervienen en documentos relacionados con el consumo o la economía.

### BLOQUE 3. LAS MATEMÁTICAS EN EL DEPORTE Y LOS JUEGOS

Se pretende aquí la utilización de los deportes y juegos mas populares para la introducción y el estudio aplicado de conceptos matemáticos de índole geométrico, estadístico y probabilístico. El establecimiento de conjeturas mediante la intuición y la crítica de las mismas mediante la lógica será más que nunca el método de trabajo apropiado; el interés de los alumnos por el deporte que soporta el estudio matemático será la mejor realización para la introducción y el uso de conceptos matemáticos de cierto grado de abstracción. Aquí, como en los bloques anteriores se recurrirá a la manualización cuando la situación requiera la utilización de conceptos matemáticos de mayor nivel de abstracción que presenten especial dificultad, así cuando se trate el tema de tiro con tablero en baloncesto, por ejemplo, se recurrirá a la utilización de perfiles parabólicos recortados sobre cartulina para el estudio de la trayectoria del balón.

Por último, cabe señalar la importancia que adquieren aquí los medios de comunicación, tanto como proveedores de información como objeto de estudio desarrollando una postura crítica en la lectura e interpretación de las noticias y la relevancia que las matemáticas adquieren para tal fin.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Los números del deporte:

– Estadísticas en baloncesto.

– Bizikletaren garapenak.
– Ligako lehiaketen zenbakiak (partidu-kopuruen kalkulua, puntuazio-sistemak eta helburu jakin batzuk lortzeko beharrezkoak diren puntuen estimazioa, etab.)

2. Geometria kiroletan eta jokoetan:

– Jaurtiketako angelua fulbolean.
– Jaurtiketa saskibaloian (tapoiak, gakoak, taularen kontrako jaurtiketa, etab.).
– Bilarreko bandaren kontrako jaurtiketako angelua.
– Irudi geometrikoak taldeko kiroletako jokalarien banaketa estrategikoan (futbola, saskibaloia, etab.).

3. Matematika jokoetan:

– Kartetan probabilitateen estimazioa egin ondoren erabakiak hartzea.
– Xakeko ohar-sistemak.
– Barkuen jokoa: koordenaden sistema, jokorako estrategiak.
– Musean talde-jokoak duen garrantzia (jokaldi negatiboen probabilitateen bariazioa keinu bidez, iharduerarako estrategiak).
– Briskan talde-jokoak antolamenduan eta erabakiak hartzeko garaian duen garrantzia.

B) Prozedurazko edukinak

– Lengoaia desberdinen erabilera

– Jokalarien eraginkortasuna deskribatzeko datu estatistikoak erabiltzea.
– Espazioko jarrerak deskribatzeko kodeak erabiltzea.
– Keinu bidezko kodeak komunikatzeko erabiltzea.

– Lengoaia geometrikoa banaketa espazialak deskribatzeko erabiltzea.
– Matematika-arloko kodeak erabiltzen dituzten komunikabideetan joko eta kirol-iharduerei buruz agertzen diren datuak interpretatu eta erabiltzea.

– Algoritmoak eta trebetasunak

– Bizikletaren aurrerapena kalkulatzea, plateraren eta pinoien hortzen kopuruaren arabera.
– Jarrera eta jokaldi jakin batzuen eraginkortasuna deskribatu eta estimatzeko geometri arloko ezagutzak erabiltzea.
– Talde bakoitzak jokatu behar dituen partiduen kopurua, lehiaketako ihardunaldien kopurua, etab. zenbatzea, ligako lehiaketa-sisteman parte hartzen duten taldeen arabera.
– Sailkapen jakin bat lortzeko beharrezkoak diren puntuen kopurua estimatzea.
– Zorizko jokoetan jokaldi bakoitzak berekin dakarren arriskua ebaluatzea.

– Estrategia orokorrak

– Objektuek espazioan hartzen duten jarrera deskribatzeko estrategiak lantzea.
– Geometri arloko ezagutzak joko-arauen arabera kirol-egoerak kritikatzeko erabiltzea.

– Lehiaketa batean konbinazio posibleak kalkulatzeko estrategiak sortzea.

– Los desarrollos de la bicicleta.
– Los números en las competiciones ligeras (cálculo del número de partidos, sistemas de puntuación y estimación de puntos necesarios para conseguir ciertos objetivos,...).

2. La geometría en el deporte y juegos:

– El ángulo de tiro en el fútbol.
– El tiro en baloncesto (tapones, ganchos, tiro contra tablero,...).
– El ángulo de tiro contra la banda en el villar.

– Figuras geométricas en la distribución estratégica de jugadores en deportes de conjunto (fútbol, baloncesto,...)

3. Las matemáticas en los juegos:

– Toma de decisiones tras la estimación de probabilidades en los juegos de naipes.
– Sistemas de notación en ajedrez.
– El juego de los barcos: sistemas de coordenadas, estrategias de juego.
– La importancia de juego en equipo en el mus (variación de las probabilidades de jugadas negativas mediante las señas, estrategias de actuación).
– La importancia del juego en equipo en la brisca organización y toma de decisiones.

B) Contenidos Procedimentales:

– Utilización de diversos lenguajes.

– Utilización de los datos estadísticos para describir la eficacia de los jugadores.
– Uso de códigos para la descripción de posiciones en el espacio.
– Empleo de códigos gestuales para la comunicación.
– Manejo del lenguaje geométrico para la descripción de distribuciones espaciales.
– Interpretación y utilización de los datos sobre actividades lúdico-deportivas presentes en los medios de comunicación que utilicen códigos matemáticos.

– Algoritmos y destrezas.

– Cálculo del avance de la bicicleta en función del número de dientes del plato y el piñón.
– Utilización de conocimientos geométricos para describir y estimar la eficacia de determinadas posiciones y jugadas.
– Recuento del número de partidos que debe afronta cada equipo, el número de jornadas de la competición, etc. en función de los equipos que participan en un sistema de competición ligero.
– Estimación del número de puntos necesarios para conseguir una determinada clasificación.
– Evaluación del riesgo que entraña cada jugada en los juegos de azar.

– Estrategias generales.

– Elaboración de estrategias para la descripción de las posiciones que ocupan los objetos en el espacio.
– Aplicación de los conocimientos geométrico para la crítica de situaciones deportivas en función de las reglas de juego.
– Producción de estrategias para el cálculo de combinaciones posibles en una competición.

– Jokorako estrategiak arriskuaren arabera prestatzea.
– Jokorako estrategiak taldean garatzea.

C) Jarrerazko edukinak

– Matematikak baloratzeko erreferenteak

– Geometri arloko ezagutzak kirolarekin zerikusia duten egoerak aipatu, kritikatu eta ebaluatzeko baloratzea.
– Zoriak esku hartzen duen egoerak baloratzeko datu estatistikoen baliagarritasuna.

– Lan-antolamendurako eta ohiturarako erreferenteak
– Zoriak esku hartzen duen egoerak kuantifikatzean datu estatistikoak erabiltzeko ohitura hartzea.

– Kirolen eta jokoen eremuan geometri arloko ezagutzak erabiltzeko ohitura hartzea.
– Talde-lana antolatzen ihardutea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Giza gorputza ondo ezagutzea, dimentsio, iraupen, eraginkortasun, etab.i dagokienez, eta beste organismo bizidunekin, naturako objektuekin eta gizakiak fabrikatutako tresnekin konparatzea.

Animalia batzuekin konparatuz nork bere gorputzaren tamaina, iraupena eta eraginkortasuna ondo ezagutzeko matematika erabiltzea (esaterako, indarra eta gorputzaren pisuaren eta altxa dezakeen pisuaren arteko erlazioa neurtzeko asmoz koefiziente bat ezartzea, eta inurri batentzako eta pertsona batentzako koefiziente horrek duen balioa estimatzea); gizakiak eraikitako makinekin alderatuz gorputzeko bizi-organoen (bihotza, birikak, muskuluak, etab.) eraginkortasuna eta fidagarritasuna ezagutzeko, eta objektu astronomikoekin alderatuz bere tamaina ezagutzeko (esaterako, eraikin batek zenbat solairu izan beharko lituzkeen kalkulatzea ilargia teilatuaren gain-gainetik pasatzeko), etab.

2. Iharduera-eremu desberdinetan informazioa lortzeko, neurrietako eta kalkuluetako estimazioek duten garrantzia baloratzea eta horiek erabiltzeko ohitura hartzea, gutxi gorabeherako neurketa eta kalkulurako estrategiak landuz eta hasierako datuak, horien transformazioa eta lortutako azken emaitzak kritikoki baloratuz.

Aurreko eta ondorengo irizpideekin bat etorriz, kalkulu estimatiboak egiteak duen balioa ezagutzea da asmoa, bai eta horiek iharduera-eremu desberdinetan erabiltzeko ohitura hartzea ere (bonbila baten energi kontsumoa pezetatan kalkulatzea, astea igarotzeko behar den dirua estimatzea, etab.).

3. Zehaztapen-maila desberdinekin espazioan neurriak hartzeko gorputza erabiltzea, horretarako neurketa, transformazio eta emaitzen adierazpen-estrategiak nork berak landuz.

Irizpide honen asmoa hauxe da, gorputza luzerak neurtzeko erreminta bat dela konturatzea, neurri «naturalen» unitate-sistema bat garatzea (oinak, pausuak, behatzak, etab.), neurriak hartzeko eta emaitzak jakinarazteko sistema horren fidagarritasuna aztertzea, eta neurri naturalen unitate horiek nazioarteko sistema

– Preparación de estrategias de juego en función del riesgo.
– Desarrollo de estrategias de juego en equipo.

C) Contenidos Actitudinales:

– Referentes al aprecio de las matemáticas.

– Valoración de los conocimientos geométricos para comentar, criticar y evaluar situaciones relacionadas con el deporte.
– Aprecio de los datos estadístico para la valoración de situaciones relacionadas con el zar.

– Referentes a la organización y hábitos de trabajo.

– Costumbre de la utilización de datos estadísticos para cuantificar situaciones en las que interviene el azar.
– Hábito de utilizar los conocimientos geométricos en el ámbito de los deportes y juegos.
– Práctica de organización del trabajo en grupo.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Hacerse una idea ajustada del cuerpo humano en lo que se refiere a sus dimensiones, duración, eficacia, etc. comparándolo con otros organismos vivos, objetos de la naturaleza o artefactos de fabricación humana.

Se trata de utilizar las matemáticas para hacerse una imagen ajustada del tamaño, duración y eficacia del propio cuerpo en comparación con el de otros animales (establecer, por ejemplo, un coeficiente que pretenda medir la fuerza, relación entre el peso del cuerpo y el peso que puede levantar, y estimar el valor de dicho coeficiente para una hormiga y para una persona); la eficacia y fiabilidad de los órganos vitales del mismo en relación con las máquinas de construcción humana (el corazón, los pulmones, los músculos,...), el tamaño en relación con objetos astronómicos (calculando, por ejemplo, cuantos pisos tendría que tener un edificio para que la luna pasara rozando su tejado)..., etc.

2. Apreciar el valor de las estimaciones en las medidas y los cálculos para la obtención de información en distintos ámbitos de actuación y adquirir el hábito para su uso, elaborando estrategias de medida y cálculo aproximado y valorando críticamente los datos iniciales, su transformación y los resultados finales obtenidos.

En consonancia con el criterio anterior y los siguientes se trata de apreciar el valor de los realización de cálculos estimativos y adquirir el habito para su uso en distintos ámbitos de actuación (cálculo en pesetas del consumo energético de una bombilla, estimación de las necesidades monetarias para la semana,...)

3. Utilizar el propio cuerpo para la realización de medidas espaciales con distinto grado de precisión, elaborando para ello estrategias personales de mediada, transformación y comunicación de resultados.

Se trata de descubrir en el propio cuerpo una herramienta de medida de longitudes, desarrollar un sistema de unidades de medida «naturales» (pies, pasos, dedos, etc.), analizar la fiabilidad del mismo tanto para obtención de medidas como para la comunicación de resultados y establecer estrategias de tras formación de estas

metrikora transformatzeko estrategiak ezartzea, datuen neurketa eta transformazio-prozesuan zehaztasuna baloratuz.

4. Naturak, eta bereziki giza gorputzak, matematika-arloko ezagutzen sorkuntzan eta garapenean duen eragina eta kulturaren beste eremu batzuetan ezagutza horiek duten islada aztertzea.

Irizpide honen bidez ikasleak matematikaren eta garatzen den ingurune fisiko eta kulturalaren artean kausa-ondorio motako erlazioak ezartzeko duen gaitasuna neurtu nahi da. Ikasleak, adibidez, erabilera–asmoaren, kultur eta teknologi baldintzen, etab. arabera numerazio-sistema desberdinak erabiltzera bultzatu duen arrazoia jakin behar du.

5. Matematika ekonomiari eta kontsumoari lotutako eguneroko egoeretan erabiltzea, horiekin zerikusia duten arazoak konpontzeko estrategiak landuz eta ohizko hizkuntzan matematika-arloko terminoak barneratuz.

Eguneroko egoeretan, hau da, fakturak interpretatu eta eratzeko, banaketa-arazoak konpontzeko edo aurrekontuak egiteko matematikaren erabilera ebaluatu nahi da.

6. Kirolarekin eta jokoekin zerikusia duten egoerak deskribatzeko ohizko hizkuntzan matematika-arloko terminoak barneratzea, eta egoera horiek kritikatu eta ebaluatzeko eta horietan erabakiak hartzeko matematika-arloko ezagutzak erabiltzeko ohitura hartzea.

Irizpide honen bidez kiroletan matematikaren erabilera eraginkorra ote den ebaluatu nahi da, eraginkortasunari eta zehaztasunari dagokienez komunikazioa aberasteko elementua, eta kiroletako egoerak ikuspegi kritiko batez baloratzeko edo horietan erabakiak hartzeko tresna baita.

7. Matematika-kodeak erabiltzen dituzten komunikabideetan agertzen diren datuak identifikatu eta erabiltzea.

Irizpide honen bidez ikasleak albisteetan agertzen diren matematika-arloko elementuak behar bezala interpretatzeko eta horiek ikerlan txikietarako erabiltzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Matematikaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak «Matematika» espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

unidades de medida naturales al sistema métrico internacional, valorando la exactitud en el proceso de medida y transformación de datos.

4. Analizar la influencia de la naturaleza, en particular el propio cuerpo, con la creación y desarrollo, de los conocimientos matemáticos y el reflejo de los mismos en otros ámbitos de la cultura.

Con este criterio se pretende medir la capacidad del alumno para establecer relaciones de tipo causa-efecto entre las matemáticas y el medio físico y cultural en el que se desarrollan. El alumno debe descubrir, por ejemplo, los motivos para la utilización de los distintos sistemas de numeración en función del propósito para su uso, los condicionantes culturales, tecnológicos, etc.

5. Usar las matemáticas en relación con la economía y el consumo en situaciones cotidianas, elaborando estrategias de resolución de problemas relacionados con ellos e incorporando al lenguaje habitual los términos que en ellas intervienen.

Se pretende evaluar el uso de las matemáticas en situaciones cotidianas para interpretar o elaborar facturas, resolver problemas de reparto o realizar presupuestos.

6. Incorporar al lenguaje habitual términos matemáticos para describir situaciones relacionadas con el deporte y los juegos y adquirir el hábito de usar los conocimientos matemáticos para criticar y valora dichas situaciones y en la toma de decisiones en las mismas.

La eficacia en el uso de las matemáticas en el deporte es lo que se pretende evaluar, tanto como elemento enriquecedor de la comunicación en lo que se refiere a eficacia y rigor como herramienta para la valoración crítica de situaciones deportivas o toma de decisiones en las mismas

7. Identificar y utilizar los datos presentes en los medios de comunicación que hacen uso de códigos matemáticos.

Se pretende evaluar la capacidad del alumno para interpretar correctamente los elementos matemáticos presentes en las noticias y utilizarlos para la realización de pequeñas investigaciones.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Matemáticas para la vida cotidiana)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Área de Matemáticas, pudiendo impartirla además los profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de «Matemáticas».

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

ELIKADURAKO ETA ELIKADURA-OHITURETARAKO NAHIZ OREKARAKO TAILERRA

1.– SARRERA

Euskal Herrian elikadura garrantzi handia duen gaia da, bai kulturaren ikuspegitik eta bai produkzioarenetik, sukaldaritza pertsonarteko harremanekin eta harreman sozial eta ekonomikoekin sakonki lotuta baitago.

Euskal Herriak, baliabide naturalei dagokienez txiroa izan arren, elikaduraren ingurruan kultura berezia garatzen jakin izan du. Eta, nazioarteko banaketa-katea ahalguztidunei esker, elikadurak mundu-mailan berdintzeko joera duen garai honetan, komeni da gure ikasleek gure kulturaren alderdi hau ezagutzea: ezagutza horrek gainera, bera hobeto egoten lagunduko dio.

Gizakiaren elikadurak pertsonen arteko eta elikagaien arteko harreman-multzo bat barneratzen ditu (bere manipulaziotik eta asimilazio fisiologikotik, hauek kontsumitzerakoan dituen jarrera, portaera edo gizarte ohituretaraino) eta hau dela eta, elikagai-premiak gizabanakoen bizimoduari eta inguruari estuki lotuta daude.

Azken finean arrainari (alderdi guztietatik begiratuta) ematen zaion tratamenduak, Euskal Herrian bizitza ulertzeko moduari buruz hitz egiten digu; eta seguraski, beste kultura batzuetakoa ez bezalakoa izango da. Baina tratamendu hori, herriko sektore handi baten iraganeko eta gaur egungo historiaren laburbilduma da, eta gainera, kontsumitzaileari, hau da, ikasleari (berau baita unitate honen azken helburua), elikatzeko portaera-eredu interesgarriak eskaintzen dizkio.

Osasun ona izatea ahalbidetzen duen dieta egoki bat jarraitzeko heziketa, elkarri oso loturik dauden alderdien arteko orekan oinarritzen da:

1. Zenbait elikagairen ingestioak (batez ere kopuru handiak) eta gaixotasun batzuekin edo produktu fitosanitario, abono edo medikamentuen balizko ondorioekin izan dezakeen harremanari buruzko informazioa;

2. estetikagatiko kezka;

3. sukaldaritzako erritoak, ohiturak eta azturak, bereziki Euskal Herrikoak;

4. bizi-mailen aldaketa eta elikatzeko baliabideak, eta:

5. bizi izandako hezkuntza eta gizarteratze-prozesuak.

Bizitzaren garai honetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, psikikoek eta harreman-mailakoek, nerabeak duen gorputzaren pertzepzioan eta irudian eragina du. Horregatik nerabezaroa prozesu gisa eta geure buruarekin gozatzeko moduak (beste batzuen artean janariaren gozamena) hobeto ulertzeak, erabaki helduagoak eta libreagoak hartzea ahalbiduko du.

Norberaren autonomiaren garapena ez da zientziarekiko edo medikuntzarekiko fede itsuarekin bateragarria. Zientzia etengabe aldatzen ari da eta gainera, definizioz, ez da betierekoa, behin-behinekoa baizik. Gure erabakiek (beste batzuen artean elikadurari buruzkoek)

TALLER DE ALIMENTACIÓN, HÁBITOS Y EQUILIBRIO ALIMENTARIO

1.– INTRODUCCIÓN

En el Pais Vasco la alimentación es un tema clave tanto desde el punto de vista cultural como del productivo, estando profundamente enraizado lo culinario con las relaciones entre las personas, a nivel personal, social y económico.

El País Vasco, aunque pobre en recursos naturales, ha sabido desarrollar una cultura singular en torno a la alimentación. Y conviene, en un tiempo en que, gracias a poderosas cadenas de distribución internacionales, la alimentación tiende a homogeneizarse a nivel mundial, reivindicar el conocimiento por nuestros alumnos de esta faceta de nuestra cultura: conocimiento que contribuirá, en última instancia, a su propio bienestar.

Y es que la alimentación de la especie humana comprende un conjunto de relaciones entre las personas y los alimentos (desde su manipulación y asimilación fisiológica, hasta las actitudes, comportamientos o costumbres sociales a la hora de consumir,) por las que las necesidades nutritivas aparecen estrechamente ligadas con la forma de vida de los individuos y su entorno.

Está claro, en este sentido, que el tratamiento que se da al pescado en todas sus facetas nos habla de una forma de entender la vida en el País Vasco que, seguramente, difiere a la existente en alguna otra cultura; pero ese tratamiento es al mismo tiempo un compendio de la historia pasada y actual de un buen sector del pueblo, y, por fin, comprende pautas de comportamiento nutritivo interesantes para el consumidor, es decir para el alumno, objeto ultimo de esta unidad.

Una educación para llevar una dieta adecuada que nos permita disfrutar de buena salud, se basa en el equilibrio entre aspectos íntimamente relacionados:

1. la información correcta sobre la relación entre la ingestión de ciertos alimentos (sobre todo en cantidades excesivas) y algunas enfermedades o los posibles efectos de productos fitosanitarios, abonos o medicamentos;

2. la preocupación por la estética;

3. los ritos, tradiciones y costumbres culinarias, especialmente en el Pais Vasco

4. los cambios de nivel de vida y la disponibilidad de alimentos) y;

5. el proceso educativo y de socialización vivido.

Los cambios físicos, psíquicos y relacionales producidos en este periodo de la vida, influyen en la percepción del cuerpo y de la imagen de la persona adolescente. Por eso una mejor comprensión de la adolescencia como proceso y de las formas de disfrutar de nosotras mismas, (entre las que está el placer de la comida), permitirá la toma de decisiones más responsables y más libres.

El desarrollo de la autonomía personal no es compatible con una fe ciega en la ciencia o la medicina. Porque además de que la ciencia cambia constantemente, ya que por definición, no es eterna sino provisional, nuestras decisiones (entre otras las relativas a la alimen-

geure pertsonaren ezagutza gero eta sakonagoan ere oinarritu behar dute.

Dietetika pertsona guztien eta bereziki gazteen bizipen-inguruan eguneroko ogia da: aldizkariak, komunikabideak, lagun-taldeko elkarrizketak gai honen inguruan sarritan iharduten dira. Honekin batera, elikadura-teknologia irakaskuntzaren maila desberdinetan sartzen joan da pixkanaka.

Askotan, pertsonek (irakasleek, osasun-langileek edo gourmet-ek, etab.) janariaren inguruan jarrera moralizatzaileak hartzen dituzte: ongi edo gaizki dagoena, ona edo txarra dena epaitzeko joera dago, behar eta gustu desberdinak izateaz gain, pertsonak adina aukera egon daitezkeela kontuan izan gabe. Irizpide moralen aniztasun hau gero eta beharrezkoagoa da elikadurarekin eta elikagaien kontsumoarekin zerikusi duten gaietan. Honekin batera, baita planteamendu pertsonalak gizarteak nahiz kulturak onartutako portaerak aberasten dituzten irizpide zientifikoekin aberastekoa ere.

Pertsonak maila psikologikoan janariarekin izan ohi duen maitasun-gorroto harremanak, eta honen bidez norbere irudia eta familiako nahiz gizarte-harremanak kontrolatzeak gero eta ugariagoak diren elikadura-portaeren nahasteak zergatik agertzen diren ulertzen laguntzen du, adibidez anorexia eta bulimia nerbiosoa edo gainingestio konpultsiboa gaixotasun ezagunak.

Horrela, gaur egun nagusitzen den edertasun-ereduaren arabera, pertsonak bizitzan arrakasta izateko ahalik eta argalena izan behar du: eredu estetikoa patologietara gero eta arrisku gehiagoz hurbiltzen da. Datu estatistikoek nerabezaroan dauden nesken portzentaia altu batek elikadura-portaeretan nahaste larri bat jasaten duela esaten digute; eta indize hauek gora doaz gaixotasun hauek hobe ezagutzen diren neurrian. Euskal Autonomi Erkidegoan, zehazki, elikadura-arazoak bezalako gaixotasunen nagusitasuna honela zenbatzen da: anorexia nerbiosoa 700 eta 775 kasu artean ( 14 eta 18 urte bitarteko emakume gazte guztien %1) eta bulimia nerbiosoa 5 eta 7500 kasu artean (14 eta 65 urte bitarteko euskal emakume guztien %1).

Horregatik, elikaduraren gaia joera globalizatzaile batekin, hau da, aukerazko jakintzagai hau jarreraren eta portaeraren ikuspegitik aztertzeko beharra nahiko justifikatuta dago. «zer jan hura izan» esaldia honela berridatzi dezakegu: «jan nahi dugunaren eta jan behar dugunaren arteko erabaki askoren emaitza gara».

Jakintzagai honekin, giza elikaduraren oinarrizko alderdiak ezagutzea nahi da, honela orokorrean elikaduraren kultura deitzen den horri buruzko gogoeta ahalbidetuz eta elikadura-ohituren autoanalisia egin ahal izateko. Horretarako, jarrerazko edukinen ardatzetik zer, nola eta noiz jan behar den erakusteko egoerak proposatzen dira, bereziki euskal kulturaren inguruan elikagaiekin duen harremanean norberaren auto-ezagutza handiagoa bultzatuz, janarien eta edarien ingestioa gizarte-harremanei oso lotua baitago.

tación), tienen que basarse también, en un conocimiento cada vez mayor de nosotras mismas como personas.

La dietética está a la orden del día en el entorno vivencial de las todas las personas y especialmente de las jóvenes: revistas y medios de comunicación y conversaciones en el grupo de amistades giran frecuentemente sobre estos temas. Junto a ello la tecnología alimentaria se ha ido introduciendo paulatinamente en los distintos niveles de enseñanza.

Muchas veces las personas (profesorado, personal sanitario o gourmets, etc.) adoptan posturas moralizantes en torno a la comida: se tiende a juzgar lo que está bien o está mal, lo que es bueno o es malo, sin tener en cuenta que, además de la diferencia de necesidades y gustos, puede haber tantas opciones como personas diferentes. Esta diversidad de criterios morales se ve cada vez más necesaria en los temas relacionados con la nutrición y el consumo de alimentos. Y paralelamente un mayor enriquecimiento de los planteamientos personales con criterios científicos, que enriquezcan los comportamientos social y culturalmente aceptados.

La relación de amor-odio que a nivel psicológico mantiene la persona con la comida, así como el control a través de ella de la propia imagen y de las relaciones familiares y sociales, ayuda a entender la aparición de trastornos de los comportamientos alimentarios, cada vez más extendidos, como son las enfermedades conocidas como la anorexia y la bulimia nerviosas o la sobreingesta compulsiva.

Así mismo el modelo de belleza imperante hoy en día, dice principalmente a las mujeres, que la persona para triunfar en la vida, tiene que estar lo más delgada posible: aproximándose peligrosamente el ideal estético cada vez más a la patología. Los datos estadísticos indican que entre las jóvenes adolescentes un alto porcentaje sufre algún trastorno grave de su comportamiento alimentario; y los índices aumentan según se conoce más a fondo estas enfermedades. Concretamente en la Comunidad Autónoma Vasca la prevalencia probable de enfermedades como los trastornos alimentarios se cifran entre 700 y 775 casos para la anorexia nerviosa (un 1% del total de las mujeres adolescentes entre 14 y 18 años) y entre 5 y 7500 casos para la bulimia nervisosa (que corresponde al 1% del total de mujeres vascas de entre 14 y 65 años).

Por todo ello, la necesidad de abordar el tema de la alimentación con una tendencia globalizadora, desde el eje actitudinal y comportamental de esta materia optativa, queda ampliamente justificada. La frase «somos lo que comemos» podemos reescribirla como: «somos el resultado de muchas decisiones entre el qué queremos y qué debemos comer».

Con la materia se pretende un acercamiento a los aspectos básicos de la alimentación humana, posibilitando una reflexión sobre la cultura alimentaria en general, sirviendo para el autoanálisis de los hábitos alimentarios. Para ello se hace una propuesta de situaciones de aprendizaje del qué, cómo y cuándo comer, desde el eje actitudinal, favoreciendo un mayor auto-conocimiento de si misma, en su relación con los alimentos, y especialmente en el medio cultural vasco, ya que la ingesta de comida y bebida está íntimamanete ligada a las relaciones sociales

Nagusiki talde-dinamiken tekniketan oinarritutako iharduerak, bere osasuna (fisikoa, psikikoa eta soziala) zaintzea eta hobetzea ahalbidetuko dioten erabakiak hartzen laguntzera zuzenduta egongo dira, erabaki hauen azpian dauden balioen sailkapena eta bere orientazio etikoaren analisia bultzatuz, norberaren balio etikoekin jokabide koherenteak izatera bultzatuz.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Elikadurarekin eta hauen gaur egungo arazoekin zerikusia duten alderdiak analizatzea, euskal egoeraren aipamen berezia eginez eta parte hartzen duten faktoreak, pentsona eta/edo taldeen jarrerak nahiz beren oinarri diren balioak ezagutuz, iritzi kritiko eta pertsonala egiteko eta konponbide desberdinak bilatzerakoan aukera pertsonalak eta jarrera solidarioak izatea ahalbidetzeko.

2. Pertsonaren, familiaren eta gizartearen orekara daramaten egoerak eta pertsonen arteko eta elikagaiekiko gero eta harreman orekatuago eta osasuntsuagoetara nahiz errespetuzkoago eta toleranteagoetara aurrerapausuak emateko aldaketa egokiak faboratzen dituzten baldintzak identifikatzea.

3. Ahal den neurrian azalpen zientifikoetan oinarritzen diren balio, jarrera eta arauetara zuzendutako elikadura-ohiturak garatzea, tradizioak transmititu ohi dituen ikuskera fatalistak eta magikoak aldatuz.

4. Munduko beste eskualde batzuetako edo gure inguruko pertsonen elikadura-arazoekin zerikusi duten kanpainak antolatzen dituzten edo haietan lan egiten duten Euskal Herriko taldeekiko lankidetza, beste pertsona eta herriekiko elkartasunaren balioa irudikatzeko forma gisa baloratzea.

5. Euskal Herrian presentzia duten komunikabideek elikadurari buruzko erabakietan eragina izateko edo hartzera bultzatzeko erabiltzen dituzten adierazpideak analizatzea, nagusiki elikagaiak konpultsiboki erostera eta kontsumitzera bultzatzen duten komunikabideen mezuak kritikoki uler daitezen saiatuz.

6. Elikagaiak izatea eta hauek erraz lortzeko aukera izatea hauek kontsumitzeko erabakiorra dela ulertzea, garatutako zonetako etxeetako egoera inguruko, beste zona geografiko batzuetako edo munduko beste eskualde batzuetakoenarekin alderatuz.

7. Gainerako pertsonekiko harremanak, nork bere burua ezagutzeko nahiz autoestimazioa eta norberaren gorputzarekiko nahiz besteenarekiko errespetua gehitzeko bide erabilgarri gisa ulertzea, gizabanakoarengan, kideek eta taldeek izan dezaketen eragina analizatuz.

Las actividades, fundamentalmente basadas en técnicas de dinámica de grupos, se orientarán a ayudar a tomar decisiones que le permitan cuidar y favorecer su salud, (física, psíquica y socialmente), favoreciendo la clarificación de los valores subyacentes a esas decisiones y el análisis de su orientación ética, fomentando la adopción de conductas coherentes con los valores éticos propios.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Analizar los aspectos relacionados con la alimentación y su problemática actual, con referencia explícita a la situación vasca, reconociendo los factores que intervienen y las posturas de personas y/o grupos, así como los valores en que se sustentan, para formarse un juicio crítico y personal y posibilitar la adopción de opciones personales y posturas solidarias en la búsqueda de diferentes soluciones.

2. Identificar las situaciones que conducen al desequilibrio personal, familiar y social, y las condiciones que favorecen los cambios adecuados para avanzar hacia unas relaciones entre personas y con los alimentos, cada vez más equilibradas y sanas, más respetuosas y tolerantes.

3. Desarrollar hábitos alimentarios orientados por valores, actitudes y normas basados, en la medida de lo posible, en explicaciones científicas, modificando las concepciones fatalistas y mágicas que suelen transmitirse tradicionalmente.

4. Valorar la colaboración con grupos del Pais Vasco que trabajan u organizan campañas relacionadas con los problemas de alimentación en otras regiones del mundo o incluso para personas de nuestro entorno próximo, como forma de plasmar el valor de la solidaridad con otras personas y pueblos.

5. Analizar las formas de expresión que los medios de comunicación presentes en el Pais Vasco utilizan para crear e influir en las decisiones alimentarias, buscando una compresión crítica de los mensajes de los medios de comunicación, fundamentalmente los orientados a la compra y el consumo compulsivo de los mismos.

6. Entender que la disponibilidad de alimentos y el acceso fácil a los mismos es un factor determinante para su consumo, comparando la situación de los hogares de las zonas denominadas desarrolladas con otras zonas geográficas, del entorno próximo y de otras regiones del mundo.

7. Entender las relaciones con las demás personas, como un medio útil para conocerse a sí misma, así como para construir la autoestima y el respeto al cuerpo propio y al ajeno, analizando las presiones que pueden ejercer sobre el individuo, los iguales y los grupos.

3.– EDUKINAK

A) Kontzeptuzko edukinak:

A) GIZABANAKOAREKIN ZERIKUSIA DUTENAK

1. Elikadura eta pertsonaren iharduera eta garapenean duen eragina:

1.1. Elikadurak bizimodu osasuntsuaren beste faktore batzuekin duen harremana: iharduera fisikoa, gorputz higienea, drogamenpekotasunen prebentzioa.

1.2. Elikadura, nutrizioa, dieteteika, etab. terminoak desberdintzea.

1.3. Elikaduraren funtzioak: energia ekarpena, organismoa egiteko materiala.

1.4. Organismoak dituen nutritizio-behar energetikoak, proteikoak, karbohidratoena eta grasarena, elementu mineralena eta bitaminena, etab.

2. Elikagaiak eta dietak.

2.1. Inbentarioak eta elikagaien erregistroa.

2.2. Osakera eta sailkapena: elikagaien gurpila eta piramidea.

2.3. Urak elikaduran duen funtzioa.

2.4. Ohitura kaltegarrien prebentzioa (bereziki alkoholaren erabilera desegokia elikaduran).

3. Elikadura eta jatearen plazerra:

3.1. Gure gorputz nerabea eta bere garapen sentsoriala: gustua, usaimena, ukimena eta ikusmena.

3.2. Plazerra eta eguneroko bizitza (elkartasuna, estetika eta harreman sozialak).

B) GIZARTE-ALDERDIEKIN ZERIKUSIA DUTENAK

1. Elikagaien giza kontsumoa eta ingurunean dituen ondorioak: Euskal Herriko egoera.

1.1. Elikagaien jatorria.

1.2. Elikagaiak lortu, garraiatu, kontserbatu eta banatzeko prozesua.

1.3. Elikagaien publizitatea.

1.4. Elikagaien hautaketa erosketa egiteko garaian.

1.5. Kontsumitzailearen eskubideak eta erantzukizunak.

1.6. Kontsumitzaileekin zerikusia duten erakunde, organismo eta elkarteak.

2. Elikadura zientziaren, teknologiaren eta gizartearen ikuspegitik:

2.1. Elikadurari dagokion mentalitatea, ezagupenak eta jokabideak denboran zehar.

2.2. Elikadura-ohituren bilakaera familiaren belaunaldi desberdinetan.

2.3. Elikadurarekin zerikusia duten etxeko lanak eta sexu-estereotipoen azterketa.

2.4. Pertsona guztien funtsezko eskubidea: justiziaren eta elkartasunaren baloreak.

2.5. Elikagaien banaketa geografikoa: Iparraren eta Hegoaren arteko aldea.

3.– CONTENIDOS

A) Contenidos Conceptuales:

A) RELACIONADOS CON EL INDIVIDUO

1. La alimentación y sus repercusiones en el desarrollo y en la actividad personal:

1.1. Relación de la alimentación con otros factores del estilo de vida saludable: actividad física, higiene corporal, prevención de drogodependencias.

1.2. Diferenciar los términos alimentación, nutrición, dietética, etc.

1.3. Funciones de la alimentación: aporte energético, material de construcción del organismo.

1.4. Las necesidades nutritivas del organismo energéticas, proteicas, de hidratos de carbono y grasas, elementos minerales y vitaminas, etc.

2. Los alimentos y las dietas.

2.1. Inventarios y registro de alimentos.

2.2. Composición y clasificación: La rueda y la pirámide de los alimentos.

2.3. Función del agua en la alimentación.

2.4. Prevención de hábitos nocivos (especialmente el uso inadecuado del alcohol en la alimentación).

3. La alimentación y el placer de la comida:

3.1. Nuestro cuerpo adolescente y su desarrollo sensorial: gusto, olfato, tacto y vista.

3.2. El placer y vida cotidiana (solidaridad, estética y trato social).

B) RELACIONADOS CON LOS ASPECTOS SOCIALES

1. El consumo humano de alimentos y sus repercusiones ambientales: la situación en el Pais Vasco

1.1. Origen de los alimentos.

1.2. Proceso de obtención, transporte, conservación y distribución de los alimentos.

1.3. Publicidad de los alimentos.

1.4. La elección de los alimentos en el momento de la compra.

1.5. Derechos y responsabilidades del consumidor.

1.6. Instituciones, organismos y asociaciones relacionadas con los consumidores.

2. La alimentación construida desde la ciencia, la tecnología y la sociedad:

2.1. Evolución de la mentalidad, de los conocimientos y de los comportamientos alimentarios a lo largo del tiempo.

2.2. Evolución de los hábitos alimentarios en las diferentes generaciones de la familia.

2.3. Tareas domésticas relacionadas con la alimentación y revisión de estereotipos sexuales.

2.4. Un derecho fundamental de todas las personas: los valores de justicia y solidaridad.

2.5. Distribución geográfica de los alimentos: desigualdades entre el Norte y el Sur

2.6. Elikadurarekin zerikusia duten nazioarteko erakundeak: FAO, OME, GKEak, etab.

3. Elikadura Euskal Herrian, kultur eta ekonomi gertakari gisa.

3.1. Sukaldaritza: euskal sukaldaritzak mundu-mailan izandako eragina.

3.2. Kalitatezko euskal labela duten bertako produktuak ezagutzea; baita horien produkzio-baldintzak ere.

3.3. Berdura-plaza edo herriko azoka, interes dietetiko, ekonomiko eta kulturalen adierazgarri.

3.4. Ganadu-ferien, fruta-lehiaketen eta nekazaritzaalorreko beste ekintza batzuen garrantzi kultural eta ekonomikoa.

3.5. Sozietate gastronomikoetako balore eta kontrabaloreak.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Elikadurari buruzko inkestak egitea eta Euskal Herriko elikadura-ohitura indibidual eta kolektiboei buruzko datuak jasotzea.

2. Iturri desberdinetatik jasotako informazioaren trataera, Euskal Herrian daudenetatik batez ere, datuen eta iritzien arteko bereizketa eginez.

3. Arazoak konpontzeko eztabaida eta talde-elkarreraginaren teknikak erabiltzea.

4. Talde-egoerak enpatia, asertibitatea eta, oro har, pertsonarteko eta gizarte-komunikazioari dagozkion trebetasunak landuz ebaztea.

5. Nutrizio-oreka eta plazer gastronomikoa konbinatzen duten otorduak diseinatzea.

6. Datu desberdinen analisian oinarrituz, giza elikadurarekin zerikusia duten gaisotasunen bilakaera aurrikustea, bai Euskal Herrian eta bai garapen-maila desberdinetako beste testuinguru geografikoetan.

7. Ondoko hauetarako teknikak erabiltzea: dieta orekatuak, elikagaien kontserbazioa eta etiketatzea, elikadura-iruzurrak antzematea, etab.

8. Elikagaiak maneatu eta prestatzeko teknika erraz batzuk.

9. Euskal Herriko ohizko plater batzuen azterketa, sukaldaritza-teknikak eta arlo sozial, geografiko edo laboralak erlazionatuz.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Zientzia biomedikoetako aurrerapen zientifikoengatiko eta elikadura-teknologiarekiko interes kritikoa, kritikoki baloratuz.

2. Autoestimazioa indartu eta osasunarentzat arriskutsuak diren iharduerak, hala nola beharrik edo justifikaziorik gabeko dieta azientifikoak, saihesten dituzten ohituren aldeko jarrera.

3. Elikatzeko modu desberdinekin batera ditugun baloreen analisi kritikoa (batez ere bizitzaren filosofia bati lotutakoenak), elikatzeko jarraipide pertsonal osasuntsu batzuk ezartzearren.

4. Euskal Herrian eta munduko beste zenbait zone-

2.6. Organismos internacionales relacionados con la alimentación: FAO, OMS, ONGs etc.

3. La alimentación en el País Vasco como hecho cultural y económico.

3.1. La restauración: repercusión mundial de la cocina vasca.

3.2. Conocimiento de los productos del país objeto del label vasco de calidad, así como de sus circunstancias de producción.

3.3. La plaza de verduras o mercado popular como expresión de interes ditéticos, económicos y culturales.

3.4. Importancia cultural y económica de las ferias de ganado, concursos de frutas y otras manifestaciones rurales.

3.5. Valores y contravalores de las sociedades gastrónomicas.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Elaboración de encuestas alimentarias y cuestionarios de recogida de datos sobre los hábitos alimentarios individuales y colectivos en el Pais Vasco

2. Tratamiento de la información procedente de distintas fuentes, fundamentalmente de los presentes en el País Vasco, distinguiendo entre datos y opiniones.

3. Utilización de técnicas de debate e interacción grupal para abordar la resolución de problemas.

4. Manejo de situaciones de grupo, desarrollando la empatía, la asertividad y en general las habilidades de comunicación interpersonales y sociales.

5. Diseño de planes de comidas que combinen el equilibrio nutricional y el placer culinario.

6. Predicción a partir del análisis de diferentes datos, de la evolución de las enfermedades relacionadas con la alimentación humana, tanto en el Pais Vasco como en otros contextos geográficos con diferentes niveles de desarrollo.

7. Utilización de técnicas para: la elaboración de dietas equilibradas, la conservación de alimentos y su etiquetado, detección de fraudes alimentarios, etc.

8. Iniciación en técnicas sencillas de cocinado y preparación de alimentos.

9. Análisis de algunos platos típicos del País Vasco, relacionando técnicas culinarias con diferentes contextos sociales, geográficos o laborales.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés crítico por los avances científicos en las ciencias biomédicas y los de tecnología alimentaria, valorándolos de forma crítica.

2. Actitud positiva hacia los hábitos que refuercen la autoestima y eviten actividades de riesgo para la salud, como las dietas innecesarias, acientíficas o injustificadas.

3. Análisis crítico de los valores que acompañan los diferentes modos de alimentarse (especialmente los que van unidos a una filosofía de la vida), para establecer unas pautas personales de alimentación saludable.

4. Interesarse por las enfermedades relacionadas con

tan arruntenak diren elikagaien kontsumoari lotutako gaisotasunengatik interesa edukitzea.

5. Lagunengandik (kideen taldearengandik), komunikabideetatik eta euskal kultura tradizionaletik elikagaiei eta hauek kontsumitzeko moduari buruz jasotako mezuen ikuspegi kritikoa.

6. Gorpuzkera, loditasuna edo argaltasuna, eredu batekiko desberdintasuna, etab. direla-eta pertsonak baztertzea dakarten jokabideak errefusatzea.

7. Norberaren balorearekin koherenteak diren bizimodu osasuntsuak bilatzeko sormena eta erabakiak hartzeko ahalmena sustatzea.

8.– Sukaldaritzaren balorazioa gertaera sozial gisa, sexu– edo elikadura-ailako estereotipoetatik urrunduz.

4. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Elikadurari dagozkion jokabideekin zerikusia duten arazoen ezagutza eta azterketari curriculumaren arlo desberdinetan egindako ikaskuntzak aplikatzea, arazo horietan esku hartzen duten faktoreak antzemateko, eta hauek pertsonen pentsamoldean eta elikagaiekin erlazionatzeko moduan (baloreak, sinesmenak eta ohiturak) arazoa konpontzeko edo areagotzeko duten eragina zenbaterainokoa den ikusteko.

Irizpide honen bitartez, ikaslea, elikadurari eta osasunari lotutako arazoen alderdi desberdinak aztertzeko, Euskal herrikoak batez ere, gai izatea lortu nahi dugu, arlo desberdinetan ikasitako ezagutzak eta prozedurak erabiliz, eta analisi literario, matematiko, zientifiko, sozial eta teknologikoa erabiltzeak, balore indibidual eta sozialekin kontrastatuz, arazoa non datzan, interes batzuen arabera soluziobide batzuk nola bila daitezkeen eta soluziobide bakoitza zein helburutara zuzentzen den ikusten lagun dezakeela aintzakotzat hartzea.

2. Mintzairaren erabileran edo publizitatean, elikadura-aukera edo gorpuzkera desberdinak dituzten pertsona edo taldeekiko jokabide baztertzaile edo intoleranteak antzeman eta identifikatzea, zertan oinarritzen diren ikusiz, eta giza aniztasunarekiko jokabide integratzaileak eta begirunezkoak aintzakotzat hartuz.

Ikaslea, elikagaiei dagokienez, egunero gure inguruan, familian, eskolan eta gizartean, sortzen diren diskriminazio-modu anitzak aztertzeko gai izan dadin da gure asmoa. Halaber, behaketarako gaitasuna garatzea da helburua, norberaren eta besteen jokabideak, kaleko nahiz publizitateko eta komunikabideetako mintzairaren erabilera kritikoki aztertzeko, eta honek rol estereotipatuak edo bizitzeko, elikatzeko edo jazteko modu desberdinak dituzten pertsonekiko edo taldeekiko intolerantzia-jarrerak gainditzera daraman ikustea.

3. Lengoaia desberdinak eta batez ere elkarrizketa erabiltzen jakitea, talde eta pertsonarteko egoeretan norberaren esperientziak azaldu eta komunikatzeko,

el consumo de alimentos, más comunes en el País Vasco y en otras zonas del mundo.

5. Visión crítica de los mensajes recibidos de las amistades (grupo de iguales), de los medios de comunicación y de la cultura tradicional vasca, sobre los alimentos y las formas de consumirlos.

6. Rechazo de los comportamientos que supongan discriminación de las personas por razón del aspecto corporal, del grado de obesidad o delgadez, de las diferencias respecto a un modelo, etc.

7. Estimulo de la creatividad y la capacidad de toma de decisiones para buscar estilos de vida saludables que sean coherentes con los valores propios.

8. Valoración de la actividad culinaria como hecho social, alejado de los estereotipos sexuales y nutricionales.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Aplicar al conocimiento y análisis de la problemática relacionada con las conductas alimentarias aprendizajes adquiridos en distintas áreas del currículo para reconocer qué factores intervienen en esos problemas, y descubrir en qué medida influyen en las personas, en su forma de pensar y en la de relacionarse con los alimentos (valores, creencias y hábitos) para solucionar o agravar el problema.

Con este criterio se trata de que el alumno o la alumna sea capaz de estudiar distintos aspectos de las problemáticas relacionadas con la alimentación y la salud, fundamentalmente en el Pais Vasco, utilizando conocimientos y procedimientos aprendidos en distintas áreas y reconozcan que el análisis literario, matemático, científico, social y tecnológico, en contraste con los valores individuales y sociales, puede ayudar a conocer dónde radica el problema, cómo se pueden buscar distintas soluciones de acuerdo a unos intereses y hacia qué fines, se está orientando cada solución.

2. Observar e identificar conductas discriminatorias o intolerantes hacia personas o grupos de diferentes opciones alimentarias o con diferentes tipos corporales , ya sea en el uso del lenguaje o en la publicidad, reconociendo las bases en que se sustentan, asumiendo pautas de conducta integradoras y respetuosas con la diversidad humana.

Se trata de que el alumno o la alumna, sea capaz de analizar las múltiples formas de discriminación que diariamente se crean a nuestro alrededor, en el medio familiar, escolar y social, en relación con los alimentos. Se trata también de comprobar el desarrollo de la capacidad de observación para identificar y analizar críticamente las conductas propias y colectivas, el uso del lenguaje, tanto cotidiano como en los mensajes publicitarios y en los medios audiovisuales, así como si esto les lleva a asumir pautas de conducta que superen roles estereotipados o actitudes de intolerancia hacia personas o grupos con diferentes opciones de vida, de comida o de forma de vestir.

3. Saber analizar y utilizar los diferentes lenguajes y especialmente el diálogo, para expresar y comunicar, en situaciones de grupo e interpersonales, las experiencias

iritziak eman eta arrazoitzeko, besteen arrazoiak entzun eta ulertzeko, elkarbizitza ahalbidetzen duten akordioetara iristeko gai izanik, bai kideen artean eta bai bestelako kultura, etnia edo bizimoduak direla-eta, desberdinak direnen artean.

Edozein gizarte-arazok edo aspiraziok mintzairan bere isla aurkitzen duenez, irizpide honen bitartez ikasle batek lengoaia bere edozein formetan (ahozkoa, idatzizkoa, ikus-entzunezkoa, grafikoa, plastikoa, musikala...) adierazteko eta komunikatzeko, hau da, garapen pertsonal eta sozial gisa zenbateraino erabiltzen ote duen ikusi nahi dugu. Lengoaia-formen artean, elkarrizketari ematen zaio garrantzi handiena, gatazkak gainditu eta elkartasun-lokarriak sortzeko oinarrizko komunikazio-modu gisa. Ikasleak pertsonarteko harremanetan elkarrizketa ulertu eta erabiltzen ote duen egiaztatzea da, kideen artean ez ezik, baita edozein arrazoi edo egoeragatik (sexua, etnia, gizarte-egoera, minusbalia...) desberdinak direnekin ere, eta elkarrizketa dauden arazoen soluziobidetzat hartzen ote duen.

4. Bizitza osasuntsua eta ingurune, janaria bezalako ondasun, zientzia eta honen aurrerapen eta teknikaren erabilera orekatua ahalbidetzen duten baldintzak ezagutzea eta, halaber, osasunean, ingurunean eta kontsumoan eragin negatiboa duten bizimodu indibidual eta kolektiboak eta eguneroko praktikak (elikadura adibidez) ezagutzea; era berean, alor hauetan defentsa, kontserbazio eta aurrerapenaren aldeko jarrerak azaltzea.

Irizpide honen bitartez, ikasleek eguneroko praktiken eta hauek beren bizitzan eta ingurunean dituzten ondorioen artean erlaziorik ezartzen ote duten egiaztatzea da, ondorio gisa alor guztietan defentsa, kontserbazio eta aurrerapenaren aldeko ekimenek bizitza osasuntsuagoa, elikadura orekatuagoa eta ingurunearen erabilera egokiagoa lortzen laguntzen dutela ateraz.

5. Taldean lan egitea eta elikadurarekin eta osasunarekin zerikusia duten ihardueretan parte hartzea, lankidetzazko eta besteekiko onespen eta errespetu-jarreraz, ihardun eta jokabide indibidual eta kolektiboen erantzukizuna bere gain hartuz.

Irizpide honen bitartez, talde-lanaren eta talde-ihardueretan parte hartzearen bitartez lan-prozesua eta honen emaitzen kalitatea beren lankidetzazko jarreraren eta besteekiko errespetuaren araberakoa direla, eta baita norberari dagokiona betetzearen eta nork bere gain hartutako erantzukizuna onartzearen araberakoa ere, antzematen ote duten ikusi nahi dugu.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Natur Zientzien arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak «Biologia eta Geologia»

propias, exponer y razonar las opiniones, escuchar y comprender las razones de las demás personas, siendo capaz de llegar a acuerdos que permitan la convivencia, tanto entre las consideradas iguales como entre las diferentes, por razones culturales, étnicas o de opciones vivenciales,...

Dado que cualquier problema o aspiración social encuentra en el lenguaje una resonancia propia, con este criterio se trata de ver hasta qué punto un alumno o una alumna llega a utilizar el lenguaje en cualquiera de sus formas (oral, escrita, audiovisual, gráfica, plástica, musical,...) para expresarse y comunicarse, o sea, como forma de desarrollo personal y social. Dentro de las formas de lenguaje se da una relevancia mayor al diálogo como un modo básico de comunicación para superar conflictos y crear lazos de solidaridad. Se trata de comprobar si el alumno y la alumna entieor ly practica el diálogo en las relaciones interpersonales no sólo entre iguales, sino también entre los diferentes por cualquier causa o condición (sexo, étnica, situación social, minusvalía,...), y servir como vía de solución de los problemas existentes.

4. Conocer las condiciones que permiten una vida sana y un uso equilibrado del medio, de bienes como la comida, de la ciencia y sus avances, y de la técnica, así como los modos de vida individuales y colectivos y las prácticas cotidianas (como la alimentación), que inciden negativamente en la salud, en el medio ambiente, en el consumo y manifestar actitudes de defensa, conservación y progreso en estos campos.

Con este criterio se trata de comprobar si las alumnas y alumnos establecen relaciones entre las prácticas que, de forma individual o colectiva, adoptan en su día a día, y las consecuencias que las mismas tienen en su vida y en el medio que le rodea; percibiendo como conclusión que la asunción de unas formas de actuación en favor de la defensa, conservación y progreso en todos los campos, permite de una manera más eficaz y plena alcanzar una vida más sana, una alimentación más equilibrada y un uso más adecuado del medio.

5. Trabajar en equipo y participar en actividades relacionadas con la alimentación y la salud, con una actitud de colaboración y de aceptación y respeto a las demás personas, asumiendo la responsabilidad de las actuaciones individuales y colectivas, así como de los comportamientos.

Con este criterio se trata de ver si los alumnos y alumnas, a través del trabajo en equipo y la participación en actividades grupales, perciben que el avance en el proceso de trabajo y la calidad de los resultados del mismo dependen de su actitud colaboradora y del respeto hacia otros que individualmente adopta, así como del cumplimiento efectivo y la aceptación consecuente de la responsabilidad asumida.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de alimentación, hábitos y equilibrio alimentario).

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Area de Ciencias de la Naturaleza, así como aquellos profesores con titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Ges-

espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere antzekotasunagatik eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

ARTISAUTZA-TAILERRA

1.– SARRERA

Gaur egungo hezkuntza-sisteman ikasleak ezagutza teorikoak bereganatzean urrundu egiten da ezagutza horien aplikazio praktikotik; artisautza-iharduerak, ordea, ezagutzak praktikan aplikatzeko bide bat dira.

Ezagutza teorikoen bidez epe luzerako emaitzak edo aplikazioa lortzen den bitartean, artisautza-praktiken bidez hasieratik bukaeraraino kontrolatutako objektuaren berehalako lanketa lortzen da. Hurbileko gertakari pertsonal bihurtzen da.

Artisautza-tailerrean sormena indartu, garatu eta aplikatu egiten da. Bertan, ondo egindako lanaren atsegina lortzen da. Artisautzako objektuaren akabera baloratzen da, norbanakoa ikusmenaren eta estetikaren arloan hezitzen baita. Nork berak egindako lana, eskulanak eragindako gozamena ezinbestekoak dira pertsonaren bilakaera harmonikoa lortzeko.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aukerako jakintzagai gisa barne hartzen da Artisautza-Tailerra. Jakintzagai honek gai ugari eskaintzen ditu eta horren bidez ikasleak artisautza-teknika desberdinak eta artisautza bakoitzaren jatorria eta ezaugarriak ikasi eta ezagutu ditzan lortu nahi da.

Aukerako jakintzagai honekin, ikasleak espezializazio handiagoa bereganatuko du hizkuntza grafiko/plastikoan, artisautza kultura adierazteko eta komunikatzeko tresna baita, kultura desberdinen eta komunikatzeko era desberdinen artean loturak ezartzeko baliagarria. Tailer horien sorkuntzak ahaztutako artisauntza-tradizioak berreskuratzen lagunduko digu, norbanakoaren eta taldearen garapena lortzeko artisautza pedagogiaren ikuspegitik baloratuz.

Ildo horretatik, Juan Garmendia Larrañaga etnografoaren hitzak gogoratuko ditugu: «... jakina euskal artisautzatzat jotzen den hori euskaldunona izan daiteke; sarritan, ordea, ez da euskaldunona bakarrik». Esaldi hori gure geografi eta kultur eremuan Tailerraren ezaugarriak ezartzeko garaian lagungarria izango zaigu. Euskal Herriko historia oso aberatsa da artisautzaren tradizioari dagokionez; baina, gaur egun, ofizioen mekanizazio azkarra dela-eta, industrialtzat jotzen diren prozesuei bide eman die, eta famili mailan bakarrik mantentzen da. Ordea, antzinako eta ez hain aspaldiko aztarren ugari gordetzen ditugu, eta horiei esker hurbil gaitezke artisautza-mundu horretara, garai haietan egin ziren objektu eta sistema praktiko haiek, hain zuzen ere gaur egun zenbait faktorek eraginda berreskuratu nahi diren haiek ezagutzera.

ción de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de «Biología y Geología».

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

TALLER DE ARTESANÍA

1.– INTRODUCCIÓN

La adquisición de conocimientos teóricos que aprende un alumno en el actual sistema educativo, provoca un distanciamiento de la aplicación práctica que por el contrario se obtiene en la realización de actividades artesanales.

Mientras que los conocimientos teóricos consiguen unos resultados o aplicaciones a largo plazo, las prácticas artesanales realizan un objeto de elaboración inmediata, controlado desde su inicio hasta su acabado. Se transforma en un hecho cercano a la persona.

La creatividad, se refuerza, se desarrolla y aplica en talleres artesanales. El gusto por lo bien hecho. La apreciación de los acabados que posee el objeto artesano, aportan una educación visual y estética al individuo. El trabajo elaborado por uno mismo, el placer del trabajo manual es indispensable para el desarrollo armónico de la persona.

La Educación Secundaria Obligatoria incluye Talleres de Artesanías, como materia optativa con una oferta variada en cuanto a los temas. El Taller de Artesanías pretende que el alumnado pueda aprender y conocer diversas técnicas artesanales, además de sus orígenes y las características propias de cada artesanía.

Con esta materia optativa, el alumnado adquirirá una mayor especialización en el lenguaje gráfico plástico, como instrumento expresivo de cultura y comunicación, que le sirva de enlace con diferentes formas de comunicación y culturas. La creación de estos talleres colaborará a recuperar tradiciones artesanales olvidadas, aportando una valoración pedagógica de la artesanía en pro de un desarrollo personal y colectivo.

En este sentido caber recordar las palabras del etnógrafo Juan Garmendia Larrañaga «... la artesania considerada como vasca puede ser muy bien nuestra; pero, con frecuencia, no sólo nuestra», nos permiten situarnos a la hora de establecer las características del Taller en nuestro ámbito geográfico y cultural. La historia de Euskal Herria es muy rica en lo que a tradición artesanal se refiere, si bien, actualmente, dada la rápida mecanización de los oficios, ha dejado paso a procesos que se consideran como industriales, aún realizándose a nivel familiar. Ahora bien, existen infinidad de vestigios del pasado lejano y reciente que nos pueden permitir acercarnos a ese mundo artesanal en el que se desarrollaron objetos y sistemas muy prácticos y que, actualmente, debido a diversos factores, se intentan recuperar

Ikuspegi horretatik begiratuta, iharduera honetan oso tailer desberdinak sor daitezke ikastetxe bakoitzeko curriculumaren barruan, gara litekeen tailer-motak kasu bakoitzean ezarritako gainerako prestakuntza-iharduera orokorren eta berezien, ahalbideen eta gizarte-eskariaren arabera. Nolanahi ere, aukeratuko diren teknikak errazak izango dira, hau da, berehalako aplikazioa eta emaitzak eskainiko dituzte, baina, bestalde, adierazpen-ahalmen handikoak izango dira, ikasleak ikerketarako eta sorkuntzarako sena gara dezan.

Ikaskuntza disziplinartekoa izango da, eta Gizarte-Zientziak, Historia, Artea eta Geografia bezalako ezagutza-arlo batzuk inplikatuko dira, bai eta egingo den artisautzaren bilakaera historikoa, artistikoa eta teknikoa ezagutzeko osagarri gisa balioko duten beste batzuk ere.

Artisautza-Tailerrak proiektu praktikoak garatzen lagundu beharko du, ikasleak dituen eta ikasten ari den ezagutzekin erlazionatuz. Iharduerak ikaskuntza-praktika gisa planteatuko dira, eta ikaslearen, irakaslearen eta ikasi eta landuko den gaiaren arteko loturak ezarriko dira. Beharrezkoa izango da ikasle bakoitzaren aurrerapenaren erritmoa indibidualizatzea, eta horretarako programa bakoitzaren beharrei egokitu behar zaie; gainera, talde-lana sustatu eta ikasleak pausuz pausu gidatu behar dira esperientziaren ikaskuntzan.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Euskal artisautza bere ingurunea adierazten duen kultur balio gisa hartu eta baloratzea.

2. Ondare kultural, historiko eta artistikoa ezagutu eta errespetatzea, ondare horren behaketan eta berreskurapenean parte hartuz.

3. Artisautza-lanaren jatorria, bilakaera eta egokitzapena aztertzea, artisautzei buruz dokumentuetan oinarritutako ikerlanak eginez eta ahozko, idatzizko eta irudizko informazioak aplikatuz.

4. Artisautza-lanak ezagutu, aztertu eta egitea, jatorria, materiala eta forma kontuan izanik, eta estetikaren eta erabilgarritasunaren aldagaiak barne hartuz.

5. Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesuan garatu eta aplikatzea, artisautza-lanak materialarekin harreman zuzena izateko ematen duen aukerari probetxua ateraz.

6. Artisautza-iharduera betetzeko beharrezko materialak eta tresnak ezagutu, aukeratu eta erabiltzea, segurtasunerako eta horiek behar bezala zaintzeko arauak errespetatuz.

7. Arazoei irtenbidea eman eta behar errealetara aplikatzea, eta nork bere kasa, ekimenez eta nork bere buruan konfiantza izanik erabakiak hartzea.

8. Iharduera honetako kontzeptuak beste arlo batzuetako ezagutzekin lotzea, horiek aberastu eta osatzeko eta arte-sorkuntzaren izaera globala eta disziplinartekoa baloratzeko bide gisa.

Así enfocada, esta actividad puede dar cabida en el currículo de cada Centro Escolar a muy diversos talleres, dejando al propio centro, en función del resto de actividades formativas generales o específicas, de sus posibilidades y de la demanda social, que establezca en cada caso el tipo de talleres que podrían desarrollarse. En cualquier caso, las técnicas que se elijan serán sencillas, de aplicación y resultado inmediato, pero de gran poder expresivo, para que el alumnado desarrolle su carácter investigador y creativo.

El aprendizaje sería interdisciplinar, implicando a otras áreas de conocimiento, como Ciencias Sociales, Historia, Arte, Geografía, y cuantas sirvieran de complemento para conocer la evolución histórica, artística y técnica de la artesanía a realizar.

El taller de las artesanías, habrá de contribuir a desarrollar proyectos prácticos, relacionados con los conocimientos que aprende y posee el alumno. Las actividades serán planteadas como prácticas de aprendizaje, estableciéndose una interrelación entre los alumnos, el profesor y el tema objeto de estudio y realización. Será necesario individualizar el ritmo de progreso de cada alumno, adaptando el programa a las necesidades de cada uno, fomentándose el trabajo en equipo y guiando a los alumnos y alumnas paso a paso en el aprendizaje de la experiencia.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Reconocer y valorar la artesanía vasca como valor cultural representativo de su entorno.

2. Descubrir y respetar el patrimonio cultural, histórico y artístico, haciéndole partícipe de su conservación y recuperación.

3. Indagar sobre el origen, la evolución y la adaptación del objeto artesano, realizando estudios documentados de investigación sobre las artesanías, aplicando informaciones orales, escritas y gráficas.

4. Identificar, analizar y realizar objetos artesanos, atendiendo a cuestiones de origen, de índole material y formal e incluyendo las variables de estética y utilidad.

5. Desarrollar y aplicar conceptos de expresión, creatividad e innovación en el proceso artesano, disfrutando de la relación directa con el material que aporta el trabajo artesanal.

6. Conocer, seleccionar y utilizar los materiales y herramientas necesarios para la realización de la actividad artesana, respetando las normas de seguridad y su adecuado mantenimiento.

7. Resolver problemas y aplicarlos a necesidades reales, con autonomía, iniciativa y confianza en la toma de decisiones.

8. Relacionar conceptos de esta actividad con conocimientos de otras áreas, enriqueciéndolos y completándolos, como forma de apreciar el carácter global e interdisciplinar de la creación artística.

9. Izate artistikoaren aurrean jarrera irekia hartzea eta besteen ekarpenek sortutako aberastasunaz jabetzea, beldurrak eta aurriritziak gaindituz.

10. Euskal Herriko artisautza-kultura garatu duten sektore desberdinak ezagutzea, horietan garatutako artisautza-objektuen eta sistemen bilakaera azpimarratuz, bai eta erabilitako fabrikazio-teknikak ere (metal, harri, egur, etab.eko artisautzak).

11. Gaur egun dauden ekipamendu didaktiko desberdinak ezagutzea, horien bidez Euskal Herriko historian zehar garatutako artisautza-ofizio eta iharduera batzuen errealitatera hurbildu ahal izango baikara (San Telmo Museoa, Untzi Museoa, Elosuko Buztingintza Museoa, etab.).

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. OBJEKTUEN AZTERKETA

A) Kontzeptuzko azterketa

1. Ezaugarri fisikoak: artisautza-objektua osatzen duten materialen egitura eta ezaugarriak, aplikazioaren arabera.

2. Ezaugarri funtzionalak: Objektuak sortzera bultzatu zuten beharrak eta belaunaldietan zehar izan duten bilakaera.

3. Objektu funtzionalen kualitate estetikoak, sinbolikoak eta sozialak.

B) Prozedurazko edukinak

Konparazio-eskemak egitea, honako hauei buruzko ikerketen emaitzetan oinarrituta:

1. Materialak bete behar duten funtzioaren arabera sailkatzea.

2. Funtzioetara egokitzeko manipulazio-prozesuak adieraztea.

3. Erabilitako materialei dagozkien formak sailkatzea.

4. Materialen ezaugarriak aztertu eta identifikatzea, tresna egokia erabiliz (sua, mikroskopioa, mailua, azidoak, eskuak, etab.).

5. Objektuen azterketa ergonomikoak eta gizakiaren erabilerarekiko egokitzapena.

6. Objektu bat aukeratzea eta kultura desberdinetan nola agertzen den ikusteko konparaziozko azterketa bat egitea. Material, estetika, sinbologia, bilakaera, etab.i dagokienez desberdintasunak eta antzekotasunak bilatzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Artisautza-kultura desberdinen sinboloak eta formak aurkitzeko interesa erakustea.

2. Artisautzan agertzen diren sinboloak eta zeinuak interpretatu eta identifikatzen jakiteko interesa erakustea.

3. Artisautza-objektuen erabilgarritasuna eta erabileraren araberako egokitzapena ezagutzeko jakinmina erakustea.

9. Adquirir una actitud abierta y receptiva ante el hecho artístico y tomar conciencia del enriquecimiento que se produce con las aportaciones de los demás, superando inhibiciones y prejuicios.

10. Conocer los distintos sectores en los que se ha desarrollado la cultura artesanal vasca, haciendo hincapié en la evolución de los objetos y sistemas artesanales desarrollados en los mismos, además de las técnicas de fabricación empleadas (artesanías del metal, de la piedra, de la madera...)

11. Conocer los distintos equipamientos didácticos que existen en la actualidad, los cuales nos pueden permitir acercarnos a la realidad de algunos de los oficios y actividades artesanales desarrollados a lo largo de la historia de Euskal Herria (Museo de San Telmo, Museo Naval, Museo de la Alfarería de Elosu...)

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. ANÁLISIS DE LOS OBJETOS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Características físicas: estructura y propiedades de los materiales que intervienen en los objetos artesanos en función de su aplicación.

2. Características funcionales: necesidades para las que nacieron los objetos y su evolución a través de las generaciones.

3. Cualidades estéticas, simbólicas y sociales de los objetos funcionales.

B) Contenidos Procedimentales:

Elaboración de esquemas comparativos con los resultados de las investigaciones relativas a:

1. Clasificación de materiales en relación a la función que deban desempeñan.

2. Relación de los procesos de manipulación para la adaptación a las funciones.

3. Clasificación de formas referentes a los materiales utilizados.

4. Exploración e identificación de las propiedades de los materiales, mediante el uso de instrumentos oportunos (fuego, microscopio, martillo, ácidos, manos...).

5. Estudios ergonómicos de los objetos y su adaptación a la utilización del ser humano.

6. Selección de un objeto y estudio comparativo a través de otras culturas diferentes. Búsqueda de diferencias y similitudes en cuanto a los materiales, estética, simbología, evolución..., etc.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés por encontrar símbolos y formas identificativas de diferentes culturas artesanales.

2. Interés por saber interpretar e identificar los símbolos y signos presentes en la artesanía.

3. Curiosidad por descubrir la utilidad y adaptabilidad específica al funcionamiento de los objetos artesanos.

2. MULTZOA. PROIEKTUAK (Objektuen diseinua)

Proiektu baten hastapena. Objektu bat egiteko pausuak ezartzea. Proiektuak norbanakoaren edo taldearen ikuspegia izan dezake. Artisautza-objektu bat egiteko, ikasleak ondoren adierazten diren pausu guztiak eman beharko ditu.

2. MULTZOA. 1. ARTISAUTZA-OBJEKTUEN DISEINUA

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Proiektuak.

2. Faseak:

– Prestakuntza-fasea edo fase teknologikoa: proposamenak definitu eta aztertzea. Informazioa bilatzea. Diseinua.

– Ebazpen-fasea edo fase teknikoa: Eraikuntza. Kontrola. Dokumentazioa. Hedapena.

3. Artisautzaren produkzio-sistemetan inplikatutako prozesuak.

B) Prozedurazko edukinak

1. Lan egiteko aukeratutako eta/edo proposatutako materialak ikertu eta manipulatzea.

2. Objektu bat diseinatu eta egitea, aldez aurretik ezarritako zehaztapenen zerrendaren arabera.

3. Erreferentzi eredu gisa hartutako formak ikertu eta egokitzea.

4. Artisautza-objektu klasikoen formak eta estetika aldatu eta eguneratzea.

5. Ikerlanetan eta behaketatik lortutako informazioa dossier, fitxa, liburu, etab.etan biltzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Arazoei irtenbidea emateko erabakiak hartzean ekimena, autonomia eta konfiantza erakustea.

2. Inguruneko objektuen behaketa piztu eta sustatzea, objektu horiek osatzen dituzten xehetasunak gogoan hartuz.

3. Hasieratik bukaerarainoko prozesua kontrolatuz materiala lantzeak duen garrantzia baloratzea.

4. Materialen egokitzapena ulertzea, bolumen, erresistentzia, malgutasun, etab.i dagokienez.

5. Nork bere produkzioen plangintza eta antolamendua kontrolatzea, artisautza-prozesuaren arabera.

6. Alderdi tekniko, funtzional, estetiko eta ekonomikoen arteko oreka baloratzea.

2. MULTZOA. 2. ERREMINTAK ETA TEKNIKAK

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Oinarrizko erremintak, dagozkien funtzioak eta eskaintzen dituzten aukerak.

2. Eskatutako aplikazioetarako teknika bereziak.

3. Materialak eta erremintak erabiltzean, segurtasunari eta zaintzari buruzko arauak ezagutzea. Ikasgelan aplikatzea.

BLOQUE 2. PROYECTOS (Diseño de objetos)

Iniciación de un proyecto. Se establecen los pasos para la elaboración de un objeto. El proyecto podrá tener un enfoque individualizado o colectivo. Para la realización de un objeto artesano, el alumno deberá practicar todos los pasos que a continuación se detallan:

BLOQUE 2.1. DISEÑO DE OBJETOS ARTESANOS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Proyectos.

2. Fases:

– Preparatoria o tecnológica: Definición y análisis de la propuesta. Búsqueda de información. Diseño.

– Resolutiva o técnica: Construcción. Control. Documentación. Difusión.

3. Procesos implicados en los sistemas de producción artesana.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Investigación y manipulación de los materiales elegidos y/o propuestos para trabajar.

2. Diseño y realización de un objeto en función del listado de especificaciones establecido previamente.

3. Investigación y adaptación de formas tomadas como modelo de referencia.

4. Modificación y actualización de formas y estética de objetos artesanos clásicos.

5. Recogida de la información obtenida en estudios y observación en forma de dossier, fichas, libro...

C) Contenidos Actitudinales:

1. Iniciativa, autonomía y confianza en la toma de decisiones en la resolución de problemas.

2. Despertar y fomentar la observación de los objetos de su entorno, memorizando los detalles que los componen.

3. Valorar la importancia de trabajar la materia controlando el proceso desde el inicio hasta su acabado.

4. Entender la adaptación de los materiales en cuanto al volumen, la resistencia, la flexibilidad... etc.

5. Controlar la planificación y organización de sus propias producciones, según los procesos de la producción artesana.

6. Valorar el equilibrio entre los aspectos técnicos, funcionales, estéticos y económicos.

BLOQUE 2.2. HERRAMIENTAS Y TÉCNICAS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Herramientas básicas, sus funciones y sus posibilidades.

2. Técnicas específicas para las aplicaciones requeridas.

3. Conocimiento de las normas de seguridad y conservación en la manipulación de materiales y herramientas. Ubicación en el aula.

B) Prozedurazko edukinak

1. Erremintak erabiltzea.

2. Oinarrizko teknikak aplikatzea eta egokienak aukeratzea, lanaren ezaugarrien eta ikaslearen mailaren arabera.

3. Lantegi, fabrika eta ikus-entzunezkoetan artisautza-prozesuak zuzenean behatzea.

4. Materialak etekinik handiena ateratzeko moduan prestatu eta zaintzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Materialak eta erremintak erabiltzean segurtasunari eta zaintzari buruzko arauak errespetatzea.

2. Produkzioen balorazio positiboa egitea, «komunikatzeko eta sortzeko» bide gisa, norbanakoari espresatzea ahalbidetuz.

3. Materialak era orekatu batean aprobetxatu eta iraunaraztea, kostu ekonomikoa eta baliabideen higadura kontuan izanik.

2. MULTZOA. 3. OBJEKTUEN ERAIKUNTZA

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Objektu bat diseinatzea, betetzeko asmatutako funtzioen arabera. Proiektua praktikan jartzea.

2. Artisautza-objektu bat eraikitzean teknika eta material egokiak zabaltzea.

B) Prozedurazko edukinak

1. Diseinatutako objektua egitea, bete behar dituen funtzioen arabera. Materialak aukeratzea.

2. Erremintak eta materialak artisautza-objektura egokitzea.

3. Eskulanetarako trebetasunak erabili eta garatzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Lanaren garapena planifikatzea, aurrera eramateko beharrezkoak izango diren baliabideak, burutzeko epeak eta sor daitezkeen zailtasunen aurrikuspena kontuan izanik.

2. Artisautza-objektuaren akabera ona baloratzea, xehetasunak kontrolatu eta lantzen dituen lanaren emaitza gisa.

3.Artisautza-objektuak sortzeko interesa eta zaletasuna erakustea.

3. MULTZOA. ARTISAUTZA KULTURAN

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Artisautzaren presentzia beste kultura eta gizarte batzuetan. Artisautza-gertakariari buruzko informazio desberdinak aztertu eta interpretatzea.

2. Euskal Artisautza: jatorria, bilakaera eta gizarte, histori eta geografi esparrura egindako egokitzapena. Inguruneko artisautza euskal kulturaren adierazgarri eta identitate gisa baloratzea. Erlazio soziolinguistikoak.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Manipulación de las herramientas.

2. Aplicación de las técnicas elementales y elección de las más adecuadas en función de las características de la tarea y de los niveles del alumnado.

3. Observación directa en talleres, fábricas, medios audiovisuales del proceso artesano.

4. Preparación y conservación de los materiales en su estado óptimo de rendimiento.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Respeto de las normas de seguridad y conservación en la manipulación de materiales y herramientas.

2. Valoración positiva de las producciones como la forma de «comunicarse y de crear» que permite expresarse a cada individuo.

3. Aprovechamiento y conservación equilibrada de los materiales valorando el coste económico y desgaste de recursos.

BLOQUE 2.3. CONSTRUCCIÓN DE OBJETOS

A) Contenidos Conceptuales:

1. Diseño de un objeto de acuerdo a las funciones que se pretende que cumpla. Puesta en práctica del proyecto.

2. Ampliación de las técnicas y materiales adecuados en la construcción de un objeto artesano.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Elaboración del objeto diseñado, de acuerdo a las funciones que debe cumplir. Selección de los materiales.

2. Adecuación de las herramientas y los materiales al objeto artesano.

3. Utilización y desarrollo de destrezas manuales.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Planificación del desarrollo del trabajo en cuanto a recursos necesarios para llevarlo a cabo, plazos de ejecución y anticipación de posibles dificultades.

2. Valoración del buen acabado que aporta el objeto artesano, resultado de un trabajo que controla y elabora los detalles.

3. Interés y gusto por la creación de los objetos artesanos.

BLOQUE 3. LA ARTESANÍA EN LA CULTURA

A) Contenidos Conceptuales:

1. La presencia del hecho artesano en otras culturas y sociedades. Análisis e interpretación de informaciones diversas sobre el hecho artesano.

2. La Artesanía Vasca: Origen, evolución y adaptación la marco social, histórico y geográfico. Valoración de la artesanía del entorno como manifestación e identidad de la cultura Vasca, relaciones sociolingüísticas.

3. Historian zehar, artisautzaren egokitzapen-beharren eta bideen bilakaera. Artisautza-gertakariak eta horiek sortu ziren aldi historikoaren ezaugarri orokorrak konparatzea.

4. Natur baliabideen erabilera eta aprobetxamendua. Tekniken bilakaera denboran zehar.

B) Prozedurazko edukinak

1. Artisautza-gertakariari buruzko informazio desberdinak aztertu eta interpretatzea, honako hauetan oinarrituz: objektuak, testuak, marrazkiak edo eskemak, materialen arrastoak, tresnak, erremintak, ahozko testigantzak, etab.

2. Ikerketarako informazioa bilatu eta biltzea, liburutegi, museo, erakusketa eta beste zenbait zentrotan.

3. Artisautza-gertakarien eta horiek sortu ziren ezaugarri historikoen konparaziozko eskema bat egitea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Denboran eta/edo espazioan urruti dauden gizarteen lan egiteko moduak, teknologi bilakaera eta arte eta kultur adierazpena ezagutu eta erlazionatzeko interesa erakustea.

2. Histori eta kultur ondarea errespetatzea eta kontuan hartzea, euskal kulturaren eta oroimen kolektiboaren balio handiko adierazpen gisa.

3. Gizadiak, bere inguruneko natur baliabideak aprobetxatuz eta errespetatuz, orokorrean egin duen aurrerapena baloratzea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Ikasle bakoitzak jasotzen duen informazioa.

Irizpide honen bidez, esperientziak eskaintzen dituen edukinak ikasleak zein neurritaraino ulertzen dituen jakin nahi da.

2. Artisautza-produktuaren onarpena, arrakasta eta identifikazioa ikasleen artean.

Artisautza-produktuak kultur ondare gisa duen balioaren inguruan ikaslea gogoeta egitera bultzatu eta bereganatu duen sentsibilizazio-maila baloratu nahi da.

3. Materialak eta erremintak aukeratu, erabili eta zaintzea.

Irizpide honen bidez tresnen aukera eta erabilera zuzena egin ote den ziurtatu nahi da, eta elkarrekin egingo dituzten lanetan errespetuz jokatzeko ikasle bakoitzak hartutako konpromisua eta tresna horiek behar bezala zaintzeko nork bere gain hartutako erantzukizuna ere ziurtatu nahi dira.

4. Eskulanetarako trebetasunak erabili eta garatzea.

Eskulanetarako trebetasunen garapena eta bilakaera neurtu nahi da, eta artisautza-objektuak egitean gertatzen diren akatsak eta zailtasunak gainditzeko gaitasuna baloratu nahi da.

5. Erabakiak hartzean eta arazoei irtenbideak bilatzean autonomiaz, ekimenez eta konfiantzaz jokatzea.

3. Evolución de las necesidades y las formas de adaptación de la artesanía a través de la historia. Comparación de los hechos artesanos y los rasgos generales de las épocas históricas de producción de los mismos.

4. Uso y aprovechamiento de los recursos naturales. Desarrollo de las técnicas a través de los tiempos.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Análisis, e interpretación de informaciones diversas sobre el hecho artesano a partir de objetos, textos, fotografías, dibujos o esquemas, restos de materiales, instrumentos, herramientas, testimonios orales...etc.

2. Búsqueda y recogida de información de la investigación en bibliotecas, Museos, exposiciones y otros centros.

3. Elaboración de esquemas comparativos entre los hechos artesanos y los rasgos históricos de producción de los mismos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés por conocer y relacionar las formas de trabajo, el desarrollo tecnológico y la expresión artística y cultural de sociedades alejadas en el tiempo y/o en el espacio.

2. Respeto y consideración del Patrimonio histórico y cultural, como manifestaciones valiosas de nuestra cultura Vasca y memoria colectiva.

3. Valoración del progreso de la humanidad en su conjunto, aprovechando y respetando los recursos naturales de su entorno.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. La información que capta cada alumno/a.

Este criterio trata de comprobar el grado de comprensión de los contenidos que aporta la experiencia.

2. La aceptación, el reconocimiento y la identificación del producto artesanal.

Se pretende transmitir al alumno una reflexión sobre el producto artesano como valor de Patrimonio cultural, y por ello hay que valorar el grado de sensibilización que haya adquirido.

3. La selección, utilización y mantenimiento de los materiales y herramientas.

Con este criterio se comprobará, la correcta selección y utilización de los instrumentos, la aceptación y compromiso de respeto en tareas comunes, y el grado de responsabilidad en su adecuado mantenimiento.

4. La utilización y desarrollo de destrezas manuales.

Se tratará de evaluar el grado de superación y evolución de las destrezas manuales, valorando la capacidad de superación de errores y dificultades que aporta el objeto artesano.

5. La autonomía, iniciativa y confianza en la toma de decisiones y soluciones.

Gatazkak konpontzeko garaian erabakiak hartzeko ohitura beharrezkoa da nerabearen bilakaeran. Horregatik, ohitura hori sustatu eta baloratu egin behar da. Gainera, nork bere burua eta taldeak onartzea ekarriko luke berekin.

6. Adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak artisautza-prozesuan aplikatzea.

Artisautza-Tailerra lanbide-eremu guztietan eskatzen diren adierazpen, sorkuntza eta berrikuntza-kontzeptuak aplikatzeko bide bat izango da. Ikaslearengan alderdi horiek sustatu eta antzemandako inplikazio eta aplikazio-maila baloratuko da.

7. Norbanakoak edo taldeak lortutako emaitzei buruzko iruzkina, balorazioa eta onarpen kritikoa.

Ikasleari honako alderdi hauek baloratuko zaizkio: taldean izan duen integrazio-maila, elkartasunerako jarrera, irizpide pertsonalen garapena, kritika konstruktiboen onarpena, eta diskriminazioak gainditzea.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

Hautazko gai hori emateko irakasleek, edozein espezialitate izanda ere, Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari eskatu beharko diote baimena. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo.

IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-TAILERRA

1.– SARRERA

Ikus-entzunezko komunikabideek eta informazio-teknologia berriek, ezaugarri jakin batzuk dituen gizarte-dispositiboa osatzen dute «errealitatea» adierazteko eta sortzeko. Hauek egungo gizartean izango duten ezarpenak eta eraginak komunikazio-elkartrukaketen bilbe bat osatzen dute eta curriculumaren esparru guztietan derrigorrez eragina duten ezagutzeko eta ulertzeko moduak exijitzen dituzte.

Hezkuntza tradizionalak, jarrera babesleak eta ebaluatzaileak pribilegiatu izan ditu ikus-entzunezko komunikabideen aurrean. Ikasleek komunikabideen eragin kaltegarri eta manipulatzaileetatik zaindu nahi ziren edo, kasuaren arabera, produktu ikonikoak eta ikus-entzunezkoak «zuzen» hautatu eta antzemateko gustu estetikoa hezitzen saiatzen zen.

Komunikazio-prozesuen ikuskera muinbakar berri batek «balioa»ren ikuspegititik egiten dio aurre komunikabideen arazoari: ikus-entzunezko produktuen alderdi produktibo eta esanguratsuetan arreta jarriz, hauek desmitifikatu egiten ditu eta testu/behatzaile arteko elkarreraginean biltzen diren balioaren eta zentzuaren atribuzioak, nahiz ikusle jakin batek egoera jakin batean egindako ikus-entzunezko testuaren egokitzapena orientatzen duten estrategiak kontuan izaten ditu.

Ikus-entzunezko komunikazio-tailer honen helburua, irudien produkzioa eta «irakurketa», hau da, zentzua sortzeko mekanismoen kontrola eta ikuslearen

La adquisición de hábitos de decisión para la resolución de conflictos, es muy necesario en el crecimiento del adolescente. Por ello hay que fomentarlo y valorarlo. Además implicaría como un hecho de aceptación personal y colectiva.

6. La aplicación de conceptos de expresión, creatividad e innovación en el proceso artesano.

En el taller de Artesanías, será un medio de aplicación de conceptos de expresión, creatividad e innovación, conceptos reclamados en todos los ámbitos profesionales. De esta manera estos talleres fomentarían estos aspectos y al alumno/a se le valorará el grado de implicación y aplicación que se observe en él.

7. El comentario, la valoración y reconocimiento crítico de los resultados obtenidos, individuales o colectivos.

A los alumnos se les valorará, la integración en el grupo, las actitudes de solidaridad, el desarrollo de criterios personales, la aceptación de críticas constructivas, la valoración de la superación de discriminaciones.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de artesanías)

Para impartir esta materia optativa, los profesores, sea cual sea su especialidad, deberán solicitar autorización de la Dirección de Renovación Pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

TALLER DE COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL

1.– INTRODUCCIÓN

Los medios audiovisuales y las nuevas tecnologías de la información constituyen un dispositivo social con características específicas para la construcción y representación de la «realidad». Su implantación e influencia en la sociedad actual conforman un entramado de intercambios comunicativos, reclaman formas de conocimiento y comprensión que afectan necesariamente a todos los ámbitos curriculares.

La educación tradicional ha privilegiado las actitudes proteccionistas y evaluadoras ante los medios de comunicación audiovisual. Se trataba de preservar a los alumnos y alumnas de los efectos nocivos y manipuladores de los media o se intentaba, según los casos, educar el gusto estético para una «correcta» selección y apreciación de los productos icónicos y audiovisuales.

Una reciente concepción comprensiva de los procesos comunicativos afronta el problema de los medios desde la perspectiva del «valor»: poniendo la atención sobre los aspectos productivos y significativos de los productos audiovisuales, los desmitifica y toma en cuenta las atribuciones de valor y sentido que concurren en la interacción texto-observador, así como las estrategias que orientan la apropiación del texto audiovisual realizada por un espectador concreto en una situación concreta.

Este Taller de Comunicación Audiovisual tiene como finalidad el desarrollo de una serie de conocimientos capaces de generar una competencia operativa dirigida

interpretazio-lankidetza eskatzen duten iharduerak eragitera zuzendutako gaitasun operatibo bat sortzeko gai diren ezagutzen multzoa garatzea da. Beste era batean esanda, interesaren inguruan eta gizarte, hizkuntz eta kultur inguru konplexu batean sortutako komunikazio-helburu jakin batzuetara egokitzeak planteatzen dituen arazoetatik abiatuz, kodeak, sinbolo-sistemak eta ikus-entzunezko baliabideak erabiltzen dituzten sormen eta gogoeta-prozesu praktikoen bidez, ikusientzunezko komunikazio-gaitasunak, jakintza produktiboak eta interpretazio-jakintzak garatzen saiatzen da.

Ikus-entzunezko Komunikazio-Tailer honetan burutzen diren ihardueretan inplikatutako ikus-entzunezko komunikabideak eta baliabideak sinbolo-sistemetan aritzen dira eta ikaskuntza nahiz irakurketa aktiboa eskatzen dituzten zeinuak eta funtzio semiotikoak erabiltzen dituzte. Ikus-entzunezko produktuek ez dute kanpoko «errealitatea» zuzen zuzenean islatzen eta zerbait azaltzeko testuinguru batean kokatu behar dira. Komunikabideen edo ikus-entzunezko irudien errealitatea, komunikazio-helburu batekin sortutako errealitatea da (hautatua, baloratua, antolatua eta kontatua). Ikus-entzunezko produktuek «natural» itxura badute ere, ikus-entzunezko Komunikazio-Tailerrean erabiltzen diren komunikabideekin egindako iharduerен asmoa, sortua, itxurazkoa, hautatua, partziala, etab. den guztia (interesak, ideologiak, ulertzeko eta esateko moduak, behatzeko eta erakusteko moduak barneratzen dituzten balioz jositako eragiketa guztiak) komunikabideek, egiazko, erreal, unibertsal, beharrezko, etab. gisa zergatik eta nola erakusten dizkiguten azaltzea da azken finean.

Ikus-entzunezko Komunikazio-tailer baten hezkuntza-balioa ez datza trebetasun teknikoen garapen hutsean edo nolabaiteko komunikaziorako eraginkortasuna lortzean, ikus-entzunezko testuak interpretazio kritiko batekin konprometituriko sormen eta produkzio-iharduerak inplikatzen dituzten komunikazio-prozesuak eta ikus-entzunezko produkzio-mota nagusienak tratatu eta esperimentatzeko aukera gehiago eskaintzean baizik.

Komunikazio-helburuak dira interbentzio praktikoak orientatzeko irizpide nagusiak. Lortu nahi dena ez da tresnak eta teknikak menperatzea, ikus-entzunezko adierazpenaren ezaugarri diren material esanguratsuen manipulazioagatiko interesa esnatzea baizik (irudia, soinu fonikoa, soinu analogikoa, musika, notazio grafikoak), honela edukin bati itxura komunikatiboa eman eta signifikazio-prozesuak orientatzen dituzten komunikazio-helburuetara egokitzeko.

Komunikabideek gizartean duten adirerazpena finkatzen duten faktore politiko, ekonomiko eta ideologikoen nahiz adierazpen hauen balio inplizituen aintzaspena, eta egiazkoaren eta errealaren efektua sortzeko komunikabideek nagusiki erabiltzen dituzten limurketa-teknika eta kodeen nahiz «zentzua» eragiteko moduen analisia izango dira, beste batzuen artean, jakintzagai honetan lan egiteko oinarrizko lerroak.

Tailer hau, komunikabideen aurrean autonomia kri-

a la producción y «lectura» de imágenes, actividades que reclaman el control de los mecanismos de producción de sentido y la cooperación interpretativa del espectador. Es decir, pretende el desarrollo de competencias comunicativas audiovisuales, de saberes productivos y saberes interpretativos, a través de procesos prácticos de creación y reflexión en los que se manipulan códigos, sistemas simbólicos y recursos audiovisuales, desde la problemática que plantea su adecuación a finalidades comunicativas concretas, surgidas del interés y en la complejidad del propio entorno social, lingüístico y cultural.

Los medios y recursos audiovisuales implicados en las actividades propias de este Taller de Comunicación Audiovisual operan sobre sistemas simbólicos, manipulan signos y funciones semióticas que reclaman un aprendizaje y una lectura activa. Los productos audiovisuales no son reflejo incuestionable de una «realidad» externa, ni se explican por sí mismos. La realidad de los medios, de la imagen sonora y visual, es una realidad producida (seleccionada y valorizada, organizada y narrada) con una finalidad comunicativa. Frente a la aparente «naturalidad» de los productos audiovisuales, las actividades «con medios» del Taller de Comunicación Audiovisual tratan, en el fondo, de desvelar cómo y por qué los medios hacen pasar por verdadero, real, universal, necesario..., lo que no es sino construcción, simulación, selección, parcialidad..., operaciones cargadas de valores en las que se inscriben fines, intereses, ideologías y modos de entender y de decir, modos de observar y de mostrar.

El valor educativo de un Taller de Comunicación Audiovisual no reside, pese a su orientación eminentemente práctica, en el mero desarrollo de destrezas técnicas o en el logro de una pretendida eficacia comunicativa, sino en propiciar oportunidades para el tratamiento y experimentación de procesos comunicativos que impliquen actividades de creación y producción comprometidas con una interpretación crítica de los textos audiovisuales y de los modos dominantes de producción audiovisual.

Las finalidades comunicativas constituyen el criterio básico orientador de las intervenciones prácticas. No se trata de un mero dominio instrumental y técnico sino de despertar el interés por la manipulación de los materiales significantes (imagen, sonido fónico, sonido analógico, música, notaciones gráficas) característicos de la expresión audiovisual, con vistas a proporcionar una forma comunicativa a un contenido y adecuándola a finalidades comunicativas que orientan los procesos de significación.

El reconocimiento de los factores políticos, económicos e ideológicos determinantes de las representaciones de los medios en la sociedad y de los valores implícitos en estas representaciones, así como el análisis de las técnicas y códigos persuasivos empleados por los medios de manera predominantes para crear efectos de verdad, de realidad y sus formas de construir «sentido» serán, entre otras, líneas básicas del trabajo en esta materia.

Este taller se orientará explícitamente hacia el desa-

tikoa garatzera zuzenduta egongo da bereziki. Ikus-entzunezko testuei buruzko iritzi propioak eta kritikoak lantzeko gaitasunean konfiantza lortu nahi da, bai eskolan -irakaslearen aurrean– eta bai komunikabideekiko eguneroko eta etorkizuneko esperientzian, ikasleari bere ikaskuntzari dagozkion erantzukizun gehiago beregain hartzera bultzatuz.

Simulazioen, talde-lan praktikoen nahiz ikasleek ikerketa-ikastaroan planteatutako komunikazio-arazoen aurrikuspenaren eta ebazpenaren bidez, irakasle eta ikasleek elkarrizketarako eta ikerketarako jarrera izan dezaten lortu nahi da, lanerako objektuak eta prozedurak proposatuz, ikus-entzunezko komunikazioaren inguru aldakor eta berritzailean esanahiak esperimentatuz eta negoziatuz.

Elkarrizketaren, ikerketa pertsonalaren nahiz bakarkakoaren eta ikus-entzunezko produktuen arteko triangelu itxurako harreman berezi hau, partaidetza-jarreraren eta autonomia kritikoaren garapenerako mesedegarria da: norbere ideia eta irizpideekiko kofiantzatik abiatzen da, ikerketa-lankidetzarekiko interesa sentitzen du eta ezaguera, inposatutako egintza, ideia eta prozeduren multzo gisa ulertu beharrean, mundua, galdeketa-elkarrizketa-gogoeta-ekintza prozesu batean ulertzeko eta interpretatzeko modu gisa ulertzen duen hezkuntza-testuinguru batean garatzen da. Mota honetako gogoeta-jarrerak eskuratuz, eskolaren testuingurua gainditiuz gizabanakoaren ikus-entzunezko esperientziekiko harremanetan jartzeko moduan barneratzea lortu nahi da.

Ikus-entzunezko Komunikazio-tailerraren garapena, ikaslearentzat esanguratsuak diren inguru materialen iruzkina eginez, esanahiak bilatuz eta zentzua emanez abia daiteke, honela lan-prozedura pertsonal eta originalen itxurarekin produkzio eta sormen-gaitasunak garatzen saiatuz. Proiektu praktikoetan parte hartze hutsak ez du zuzenean analisi kritikoa edo sormena bermatzen, kodea ezagutzeak sormen adierazkorra bermatzen ez duen bezala.

Ildo horretan, komenigarria izango da Euskal Herrian eremu horretan izandako sorkuntzetara hurbiltzea («euskal zinema», euskerazko ekoizpena, zinema eta bideo jaialdiak). Izan ere, modu horretan, ikus-entzunezko baliabideek gure Elkartean duten presentzia eta eragina ikusi ahal izando da eta Elkartean egon ohi diren gertakizunei ematen dien irudia kritikoki aztertu eta baloratu ahalko da, bia eta bideratzen dituzten ikuspegiak eta irudikapenak ere.

Ebaluazioari dagokionez, ikasleen sentsibilitate, jarrera, interes, trebezia eta ezagutzetatik abiatuko da (ikus-entzunezkoen kontsumoan lehentasunak eta ohiturak, ikasleak parte hartzen duen egoera desberdinetan komunikazio-gaitasunei buruz nabaritzen den autokonfiantza, etab.), autonomia kritikoarekin, lankidetzarekin eta zailtasunak gainditzeko ekarpenekin zerikusia duten jarrerak ikuspegi prozesual batetik ebaluatzeko helburua lortzeko.

rrollo de la autonomía crítica frente a los medios. Se trata de adquirir confianza en la capacidad de elaborar juicios propios y críticos ante los textos audiovisuales, tanto en situación escolar -en presencia del profesor– como en su experiencia cotidiana y futura de los medios, incitando al alumno a asumir mayor responsabilidad en sus propios aprendizajes.

Se trata mediante simulaciones, trabajos prácticos en grupo, actividades de predicción y resolución de problemas comunicativos planteados por los propios alumnos y alumnas en el curso de su indagación, que profesores y alumnos adopten una actitud dialogante e investigadora, proponiendo los objetos y procedimientos de trabajo, experimentando y negociando las significaciones frente al entorno cambiante e innovador de la comunicación audiovisual.

Esta forma particular de «triangular» mediante el diálogo y la indagación personal y colectiva la relación con los productos audiovisuales, favorece la actitud participativa y el desarrollo de la autonomía crítica: parte de la confianza en las ideas y juicios propios, se interesa por la indagación cooperativa y se desarrolla en un contexto educativo donde el conocimiento no es un conjunto impuesto e inerte de hechos, ideas o procedimientos, sino una manera dinámica de comprensión e interpretación del mundo en un proceso de interrogación-diálogo-reflexión-acción. La adopción de actitudes reflexivas de este tipo trata de trascender el marco escolar para incorporarse al modo en que un individuo se relaciona con las experiencias audiovisuales.

El Taller de Comunicación Audiovisual puede partir en su desarrollo del comentario de materiales cercanos y significativos para los alumnos, de la búsqueda de significados y atribución de sentido, tratando de desarrollar competencias productivas y creativas bajo la forma de procedimientos de trabajo originales y personales. Hay que tener en cuenta que la mera participación en proyectos prácticos no garantiza automáticamente el análisis crítico ni la creatividad, al igual que el mero conocimiento del código no garantiza la creatividad expresiva.

En este sentido, será conveniente un acercamiento a los fenómenos creativos surgidos en este ámbito en el País Vasco («cine vasco», producción en euskara, festivales de cine y vídeo,...), como una forma de conocer la presencia e incidencia de los medios audiovisuales en nuestra Comunidad y analizar y valorar críticamente la imagen que muestran de los hechos que ocurren en la misma y las visiones y representaciones que propician.

Respecto a la evaluación se habrá de partir de la observación de las sensibilidades, actitudes, intereses, destrezas y conocimientos de los alumnos (preferencias y hábitos de consumo audiovisual, autoconfianza percibida acerca de las competencias comunicativas en diferentes situaciones en las que el alumno participa..) con el fin de evaluar, desde una perspectiva procesual, las actitudes relacionadas con la autonomía crítica, la cooperación y las aportaciones a la superación de dificultades.

Ikus-entzunezko Komunikazio-tailerra, ikus-entzunezko inguruari buruzko curriculum-iharduerean aniztasuna bultzatzen ahaleginduko da eta zentroa bera izango da, hezkuntza-proiektuarekiko koherentziaz eta ikasleen interes eta aukeren arabera, iharduera-plan bat finkatuko duena.

Tailerreko iharduerak, euskara funtzionala testu inguru jakin batean komunikaziorako erabiltzen erakusteko aprobetxatu nahi duen ahaleginarekin zerikusia du garatu beharreko alderdietako batek, bai produkzio-prozesuetan eta bai «fabrikatzen» diren ikus-entzunezko produktuetan.

Bestalde, ikaslearen hurbileko komunikazio-testuingurua erabiltzeak duen garrantzia aipatzea komeni da. Euskal Herriko «mass-media» egituraren, bere hizkuntza eta gizarte-aukeren nahiz aukera ideologikoen ezagutzaz ari gara. Hau guztia, Tailerraren helburu diren prozedura eta jarrera kritikoak aplikatzeko oinarri gisa ikusiz.

Euskal Herrian sormen eta komunikazio-fenomenoekin zerikusia duen sortutako guztia ere kontuan izan daiteke: «euskal zinea» deiturikoa, euskarazko produkzioak, zine eta bideo jaialdiak, etab.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Ikus-entzunezkoen kontsumoarekiko erabilera, portaera eta ohitura pertsonalen aurrean gogoeta jarrera izatea, bere motibazio eta lehentasunetaz jabetuz eta haien aurrean jarrera selektiboak azalduz.

2. Ikus-entzunezko mezuak, komunikazio-asmo desberdinen arabera manipulatu, birlandu eta sortzea, ikus-entzunezko prozedurak, materialak eta tresnak komunikazio-egoerara eta honen helburuetara behar bezala eta pertsonalki egokituz.

3. Ikus-entzunezko produkzioaren kodeei buruzko ezagutzak erabiltzea (teknologikoak, ikusmenezkoak, grafikoak, soinuzkoak eta sintaktikoak), ikus-entzunezko egintza eta produktu desberdinak ikuspegi pertsonal batetik analizatu eta interpretatzeko.

4. Ikus-entzunezko taldeko produkzio-proiektuetan lankidetza emanez eta solidarioki parte hartzea, taldearteko komunikazio-prozesuak (gogoeta, elkarrizketa, iharduera), inplikatutako antolaketa-estrategiak eta ikus-entzunezko proiektuen burutzapen-prozesuan egindako aukerak baloratuz.

5. Komunikazio-testuinguruen identifikazioan eta interpretazioan nahiz ikus-entzunezko testuen produkzio eta irakurketa-prozesuetan sortutako zailtasunak gainditzeko beste curriculum-arloetan lortutako ezagutzak eta trebeziak aplikatzea.

6. Ikus-entzunezko lengoaiek, beren forma eta komunikabide desberdinetan, gizartean gaur egun duten eragina ulertzea, hauek errealitatea erreproduzitzeko eta sortzeko erabiltzen duten moduaz nahiz ema-

El Taller de Comunicación Audiovisual se interesará por propiciar una diversidad de actividades curriculares sobre los entornos audiovisuales, siendo el propio centro el que, coherentemente con el propio proyecto formativo y en función de sus posibilidades e intereses específicos del alumnado, establezca un plan de actuaciones.

Uno de los aspectos a desarrollar tiene que ver con el intento de aprovechar las actividades del Taller para propiciar un uso del euskara funcional, comunicativo y contextualizado, tanto en los procesos de producción, como en los productos audiovisuales que se «fabriquen».

Por otro lado, es conveniente señalar la importancia de utilizar el contexto comunicativo próximo de alumnos y alumnas. Nos referimos al conocimiento de la estructura de los «mass media» en Euskal Herria, sus diversas opciones sociales, ideológicas y lingüísticas. Todo ello como una primera instancia sobre la que aplicar los procedimientos y las actitudes críticas objetivos de este Taller.

También puede ser a tener en cuenta todo aquello que tiene que ver con los fenómenos creativos y comunicacionales surgido en Euskal Herria: el llamado «cine vasco», la producción en euskara, festivales de cine y video...

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Adoptar una actitud reflexiva ante los usos, comportamientos y hábitos personales de consumo audiovisual, siendo consciente de sus motivaciones y preferencias y adoptando actitudes selectivas ante los mismos.

2. Manipular, reelaborar y producir mensajes audiovisuales con diversas intenciones comunicativas, adecuando de forma pertinente y personal los procedimientos, materiales e instrumentos audiovisuales a la situación y finalidades comunicativas.

3. Utilizar los conocimientos sobre los códigos de la producción audiovisual (tecnológicos, visuales, gráficos, sonoros y sintácticos) para analizar e interpretar, desde un punto de vista personal, diversos hechos y productos audiovisuales.

4. Participar cooperativa y solidariamente en proyectos colectivos de producción audiovisual, valorando los procesos comunicativos intragrupales (reflexión-diálogo-actuación), las estrategias organizativas implicadas y las opciones tomadas en el proceso de realización de proyectos audiovisuales.

5. Aplicar los conocimientos y destrezas adquiridos en otras áreas curriculares en la identificación e interpretación de contextos comunicativos y en la superación de dificultades surgidas en los procesos de producción y lectura de textos audiovisuales.

6. Comprender la actual influencia social de los lenguajes audiovisuales, en sus diferentes formas y medios, siendo consciente de la forma en que reproducen y crean realidad, así como de la visión del mundo que apor-

ten duten munduaren ikuspegiaz eta sustatzen dituzten gizartearen adierazpen eta estereotipoetaz jabetuz. Hauen artean Euskal Herriarekin eta bere hizkuntzarekin zerikusia dutenak.

7. Ikus-entzunezko komunikazioarekin zerikusia duten inguru sozio-profesionalak ezagutzea, ikasketei nahiz lanbideari buruz dituen interesen eta etorkizunerako aukeren esparrua zabaltzeko.

8. Euskal Herriko azalpen artistiko, sortzaile eta ikus-entzunezko bereziak ezagutzea: «euskal zinea», zine eta bideo jaialdiak, euskarazko komikia, etab. analisi-bide gisa eta aisi pertsonalerako testuinguru-aukera gisa.

3.– EDUKINAK

Jakintzagai honetako edukinak, etapako bi ziklori amankomunak zaizkion hiru gai-ardatz handiren inguruan egituratzen dira. Hiru edukin-multzotan egituratzeak ez du esan nahi ziklo bakoitza osatzen duten edukinak bakoitza bere aldetik aztertu behar direnik. Ikasleak ikus-entzunezko mezuak sortzeko aukeratik abiatuz, adierazpen eta teknologi-alderdiekin harremanetan ezagutza esanguratsuak eraiki daitezkeela pentsatu behar da, aldi berean komunikabideek gizakian eta gizartean dituzten eraginei buruzko gogoeta egiteko denbora emanez.

1. MULTZOA. IKUS-ENTZUNEZKO IRUDIAREN ANALISIA ETA INTERPRETAZIOA

Edukin multzo honekin, ikus-entzunezko irudiaren adierazpen-material esanguratsuenen ezagutzaren bidez, ikus-entzunezko mezu eta irudien irakurketa/interpretaziora nahiz material horiek, komunikazio-helburu jakin batzuen burutzapenera (fikzioa, informazioa, dokumentazioa, ikuskizuna, etab.) zuzenduta dsuden ikus-entzunezko produktuen prozesu zabalagoetako zati gisa duten funtzionamendura hurbiltzea lortu nahi da.

Errealitatearen pertzepzio kulturalaren eta honen ikus-entzunezko berreraikuntzaren arteko diferentziaz jabetzea beharrezkoa da, subjektibotasunaren arazoa eta faktore desberdin ugariek irudian eta ikus-entzunezko produktuetan duten eragina planteatzeko.

LEHENENGO ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Ikus-entzunezko irudiaren ezaugarriak. Esanahiaren pertzepzioa. Irudia, kultura, kodea eta konbentzionaltasuna ikonoen irudikapenean.

2. Ikus-entzunezko irudiaren adierazpen-materialak:

2.1. Argiaren eta kolorearen pertzepzioa. Iluminazio-eskemak.

2.2. Forma egitura gisa: irudi/hondo diskriminazioa.

2.3. Espazioa eta irudiaren konposizioa: Enkoadraketa, ikus-eremua, eremuaren sakontasuna eta ikuspun-

tan y las representaciones y estereotipos sociales que propician, entre ellos los relacionados con Euskal Herria y su lengua.

7. Conocer los entornos socio-profesionales relacionados con la comunicación audiovisual, a fin ampliar el campo de sus intereses y opciones futuras académicas y profesionales.

8. Conocer las manifestaciones artísticas, creativas y audiovisuales más específicas de Euskal Herria: «cine vasco», festivales de cine y vídeo, cómic en euskara... como vías para el análisis y la opción en contextos de ocio personal.

3.– CONTENIDOS

Los contenidos de esta materia se estructuran en torno a tres grandes ejes temáticos comunes a los dos ciclos de la etapa. La estructuración en tres bloques de contenidos no significa que los contenidos que los componen en cada uno de los ciclos deban ser abordados de forma separada. Hay que pensar que es a partir de la posibilidad de crear mensajes audiovisuales por el alumnado, como se puede construir un conocimiento significativo en relación con los aspectos expresivos y tecnológicos, propiciando al mismo tiempo la reflexión sobre las repercusiones individuales y sociales de los medios.

BLOQUE 1. ANÁLISIS E INTERPRETACIÓN DE LA IMAGEN SONORA Y VISUAL

Con este bloque se pretende un acercamiento a la lectura/interpretación de mensajes e imágenes audiovisuales, a través del conocimiento de los materiales expresivos más significativos de la imagen audiovisual, así como a la comprensión del funcionamiento de tales materiales como partes de un proceso más amplio en el que los productos audiovisuales se orientan hacia la realización de finalidades comunicativas concretas (ficcionales, informativas, documentales, espectacularizantes...).

Es preciso hacer consciente de la diferencia existente entre la percepción cultural de la realidad y su reconstrucción audiovisual para plantear el problema de la subjetividad y la influencias de múltiples factores que influyen en las imágenes y productos audiovisuales.

PRIMER CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. Características de la imagen audiovisual. De la percepción a la significación. Imagen, cultura, código y convencionalidad en la representación icónica.

2. Materiales expresivos de la imagen audiovisual:

2.1. La percepción de la luz y el color. Esquemas de iluminación.

2.2. La forma como estructura: discriminación figura/fondo.

2.3. El espacio y la composición de la imagen: encuadre, campo, profundidad de campo y punto de

tua. Plano-motak eta kontatzeko eta adierazteko dituzten balioak.

2.4. Soinua; intentsitatea, tonua eta tinbrea. Soinudun irudiaren tratamendu teknikoa (soinu fonikoa, analogikoa, musika).

2.5. Grafismoa edo tratamendu bisuala: diseinuak eta familia tipografikoak nahiz beren tratamendu integratua (komikian, publizitatean, etab.)

3. Irudi dinamikoa eta irudi-segida (irudi estatiko sekuentziatua): espazio-denbora manipulazioak irudi fotografikoan, publizitarioan, istoriotxo grafikoetan, diaporaman, etab.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko dokumentu eta produktu desberdinen iruzkina egitea beren funtsezko adierazpen-materialen analisitik abiatuz (irudiak, soinu fonikoa, soinu analogikoa, musika, notazio grafikoak).

2. Ikus-entzunezko irudian parte hartzen duten adierazpen-materialen funtzionaltasuna ulertzea, komunikazio-prozesu zabalago baten zati gisa ulertuz eta interpretazio pertsonal bat egiten saiatuz.

3. Iluminazio, enkoadraketa eta konposizio-eskemak nahiz ikuspuntua manipulatuz adierazpen eta komunikazio-tratamendu desberdinak esperimentatzea.

4. Ikus-entzunezko irudiaren adierazpen-material desberdinen teknikak ezagutu eta manipulatzea.

5. Inguruaren ezaugarri bisual naturalak nahiz artifizialak behatzea eta analizatzea eta ikus-entzunezko teknika desberdinen bidez adieraztea.

6. Ikus-entzunezko komunikabide desberdinen ezaugarri diren limurketa-baliabideak bilatu, diskriminatu eta hautatzea.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko ondarea inguru fisikora eta sozialera nahiz hizkuntzara eta kulturara hurbiltzeko modu gisa ulertzea eta baloratzea.

2. Ikus-entzunezko kontsumoaren eguneroko formak, estereotipo generiko, estetiko, historiko eta ekonomikoen arabera hautatu eta haietan inplikatzeko irizpideak.

3. Ikus-entzunezkoen eskaintzan sarbidea izateko moduak eta aukerak baloratzea.

BIGARREN ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Ikus-entzunezko irudia: irudi finkotik, mugitzen den irudira. Teknologia eta irudia; originala eta kopia, sormena eta erregistroa, simulazioa eta ikuskizuna. Errealitateak dokumentalean eta fikzioan dituen eraginak.

2. Kode teknologikoak, ikus-entzunezko kontaketarako baliabideak eta espazio/denbora harremanaren artikulazioa:

2.1. Kode bisualak eta narratiboak: planoa, eszena, sekuentzia:

vista. Tipos de planos y sus valores narrativos y expresivos.

2.4. El sonido: intensidad, tono y timbre. Tratamiento técnico de la imagen sonora (sonido fónico, analógico, música).

2.5. El grafismo o tratamiento visual: diseños y familias tipográficas y su tratamiento integrado (en cómic, publicidad...).

3. La imagen dinámica y la sucesión de imágenes (imagen estática secuencializada): manipulaciones espacio-temporales en la imagen fotográfica, publicitaria, en la historieta gráfica, diaporama...

B) Contenidos Procedimentales:

1. Comentario de diversos documentos y productos audiovisuales a partir del análisis de sus materiales expresivos fundamentales (imagen, sonido fónico, sonido analógico, música, notaciones gráficas).

2. Comprensión de la funcionalidad de los materiales expresivos que concurren en la imagen audiovisual como parte de un proceso comunicativo más amplio, intentando alcanzar una interpretación personal.

3. Experimentación de diferentes tratamientos expresivos y comunicativos mediante la manipulación de los esquemas de iluminación, del encuadre y de la composición y del punto de vista.

4. Reconocimiento y manipulación técnica de los diferentes materiales expresivos de la imagen audiovisual.

5. Observación y análisis de las características visuales del entorno, naturales y artificiales, y su representación mediante diferentes técnicas audiovisuales.

6. Búsqueda, discriminación y selección de los recursos persuasivos característicos de diferentes medios audiovisuales.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración y apreciación del patrimonio audiovisual como forma de aproximación al entorno físico, social, lingüístico y cultural.

2. Criterios de selección e implicación en las formas cotidianas de consumo audiovisual en función de estereotipos genéricos, estéticos, históricos, económicos.

3. Valoración de las posibilidades y modos de acceso a la oferta audiovisual.

SEGUNDO CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. La imagen audiovisual: de la imagen fija a la imagen en movimiento. Tecnología e imagen: original y copia, creación y registro, simulación y espectáculo. Los efectos de realidad en el documental y en la ficción.

2. Códigos tecnológicos, recursos narrativos audiovisuales y la articulación espacio-temporal:

2.1. Códigos visuales y narrativos: el plano, la escena, la secuencia:

• Kameraren mugimenduak: panoramika, «travelling» eta «zooming».

• Kontakizunaren denboraren eta istorioaren denboraren arteko harremanak: elipsia. Kontakizunaren jarraitasuna.

2.2. Soinu-kodeak: soinu-bandaren adierazpen-materialak (hitza, musika eta soinu– efektuak).

• Ikus-entzunezko kontalaria: pertsonaiak eta antzezleak, off ahotsa eta soinu ez diegetikoa.

2.3. Kode grafikoa: (tituluak, zeinu grafikoak).

3. Artikulazio sintaktikoko kodeak: muntaketa-mota desberdinak (simultaneotasuna, muntaketa paraleloa, txandakatua eta konbergentea, etab.).

B) Prozedurazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko produkzio desberdinei buruzko iruzkina egitea, kontaketarako erabilitako baliabideen ezagutzatik eta analisitik abiatuz.

2. Ikus-entzunezko produkzio desberdinetan, muntaketaren ikus-entzunezko diskurtso desberdinen (dokumentalak, informatiboak, fizkiozkoak, publizitarioak, etab.) eta zentzu-efektu desberdinen analisi kritikoa egitea.

3. Ikus-entzunezkoen bidez adierazi behar diren egoera desberdinen denboraren tratamendurako aukera desberdinak manipulatzea.

4. Soinu-bandak analizatzea, bere oinarrizko osagaiak eta ikus-entzunezko kontaketan dituen inplikazioak identifikatuz.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko ondarea preziatu eta baloratzea.

2. Kontsumorako ikus-entzunezko produzkioak, lehentasun pertsonalarekin, estetikarekin eta garrantzi sozialarekin zerikusia duten irizpideen arabera kritikoki baloratzea.

2. MULTZOA. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA. IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKABIDEEN ETA GARAPEN BERRIEN ERAGINA GIZARTEAN NAHIZ GIZABANAKOAK.

Garatu beharreko edukinak ondorengoak dira: komunikazioaren kontzeptua eta bere eredu desberdinak, komunikazio-ekintza bat osatzen duten elementuak, pertsonarteko komunikazioaren eta bitartekari bidezko komunikazioaren arteko diferentziak eta teknologiek komunikazioan ezartzen dituzten baldintzak.

Gizarte-komunikazioa ere ikasiko da, mass-media kontzeptuaren eta bere ezaugarrien bidez ikus-entzunezko «mass-media» direlakoen mezuak nahiz erabilera eta kontsumo pertsonalaren eta sozialaren aurreko jarrera desberdinak analizatuz eta ikusleengan, munduaren ikuspegian eta sustatzen dituzten gizarte estereotipoetan dituen eraginetaz jabetuz.

Azkenik, edukin-multzo honekin, etorkizunera begira, garapen teknologiko berriek zabaltzen dituzten perspektiba teknologikoen nahiz adierazpen eta komunikazio-perspektiben ezagutzara hurbildu nahi du ikaslea.

• Los movimientos de cámara: la panorámica, «travelling» y «zooming».

• Las relaciones entre el tiempo del relato y tiempo de la historia: la elipsis. La continuidad en el relato.

2.2. Códigos sonoros: materiales expresivos de la banda sonora (palabra, música y efectos sonoros).

• El narrador audiovisual: personajes y actantes, la voz en off y el sonido no diegético.

2.3. Los códigos gráficos: (títulos, signos gráficos).

3. Los códigos de la articulación sintáctica: diferentes tipos de montaje (simultaneidad, montaje paralelo, alternado y convergente...).

B) Contenidos Procedimentales:

1. Comentario de diferentes producciones audiovisuales a partir del reconocimiento y análisis de los recursos narrativos utilizados.

2. Análisis crítico de diversos discursos audiovisuales (documental, informativo, ficcional, publicitario...), del montaje y efectos de sentido en diferentes producciones audiovisuales.

3. Manipulación de diferentes posibilidades en el tratamiento temporal de situaciones que han de ser expresadas audiovisualmente.

4. Análisis de bandas sonoras a través de la identificación de sus componentes básicos y sus implicaciones en la narración audiovisual.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Apreciación y valoración del patrimonio audiovisual.

2. Valoración crítica de las producciones audiovisuales de consumo según criterios de preferencia personal, apreciación estética y relevancia social.

BLOQUE 2. LA COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL. REPERCUSIONES SOCIALES E INDIVIDUALES DE LOS MEDIOS AUDIOVISUALES Y NUEVOS DESARROLLOS

Los contenidos a desarrollar son el concepto de comunicación y sus diversos modelos, los elementos que conforman un acto de comunicación, las diferencias entre la comunicación interpersonal y la comunicación mediada y los condicionantes que introducen las tecnologías en la comunicación.

También se estudiará la comunicación social, a partir del concepto de «mass media» y sus características, analizando mensajes de los «mass media» audiovisuales, así como las diferentes actitudes ante el uso y consumo personal y social, siendo conscientes de los efectos producidos en las audiencias y de la visión del mundo y los estereotipos sociales que propician.

Finalmente, con este bloque se pretende acercar al alumno al conocimiento de las perspectivas tecnológicas, expresivas y de comunicación que abren los nuevos desarrollos tecnológicos de cara al futuro.

Horretarako nahitaezko arloetan landutako hizkuntz komunikazioaren eta komunikazio artistikoaren azterketan eskuratu diren ezagutzen oinarritik abia badaiteke ere, edukin-multzo hau guztiz ikus-entzunezkoak diren dispositiboen hurbilketara zuzentzea komeni da.

LEHENENGO ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Komunikazioa prozesu gisa: informazioa, esanahaia eta interpretazioa.

2. Ikus-entzunezko komunikazioa. Pertsonarteko komunikazioa eta bitartekari bidezko komunikazioa.

3. Gizarte-komunikabideak: Ezaugarriak eta motak.

4. Errealitatearen eraikuntza soziala eta kulturala eta honen ikus-entzunezko berreraikuntza.

5. Kultur industria. Irratia eta telebista, informazioa, ikuskizuna, negozioa. Audientzia-mailak eta programazioan duten eragina. Komunikabideen hizkuntz aukerak.

6. Jokoa eta entretenimendua ikus-entzunezko espazioan: bideojokoak eta beste multimedia-euskarri batzuk.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko komunikabideek finkatzen dituzten komunikazio-tratamenduak eta hauek gizartean nahiz produkzioan eragiten dituzten transformazioak ulertzea.

2. Ikus-entzunezko komunikazioak egungo gizartean eta gure portaera pertsonaletan duen eraginari buruzko informazioa iturri desberdinetan bilatu eta hautatzea.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Ikusentzunezko komunikazioa informazioaren, aisiaren eta kulturaren iturri gisa eta honek gizabanakoaren nahiz taldearen garapenean dituen inplikazioak baloratzea.

2. Ikus-entzunezko komunikabideetan indarkeriazko portaerak nahiz portaera sexistak, diskriminatzaileak eta intoleranteak islatzen badira, honen aurrean jarrera kritikoak azaltzea.

3. Ikus-entzunezko komunikabideen ikusle eta erabiltzaile gisa ditugun ohituren aurrean jarrera kritikoa izatea.

4. Kontsumora bultzatzeko ahaleginei dagokienez irizpide batzuk eskuratzea eta publizitate iruzurtia zalantzan jartzea.

BIGARREN ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Informazioaren, komunikazioaren eta ikus-entzunezko transmisioaren horizonte berriak. Irudia eta informatika nahiz multimedia-euskarriak.

2. Ikus-entzunezko komunikazioa eta informazioa: objektibotasuna eta subjektibotasuna. Egiaren eragina

Aunque se puede partir como base de los conocimientos adquiridos en el estudio de la comunicación lingüística y artísticas ya trabajados en las áreas obligatorias, conviene que se oriente este bloque hacia un acercamiento a los dispositivos eminentemente audiovisuales.

PRIMER CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. La comunicación como proceso: información, significado e interpretación.

2. Comunicación audiovisual. Comunicación interpersonal y comunicación mediada.

3. Los medios de comunicación social: Características y tipos.

4. Construcción social y cultural de la realidad y su reconstrucción audiovisual.

5. La industria cultural. Radio y televisión: información, espectáculo y negocio. Los niveles de audiencia y su repercusión en la programación. Las opciones lingüísticas de los medios.

6. El juego y el entretenimiento en el espacio audiovisual: los videojuegos y otros soportes multimedia.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Comprensión de los tratamientos comunicativos que determinan los medios audiovisuales y las transformaciones sociales y productivas que ocasionan.

2. Búsqueda y selección, a partir de diferentes fuentes, de información sobre la influencia de la comunicación audiovisual en la sociedad actual y en nuestros comportamientos personales.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración de la comunicación audiovisual como fuente de información, ocio y cultura y sus implicaciones en el desarrollo individual y colectivo.

2. Muestra de actitudes críticas ante el reflejo de comportamientos violentos, sexistas, discriminatorios e intolerantes en los medios audiovisuales.

3. Actitud crítica ante los propios hábitos como espectadores o usuarios de medios de comunicación audiovisual.

4. Adopción de criterios ante la incitación al consumo indiscriminado y cuestionamiento de la publicidad engañosa.

SEGUNDO CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. Los nuevos horizontes en la información, comunicación y transmisión audiovisual. Imagen e informática y soportes multimedias.

2. Comunicación audiovisual e información: objetividad y subjetividad. Efectos de verdad y credibilidad

eta ikus-entzunezko informazioaren sinesgarritasuna. Ideologia eta aniztasun beharra nahiz iturrien arteko kontrastea.

3. Informazio-fluxuak eta informazio-zirkuitu berriak. Ikus-entzunezko komunikazio-multinazionalak: kulturaren eta informazioaren kolonialismoa.

4. Ikus-entzunezko komunikabideek iritzi publikoaren konfigurazioan informazioaren bidez duten zeregina. Demokrazia, aldakuntza eta gizartearen kontrola.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Ikus-entzunezko produktuen irakurketa objektiboa eta subjektiboa: denotazioa eta konnotazioa.

2. Iturri desberdinetatik garapen teknologiko berriei buruzko informazioa bilatzea eta hautatzea.

3. Ikus-entzunezko informazioaren prozedura erretoriko eta limurtzailea identifikatu eta hauei buruzko iruzkina egitea.

4. Telebistako informazioa ikuskizun bihurtzeko prozesuaren analisia (albistegiak, dokudramak, reality-show).

C) Jarrerazko edukinak:

1. Ikusentzunezko komunikazioa informazioaren, aisiaren eta kulturaren iturri gisa eta honek gizabanakoaren nahiz taldearen garapenean dituen inplikazioak baloratzea.

2. Ikus-entzunezko komunikabideetan indarkeriazko portaerak nahiz portaera sexistak, diskriminatzaileak eta intoleranteak islatzen badira, honen aurrean jarrera kritikoak azaltzea. Gizarte eta hizkuntz estereotipoen sorrera.

3. Ikus-entzunezko komunikabideen ikusle eta erabiltzaile gisa ditugun ohituren aurrean jarrera kritikoa izatea.

4. Garapen teknologiko berriak gizarte-errealitatea aldatzen duten elementu gisa baloratzea.

5. Gizabanakoak nahiz taldeak informazio-iturriak eta ikus-entzunezko produktuak izateko dituen aukeren balorazio kritikoa egitea.

### 3. MULTZOA. IKUS-ENTZUNEZKO ADIERAZPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Edukin-multzo honen bidez, ikus-entzunezko lengoaiaren adierazpen-elementuen ezagutzatik abiatuz, ikus-entzunezko produkzioak eta mezuak lantzeko antolaketa-prozedurei, hau da, aurre-aurreprodukzioko prozesuei eta transkodifikazio-lanei (idazketa-tailerra, literatur gidoia eta kontakizunaren antolaketa narratiboa, plangintza eta gidoi teknikoa), nahiz ikus-entzunezkoen produkzio eta errealizazio-prozedurei (eszenaratzea eta denboraren eta kontakizunaren artikulazioa) buruzko hastapenak eman nahi zaizkie ikasleei.

Ikaskuntza praktiko hau ikus-entzunezko komunikabide desberdinen bidez burutu ahal izango da ziklo bakoitzean baina lehenengo zikloan irudi finkoak (fotografia) edo sekuentzializatutako irudi estatikoak (istoriotxo grafikoa, fotonobela, etab.) erabiltzen dituzten

de la información audiovisual. Ideología y necesidad de diversidad y contraste de fuentes.

3. Los flujos informativos y los nuevos circuitos de la información. Las multinacionales de la comunicación audiovisual: colonialismo cultural e informativo.

4. Papel de los medios audiovisuales en la configuración de la opinión pública a través de la información. Democracia, cambio y control social.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Lectura objetiva y subjetiva de los productos audiovisuales: denotación y connotación.

2. Búsqueda y selección, a partir de diferentes fuentes, de información sobre nuevos desarrollos tecnológicos.

3. Identificación y comentario de los procedimientos retóricos y persuasivos en la información audiovisual.

4. Análisis del proceso de espectacularización en la información televisiva (noticiarios, docudramas, reality-show).

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración de la comunicación audiovisual como fuente de información, ocio y cultura y sus implicaciones en el desarrollo individual y colectivo.

2. Muestra de actitudes críticas ante el reflejo de comportamientos violentos, sexistas, discriminatorios e intolerantes en los medios audiovisuales. La formación de estereotipos sociales y lingüísticos.

3. Actitud crítica ante los propios hábitos como espectadores o usuarios de medios de comunicación audiovisual.

4. Valoración de los nuevos desarrollos tecnológicos como elementos transformadores de la realidad social.

5. Valoración crítica del acceso individual y colectivo a las fuentes de información y a los productos audiovisuales.

### BLOQUE 3. EXPRESIÓN Y COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL

A través de este bloque, partiendo del conocimiento de los elementos expresivos del lenguaje audiovisual, se pretende introducir a los alumnos y alumnas en los procedimientos organizativos para la confección de mensajes y producciones audiovisuales; es decir, en los procesos de pre-producción y el trabajo de transcodificación (taller de escritura, guión literario y organización narrativa del relato, planificación y guión técnico), así como en los procedimientos de producción y realización audiovisual (puesta en escena y articulación temporal y narrativa).

Este aprendizaje práctico se podrá realizar en cada uno de los ciclos a través de diferentes medios audiovisuales, siendo preferible el acercamiento durante el primer ciclo a medios que utilicen imágenes fijas (fotografía) o imágenes estáticas secuencializadas (historieta

komunikabideei buruzko hastapenak ematea komeni da, bigarren zikloan mugitzen diren irudiak erabiltzen dituzten komunikabideak aztertzeko.

LEHENENGO ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Irudiak sortzeko prozesuaren faseak behatzea (aurretiko ideia, adierazpen-materialen hautaketa eta errepresentazio-prozedura).

2. Fotografia:

2.1. Oinarrizko elementuak eta ezaugarriak.

2.2. «Collagea» eta fotonobela.

3. Istoriotxo grafikoa:

3.1. Elementuak eta ezaugarriak: kode ikoniko-bisualak, hizkuntz kodeak eta hitzezko kodeak. Bineta edo piktograma.

3.2. Istoriotxo grafikoaren adierazpen-baliabideak; figurak, testuak eta ballons-ak.

3.3. Muntaketa eta jarraitasuna kontaketa grafikoan.

3.4. Argumentutik, idatzitako eta marraztutako gidoira.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Collagearen, diseinu grafikoaren, kartelen, komikiaren, fotografiaren eta fotonobelaren bidez irudiak manipulatu, birlandu eta produzitzea.

2. Gailu fotografikoa manipulatzeko prozedurak.

3. Laborategi fotografikoa, diseinu fotografikoak errebelatu eta positibatzeko erabiltzea.

4. Istoriotxo grafikoetako orrialdeak lantzea, argumentua definituz, idatzitako gidoia zehaztuz eta marraztuz.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Adierazpen eta komunikazio-prozedura desberdinak bilatu eta ikertzeko motibazioa.

2. Ikus-entzunezko teknika desberdinak esperimentatu eta aplikatzeagatiko interesa.

3. Talde-ihardueretan jarrera solidarioarekin eta lankidetzarako gogoarekin parte hartzea.

4. Kezkak eta interes pertsonalak, sortutako irudien bidez adierazteko bideak sustatzea.

5. Lanean higienea, zorroztasuna eta zehaztazuna izateko nahiz ikus-entzunezko materialak eta komunikabideak zaindu eta artatzeko ohiturak eskuratzea.

BIGARREN ZIKLOA

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Ikus-entzunezko prozesuaren faseak:

1.1. Aurre-aurreprodukzioa eta transkodifikaziolana: Argumentua, gidoi literarioa eta kontakizunaren antolaketa narratiboa, produkzioaren plangintza eta Gidoi Teknikoa.

gráfica, fotonovela...), para abordar durante el segundo ciclo aquellos medios que utilizan imágenes en movimiento (vídeo, cine, televisión...)

PRIMER CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. Observación de las fases del proceso de producción de imágenes (idea previa, selección de materiales expresivos y procedimientos de representación).

2. La fotografía:

2.1. Elementos básicos y características.

2.2. El «collage» y la fotonovela.

3. La historieta gráfica:

3.1. Elementos y características: códigos icónico-visuales, lingüístico-verbales. La viñeta o pictograma.

3.2. Los recursos expresivos de la historieta gráfica: figuras, texto y balloons.

3.3. El montaje y la continuidad en la narración gráfica.

3.4. Del argumento al guión escrito y dibujado.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Manipulación, reelaboración y producción de imágenes a través de collage, diseños gráficos, cartel, cómic, fotografía, fotonovela.

2. Procedimientos para la manipulación del dispositivo fotográfico.

3. Utilización del laboratorio fotográfico para el revelado y positivado de diseños fotográficos.

4. Elaboración de páginas de historietas gráficas, definiendo el argumento, concretando el guión escrito y dibujando.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Motivación por la búsqueda e investigación de diversos procedimientos de expresión y comunicación.

2. Interés por la experimentación y aplicación de diferentes técnicas audiovisuales.

3. Participación en actividades grupales con actitudes solidarias y cooperativas.

4. Fomento de la expresión de inquietudes e intereses personales a través de las imágenes creadas.

5. Adquisición de hábitos de higiene, rigor y precisión en el trabajo, así como en el cuidado y conservación de los materiales y medios audiovisuales.

SEGUNDO CICLO

A) Contenidos Conceptuales:

1. Fases del proceso de producción audiovisual:

1.1. La pre-producción y el trabajo de transcodificación: Argumento, Guión literario y organización narrativa del relato, planificación de la producción y Guión Técnico.

1.2. Ikus-entzunezko produkzioa eta errealizazioa: eszenaratzea eta denboraren nahiz kontakizunaren artikulazioa.

2. Talde-lanaren koordinazioaren eta lankidetzaren fruitu diren ikus-entzunezko produktuak. Produkzio-rolak eta funtzioak.

3. Irudi zinematografikoa:

3.1. Zinearen jatorria eta eboluzioa (antzinakoa, erakundeena, abangoardiak eta zine «independientea»).

3.2. Adierazpen-materialak eta lengoaia zinematografikoak.

4. Irudi elektronikoa:

4.1. Bideokamera: sistema optikoa eta prozesamendu elektronikoa.

4.2. Magnetoskopioa eta euskarriak: formato analogikoak eta digitalak. Sintesi-irudia.

4.3. Bideoa esperimentazioaren eta kontakizunaren artean.

5. Telebista:

5.1. Telebista zuzenean.

5.2. Produkzioaren antolaketa eta bere funtzioak. Telebistaren azterketa.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Asmo informatiboa, dokumentala, fikziozkoa, adierazpenezkoa, etab. duten ikus-entzunezko komunikazio-proiektuak lantzeko proposamenak egitea eta haietan parte hartzea.

2. Ikus-entzunezko komunikazio-proiektuetan produzkio-rol desberdinak beregain hartzea.

3. Bideoa eta bere osagai desberdinak erabiltzea, bere kontrolak eta erregistratzeko, gordetzeko eta irudiak nahiz soinua erreproduzitzeko funtzioak maneiatuz.

4. Adierazpen-helburu desberdinak dituzten grabaketa bideografikoak egitea.

5. Formato generiko desberdinen arabera ikus-entzunezko produkzioak egitea.

6. Ekipo elektronikoak konektatu eta sintonizatzea (telebista, magnetoskopioa, bideokamerak, etab.).

C) Jarrerazko edukinak:

1. Banakako eta taldeko lankidetzarako antolaketa-portaerak eskuratzea.

2. Ikus-entzunezko produkzio-prozesu kolektiboetan integratu eta hauek koordinatzeko gaitasunak garatzea, itundutako rolen araberako erantzukizunak beregain hartuz eta lankidetzan iharduteko jarrerak izanez.

3. Ikus-entzunezko komunikabide eta materialen mantenimenduari eta zaintzari dagokionez, lanean zehatza eta zorrotza izateko eta higienea zaintzeko ohitura eskuratzea.

4. EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Ikus-entzunezko irudi batzuk analizatzea, erabilitako adierazpen-elementu desberdinak nahiz esanahiak sortzerakoan hauek dituzten elkarreraginak onartuz.

1.2. La producción y realización audiovisual: puesta en escena y articulación temporal y narrativa.

2. Los productos audiovisuales obra de la colaboración y la coordinación del trabajo colectivo. Roles productivos y funciones.

3. La imagen cinematográfica:

3.1. Origen y evolución del cine (primitivo, institucional, vanguardias y cine «independiente»).

3.2. Materiales expresivos y lenguajes cinematográficos.

4. La imagen electrónica:

4.1. La cámara de vídeo: sistema óptico y procesamiento electrónico.

4.2. El magnetoscopio y soportes: formatos analógicos y digitales. Imagen de síntesis.

4.3. El vídeo entre la experimentación y la narración.

5. La televisión:

5.1. El directo televisivo.

5.2. Organización de la producción y sus funciones. El estudio de televisión.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Propuesta y participación en la elaboración de proyectos de comunicación audiovisual con intencionalidad informativa, documental, ficcional, expresiva...

2. Asunción de distintos roles productivos en proyectos de comunicación audiovisual.

3. Utilización del vídeo, de sus diversos componentes, manejando sus controles y funciones de registro, almacenamiento y reproducción de imágenes y sonidos.

4. Realización de grabaciones videográficas con diferentes finalidades expresivas.

5. Realización de producciones audiovisuales según diferentes formatos genéricos.

6. Conexionado y sintonización de equipos electrónicos (televisión, magnetoscopios, videocámaras...).

C) Contenidos Actitudinales:

1. Adquisición de comportamientos organizativos a nivel individual y de colaboración grupal.

2. Desarrollo de capacidades de coordinación y de integración en procesos colectivos de producción audiovisual, adoptando actitudes colaboradoras y de asunción de responsabilidades en función de los roles acordados.

3. Adquisición de hábitos de higiene, rigor y precisión en el trabajo y en el cuidado y mantenimiento de los materiales y medios audiovisuales.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Analizar algunas imágenes audiovisuales, a partir del reconocimiento de los diferentes elementos expresivos utilizados y de su interrelación en la producción de significados.

Irizpide honen bidez ikasleak ikus-entzunezko irudi desberdinetan parte hartzen duten adierazpen-elementuen irakurketa desberdinak egiteko eta ezagutzeko nahiz hauek asoziatuz lor daitezkeen zentzu-efektu eta esanahi desberdinak interpretatzeko gai den egiaztatu nahi da.

2. Ikus-entzunezko mezuak ikuspegi formaletik analizatzea, erabilitako egitura narratiboak eta adierazpen nahiz estilo-baliabideak bistan jarriz.

Irizpide honen bidez ikasleak duen ikus-entzunezko komunikazioan inplikatutako produkzio-baliabideen eta kodeen ezagutza egiaztatu nahi da (enkoadraketak, planoak, engeluak, mugimenduak, soinua, iluminazioa, eszenen eta sekuentzien antolaketa, erritmoa, elipsia, muntaketa-mota, etab.), komunikazio-helburuen aniztasunaren ikuspegitik.

3. Ikus-entzunezko komunikabide desberdinen bidez mezuak produzitu eta manipulatzea, bidezko gidoiketa eta antolaketa-prozesuari egokituz eta hauen burutzapenean «rol» desberdinak beregain hartuz.

Irizpide honen bidez, manipulatzeko abilezia, antolaketa-jarrerak praktikan jartzeko gaitasuna eta ezagutzen erabilera ebaluatu nahi da. Gainera, emaitza jakinen gainean, landutako produktuaren originaltasuna, sormena eta egokitzapena baloratzea ahalbidetzen du.

4. Iturri desberdinak erabiliz, ikus-entzunezko komunikabideek, ezagutzen, pentsatzen edo sinesten dugunarekiko dituzten eragin batzuk deskribatzen dituen ikerketa bat lantzea, ikusleen borondatearekiko, jarrerekiko edo sentimenduekiko eragina izateko erabiltzen diren baliabideen adibideak jarriz.

Irizpide honen bidez, ikus-entzunezko mezuen eraginaren aurrean eta bereziki mezu informatibo eta publizitarioen aurrean gogoeta eta interpretazio-jarrera eskuratu den ebaluatu nahi da (adibidez, komunikabideek ematen dizkiguten emakumearen eta gizonezkoaren estereotipoak ikertu eta gure inguruko pertsonekin alderatzea, «status»ari eta «rol»ei buruzko gogoeta egitea, etab.). Hauen presioak gure kultur kontsumoko eta portaerako ohiturak baldintzatzen ditu neurri handi batean.

5. Ikus-entzunezko produkzioen talde-proiektuak lantzea, hauen burutzapenean aktiboki eta lankidetzaz parte hartuz eta prozesuan zehar egindako aukerak eta aukeratutako baliabideak, abiapuntuko komunikazio-helburua lortzeko egokiak diren baloratuz.

Irizpide honen bidez ikaslea ikus-entzunezko produkzio bat egiteko talde-lanean aktiboki inplikatzeko gai ote den, prozesuan sortutako eragozpenen aurrean kooperatiboki erreakzionatzen ote duen eta hartutako erabakien eta egindako aukeren bidezkotasuna eta funtzionaltasuna baloratzeko gai ote den egiaztatu nahi da. Gainera erabilitako baliabideen eta komunikabideen funtzionaltasuna ere baloratu nahi da, aurrez finkatutako komunikazio-asmoen arabera.

6. Ikus-entzunezko produktuen kalitateari buruzko iritzia eman eta iruzkinak egitea, arrazoia erabiliz, iri-

Con este criterio se pretende evaluar si el alumno o alumna es capaz de reconocer y efectuar diferentes lecturas de los elementos expresivos intervinientes en diferentes imágenes audiovisuales, así como de interpretar los diversos significados y efectos de sentido que se pueden producir por la asociación de los mismos.

2. Analizar mensajes audiovisuales desde un punto de vista formal, poniendo al descubierto las estructuras narrativas y los recursos estilísticos y expresivos empleados.

Este criterio trata de comprobar el conocimiento que el alumno o alumna tiene de los recursos productivos y códigos implicados en la comunicación audiovisual (encuadres, planos, ángulos, movimientos, sonido, iluminación, organización de escenas y secuencias, ritmo, elipsis, tipo de montaje...) desde la perspectiva de la diversidad de finalidades comunicativas.

3. Manipular y producir mensajes con diferentes medios audiovisuales, ajustándose a un proceso de guionización y organización apropiado y pudiendo asumir distintos «roles» en la realización.

Con este criterio se trata de evaluar las habilidades manipulativas, la capacidad de poner en práctica actitudes organizativas y la aplicación de conocimientos. Además permite valorar, sobre resultados concretos, la adecuación, la creatividad y originalidad del producto elaborado.

4. Elaborar alguna investigación, utilizando diferentes fuentes, en la que se describan algunas de las influencias de los medios de comunicación audiovisual sobre lo que conocemos, pensamos y creemos, poniendo ejemplos de los recursos que se suelen utilizar para que actúen sobre la voluntad, actitudes o sentimientos de los espectadores/as.

Este criterio pretende evaluar si se ha adquirido una actitud reflexiva e interpretativa, frente a la influencia de los mensajes audiovisuales, especialmente los informativos y publicitarios, cuya presión condiciona en buena medida nuestros hábitos de consumo cultural y comportamiento (por ejemplo, investigar los estereotipos de la mujer y el hombre que nos presentan los medios, compararlos con las personas que nos rodean en nuestro entorno, reflexionar sobre el «status» y los «roles»...)

5. Elaborar proyectos colectivos de producción audiovisual, participando activa y cooperativamente en su realización y valorando si los recursos y opciones tomadas durante el proceso son adecuados a la finalidad de comunicación de partida.

Con este criterio se pretende valorar si el alumno/a es capaz de implicarse activamente en un trabajo grupal de producción audiovisual, si reacciona cooperativamente ante las dificultades surgidas en el proceso y es capaz de valorar la pertinencia y funcionalidad de las opciones y decisiones tomadas, así como la funcionalidad de los recursos y medios empleados, teniendo en cuenta las intenciones comunicativas fijadas previamente.

6. Comentar y emitir opiniones apreciativas sobre la calidad de productos audiovisuales, de manera razona-

tzi kritikoa izateko eta ikus-entzunezkoen eskaintzaren aurrean hautatzeko nahiz baloratzeko gaitasuna azalduz.

Irizpide honen helburua, ikuspuntu pertsonaletik nahiz sormenaren, kulturaren edo historiaren ikuspegitik interesgarria den formatoa edo edukina duten ikus-entzunezko produktuak, kontsumo-eredu estereotipatu, ikusgarri edo hutsalen arabera egidako produkzioen aurrean haiek baloratzeko gai ote den egiaztatzea da.

7. Ikus-entzunezkoen produkzioan inplikatutako produkzioarekin zerikusia duten lanbide desberdinen zeregina desberdintzea.

Irizpide honen bidez, bere inguru produktiboko ikus-entzunezko egintzen konplexutasunaz jabetzen ote den eta haiek beharrezko baliabide tekniko nahiz giza baliabide desberdinen antolaketan dituzten inplikazioak preziatzen ote dituen egiaztatu nahi da. Honek, beranduago ikasketei edo lanbideari dagokionez egin beharko duen aukera erraztuko dio ikasleari.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Plastika eta Ikus-hezkuntzaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak Marrazketa espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

## HERRI-ONDAREA ETA KULTURA ZAINTZEKO ETA BERRESKURATZEKO TAILERRA

### 1.– SARRERA

Hezkuntzak gure gizartearen kultur jakituria belaunaldi berrien eskueran jarri ahal izateko kulturaren ikaskuntza funtzionala izatea ahalbidetuko duten formulak ezarri behar ditu; hau da, metatzeko kultura bat baino gehiago erabiltzeko kultura bat izaeta, eta hori ikasleak curriculum-edukinaren kultur esanahia ulertu eta bizi duenean gerta daiteke.

Gaur egun, gure gizartean nerabea nolabait gizarte homogeno bihurtzeko joera duen masa-kultura batean dago murgilduta. Eragin hori minimizatzeko, hezkuntza-sistemak ikasleari bere gaur egungo garaian eta espazioan oinarrituta dagokion ingurune soziokultura ezagutzeko aukera eskaini behar dio, ordea aurreko belaunaldien ondorio direla ahaztu gabe. Kontua hauxe da, herri-kulturan gehiago sakontzea, askotan beste kultur garapenetarako inspirazio-iturri eta oinarri izan delako eta eskola-curriculumean gutxitan agertu delako.

Jakintzagai honen helburua kultur ondarea ezagutu, zaindu eta berreskuratzea da, belaunaldi batetik bestera

da, demostrando la adopción de un juicio crítico y la capacidad de una selección y valoración ante la oferta audiovisual.

Este criterio va dirigido a comprobar si se es capaz de valorar los productos audiovisuales que por su formato o contenido se juzgan interesantes desde un punto de vista personal, creativo, cultural o histórico, frente a otras producciones realizadas según patrones de consumo estereotipados, espectaculares o banales.

7. Diferenciar el cometido de distintas profesiones implicadas en la producción audiovisual.

Este criterio trata de comprobar si el alumno/a es consciente de la complejidad del hecho audiovisual en su esfera productiva y aprecia sus implicaciones en la organización de los diferentes recursos técnicos y humanos necesarios, lo que permite mejorar su capacidad para una ulterior elección académica o profesional.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de comunicación audiovisual)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Area de Educación Plástica y Visual, pudiendo impartirla además los profesores que posean alguna de las titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de Dibujo.

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

## TALLER DE CONSERVACIÓN Y RECUPERACIÓN DEL PATRIMONIO Y CULTURA POPULAR

### l.– INTRODUCCIÓN

Para que la educación pueda poner a disposición de las nuevas generaciones el bagaje cultural de nuestra sociedad tiene que establecer fórmulas que posibiliten hacer funcional el aprendizaje de la cultura- es decir, una cultura para ser usada y no sólo para ser acumulada, y esto puede ocurrir cuando el alumnado comprende y vive la significación cultural de los contenidos del currículo.

Actualmente en nuestra sociedad el adolescente está inmerso en una cultura de masas que tiende a una cierta homogeneización social. Para minimizar esta influencia, el sistema educativo debe ofrecer al alumnado la posibilidad de conocer su entomo sociocultural partiendo de su momento y espacio actuales, pero sin olvidar que son el fruto de generaciones anteriores. Se trata de profundizar algo más en lo que hace referencia a la cultura popular, que en muchas ocasiones ha servido de inspiración y base para otros desarrollos culturales, y que está menos presente en el currículo escolar.

Esta materia, tiene por finalidad el conocimiento, la conservación y recuperación del patrimonio cultural

eskualdatzen diren ondare material eta ez-material guztiak, sinbolikoki identitatearen eta gizartearen errreferente bihurtutakoak, hain zuzen. Ikasleak, bere gertuko errealitatearen ikertzaile gisa ihardunez, kultura hori preziatu, ulertzen saiatu, kultura horrekiko interesa eta dagozkion arazoen aurrean sentsibilitatea erakutsi, errespetatu, erantzukizuna hartu eta hobeto ezagutzeko lan egin ahal izango du.

Euskal Herria berezkoa duen kulturaren gordetzailea da, eta beste herri batzuetako kulturatik bereizten duten nortasun-zeinuak dauzka; ibilbide historiko berezi batean eta esparru geografiko zehatz batean sendotu den kultura da, eragin desberdinak laburtu, bildu eta bere egin dituena.

Ildo horretatik, herritzat denboran irauten duen inguru edo hedadura geografiko bat hartzeagatik bereizten den gizarte-unitatea hartzen dugu, leku berean bizitzeagatik eta hizkuntza, mentalitate, ohitura eta balore berak izateagatik elkarren artean lotura bat dutela jabetzen diren norbanakoek eta norbanako-taldeek osatua izanik.

Jakintzagai honekin ikaslearengan interesa piztuko duten eta disziplinarteko tratamendua bultzatuko duten gaien planteamendua sustatu nahi da, berezkoak dituen kultur elementuen aurrean behaketa eta jakinmina eraginez. Baina, horrez gain, adin horietako ikasleak murgilduta dauden sozializazio-prozesuan lagundu nahi da. Jakintzagai honek, batetik, ikasleen heldutasun kognitiboa eta afektiboa bultzatu behar du, bereizten dituzten kultur zeinuak identifikatzen, bereganatzen eta lantzen, eta euskal gizarteak etorkizunari begira planteatu dituen proiektuetan ikuspegi kritiko batez inplikatzen lagunduz. Bestetik, kolektibo eta kultura desberdinen aurrean jarrera irekiak eta tolerantziazkoak sor ditzake ikasleengan, horrela gaur egun munduan kaltea eragiten ari diren gatazka larrien oinarrian dauden ikuspegi baztertzaileak gaindituz.

Jakintzagai honi emango zaion zentzua eta orientabidea, neurri batean, kultura ulertzen den moduaren araberakoa izango da. Hemen, kultura hitza bere esanahi orokorrenean erabiliko dugu, hau da, gizarte jakin baten bizimodu gisa, kultur antropologiaren eremuko definizio klasikoari erantzunez. Kulturaren ikuskera dinamikoa kontuan hartu beharra dago, kultura bizi den eta etengabeko elaborazio-prozesuan dagoen zerbait balitz bezala hartuta. Kultur errealitate berrietara irekitzeak kultur arloaren ikuspegi estatikoagoak eta arkeologitzaileagoak gainditzea eta sorkuntza berriagoak barneratzea ahalbidetuko die ikasleei.

Ikuspegi zabal eta integratzaile batetik begiratuta, euskal kulturaren alderdi herrikoienak eta kultura unibertsalagoari dagozkionak bildu nahi dira. Tratamendu global baten esparruan, herri-kultur ondarearen osagai diren alderdi anitzen elkarlotura aintzat hartu behar da, bilduma folklorista soilak bailiran alderdi isolatuen ikuspegi partzialak gaitzetsiz. Kultura, batetik, bere barne-aniztasuna eta, bestetik, arrazoi historikoak, geografikoak, soziologikoak edo bestelakoak direla-eta zenbait berezitasunetan beste kultur errealitate batzuekin dituen loturak kontuan izanik aztertu behar da;

entendido como el conjunto de bienes materiales y no materiales que se transmiten de una generación a otra y que se convierten simbólicamente en un referente de identidad como sociedad. El alumnado, actuando como investigador de su realidad inmediata, podrá apreciar esa cultura, esforzarse en comprenderla, interesarse por ella, mostrarse sensible a sus problemas, respetarla, responsabilizarse y trabajar para su mejor conocimiento.

El pueblo vasco es depositario de una cultura propia, con un carácter genuino e identificable, que permite diferenciarla de la cultura de otros pueblos, una cultura que se ha ido forjado en una trayectoria histórica particular y en un marco geográfico definido, sintetizando, recogiendo y convirtiendo en propias diversas influencias.

En este sentido, se ha de entender por pueblo la unidad social que se caracteriza por ocupar una área o extensión geográfica que permanece en el tiempo, aunque sujeta a cambios, y que está constituido por individuos y grupos de individuos con consciencia de estar vinculados entre sí, por ocupar un mismo espacio y compartir una lengua, mentalidad, costumbres y valores comunes.

Con esta materia se pretende promover el planteamiento de temas que despierten el interés del alumnado y que favorezcan un tratamiento interdisciplinar, fomentando el espíritu de observación y la curiosidad ante aquellos elementos culturales que le son propios. Pero además, pretende contribuir al proceso de socialización en el que se hallan inmersos los/as alumnos/as de estas edades. Por un lado, debe propiciar su maduración cognitiva y afectiva ayudándoles a identificar, asimilar y cultivar, las señas culturales que los singularizan y a implicarse críticamente en los proyectos de futuro que la sociedad vasca tiene planteados. Por otro, puede generar en ellos actitudes abiertas y tolerantes hacia colectivos y culturas diferentes, superando visiones exclusivistas que están en la base de graves conflictos que afectan al mundo en la actualidad.

El sentido y la orientación que se dé a esta materia dependerá también, en parte, de la forma en que se entienda la cultura. Se utilizará aquí el término en su acepción más global, es decir, entendida como el modo de vida de una determinada sociedad, respondiendo a una definición clásica en el ámbito de la Antropología cultural. Se debe tener en cuenta la concepción dinámica de la cultura, entendida como algo vivo, en continuo proceso de elaboración. La apertura a nuevas realidades culturales, permitirá superar visiones más estáticas y arqueologizantes de lo cultural e incorporar creaciones más recientes.

Desde una perspectiva amplia e integradora, se intentan recoger tanto los aspectos más populares de la cultura vasca como aquellos otros pertenecientes a la esfera de la cultura más universal. En el marco de un tratamiento global, debe desarrollarse un planteamiento interrelacionado de la multiplicidad de aspectos que forman parte del patrimonio cultural popular, rechazando enfoques parciales de aspectos aislados a modo de simples recopilaciones folcloristas. Su estudio debe abordarse desde la doble perspectiva de su diversidad interna y de sus relaciones con realidades culturales con

euskal kulturako adierazpen jatorrenetako batzuek duten unibertsaltasun- eta hedapen-alderdia ere baloratuko da.

Aztertutako edukinak hiru multzo handitan egituratzen dira: Arte- eta Dokumentu-Ondarea, Sinesmenak, Erritoak eta Jaiak, eta Etxeko Bizitza; horietan, hain zuzen, euskal kultur ondarearen alderdi esanguratsuenak bildu nahi izan dira, edukin horiek ikasitako beste zenbait arlotako (Gizarte-Zientziak, Natur-Zientziak, Teknologia, Hizkuntza eta Literatura, Plastika eta Ikus-Hezkuntza, Musika, etab.) beste edukin batzuekin loturak ezartzen ahaleginduz, horiek beharrezko erreferentzi iturria eskainiko baitiote ikasleari. Gainera, hori horrela egitea gomendatzen bada bi arrazoirengatik da: kulturaren izaera globalagatik eta kultur ondarearen konplexutasunak eta zabaltasunak diziplinarteko tratamendua eskatzen dutelako.

Multzo bakoitzean, bertan aztergai diren ondarearen alderdi zehatzak labur-labur aurkezten dira, eta ondoren erabil daitezkeen edukinen zerrenda generikoa agertzen da. Multzo bakoitzean gai desberdinak aztertzeak eta multzo desberdinen artean askotariko loturak eta alderdi amankomunak izateak multzoak elkarri lotuta aztertzea ahalbidetzen dute. Kasu bakoitzean beharrezkoa izango da garatuko diren edukinak ikastetxea dagoen inguruneko baliabideen eta ezaugarrien arabera aukeratzea, bai eta ikasleen interesen eta jakintzagai hau beste batzuekin elkar lortzeko ahalbideen arabera ere.

Jakintzagai honetarako proposatutako ikuspegia eta helburuak kontuan izanik, prozedurazko eta jarrerazko edukinek irakaskuntza/ikaskuntza prozesuaren ardatz antolatzaile gisa balio beharko dute, eta horregatik, hain zuzen, dagozkien multzoetan zehaztasun handiagoz agertzen dira, inguruneko ahalbideen arabera garatzea gomendatzen den kontzeptuzko edukinak, beste zenbait erreferenteren artean, zehaztuz.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Euskal kulturaren ezaugarriak eta berezitasunak ezagutu eta baloratzea, dagozkion adierazpide desberdinetan, eta bere izaera globala eta bere osagaien artean dauden hainbat elkarlotura ulertzea.

2. Euskal kultur ondarearen alderdi desberdinen konfigurazioan esku hartu duten oinarrizko faktore historiko eta espazial batzuk aztertzea, eta alderdi horien ezaugarriak mugatzean izan duten eragina baloratzea.

3. Ingurune fisikoa kultura garatzen den beharrezko esparru gisa hartzea, eta kultura gizakiaren eta ingurunearen arteko etengabeko elkarreraginaren ondorioa dela ulertzea, bertara moldatzeko eta bere probetxurako aldatzeko saioan.

las que comparte determinadas peculiaridades por razones históricas, geográficas, sociológicas o de cualquier otro tipo; también se valorará la dimensión de universalidad y difusión que alcanzan algunas de las manifestaciones más genuinas de la cultura vasca.

Los contenidos tratados se presentan estructurados en tres grandes núcleos Patrimonio artístico-documental, Creencias, ritos y fiestas y la vida doméstica, donde se han intentado recoger los aspectos más significativos del patrimonio cultural vasco, procurando la relación de estos contenidos con otros de otras áreas (CCSS, CC.NN, Tecnología, Lengua y Literatura, Ed. Plástica y Visual y Música ... ) cursadas por el alumnado y que pueden ofrecer el necesario marco de referencia. Y esto es adecuado hacerlo así , por una parte, por el carácter global de la cultura, y, por otra, porque la complejidad y amplitud del patrimonio cultural exigen un tratamiento interdisciplinar.

Cada núcleo Incluye una breve presentación de los aspectos concretos del patrimonio que en él se abordan, seguido de una enumeración genérica de los contenidos que se pueden poner en juego en relación con ellos. El hecho de que se traten un número variado de temas en cada bloque y que entre los distintos bloques existen múltiples conexiones y aspectos comunes permite que los núcleos puedan tratarse de forma interrelacionada. En cada caso será necesario seleccionar los contenidos que se vayan a desarrollar de acuerdo con los recursos y características del entorno en el que el centro se encuentre, de los intereses del alumnado y de las posibilidades de interrelación de esta materia con otras áreas.

El enfoque y los objetivos que se proponen para esta materia exigen que sean los contenidos procedimentales y actitudinales los que sirvan de eje organizador del proceso de enseñanza-aprendizaje, es por ello que se especifican en los bloques correspondientes con una mayor especificidad, dejando que sean las posibilidades del entorno las que, entre otros referentes, marquen los contenidos conceptuales a alcanzar.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Conocer y valorar los rasgos y peculiaridades de la cultura vasca en sus diversas manifestaciones, comprendiendo el carácter global de la misma y las múltiples interrelaciones entre sus componentes.

2. Analizar algunos factores históricos y espaciales básicos que han intervenido en la configuración de distintos aspectos del patrimonio cultural vasco, valorando la influencia de los mismos en la delimitación de sus características.

3. Reconocer el medio físico como marco necesario en el que se desarrolla la cultura, entendiéndola como fruto de la continua interacción entre el ser humano y el entorno, en un intento por adaptarse al mismo y modificarlo para su aprovechamiento.

4. Euskal kulturaren eta beste herri batzuetakoen arteko loturak identifikatu eta aztertzea, gainerako kulturak errespetatu eta baloratzeko eta horien guztien funtsezko hedadura amankomunak antzemateko bide gisa.

5. Euskal gizartea osatzen duten talde desberdinek bertako kultur ondasunaren eraketan egindako ekarpena ezagutu eta baloratzea, eta edozein motako jarrera eta jokabide diskriminatzaileak gainditzea.

6. Euskal kultur ondareak duen garrantzia baloratzea, herri baten ezaugarrien adierazle gisa eta gozatzeko bide gisa, eta ondare hori hedatzen, zaintzen eta berreskuratzen konpromisuzko jarrerak erakustea.

7. Euskararen eta Euskal Herriko sineste, errito eta festen artean dauden harremanak ezagutu eta analizatzea, euskal ondare kulturalaren funtsezko elementu gisa baloratuko delarik.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. ARTE-ONDAREA

A) Kontzeptuzko edukinak

Multzo honetan Euskal Herriko arte eta dokumentu-ondarearen aberastasuna aipatzen da. Hau da, arkitekturan, arte plastikoetan edo arte aplikatuetan, luxuzkoetan edo erabiltzekoak direnetan, gehien nabarmentzen diren arte-adierazpenak, eta Euskal Herriko artxibo desberdinetan babesturik dagoen dokumentu-aberastasuna. Hauek dira, izan ere, euskal errealitatearen historia ezagutu eta aztertzeko lehen oinarria.

Arkitektura-adierazpenen barruan (horien artean hiri-ondarea barne-dela) hiri, auzo edo kale batzuek interes historiko, sozial, ekonomiko edo monumental berezia dutenez, honakoak bezalako alderdiak azter daitezke:

– Euskal hirien tipologia: hirigune handiak.

– Hirien ezaugarri morfologikoak eta balio paisajistikoak. Naturak hirian duen agerpena: parkeak, zumardiak, zuhaiztiak, lorategiak, etab.

– Hiri batzuen oinarrizko ezaugarri morfologikoak.

– Alderdi urbanistikoen eta gizarte-hedaduraren arteko erlazioak.

– Azken urteotan hiriek izandako modernizazio-prozesua eta narriadura.

– Alde zaharrak eta monumentuak (alde zaharrak eta zabaldurak). Gune horietako ondarearen balio bereziak.

– Ondarea babesteko legeak eta neurriak.

– Erakunde publiko eta pribatuen mezenasgoa.

– Ondarea zaindu, birgaitu eta berreskuratzeko kanpainak eta laguntzak.

Jendeak oro har eta zehazkiago ikasleek ikusi eta kontsumitzeko arte-ondareaz aparte, gaur egun bada

4. Identificar y analizar relaciones entre la cultura vasca y la de otros pueblos como forma de comprender, respetar y valorar otras culturas y percibir algunas de las dimensiones fundamentales comunes a todas ellas.

5. Conocer y valorar la contribución de los distintos grupos que componen en la sociedad vasca a la conformación de su patrimonio cultural, superando actitudes y conductas discriminatorias de cualquier tipo.

6. Valorar la importancia del patrimonio cultural vasco como reflejo de las características de un pueblo y forma de goce y disfrute , manifestando actitudes comprometidas en su divulgación, conservación y recuperación.

7. Conocer, analizar las relaciones existentes entre el euskara y las creencias, ritos y fiestas de Euskal Herria, valorándolo como uno de los elementos fundamentales del patrimonio cultural vasco.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE l. PATRIMONIO ARTÍSTICO-DOCUMENTAL

A) Contenidos Conceptuales

En este núcleo se hace referencia al rico patrimonio artístico y documental del País Vasco. Es decir, a sus manifestaciones artísticas más sobresalientes en arquitectura, artes plásticas o artes aplicadas tanto las suntuarias como las de carácter más utilitario, y a la riqueza documental que los distintos archivos del País Vasco protegen, ya que son ellos la base primaria para el estudio y conocimiento de la historia de la realidad vasca.

Dentro de las manifestaciones arquitectónicas , entre las que se incluye el patrimonio urbano, dado que algunas ciudades, barrios o calles revisten un especial interés histórico, social, económico o monumental, se pueden tratar aspectos tales como:

– Tipología de las ciudades vascas: grandes núcleos urbanos.

– Rasgos morfológicos y valor paisajístico de los conjuntos urbanos. La presencia de lo natural en el ámbito urbano: parques, bulevares, arboledas, jardines...

– Rasgos morfológicos básicos de algunos conjuntos urbanos

– Relaciones entre aspectos urbanísticos y dimensiones sociales

– Modernización y degradación urbana de las últimas décadas

– Casco histórico y conjunto monumental (casco viejo y ensanches). Valores patrimoniales específicos de estos núcleos

– Leyes y medidas de protección del patrimonio,

– El mecenazgo institucional y privado

– Campañas y ayudas para la conservación, rehabilitación y recuperación

Fuera del patrimonio artístico visible y consumible en su mayor parte para el público en general, y para el

ezagutzen ez den, behar adina erabiltzen ez den eta zoritxarrez askotan eskas antolatu eta kontserbatuta dagoen ondarea; gure udal, eskualde zein probintzietako artxiboetako (eta batzuetan partikularren artxiboetako) dokumentu-ondarea, adibidez. Hala ere, programa sinple baten bidez horiek erabiltzea prozedurazko eta jarrerazko helburuak lortzeko oso baliagarria izan daiteke. Hona hemen lanerako puntu batzuk:

– Artxiboa jatorrizko iturriak gorde, berreskuratu eta kontsultatzeko leku gisa.

– Euskal Herriko artxibo eta fondo garrantzitsuenak ezagutzea.

– Gure herriko gertaera bereziren bat dokumentuak kontsultatuz bilatu eta analizatzea.

Hirigintza eta arkitektura-arloko gaiei lotuta azter daitezkeen arte plastikoei dagokienez, ondoren adierazitakoak bezalako alderdiak azter daitezke:

– Museoa, arte-lanak bildu, babestu, berreskuratu eta erakusteko leku gisa.

– Artearen merkatua, arte-aretoak, erakusketak eta bildumak barne direla, artearen hedadura, gozamen eta/edo inbertsio gisa.

– Museoetako arte-lanak aztertzea, estiloen edo egile edo gai desberdinen monogramen arabera ibilbideak antolatuz.

– Euskal Herriko museo nagusiak non dauden jakitea eta aztertzea.

Artisautzari dagokionez, ikasleentzako interesgarria izango litzateke tailer batzuetara bisitak egitea, teknika, estilo eta gai tradizionalak baloratu ahal izateko. Bisita horien bidez arte-forja, zeramika, beira, saskigintza, larrugintza, zura, eta estofatua bezalako lanbideetako tailerrak eta beste material batzuetako ekarpen kreatibo eta trataera berriak ezagutzeko aukera izango dute. Horrez gain, museo etnografikoetan edo aire zabalean dauden antzinako lanekin (heraldika, harrian egindako lanak, etxeko altzariak, etab.) harremana izatea eta konparazioak egitea oso lagungarria izango da ikasleentzat beren historian eta bilakaeran sakondu, eta ohitura eta tradizio herrikoiekin duten lotura ulertzeko. Hori guztia gertakari historikoa gozamen estetikorako iturri gisa eta errespetatu eta zaindu beharreko kultur ondasunaren osagai gisa baloratzeko baliagarria izango zaie.

– Interesgarria litzateke Euskal Herriko probintzia desberdinetan banaturik dauden aurtisautza-guneak non dauden jakin eta bakoitzaren espezializazioa nabarmenduz gogoeta egitea; batzuetan iraganeko egitura ekonomikoekiko lotura garbiak baitira.

B) Prozedurazko edukinak

1. Gaur egun dirauen arkitektura tradizionalaren alderdi esanguratsuak identifikatzea.

2. Arkitektura eta hirigintza-adierazpenei buruzko datuak biltzea, hiri-ibilbideen eta dokumentu-iturrien bidez.

3. Ondareari dagokionez Euskal Herrian interesgarriak diren herri eta hirietako dokumentu, argazki, txartel, liburuska edo kartelak bilatu, bildu eta erakustea.

público estudiantil en particular, existe hoy un patrimonio desconocido, infrautilizado y por desgracia en muchos casos poco organizado y conservado, como es el patrimonio documental de nuestros archivos municipales, comarcales o provinciales, y, en algunos casos, particulares. No obstante, mediante una programación sencilla, su utilización puede ser de gran valía para poder conseguir objetivos procedimentales y actitudinales. He aquí algunas pautas de trabajo:

– El archivo como lugar de custodia, rescate y consulta de fuentes primarias.

– El conocimiento de los archivos y los fondos más importantes del País Vasco.

– Búsqueda y análisis, mediante la consulta de documentos, de algún hecho singular de nuestro municipio.

En cuanto a las artes plásticas, cuyo tratamiento se puede hacer en conexión con temas urbanísticos y arquitectónicos, se pueden tratar aspectos como:

– el museo, en cuanto lugar de reunión , custodia, rescate y exposición de las obras.

– El mercado del arte, incluyendo las galerías, exposiciones y colecciones, como formas de divulgación, disfrute y/o inversión

– Estudio de las obras en museos , a través de itinerarios, según los estilos o bien monogramas de diferentes autores o temáticas.

– Localización y estudio de los principales museos del País Vasco.

En lo que hace referencia a la artesanía sería interesante para el alumnado la visita a diferentes talleres donde pudiera valorar la pervivencia de técnicas, estilos y temas tradicionales, tales como talleres de forja artística, cerámica, vidrio, cestería, piel, madera estofado, etc., así como nuevas aportaciones creativas y tratamiento de otros materiales. Así mismo, el contacto y la comparación con obras antiguas en museos etnográficos o al aire libre (heráldica, trabajo en piedra, mobiliario doméstico ... ) le ayudará a profundizar en su historia y desarrollo evolutivo, así como a entender su vinculación con costumbres y tradiciones populares. Todo ello le servirá al alumno/a para apreciar el hecho artístico, además de como fuente de goce estético, como parte integrante de un patrimonio cultural que ha de ser respetado y conservado.

– Sería interesante también localizar y reflexionar sobre los distintos focos de artesanía que se distribuyen en las distintas provincias del País Vasco, haciendo hincapié en la especialización de cada una de ellas; vínculo a veces claro de estructuras económicas pasadas.

B) Contenidos Procedimentales

1. Identificación de aspectos significativos de la arquitectura tradicional que pervive en nuestros días.

2. Recogida de datos sobre manifestaciones arquitectónicas y urbanísticas, a través de itinerarios urbanos

3. Búsqueda, recopilación y exposición de fotografías, postales, folletos o carteles de pueblos y ciudades del País Vasco de interés patrimonial

4. Planoak eta maketak interpretatu eta egitea.

5. Arte-ondarea zaindu eta berreskuratzeari buruzko hirigintza-arauak eta legezko xedapenak irakurri eta aipatzea.

6. Ikaslearen ingurunean arkitektura eta hirigintza-arloan izandako aldaketei buruzko informazio dokumentalak behatu, bilatu, bildu eta laburtzea, eta bizimoduak, ohiturek, etab. eragindako aldaketa horien arrazoiak aztertzea.

7. Euskal arte-ondarearen alderdi desberdinei buruzko informazioa bildu eta aztertzea, liburutegi, hemeroteka, dokumentazio-zentro, eta arte eta ohitura herrikoen museoetara bisitak eginez, elkarrizketa eta testigantza grafiko bidez, etab.

8. Inguruneko arte-ondareari buruzko bilketa-lanen eta ikerlanen emaitzak azaltzea, lengoaia desberdinak erabiliz.

9. Herriko gertaera historiko bereziren bati buruz ikerketatxoa eginez, dokumentuak bilatu, bildu eta analizatzea eta gero lana aurkezteko adierazpide desberdinak erabiltzea.

## 2. MULTZOA. SINESMENAK, ERRITOAK ETA JAIAK

Sinesmenek, erritoek eta jaiek herri baten bizitzari eta historiari buruzko ikuskera adierazten dute. Lan, erlijio, gizarte-harreman, naturarekiko harreman, etab.en adierazpideak dira, dibertitzeko modu bilakatuak eta gaur egungo gizarte industrialean datzan mentalitate kolektiboa adierazten dute. Horregatik, adin horietako gazteengandik nahiko gertu dauden lehenaldiko ezaguera-iturria dira, eta harreman-motak, sistema-ekonomikoa, eta itxuraz zaharkituta geratu diren sinesmenak ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, ikasleentzako ezezagunak diren errealitate jakin batzuei buruzko gogoetarako bide bat osatu eta etapa honetan proposatutako gaitasunak garatzeko oso eremu joria eskaintzen dute.

Bizitza sozialaren eta produktiboaren antolamenduaren inguruan sortutako aldaketa handiek gaur egungoak ez bezalako arauek zuzentzen zuten lehenaldia ulertzeko etengabe ahaleginak egitera behartzen dute ikaslea. Gaur egun ikasleak oporraldiak eta irakastaldiak direla-eta ikasturtea eta eskola-ordutegia denbora banatzeko elementuetako bat direla baldin badaki, eta lan-ihardunaren egutegia eta banaketa ezagutzen baditu, lehenaldian eta oraindik ere zenbait kulturatan nekazaritzari eta abere-hazkuntzari lotutako lanek (ereitea, biltzea, etab.) eta urtaroek lanaren eta atsedenaren erritmoa eta ordutegia zehazten zutela ikusiko du. Hori horrela bazen iharduera guztiak sakratu bihurtu zituzten sinesmen erlijiosoek eraginda izan zen, egutegia egutegi hagiografiko bihurtzeraino, eta jaiegun erlijiosoek lan-kontratuen iraupena, errenten iraupena, feriak, ganadua ukuiluan biltzeko ordua, etab. zehazteraino. Ikasleak zientzi eta teknika-arloko aurrerapenek eta aurrerapen ekonomikoek egutegi naturalean izan duten eraginari eta jaiak ospatzeko moduetan sortarazi dituzten aldaketei buruz gogoeta egingo du.

4. Interpretación y elaboración de planos y maquetas

5. Lectura y comentario de normas urbanísticas y disposiciones legales en relación con la conservación y recuperación del patrimonio artístico.

6. Observación, búsqueda, recopilación y síntesis de informaciones sobre cambios urbanísticos y arquitectónicos ocurridos en su entorno, analizando las razones de los mismos debido a formas de vida, costumbres...

7. Recopilación y análisis de información sobre distintos aspectos del patrimonio artístico vasco, mediante visitas, consulta en bibliotecas, hemerotecas, museos de artes y costumbres populares, entrevistas, testimonios gráficos, etc.

8. Exposición de los resultados de trabajos de recopilación e investigación sobre el patrimonio artístico del entorno, utilizando diversos lenguajes.

9. A través de una pequeña investigación de algún hecho histórico singular del municipio, búsqueda, recopilación y análisis de documentos, en la utilización posterior distintos medios de expresión para la presentación del trabajo.

## BLOQUE 2. CREENCIAS, RITOS Y FIESTAS

Las creencias, ritos y fiestas reflejan la forma de entender la vida y la historia por un determinado pueblo. Son medios de expresión del trabajo, la religiosidad, las relaciones sociales y con la naturaleza..., devenidas en formas de diversión y una mentalidad colectiva que subyace en la sociedad industrial actual. Por ello es una fuente cercana de conocimiento del pasado bastante accesible al alumnado de estas edades, que le permite entrar en contacto con formas de relación, sistemas económicos, creencias que pueden haber caído en desuso, constituyendo una vía para reflexionar sobre cierta realidad desconocida para ellos/ellas, y que ofrece un campo muy rico para desarrollar las capacidades propuestas en esta etapa.

Los fuertes cambios producidos en torno a la organización de la vida social y productiva obligará a los alumnos y a las alumnas a un constante esfuerzo por comprender un pasado que se regía por normas muy diferentes a las actuales. Si en la actualidad el alumnado sabe que el curso y el horario escolar constituye uno de los elementos de distribución del tiempo debido a sus periodos vacacionales y lectivos, así como el calendario y la distribución de la jornada laboral, comprobará cómo en épocas pasadas y actualmente en otras culturas, las tareas agrícolas o agropecuarias (siembra, recolección,...) así como las estaciones marcaban el ritmo y el horario de trabajo y de descanso. Todo ello fue reforzado por las creencias religiosas que llegaron a sacralizar todas las actividades hasta tal punto que el calendario era un calendario hagiográfico, siendo las festividades religiosas quienes marcaban la duración de los contratos de trabajo, de rentas, las ferias, la recogida del ganado en los corrales, etc. El alumnado reflexionará sobre cómo los avances científicos y técnicos, así como los económicos han influido en la evolución del calendario natural y con ello introducido cambios en el modo y forma de celebrar las fiestas.

A) Kontzeptuzko edukinak

Aztergai gisa honako hauek har daitezke: erlijio-izaerako jaiak (eguberriak, ihauteriak, zaindariaren jaiak, etab.), famili ospakizunak (ezkontzak, urtebetetzeak, onomastikak, etab.), urtarokoak, herrikoak (gertakari historiko edo ekonomikoren bat, etab.), horietan kantu-bilduma, jantzi, joko eta antzezpen tradizional, herri-kirol, herri-dantza, etab.i buruz hitz egin daitekeelarik. Gainera, ospakizun horiek guztiek hizkuntzan, mentalitatean eta genero-roletan izan duten eragina ere azter daiteke.

Euskal Herrian oso sustraituak dauden festa batzuek (Ihauteriak, sanjoanak, Olentzaro...) tailer honetarako eskaintzen dituzten aukera didaktikoez ere balia daiteke.

B) Prozedurazko edukinak

1. Jai, errito edo sinesmenei buruzko informazioa lortzea, iturri desberdinetan oinarrituz (idatzizkoak, grafikoak, bisualak, etab.).

2. Errito eta sinesmen horietako askok adierazten duten munduari eta bizitzari buruzko ikuskeraren inguruko eztabaidetan parte hartzea.

3. Euskal Herriko leku desberdinetako errito eta jai batzuk konparatzea, horien arteko desberdintasunen arrazoi historikoei eta sozioekonomikoei buruz gogoeta eginez.

4. Errito, jai eta ohitura herrikoiei buruzko mota desberdinetako testuak irakurri eta horiei buruz hitz egitea.

5. Herriak aisia eta jaia nola bizi izan duen jakiteko material desberdinak (koblak, kartelak, jokoak, ipuinak, erromantzeak, abestiak, etab.) bildu eta antolatzea.

6. Alderdi horiek azaltzeko proposamen desberdinak (panelak, muralak, bideoak, diaporamak, etab.) lantzea.

3. MULTZOA. ETXEKO BIZITZA

Etxeko bizitza aztertzeak familia bat osatzen duten pertsonek, odolkideak nahiz ekonomi harremanengatik lotuak, denboran zehar izan duten jokabidea azaltzeko eta ulertzeko esparrua eskaintzen digu.

Gai honen bidez lan-teknika espezifiko batzuetara eta gertuko eta bizitako esparrura aplikatutako metodologia historiko batera hurbiltzeko aukera eskaintzen zaio ikasleari, espazioari eta denborari dagokienez hurbileko testuinguru historikoan (ekonomiko, soziologiko, etab.ean) ikerketa-iharduerarako oinarrizko estrategiak lortzen laguntzeko.

A) Kontzeptuzko edukinak

Aztertuko diren gaien artean hona hemen batzuk:

– Etxebizitza: (ezaugarriak, banaketa, kokapena, tipologia, etab.).

– Hiriko etxebizitzaren espazioaren funtzionaltasuna (bulegoa edo tailerra eta famili egoitza) eta landa eta artisautza-etxebizitzarena (baserria, zerrategia edo tailerra eta famili egoitza).

A) Contenidos Conceptuales

Como temas de estudio se puede considerar: las fiestas de carácter religioso (navideñas, carnavales, patronales, ...), de celebraciones familiares (bodas, cumpleaños, onomásticas, etc.), estacionases, locales (algún hecho histórico, económico, etc.),... donde se puede hacer referencia al cancionero, vestuario, juegos y representaciones teatrales tradicionales, deporte rural, danzas populares,... Así mismo, también se puede analizar la influencia de todas estas celebracioes en el idioma, en la mentalidad o en los roles de género.

También se pueden aprovechar las posibilidades didácticas que para este taller presentan algunas fiestas de alto arraigo en Euskal Herria: Ihauteriak, San Juan, Olentzaro...

B) Contenidos Procedimentales

1. Obtención de información, a partir de diferentes fuentes (escritas, gráficas, visuales... sobre manifestaciones festivas o ritos y creencias.

2. Participación en debates sobre la forma de entender el mundo y la vida que suponen muchos de estos ritos y creencias.

3. Comparación de algunos ritos y fiestas populares de diferentes zonas del País Vasco, reflexionando sobre las razones históricas y socioeconómicas de sus diferencias.

4. Lectura y comentario de textos de diferente tipo referidos a ritos, fiestas y costumbres populares.

5. Recopilación y ordenación de distintos materiales (coplas, carteles, juegos, relatos, romances, canciones...) en torno al empleo popular del tiempo libre y la fiesta.

6. Elaboración de diferentes propuestas (paneles, murales, vídeos, diaporamas ... ) de carácter explicativo sobre estos aspectos.

BLOQUE 3. LA VIDA DOMÉSTICA

El estudio de la vida doméstica ofrece un marco para explicar y entender el comportamiento, a lo largo del tiempo, de las personas integrantes de una familia, unidas por relaciones de consanguinidad o económicas.

El tema permite el acercamiento a unas técnicas de trabajo específicas y a una metodología histórica aplicada a un campo próximo y vivencial del alumno/a para contribuir a la adquisición de estrategias básicas de la actividad investigadora en un contexto histórico (económico, sociológico,... ) próximo en el espacio y en el tiempo.

A) Contenidos Conceptuales

Entre los temas a tratar se podrían considerar:

– La vivienda (características, distribución, ubicación, tipología, etc.),

– Funcionalidad del espacio de la vivienda urbana (despacho o taller y residencia familiar) y de la vivienda rural y artesana (caserío, serrería o taller y residencia familiar).

– Familia kontsumo eta produkzio-unitate gisa: laniharduerako gizarte-harreman inplizituak. Produkzioeredu tradizionaletan eta famili harremanetan aldaketa ekonomikoek eta teknologikoek duten eragina.

– Familia agente sozializatzaile gisa.

– Emakumeen eta gizonen rola, identitatea eta estatusa.

B) Prozedurazko edukinak

1. Familia tradizionalean eta gaur egungoan emakumeek eta gizonek betetzen dituzten paperak aztertzea.

2. Ikaslearen ingurune soziokulturala aurreko belaunaldietako ahaideenarekin konparatzea.

3. Etxebizitzen tipologia aztertzea, ingurunera, produkzio-sistemara, famili errealitatera, etab. egindako egokitzapen gisa.

4. Lehenaldiko bizimoduak berriro adieraztea, maketa, mural eta idazketen bidez.

5. Etxeko bizitzaren antolamoldeei eta ezaugarriei buruzko informazioak bilduko dituzten landa-lanak egitea.

6. Ingurunean aurki daitekeen herri-artisautzaren ereduak bilatu eta biltzea eta horiek jakinarazten eta erakusten laguntzea.

7. Kulturak familiaren barruan eta artisautza-iharduerak betetzean gizon, emakume, haur, heldu, etab. atxikitako roletan duen eragina ezagutzea.

8. Etxeko bizitzaren alderdi desberdinei buruzko informazioa biltzea, liburutegi eta hemeroteketan kontsultak eginez, arte eta ohitura herrikoien museoetara bisitak eginez, elkarrizketa eta testigantza grafiko bidez, etab.

9. Sukaldaritzako errezetak eta elikadura ohiturak biltzea.

C) Jarrerazko edukinak (multzo guztietarako)

1. Gizartearen eta kultur formen azterketaren aurrean jarrera positiboa erakustea eta nork bere kultura preziatzea.

2. Bestelako bizimodu, sinesmen eta tradizioekiko errespetua eta tolerantzia erakustea, eta pentsamolde dogmatikoak eta etnozentrioak gaitzestea.

3. Ondarearen kontserbazioan eragin negatiboa duten jokabide eta ekintzen aurrean jarrera kritikoa izatea eta ondare hori mantentzen lagunduko duten arau eta legezko xedapenekiko interesa erakustea.

4. Ondarea babestu, zaindu eta hedatzeko kultur elkarte eta organismo-mota desberdinek betetzen dituzten ekintza desberdinak ezagutzeko interesa erakustea, eta horiekin elkarlanean aritzeko prest egotea.

5. Lehenaldiko aztarrenak eta arrastoak gure esperientzia eta memoria kolektiboaren balio handiko adierazpen gisa baloratzea.

6. Jaietako erritoak eta tradizioak belaunaldien lotura eta gizarte-kohesiorako elementu gisa hartzea.

– La familia como unidad de consumo y producción: Relaciones sociales implícitas en las actividades laborales, incidencia de los cambios económicos y tecnológicos en los modelos tradicionales de producción y en las relaciones familiares.

– La familia como agente socializador.

– Rol, identidad y estatus de mujeres y hombres

B) Contenidos Procedimentales

1. Análisis de los papeles desempeñados por las mujeres y los hombres en la familia tradicional y en la actual

2. Comparación del mundo sociocultural del alumnado con el de sus parientes de generaciones anteriores

3. Análisis de la tipología de las viviendas como adaptación al entorno, al sistema de producción, la realidad familiar, etc.

4. Reconstrucción de formas de vida del pasado mediante maquetas, murales, redacciones

5. Realización de trabajos de campo en los que se recopilen informaciones sobre formas de organización y características de la vida doméstica.

6. Búsqueda y recogida de muestras de artesanía popular localizable en el entorno y colaboración en la difusión o exposición de las mismas

7. Reconocimiento de la influencia de la cultura en los roles atribuidos al hombre, la mujer, el niño, el adulto etc dentro de la familia y en el desempeño de actividades artesanos

8. Recopilación de información sobre distintos aspectos de la vida doméstica, mediante visitas, consulta en bibliotecas, hemerotecas, museos de artes y costumbres populares, entrevistas, testimonios gráficos, etc

9. Recopilación de Recetarios de cocina y costumbres alimentarlas

C) Contenidos Actitudinales comunes a todos los bloques

1. Actitud positiva ante el estudio de la sociedad y sus formas culturales y estima del mundo cultural propio.

2. Respeto y tolerancia ante formas de vida, creencias y tradiciones diferentes a las propias, rechazando formas de pensar dogmáticas y etnocéntricas.

3. Actitud crítica ante comportamientos y acciones que incidan negativamente en la conservación del patrimonio e interés por conocer normas y disposiciones legales que ayuden a su mantenimiento.

4. Interés por conocer actividades emprendidas por diferente tipo de asociaciones culturales y organismos en la defensa, conservación y divulgación del patrimonio, así como disposición a colaborar con ellas.

5. Valoración de los restos y vestigios del pasado como manifestaciones valiosas de nuestra experiencia y memoria colectiva,

6. Valoración de los ritos festivos y tradiciones culturales como vínculo entre generaciones y elemento de cohesión social.

7. Beste kultura batzuetako gizarte-taldeen jarrera, sinesmen eta bizimoduen aurrean tolerantzia eta errespetua erakustea eta balorazio kritikoa egitea.

8. Iritzi desberdinen aurrean jarrera irekia izatea.

9. Talde-lanetan aktiboki parte hartzea, eta lan egitean rol desberdinak nork bere gain hartzea.

10. Dokumentuak (edo dokumentuek) historia, zientzia eta kulturaren aldetik du(t)en garrantzia, kontserbazio-egoera eta dauden ingurugiro eta kokapeneko egoera baloratzea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Inguruneko kultur osagaien informazioa behaketa zuzenaren eta ahozko testigantzaren bidez lortzea, iturri desberdinetatik ateratako informazioak antolatu eta laburtzea eta era antolatu eta erakargarri batean besteei adieraztea.

Irizpide honen bidez ikaslea ibilbideak, bisitak edo landa-lanak planifikatzeko gai ote den ikusi nahi da, lortu nahi den informazioa bilatu, bildu eta landuz. Gainera, informazio hori adierazteko gai ote den ere jakin nahi da, eztabaidetan parte hartuz, txostenak edo memoriak landuz, eta mural, ikus-entzunezko muntaje, edo erakusketa txikiak nahiz handiak eginez.

2. Euskal Herriko kultur gertakarien ezaugarri adierazgarrienak ezagutu eta baloratzea, kultur gertakari berean dauden aldagaiak eta berezitasunak (artisautza, hirigintza, musika, gastronomi arloan, etab.) antzemantea, eta ondarearen aberastasun hori baloratu eta errespetatzea.

Irizpide honen bidez ikasleak Euskal Herriko kultur ezaugarri adierazgarrienak zein neurritan ezagutzen dituen ikusi nahi da, leku desberdinetan gertakari beraren inguruan antzematen diren antzekotasunak eta desberdintasunak azalduz, eta euskal kultur ondarearen aniztasuna baloratzeko modu gisa errespetatuz.

3. Nork bere ohitura, gustu, espresio eta baloreetan kultura jakin bateko kide dela adierazten duten zeinuak antzematea, eta kultura horretakoa izatea baloratzea.

Irizpide honen bidez, ikasleak gure kultur tradizio eta ondarearen sinesmenak, jarrerak eta oinarrizko baloreak ezagutzen ote dituen, horiek ikuspegi kritiko batez baloratu eta bere bilakaera pertsonala gehien bultzatuko duten aukerak hartzen ote dituen ikusi nahi da.

4. Kultur gertakariak gizarte-taldeen eta ingurugiroaren arteko elkarreraginaren ondorio gisa hartzea, ingurune geografiko desberdinetan sortutako alternatiba soziokulturalak (etxebizitza, nekazaritza eta industri ustiapen, jantzi, hirigintza, kirol, etab.) ezagutuz eta konparatuz, eta horien interes ekonomiko eta soziala baloratzea.

Irizpide honekin ikasleak gizakiak ingurunean eragina duela eta bertara moldatzen dela badakiela ziurtatu nahi da, teknologi garapenak ekonomian, bizimoduan, hizkuntzan, etab. sortutako aldaketak ikuspegi kritiko batez aztertuz, eta lehenaldia enpatiaz ulertuz.

7. Tolerancia, respeto y valoración crítica de actitudes, creencias y formas de vida de grupos sociales pertenecientes a otras culturas.

8. Actitud receptiva y dialogante ante las opiniones diferentes.

9. Participación activa en trabajos grupales, asumiendo diferentes roles en el desarrollo de la tarea.

10. Valorar el interés histórico, científico y cultural del documento o documentos, el estado de conservación en que se encuentran y las condiciones medio-ambientales y de instalación con que cuentan.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

l. Obtener información de componentes culturales del entorno a través de la observación directa y del testimonio oral y documental, así como organizar y sintetizar las informaciones extraídas de distintas fuentes y transmitirla de manera ordenada y atractiva.

Con este criterio se trata de ver si el alumno o la alumna es capaz de planificar itinerarios, visitas o trabajos de campo, recabando y elaborando la información deseada, y transmitirla mediante la participación en debates, elaboración de informes o memorias, realización de murales, montajes audiovisuales o pequeñas muestras y exposiciones.

2. Reconocer y valorar los rasgos más característicos de los hechos culturales vascos percibiendo variantes de unos mismos hechos culturales y peculiaridades propias (artesanas, urbanísticas, musicales, gastronómicas,...) y valorar esta riqueza patrimonial y respetarla.

Este criterio se trata de medir si el alumno/a es capaz de reconocer algunos de los rasgos culturales más característicos del pueblo vasco explicando las semejanzas y diferencias de unos mimos hechos en diferentes zonas, respetando la diversidad del patrimonio cultural vasco como forma de valoración del mismo.

3. Reconocer en sus propias costumbres gustos, expresiones y valores las señas que le identifican como miembro de una determinada cultura, valorando su pertenencia a la misma.

Con este criterio se trata de ver si el alumno/a conoce las creencias, actitudes y valores básicos de nuestra tradición y patrimonio cultural, los valora críticamente y elige aquellas opciones que mejor favorezcan su desarrollo integral como persona.

4. Valorar los hechos culturales como producto de interacciones de los grupos sociales con su entorno medioambiental, a través del conocimiento y la comparación de alternativas socioculturales (en viviendas, explotaciones agrarias, industriales, vestuario, urbanismo, deporte .... ), generadas en distintos entornos geográficos, valorando su interés económico y social.

Con este criterio se trata de medir si el alumno/a reconoce la influencia del ser humano en su entorno y la adaptación humana al medio, analizando de forma crítica los cambios que se producen a causa del desarrollo tecnológico en la economía, formas de vida, lenguaje, etc , comprendiendo empáticamente el pasado.

5. Ondarearentzako kaltegarriak izan daitezkeen arazo nagusiak (narriadura, lerma, akulturazioa, etab.) ezagutzea, kausak aztertzea eta gizarte-jokabidean aldaketak ekarriko dituzten ekintza edo irtenbideak planteatzea.

Irizpide honen bidez ikaslea euskal kultur ondarearentzako kaltegarriak diren arazo nagusiak ezagutzen ote dituen ziurtatu nahi da, ondarea hondatu edo narriatuko duten norbanakoaren nahiz taldearen jokabideak kontzienteki gaitzetsiz. Gainera, ondarea zaindu eta hobetzearen aldeko jarrera aktiboa hartzen ote duen ere ikusi nahi da. Komeni da, kasu honetan, ikasleak ondarea bizitza duen zerbait balitz bezala hartzea eta, beraz, birformulazioen eta maileguen bidez eboluzionatu eta errealitate aldakorrera egokitzen den zerbait balitz bezala hartzea.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Gizarte-zientzien, Geografiaren eta Historiaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak «Geografia eta Historia» espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere antzekotasunagatik eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

IPUINEN TAILERRA

1.– SARRERA

Ipuinen Tailerraren asmoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburu orokor guztiak betetzen laguntzea da, baina beste era batera, ordea. Ipuinen Tailerra izena eman bazaio, hizkuntzaren irakaskuntza eta ikaskuntza oso ikuspegi praktikotik hartu dugulako izan da. Ikaslearen hizkuntza-gaitasunak gehitzea da kontua, funtsezko bi alderdi kontuan hartuta:

– Ulermenaren eta adierazpenaren garapena, ahozko eta idatzizko ereduen eta jatorrizko kontaketen idazketaren bidez. Horrela, ikasleak ipuinak idatzi, eraldatu, planifikatu, irudikatu eta baloratzera bultzatuko baititugu.

– Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko ezagutzen hobekuntza, ahal bada ikasleak sortutako testuei buruz gogoeta eginez, ikaskuntza indibidualizatzearren, hain zuzen.

Hizkuntzaren ikuskera ludikoan eta sormenezkoan oinarriturik -arauak bete behar direla ahaztu gabe-, Tailer honen bidez ikasleari dakiena sendotzen eta gaitasunetan aurrerapenak egiten lagundu nahi zaio, egin dituen akatsak zuzendu ondoren. Gainera, ikasleak hizkuntzaz duen ikuspegia zabaltzea lortu nahi da, komu-

5. Reconocer los principales problemas (degradación, merma, aculturación ...) que pueden afectar al patrimonio, identificando las causas y planteando posibles acciones o soluciones que impliquen cambios en el comportamiento social.

Con este criterio se trata de comprobar si el alumno o alumna es capaz de percibir y reconocer cuáles son los principales problemas que afectan al patrimonio cultural vasco, manifestando una actitud consciente de rechazo de comportamientos individuales y colectivos que dañen o deterioren el mismo, así como si adopta una actitud activa en su conservación y mejora. Es conveniente, en este caso, que el alumnado sea también capaz de reconocer al patrimonio como algo vivo y, por lo tanto, que va evolucionando y adaptándose a la realidad cambiante, a través de reformulaciones y préstamos.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de conservación y recuperación del patrimonio y cultura popular)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Área de Ciencias de Ciencias Sociales, Geografía e Historia, pudiendo impartirla como afín los profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de «Geografía e Historia»

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

TALLER DE CUENTOS

1.– INTRODUCCIÓN

El Taller de cuentos pretende contribuir al cumplimiento del conjunto de los objetivos generales de la Educación Secundaria Obligatoria, pero de un modo distinto. La denominación Taller de cuentos remite a un enfoque predominantemente práctico de la enseñanza y aprendizaje de la lengua. Se trata de aumentar la competencia lingüístico- creativa del alumnado atendiendo a dos aspectos fundamentales:

– El desarrollo de la capacidad de comprensión y expresión, mediante el estudio de modelos orales y escritos y la composición de relatos originales, propiciando que los alumnos/as escriban, transformen, planifiquen, imaginen y valoren los cuentos.

– La mejora de los conocimientos sobre el funcionamiento de la lengua, mediante una reflexión realizada, a ser posible, sobre los textos producidos por el alumnado, en un intento de individualizar el aprendizaje.

Partiendo de una concepción lúdica y creativa de la lengua -sin descuidar la observancia de las reglas correspondientes-, este Taller intenta proporcionar al alumno situaciones de aprendizaje que le ayuden a consolidar lo que ya sabe y a progresar en sus habilidades una vez corregidos los fallos; intenta, igualmente, que

nikatzeko izan ditzakeen gaitasunak handitzeko aukera eskainiz.

Ipuinen Tailerrean irakurketaren eta idazketaren zaletasuna piztu nahi da. Eta lanerako baldintzek horretan lagunduko dutelakoan gaude. Batetik, ikasleak berak aukeratuta eta bere ekimenez joko du tailerrera. Bestetik, hizkuntzarekin harreman pertsonalagoa izateko aukera izango du, bertan ikasleak bere mundua jakinaraziko baitu, bizi, ikusi, amets egin eta besteengandik ikasi duenarekin eraikitako mundua izanik; azken alderdi hau badirudi euskararen kasuan arreta handiagoz izan behar dela gogoan, ikasleak (batez ere euskaraz egiten ez den eskualdeetan) adierazpen-baliabideetan eskas dabiltzalako.

Irakasleak ikasleei irakatsiz eta motibatuz betetzen duen eginkizuna, beti bezala, ezinbestekoa da: haien bat-batekotasuna landu eta sormena bultzatzen du. Aldi berean, ikasle bakoitzak bere ikaskideen interesa pizteko eta bizitza ulertzeko modu desberdinak ezagutzeko elkarrengana hurbiltzeko duten beharrak ere irakatsi eta motibatu egiten ditu.

Narrazioa ikaslearengana gehien hurbiltzen den generoa da. Gainera, ipuina laburra da eta horrek behartu egiten du ikaslea hizkuntza tajuz erabiltzera (zehaztasunarekin eta, askotan, funtsezkotasunarekin lotuta baitago); beraz, oso aproposa da tresna pedagogiko gisa. Ipuinak idazteko arreta handiz behatu behar da, era guztietako sentimenak jaso behar dira, istorioa ulertu, antolatu, entsaiatu, etab.erako behar-beharrezkoak diren elementuak aukeratu behar dira... Egileak testu bat lantzen duenean, borroka dialektiko batean hasten da gauzekin, naturarekin, pertsonekin, hizkuntzarekin eta bere buruarekin. Beraz, ikaslea idazteko gaitasunaz hornitzea ezinbestekoa da ez bakarrik hizkuntza ikasteko, bere burua ezagutzeko baizik.

Idazketa prozesu bat denez, idatzi hasi aurreko, idazteko eta idatzi ondorengo aldiak kontuan hartu behar dira. Zentzu horretan, beharrezkoa izango da:

– Ikaslea testuinguruaren baldintzez, idaztera bultzatu duen asmoaz eta hartzailearen ezaugarriez jabetzea, horiek sormenaren prozesuko hiru elementu mugatzaileak baitira. Komeni da eskola-testuinguruak gainditzea eta aldez aurretik zehaztutakoak eta anitzak izango diren hartzaileak dauden komunikazio-egoerak bilatzea. Beraz, ikaslea testuinguruan kokatu behar da; zer, nola eta norentzat kontatzen duen jakin behar du; idatzi dezakeen horretan ez ezik komunikatu nahi duen horretan oinarritu behar du, hau da, narratzaile gisa dituen interesak eta bere hizkuntza-gaitasuna handitzeko beharra bategin behar ditu. Deskribatutako iharduera-printzipioaren arabera, testua landu aurretik eztabaida piztea eta zuzentzea gomendatzen zaio irakasleari: ipuinaren alderdi desberdinei buruzko eztabaida, narratzaile, pertsonaia, etab.en gaineko ikuspegi desberdinen azalpena, etab.

– Sorkuntza-prozesuan ikaslea gutxinaka-gutxinaka gero eta eredu landuagoetara hurbiltzea, hasierako gidoitik eta elkarrekin erabakitako balorazio eta behaketa-ereduak kontuan hartuta bata bestearen atzetik egindako zirriborroetatik hasita. Irakasleak eredu horiek ikasgelan aplikatzeko ondoren adierazitako

el alumno extienda su visión de la lengua, al ofrecerle la posibilidad de ampliar sus potenciales capacidades de comunicación.

Debe conseguirse que en el Taller de cuentos reine el gusto por la lectura y la escritura. Las condiciones de trabajo son especialmente favorables. Por un lado, el alumno accede al Taller por elección e iniciativa propias. Por otro, tiene oportunidad de establecer una relación más personal con la lengua, ya que con ella el alumno comunica su mundo, construido con lo que ha vivido, visto, soñado y aprendido de otros; éste último aspecto parece que haya de tenerse aún más en cuenta en el caso del euskara, dado el empobrecimiento en recursos expresivos que tienen los alumnos, sobre todo en las zonas no vascófonas.

El papel aleccionador y motivador del profesor cobra, como siempre, una importancia fundamental: es el que educa la espontaneidad e impulsa la creatividad de sus alumnos. Aleccionadora y motivadora es también para cada uno de éstos la necesidad de conquistar el interés de sus compañeros y, recíprocamente, de acercarse a modos diversos de entender la vida.

La narración es el género más próximo a los alumnos/as. Además, el uso eficaz de la lengua a que obliga la característica brevedad del cuento (relacionada con la concisión y, en muchos casos, con la esencialidad) lo hace especialmente idóneo como instrumento pedagógico. Escribir cuentos exige observar atentamente, registrar todo tipo de sensaciones, seleccionar los elementos imprescindibles para entender la historia, ordenar, ensayar... Cuando elabora un texto, el autor entabla una lucha dialéctica con las cosas, con la naturaleza, con las personas, con el lenguaje y consigo mismo, por lo que dotar al alumno de la capacidad de escribir resulta decisivo para su aprendizaje no sólo lingüístico, sino también personal.

Como la escritura es un proceso habrá que considerar el antes, el durante y el después. En este sentido será preciso:

– Que el alumno sea consciente de los condicionantes contextuales, como el propósito con el que se escribe y las características del receptor, que son elementos delimitadores en el proceso de creación. Conviene traspasar los contextos escolares y buscar situaciones comunicativas en las que los receptores estén previamente determinados y sean diversos. Es, pues, necesario situar al alumno en el contexto: qué cuenta, cómo y para quién; partir no sólo de lo que puede escribir, sino también de lo que quiere comunicar, es decir, conjugar sus intereses como narrador y la necesidad de ampliar su competencia lingüística. En conformidad con el principio de actuación descrito, se recomienda al profesor/a que suscite y dirija un debate anterior a la elaboración del texto: discusión sobre distintos aspectos del relato, exposición de diferentes puntos de vista sobre el narrador, los personajes...

– Que en el proceso de creación el alumno se acerque progresivamente a modelos cada vez más elaborados, desde el guión inicial y los sucesivos borradores realizados ateniéndose a pautas de valoración y observación acordadas conjuntamente. El profesor/a puede afrontar la aplicación en el aula de estas pautas mediante méto-

metodoak erabil ditzake: idatzizko produkziorako praktikak egitea proposatzea (prestatutako testuak osatzea, informazioa erastea; amaiera desberdinak idaztea edo hasiera aldatzea; pertsonaia berriak sartzea, deskribapenak eta elkarrizketak txertatzea, handitzea, murriztea, ...; gertaeren ordena, pertsona gramatikala, etab. aldatzea, hori guztia ikasleek istorio bera oso era desberdinetara konta daitekeela ikus dezaten); ereduak aztertzea, kontrastatzea eta egitura eta ezaugarri orokorrak induzitzea; testuak idazteko prozesuan zehar ahozko elkarrizketa sustatzea.

Nolanahi ere, komeni da testuen produkzio-prozesu osoan zehar, eta ez bakarrik azken emaitzan, irakaslearen esku hartzea planteatzea:

– Ikasleari bere ideiak antzematea ahalbidetuko dioten eta bere igurikapen eta ezagutza-eremua zabaldu eta aberastuko dioten egoerak eta iharduerak eskaintzea, testua ondoren lantzeko aldez aurreko baldintza gisa.

– Sorkuntza-prozesuan eta ondoren ikasleari gogoetaldiak eskaintzea, ipuinei buruzko hizkuntza-ezagutza espezifikoak (egitura narratiboen funtzionamendua, ipuinen generoak, etab.) bere sorkuntza eta bere ikaskideena antolatu, baloratu eta hobetzeko zein neurritaraino diren lagungarriak konturatu dadin.

Azkenik, Ipuinen Tailerra sentimenen hezkuntzarako tresna gisa har daiteke, bizi garen garaiaz intelektual batzuk egindako azterketa kontuan hartuta, horren arabera aurrerapen tekniko azkarraren eta irtenbide existentzialen ekarpenik ezaren arteko desoreka nabarmentzen baita. Ipuinetako protagonista gehienak ispilu psikologiko bikainak dira, geure buruari begiratzeko, aurre egiteko, identifikatzeko edo ukatzeko. Laguntasuna, askatasuna, autonomia eta elkartasuna bezalako baloreak dira protagonista gehienen jarrera hornitu ohi dutenak. Ipuinek beti hitz egin ohi digute gizakiak gertuen dituen gauzez, bizi, espero, amets egin edo nahi dituen gauzez. Sentimenen mundua arakatzen badugu bizitzaren konplexutasuna ulertuko dugu. Gogoeta horrekin bat, funtsezkoa da ikasleen iradokizun eta ekimenen aurrean jarrera irekia erakustea, beren interes ugariak eta iritzi eta ideia anitzak adieraztea ahalbidetuko dieten egoera didaktiko eta iharduera guztiak indartuz.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Sormenaren eta irudimenaren laguntzarekin ipuinak egitea, genero honi dagozkion egiturazko alderdiak eta literatur teknikak kontuan izanik, eta sorkuntzaprozesuaren fase desberdinei jarraituz.

2. Ipuinak idazteko ekintza pentsamenduaren heldutasuna eta komunikazioa lortzeko ezinbesteko aukera dela konturatzea eta hori baloratzea, bai eta autoesti-

dos diversos: proponiendo la realización de prácticas cerradas de producción escrita (completar textos preparados, añadir información; escribir distintos finales o modificar el comienzo; introducir personajes nuevos, insertar secuencias descriptivas o diálogos, agrandar, reducir..; cambiar el orden de sucesión de los acontecimientos, la persona gramatical..., todo ello con objeto de comprobar cómo una misma historia se puede narrar de maneras muy distintas); analizando modelos, contrastándolos e induciendo la estructura y características generales; promoviendo el intercambio oral durante el proceso de composición de textos.

En cualquier caso, es conveniente plantear la intervención docente a lo largo de todo el proceso de producción de textos, y no sólo sobre el resultado final:

– Que al alumno se le faciliten situaciones y actividades que le permitan reconocer sus propias ideas y que ensanchen y enriquezcan su campo de expectativas y conocimientos, como condición previa para su posterior recreación.

– Que al alumno, en el proceso de creación y después de él, se le proporcionen momentos de reflexión para que repare en la ayuda que los conocimientos lingüísticos y específicos acerca de los cuentos (funcionamiento de las estructuras narrativas, géneros de los cuentos...) le prestan en la organización, valoración y mejora de sus propias producciones y de las de sus compañeros.

Finalmente se podría entender el Taller de cuentos como instrumento de educación sentimental teniendo en cuenta el análisis que de nuestra época hacen algunos intelectuales, según el cual destaca la disparidad entre el acelerado progreso técnico y el fracaso en la aportación de soluciones existenciales. La mayoría de los protagonistas de los cuentos constituyen excelentes espejos psicológicos donde mirarse, confrontarse, identificarse u oponerse. Valores como la amistad, la libertad, la autonomía y la solidaridad suelen adornar la actitud de la mayoría de los protagonistas. Los cuentos siempre hablan de lo más cercano al ser humano, de lo que vive, espera, sueña o desea.

La exploración del mundo de los sentimientos permite comprender la complejidad de la vida. En consonancia con esta reflexión, es fundamental estar abierto a las sugerencias e iniciativas de los alumnos/as, potenciando todas aquellas situaciones didácticas y actividades que permitan la expresión de la multiplicidad de sus intereses y de la diversidad de sus opiniones e ideas.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Producir cuentos con creatividad e imaginación, atendiendo a los aspectos estructurales y a las técnicas literarias propias de este género, y siguiendo las diferentes fases del proceso de creación.

2. Descubrir y valorar al acto de escribir cuentos como una excelente ocasión para madurar y comunicar el pensamiento, así como para desarrollar la autoestima

mazioa garatzeko eta nork berak sortzeko duen ahalmenean konfiantza izateko ere.

3. Edozein sorkuntza-lanek berez barnea heltzeko eragiten duen prozesuaren bidez, euskal errealitateari sakonago eta norberaren ikuspegia gehiago landuz begiratzen ikastea.

4. Lan-taldean aktiboki parte hartzea, nork bere ideiak eta sentimenduak jendaurrean adierazteko eta besteen adierazpenak onartzeko izaten diren zailtasunak gaindituz.

5. Nork bere sorkuntzak, burututako iharduerak eta lortutako ikaskuntzak kritikoki ebaluatzea, beti aurrera doan eta garatzen ari den literatur genero unibertsalaren erakusgarri gisa aztertu diren ereduak baloratuz.

6. Koherentziaz eta zehaztasunez espresatzea, ipuinak sortzen diren helburu desberdinen eta komunikazio-egoeren arabera.

7. Hiri-kulturak eta, euskararen kasuan, hizkuntza menperatzaile baten hurbiltasunak eraginda hizkuntza batek galdu ohi duen terminologi eta espresio-aberastasuna berreskuratzea.

3.– EDUKINAK

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Ipuina: ezaugarriak eta definizioa. Jatorria. Ahozko ipuinetik idatzizko ipuinera.

2. Ipuinaren gizarte eta kultur unibertsaltasuna.

3. Euskal ipuin tradizionalak: irudi prototipikoen azterketa, hedadura kritikoa eta historikoa, aberastasun dialektikoa eta antropologikoa.

4. Ipuin tradizionaletik ipuin modernora.

5. Ipuinaren tipologia, egilearen, gaiaren eta hartzailearen arabera: didaktikoa, fantasiazkoa/leiendazkoa, beldurrezkoa, zientzia-fikziozkoa, psikologikoa, errealista, misteriozkoa, alegiak, etab.

Ipuinaren egitura:

– Izenburua: gaiarekin duen lotura.

– Narratzailea eta ikuspegia. Narratzaile protagonista. Lekuko narratzailea. Narratzaile guzti-jakituna, etab.

– Diskurtsoaren literatur formak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa, bakar-hizketa, etab.

– Gaia eta argudioa. Gai baten argudioaren bilakaera.

– Espazioa eta denbora. Lekuak, eszenatokiak eta paisajeak. Denboraren igaroaldia: abiadura eta erritmoa.

– Pertsonaiak. Motak eta karakterizazioak: protagonistak, antagonistak, bigarren-mailakoak, pertsonaia-fardelak... Adierazten dituzten baloreak.

– Amaiera. Narrazio baterako amaiera desberdinak.

– Ipuinaren mezua.

6. Bai gaztelaniaren eta bai euskararen berariazko baliabideak.

y afianzar la confianza en las posibilidades creativas de uno mismo.

3. Aprender, a través del proceso de maduración interna que implica toda labor creativa, a observar la realidad vasca de manera más profunda y personal.

4. Participar activamente en el grupo de trabajo, superando las dificultades relativas a la comunicación en público de las ideas y sentimientos propios y a la aceptación de las manifestaciones de los demás.

5. Evaluar críticamente las propias creaciones, las actividades realizadas y los aprendizajes adquiridos, apreciando las muestras estudiadas como representación de un género literario universal en constante evolución y desarrollo.

6. Expresarse con coherencia y corrección de acuerdo con las diferentes finalidades y las situaciones de comunicación en que se producen los cuentos.

7. Recuperar la riqueza terminológica y expresiva de la lengua de la cultura urbana, y, en el caso del euskara, la vecindad de otra lengua dominante tienden a diluir .

3.– CONTENIDOS

A) Contenidos Conceptuales:

1. El cuento: características y definición. Origen. Del cuento oral al cuento escrito.

2. Universalidad social y cultural del cuento.

3. El cuento tradicional vasco: estudio de las figuras prototípicas, dimensión crítica e histórica, riqueza dialectal y antropológica.

4. Del cuento tradicional al cuento moderno.

5. Tipología del cuento según el autor, el tema y el receptor: didáctico, fantástico- legendario, de terror, de ciencia- ficción, psicológico, realista, misterioso, fábulas...

Estructura del cuento:

– Título: relación con el tema.

– El narrador y el punto de vista. Narrador protagonista. Narrador testigo. Narrador omnisciente...

– Las formas literarias del discurso: narración, descripción, diálogo, monólogo...

– El tema y el argumento. El despliegue argumental de un tema.

– Espacio y tiempo. Los lugares, escenarios y paisajes. El transcurso del tiempo: velocidad y ritmo.

– Los personajes. Tipos y caracterización: protagonistas, antagonistas, secundarios, personajes-bulto... Valores que encarnan.

– El final. Diferentes desenlaces para una narración.

– El mensaje del cuento.

6. Recursos específicos tanto de la lengua castellana como de la vasca..

B) Prozedurazko edukinak

1. Ipuin desberdinen aukera anitz eta adierazgarri bat ozen irakurtzea, espresioa eta ulermena kontuan izanik, intonazioan eta ebakeran arreta jarriz eta puntuazio-ikurrak errespetatuz.

2. Ikasgelan irakurritako ipuinen egitura, edukina, gaia eta mezua antzematea. Ipuinaren funtsezko testu-unitateak aztertu eta erabiltzea.

3. Komunikazioan esku hartzen duten elementuak aztertu eta eraldatzea (igorlea, hartzailea, kodea, testuingurua, etab.).

4. Ipuinaren oinarrizko egiturak eraldatzea, ondorengo prozedura hauek erabiliz: ordezkaketa, zabalkuntza, murrizketa, ezabaketa, egitura-ordenaren aldaketa, pertsonaien eta hizkuntzaren aldaketa, eta aldaketa horiek ipuinaren esanahian duten eraginak aztertzea.

5. Ipuinaren barruan, narrazioan eta deskribapenean agertzen den ordena aztertu eta ulertzea.

6. Kontaketa baten zati bakoitza antzematea, narrazioak aurrera jarraitzea eragiten duten elementuak identifikatuz: denboraren igaroaldia, leku-aldaketak, gertakizunen segida, etab.

7. Pertsonaien ezaugarriak adieraztea, haien hizkeran eta jarreran oinarrituz. Pertsonaien elkarrizketak eta solasaldiak antzematea, bai eta pertsonaiaren esku-hartzea eta doinua adierazten duten puntuazio-ikurrak ere.

8. Ahozko eta idatzizko ipuinak sortzea, plangintza egoki baten ondoren, eta koherentzia, kohesioa, egokitasun gramatikala, eta komunikazio-egoera zehatza kontuan izanik.

9. Jatorri desberdinetako ipuinak biltzea, iturburu desberdinetara joz eta prozedura desberdinak erabiliz.

C) Jarrerazko edukinak

1. Ikaskuntzan zehar egindako lana baloratu eta errespetatzea, eta ikasgelan irakurritako eta aztertutako ipuinak eta nork berak edo taldean sortutakoak baloratzea.

2. Ikasleak lan intelektualerako ohiturak bereganatzeko eta tajuz eta zehaztasunez espresatzeko interesa erakustea.

3. Hizkuntza errespetuz erabiltzearen aldeko jarrera erakustea, bereziki estereotipoak, esamoldeak, adierazpen diskriminatzaileak, etab. saihestuz.

4. Ipuin tradizionalaren aurrean jakinmina erakustea eta baloratzea, Euskal Herriko izate historikora hurbiltzeko eta hizkuntza aberasteko tresna gisa.

5. Literatur sorkuntza baloratzea, Euskal Herriko gizartearen errealitatea ulertzeko eta adierazteko tresna bikaina baita.

6. Literatur testuak irakurtzeko eta testuak bakarka edo taldean sortzeko zaletasuna izatea.

7. Autoestimazioa garatzea eskolako lanak egitean eta sorkuntzazko testuak idaztean.

8. Taldea ideia pertsonalak adierazi eta errespetatzen diren eremu gisa hartzea.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Lectura expresiva y comprensiva, en voz alta, de una selección variada y representativa de diferentes cuentos, cuidando la entonación y la dicción, y respetando los signos de puntuación.

2. Reconocimiento de la estructura, contenido, tema y mensaje de los cuentos leídos en clase. Análisis y uso de las unidades textuales esenciales del cuento.

3. Análisis y transformación de los elementos que intervienen en la comunicación (emisor, receptor, código, contexto..., etc.)

4. Transformación de las estructuras básicas del cuento mediante procedimientos de sustitución, ampliación, reducción, supresión, cambios de orden estructural, personajes y lenguaje, analizando los efectos de esos cambios en el significado del cuento.

5. Análisis y comprensión del orden en la narración y en la descripción dentro del cuento.

6. Reconocimiento de las partes de un relato, identificando los elementos que hacen progresar la narración: transcurso del tiempo, cambios de lugar, sucesión de acontecimientos, etc.

7. Caracterización de los personajes por su forma de hablar y actuar. Reconocimiento de los diálogos y parlamentos de los personajes, así como de los signos de puntuación que indican la intervención y el tono del personaje.

8. Producción de cuentos orales y escritos, tras una planificación adecuada, atendiendo a su coherencia, cohesión, corrección gramatical y situación comunicativa concreta.

9. Recogida de cuentos de diferente origen, acudiendo a distintas fuentes y utilizando diversos procedimientos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración y respeto por el trabajo realizado durante el aprendizaje, apreciando los cuentos leídos y estudiados en clase, así como los producidos individualmente y en grupo.

2. Interés por adquirir hábitos de trabajo intelectual y asimismo por expresarse con propiedad y corrección.

3. Disposición favorable para usar el lenguaje de forma respetuosa, evitando, en particular, estereotipos, frases hechas, expresiones discriminatorias...

4. Curiosidad y aprecio por el cuento tradicional como medio de conocimiento de la cultura vasca, así como de enriquecimiento lingüístico.

5. Aprecio de la creación literaria como instrumento de comprensión de la sociedad en que se vive.

6. Gusto por la lectura de textos literarios, así como por la creación individual o en grupo.

7. Desarrollo de la autoestima en la realización de tareas escolares y en la producción de textos creativos.

8. Consideración del grupo como ámbito en el que se expresan y respetan las ideas personales.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Jatorri desberdinetako ipuinen funtsezko ezaugarriak eta helburua antzematea, edukina ahoz edo idatziz adieraziz eta egiturari dagozkion elementuak antzemanez (argudioa, pertsonaiak, ekintza, espazioa, denbora, etab.) bai eta oinarrizko baliabide estilistikoak ere.

Irizpide honen bidez ikaslea ahozko nahiz idatzizko mezuaren funtsezko edukina ulertzeko gai ote den ikusi nahi da, eta jasotako informazioa aukeratzeko, datuak lotzeko eta laburtzeko duen gaitasuna ere ebaluatu nahi da. Testuaren zatiak, garrantzia eta esanahia, eta ekintza eta idea nagusiak bigarren-mailakoetatik bereizi behar ditu, narrazioaren egiturari dagozkion elementuak eta ipuinaren berezko adierazpen-baliabideak antzeman behar ditu... hori guztia testua testuinguru jakin bateko hizkuntza-ihardueraren emaitza gisa hartuz. Ikasleak trebetasuna erakutsiko du ikasgelan landutako edo proposatutako ipuinen edukinari buruzko ahozko eta idatzizko laburpenak egitean, bai eta lan intelektualari dagozkion beste teknika batzuetan ere: eskemak egitea, ezaugarri orokorrak induzitzea, ondorioak ateratzea, etab.

2. Ipuinak sorkuntza-asmoekin egitea, testu narratiboaren lanketa-fase desberdinak kontuan hartuz, edukina egituratuz, kohesiorako prozedurak, loturarako elementuak, konplexutasun-maila desberdinetako egitura sintaktikoak, pertsonaien araberako euskalkiak, eta hika/zuka-ren tratamendua behar bezala erabiliz; baita arau ortografikoak eta testuak aurkezteko konbentzioak errespetatuz ere.

Irizpide honekin, ikaslea, ipuinaren berezko antolamenduaren ezaugarrietara egokituz, kontaketaren edukina banatzeko gai ote den ziurtatu nahi da; ikaskuntzak sendotzeko eta testua hasierako oinarrizko ideiara ahalik eta gehien egokitzeko bide gisa zirriborroak bata bestearen atzetik egitea beharrezkoa dela ulertzen ote duen eta literatur testuan bere ezagutza, irudimena eta sormena, esperientziaz eta emozioez eta literaturak eskaintzen dituen adibideez baliatuz, adierazteko gai ote den ikusi nahi da. Gainera, irizpide honen bidez, deskribatutako sorkuntza-prozesuari estu lotuta, ikasleak hizkuntzaren funtzionamendurako mekanismoak eta elementu formalak (testuinguruari, antolamenduari, eta morfosintaxiari dagokienez) erabiltzeko eta arau ortografikoak arreta handiz errespetatzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da. Ikaslea aise moldatuko da ipuinaren berezko egituren erabileran eta ikasgelan landutako adierazpen-baliabideen aplikazioan, eta ahozko nahiz idatzizko narrazioetan hitz-jarioa, zehaztasuna eta zuzentasuna nabarmenduko zaizkio. Halaber, hezkuntza-etapa honetan bereziki, nahitaezkoa da ikasleak ohitura egoki batzuk sendotzea, hau da, bere idatzien aurkezpena zaintzea, garbitasuna, argitasuna eta ordena kontuan izanik.

3. Taldean lan egitea eta talde-ihardueretan parte hartzea, elkarlanerako eta besteak onartu eta errespetatzeko jarrera erakutsiz, eta bakarkako nahiz taldeko ihardueretan erantzukizuna nork bere gain hartuz.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Captar los rasgos esenciales y la finalidad de cuentos de diverso origen, expresando su contenido de forma oral o escrita y reconociendo los elementos estructurales (argumento, personajes, acción, espacio, tiempo...) y los recursos estilísticos básicos.

Con este criterio se pretende evaluar en el alumno/a la capacidad para comprender el contenido esencial del mensaje oral o escrito, su capacidad tanto de selección y relación de datos como de síntesis de la información recibida. Es necesario que distinga las partes del texto, su importancia y significación, que diferencie los hechos o ideas principales de los secundarios, que reconozca los elementos estructurales narrativos e identifique los recursos expresivos propios del cuento... todo ello desde la consideración del texto como el resultado de una actividad lingüística en un contexto determinado. El alumno/a mostrará destreza en la realización de síntesis orales y escritas sobre el contenido de los cuentos trabajados o propuestos en el aula, así como en el uso de otras técnicas del trabajo intelectual: confección de esquemas, inducción de características generales, deducción de conclusiones...etc.

2. Producir cuentos con intención creativa atendiendo a las distintas fases de elaboración del texto narrativo, estructurando su contenido, usando adecuadamente los procedimientos de cohesión, los elementos de conexión y estructuras sintácticas de diversa complejidad, el uso de los dialectos euskérikos en función de los personajes, el tratamiento hika/zuka, así como respetando las normas ortográficas y las convenciones de presentación textual.

Con este criterio se trata de comprobar si el alumno/a es capaz de distribuir el contenido del relato ajustándose a las características organizativas propias del cuento; si comprende la necesidad de realizar sucesivos borradores como medio de afianzar aprendizajes y de perfeccionar la adecuación del texto a la idea inicial base; si sabe plasmar en el texto literario imaginación y creatividad, sirviéndose de sus conocimientos, experiencias y emociones, así como de los ejemplos que la literatura ofrece. En íntima relación con el proceso creativo descrito, mediante este criterio se pretende también evaluar la capacidad del alumnado para utilizar los mecanismos de funcionamiento de la lengua y los elementos formales de ésta (ya en los mencionados planos contextual y organizativo del texto, ya en el morfosintáctico), así como para respetar con el cuidado requerido las normas ortográficas. Los alumnos/as mostrarán desenvoltura en el uso de las estructuras propias del cuento y en la aplicación de los recursos expresivos trabajados en el aula, y tanto en sus narraciones orales como en las escritas serán patentes la fluidez, concisión y corrección. Asimismo, se considera particularmente pertinente en esta etapa educativa de consolidación de hábitos adecuados, que el alumno/a preste una atención especial en la presentación de sus escritos a aspectos tales como la limpieza, la claridad y el orden.

3. Trabajar en equipo y participar en actividades de grupo, con una actitud de colaboración, aceptación y respeto a los demás, asumiendo la responsabilidad de las actuaciones tanto individuales como colectivas.

Irizpide honen bidez, taldean lan eginez eta taldeiharduereetan parte hartuz lan-prozesuaren aurrerapena eta emaitzen kalitatea erakusten den interesaren, elkarlanerako jarreraren, nork bere gain hartutako erantzukizuna betetzearen eta ondorioz onartzearen menpe dagoela ikaslea konturatzen ote den ikusi nahi da.

4. Literatur testuaren ulermen eta sorkuntza-prozesuak heldutasun pertsonalaren eta autoestimaziorako gaitasunaren bilakaeran duen eraginari buruz gogoeta egitea, bai eta nork bere buruarekin eta besteekin komunikatzeko tresna gisa hizkuntza ezagutzeak duen garrantziari buruz ere.

Mundu pertsonalak ezagutu eta adierazteko eta heldutasun psikologikoa lortzeko bide gisa aukeratutako literatur testuak aztertu eta ulertzeak duen garrantzia eta jatorrizko ipuinen sorkuntza-prozesua baloratzeko ikaslea gai ote den ziurtatu nahi da. Gainera, ikasleak hizkuntzaren funtzionamendurako mekanismoen erabilera egokiaren eta pentsamenduaren azalpen antolatuaren eta ulergarriaren artean dagoen lotura antzematen ote duen jakin nahi da, bai eta lotura horretan sakontzeko beharra ulertzen ote duen ere, komunikazioelkartrukea hobetu eta arintzearren.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Gaztelania eta Literaturaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea, edo Euskarako irakasleei, zein eredu ematen den kontuan hartuta. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak Gaztelania eta Literatura edo Euskal Hizkuntza eta Literatura espezialitateetako irakasle izateko, kasuan kasukoa, 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

ASMAKUNTZEN ETA MAKINEN TAILERRA

1.– SARRERA

Bigarren Hezkuntzako ikasleen mundura hurbiltzeak eta berau ezagutzeak, Euskal Herrikoa bezalako gizarte malguan eta etengabeko kultur eta lan-eskaerak dituen gizarte honetan, irakaskuntzako eta ikaskuntzako prozedurei dagokienez, jakintza itxiak ezagutzen transmisio- eta eraikuntza-modu bakarra ez izatea eskatzen du. Ikasle hauek egoera eta testuinguru aldakorretara egokitzeko behar adinako gaitasuna izango duten hiritarrak izatea lortu nahi dugu; irakaskuntzari argitu beharreko problema bat balitz bezala aurre egitea ahalbidetuko dieten prestakuntzazko alderdiak sendotzea eskatzen du, arazoei sormenez eta asmamenez hurbiltzeko ohiturak eta jarrerak indartuz.

Con este criterio se trata de apreciar si los alumnos/as, por medio del trabajo en equipo y la participación en actividades de grupo, perciben que el avance en el proceso de trabajo y la calidad de los resultados dependen de su interés y actitud colaboradora, así como del cumplimiento efectivo y la aceptación consecuente de la responsabilidad asumida.

4. Reflexionar sobre la influencia que el proceso de comprensión y creación del texto literario ejerce en el desarrollo de la madurez personal y de la capacidad de autoestima, y sobre la importancia del conocimiento de la lengua como instrumento de comunicación con uno mismo y con los demás.

Con este criterio se pretende comprobar si los alumnos/as son capaces de valorar el trabajo de análisis y comprensión de los textos literarios seleccionados y el proceso de creación de cuentos originales como medio de conocimiento y expresión de mundos personales y como vía de maduración psicológica. Asimismo, se pretende determinar si el alumno/a percibe la relación existente entre el uso correcto de los mecanismos de funcionamiento de la lengua y la exposición ordenada e inteligible del pensamiento, si comprende la necesidad de profundizar en esta interrelación para mejorar y agilizar el intercambio comunicativo.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de cuentos)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Area de Lengua Castellana y Literatura, o a los profesores de Euskera, dependiendo del modelo de bilingüismo adoptado, así como a los profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en las especialidades de Lengua Castellana y Literatura o Lengua y Literatura Vasca, respectivamente.

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

TALLER DE INVENTOS Y MÁQUINAS

1.– INTRODUCCIÓN

El acercamiento y conocimiento directo del mundo que rodea a los alumnos/as de secundaria, en una sociedad como la del País Vasco tan flexible y con constantes demandas culturales y laborales, exige que en los procedimientos de enseñanza-aprendizaje, la proporción de saberes empaquetados, encerrados en sí mismos, no sea la única forma se transmisión y construcción de conocimientos. Estos alumnos/as deberán ser ciudadanos con capacidad suficiente para ir adaptándose a situaciones y contextos cambiantes, lo que exige poner el acento en aquellos aspectos formativos que les permita enfrentarse al aprendizaje como un problema y les dé la posibilidad de reforzar hábitos y actitudes que les den opción de acercarse a los problemas con cierta creatividad e ingenio.

Bestalde, jarrera pertsonalak eta balio propioak eratzen ari direneko etapa eta ziklo batean gaude, ingurunean mugitzeko aukerak aurkitzen hasten diren unean; azalpenak emateko gaitasuna hartzen hasten dira eta zenbait gertakariri buruzko hipotesiak egiten, bai eta problema korapilotsuagoak askatzen ere, fenomeno teknologikoetan parte hartzen duten aldagarriak esploratuz.

Azkenik, Euskal Herria, prozesu, forma eta mota askotako industriaren bidez produktu teknikoen industriak garrantzi handia izan duen ingurua da. Aipatzekoa da makina-erreminta edo, besteren artean, eskuz landutakoa. Egoera honek gai hau jorratzen lagundu behar du, ikasleek Euskal Herriaren ikuspegi osatua eta aberatsa izan dezaten.

Zentzu honetan, etaparen lehen zikloan zehar Asmakuntzen eta Makinen Tailerra bezalako hautazko jakintzagai honen eskaintzak aurreko hezkuntza-alderdi eta prestakuntza-irizpide guztiak jokoan jartzeko aukera ematen du, tresnen eta makinen diseinu, deskribapen eta eraikuntza izeneko ardatzaren inguruan bilduz.

Garapen intelektual eta emozional orekatuak errealitatearen hautemate egokitua eskatzen du. Horrek pertsonek planteatzen dituzten helburuak hauek lortzeko beraiek dituzten aukerekin erlazionatuta egotea eskatzen du, bitartekoen eta helburuen artean doikuntza izatea, eta errealitatearen balorazioa irizpide objektiboekin egitea. Adin hauetako ikasleentzako tresna, artisautza-produktu bideragarriak eta teknikoki egingarriak sortzeak orain arte esandakoa lortzeko aukera emango digu. Soluzio-aniztasunak eta hauen kalitateak, ikaslea bere proiektuei mugak ezartzera behartzen dute; denbora eta baliabide materialen mugak bitarteko horiek bilatutako emaitzetara egokitzea eskatzen du: tresnak kalitate onargarriz funtziona dezan saiatzea.

Asmakuntzak eta makinak egitera lotutako sormenezko iharduera beraz, euskarri paregabea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren helburuetan adierazitako gaitasun konplexuen garapenerako, hala nola sentiberatasun artistiko eta kulturala, hurbileko natur ingurunean dauden materialak ezagutu eta erabiltzea eta ondo egindako lanaz gozatzeko ahalmena.

Jokoa eta jolasa ikaskuntza-eragile garrantzitsua dira, eta funtzionatzen duten tresnak taldean sortzea liluragarria izan daiteke, bai eta objektu pertsonal erabilgarriak egitea edo erabilera kolektiboko proiektuak gauzatzea ere.

Asmakuntzen eta Makinen Tailerra sormena euskarri fisiko errealaren gainean garatzeko curriculum-aukera bat da: tresnen, gailu mekanikoen eta artisautza-produktuen diseinu eta eraikuntza, hala nola polea-mekanismoa, kateatutako efektudun makina bat, haize-errota ko mekanismoa, arropan poltsiko sekretu bat, ehunetarako arrabol-mekanismoa etab.

Autonomia Erkidegoko herrietako ikastetxeek inguruko edo lurraldeko tradizio anitzekin erlazionatutako

Por otro lado, nos encontramos en una etapa y en un ciclo en el que van configurándose actitudes personales y valores propios, en el que van descubriendo sus propias posibilidades de desenvolvimiento en el medio, van siendo capaces de dar explicaciones y haciendo hipótesis sobre ciertos hechos así como de resolver problemas de mayor complejidad explorando variables que intervienen en los fenómenos tecnológicos.

Finalmente, el País Vasco es una zona donde, tradicionalmente y a través de múltiples procesos, formas y tipos, ha tenido y tiene una gran importancia la industria de productos técnicos, la de máquina herramienta o, entre otras, la de manufactura artesanal. Esta situación debe ayudar en el desarrollo de esta materia, contribuyendo a que el alumnado tenga una visión más completa y rica del País Vasco.

En este sentido, la oferta, a lo largo del primer ciclo de la etapa, de una materia opcional como el Taller de Inventos y Máquinas permite poner en juego todos los anteriores aspectos educativos y criterios formativos, girando alrededor de un eje como es el diseño, descripción y construcción de artefactos y maquinas.

Un desarrollo intelectual y emocional equilibrado exige una percepción ajustada a la realidad. Ello supone, por ejemplo, que los objetivos que se plantean las personas estén relacionadas con sus posibilidades para alcanzarlas, que exista un ajuste entre medios y fines, y que la valoración de la realidad se haga con criterios objetivos. Todo esto lo puede facilitar el proceso de creación de artilugios, de productos artesanos viables y técnicamente posibles para los alumnos/as de esas edades. La diversidad de soluciones y la calidad de éstas obligan al estudiante a marcar limites a sus proyectos; la limitación de tiempo y de recursos materiales exige una adaptación de tales medios a los resultados buscados: Intentar que el artefacto funcione con una calidad aceptable.

Una actividad creativa ligada a la realización de inventos y máquinas es, por ello, un excelente soporte para el desarrollo de las capacidades complejas expresadas en los objetivos de la Educación Secundaria Obligatoria, tales como la sensibilidad artístico-cultural, el conocimiento y el uso el materiales presentes en el entorno natural cercano y la capacidad para disfrutar de la obra bien hecha.

El juego y la diversión son un importante motor del aprendizaje, y en el grupo la actividad de construir artefactos que funcionen puede ser fascinante en sí misma, así como tender hacia la construcción de objetos personales útiles e incluso hacia proyectos de utilidad colectiva.

El Taller de Inventos y Máquinas resulta así una opción curricular en la que se desarrolla la creatividad sobre un soporte físico real: El diseño y la construcción de artefactos, ingenios mecánicos o productos artesanos como, por ejemplo, mecanismo de poleas, una maquina de efectos encadenados, un mecanismo de molino de viento, un bolsillo secreto en la ropa, un mecanismo de rodillos para tejidos etc.

Los centros de las diferentes localidades de la Comunidad Autónoma pueden elegir la realización de arte-

tresna edo asmakuntzak egitea aukera dezakete, kontuan hartuta noski: ikasleen ezaugarriak eta itxaropenak, irakasleen esperientzia eta baliabide erabilgarriak.

Gai honetan ematen diren edukinak bi motatakoak dira: alde batetik, jakintzagaiarteko planteamenduarekin beste arlotako edukinen aplikazio-espazioa irekitzen da, bestetik oinarrizko edukin batzuk proposatzen dira, jakintzagai honetako berariazkoak direnak, bi bloke handien inguruan antolatzen direnak: DISEINUA-ERAIKUNTZA eta KOMUNIKAZIOA.

Asmakuntzen eta Makinen Tailer hau garatzeko unean ondoko kontsiderazioak eduki behar dira kontuan:

– Asmakuntzen eta Makinen Tailerraren funtzioak ikasleen garapen intelektual eta afektiboaren menpean egon behar du. Garrantzitsuena ez da azken produktua, bertara iritsi arteko prozesu kognitibo eta emotiboak baizik. Kontua ez da produkzio-forma historiko bat erreproduzitzea, industriaurreko gizarteari dagokiona, baizik eta eskuaren eta garunaren arteko lan harmonikoaren balioan zentratzea ikaslearen aberastasun pertsonalari begira. Egin dituzten produktuekin ikasle guztiak satisfakzio-maila egokietara iristea lortu behar da.

– Asmakuntza mekanikoek ikasleen adimenari eta asmamenari garapen osagarri bat ematen diote. Adimenarentzako eta eskulanerako erronka honek etapa hauetan ikasleen garapen psikikoa eta psikomotrizitatea gauzatzen laguntzen du. Horretarako zereginen eta proiektuen graduazioa planifikatu beharko da, erritmo desberdinetara egokituz, burutzapenean denbora desberdinak eta burutzapen-era desberdinak aurrikusiz, askotariko taldekatzeen bidez eta banakako iharduerak bultzatuz, planteatutako hezkuntza-asmoei dagokienez antzekoak diren aukeren sail zabalenaren artean hautespena ahalbidetuz.

– Une askotan, ikastetxearen antolamendu-aukeren eta ekipamenduen hurbiltasunaren arabera, landa-ikerkuntzako iharduerak egin daitezke Euskal Herrian dauden instalazio eta museo anitzetara bisitaldiak eginez, adibidez: Artziniega, Pipaon eta Zalduondoko museo etnografikoak, Agorregiko burdinola eta errotak, Eskoriatzako eskola, etab. Iharduera hauek lagungarri gerta dakizkieke ikasleei arazo baten konponbideak aurkitzeko unean, beren asmamen- eta sormen-gaitasuna hobetuz.

– Erabilitako material eta erremintek ezagunak eta sinpleak izan behar dute (kartoia, zura, pegamentoa, plastikoa, larrua, guraizeak, eskuzko birabarkia, zerra...) ihardueraren kontrola ikasleen eskuetan egon dadin eta ahalegina asmamenaren inguruan egon dadin, proiektuari lotutako tekniken inguruan egon ordez.

– Tresnak eraikitzeak ez du ezagupen berri askorik inkorporatu behar, aurrez dauzkaten ezagupen eta esperientziak aplikatuko diren ikerkuntza-espazioa ireki baizik. Bereziki interesgarria da iharduerari jakintza-

factos o inventos relacionados con las variadas tradiciones de la zona o del territorio, teniendo siempre presente las características y expectativas de los alumnos/as a los cuales van dirigidos, las experiencias de los profesores y los recursos disponibles.

Los contenidos que se dan en esta materia son de dos tipos: por un lado, se abre un espacio de aplicación de contenidos de otras áreas con un planteamiento interdisciplinar,. por otro, se proponen unos contenidos básicos, específicos de esta materia, que se organizan en torno a dos grandes bloques: DISEÑO-CONSTRUCCIÓN y COMUNICACIÓN.

En el momento de desarrollar este Taller de Inventos y Máquinas hay que tener en cuenta las siguientes consideraciones:

– La función del Taller de Inventos y Máquinas ha de estar sometida al desarrollo intelectual-afectivo de los estudiantes. Lo más importante no es el producto final, sino los procesos cognitivos y emotivos que dan lugar a él. No se trata de reproducir una forma histórica de producción, propia de una sociedad preindustrial, sino mas bien centrarse en el valor de un trabajo armónico entre mano y cerebro para el enriquecimiento personal del alumno/a. Ha de lograrse que todos los estudiantes lleguen a grados de satisfacción razonables con los productos obtenidos.

– Los inventos mecánicos aportan un ingrediente de desarrollo a la inteligencia y al ingenio de los estudiantes. Este reto intelectual y manual cataliza el desarrollo psíquico y la psicomotricidad de los estudiantes en estas etapas. Para ello se deberá planificar la graduación de las tareas y proyectos, adecuándolos a los diferentes ritmos, preveyendo diferentes tiempos en su realización y diferentes formas de ejecución, propiciando actividades con agrupamientos diversos y de tipo individual, permitiendo la elección entre la más amplia gama de posibilidades que son semejantes respecto a las intenciones educativas planteadas.

– En muchos momentos, dependiendo de las posibilidades organizativas del centro y de la cercanía de los equipamientos, pueden realizarse actividades de investigación de campo a través de visitas a las múltiples instalaciones y museos existentes en el País Vasco, como pueden ser los museos etnográficos de Artziniega, Pipaon, Zalduondo, la ferrería y molinos de Agorregi, la escuela de Ezkoriatza, etc. Estas actividades pueden ayudar al alumnado a la hora de elegir entre las diferentes soluciones a un problema, mejorando su capacidad de inventiva y creatividad.

– Los materiales y las herramientas usadas han de ser familiares y simples (cartón, madera, pegamento, plástico, cuero, tijeras, berbiquí manual, sierra,...) de manera que el control de la actividad esté en manos de los estudiantes y el esfuerzo se concentre en el ingenio, en lugar de en las técnicas asociadas al proyecto.

– En cierto sentido la construcción de ingenios no debe incorporar muchos conocimientos nuevos, sino abrir un espacio de investigación creativa en el que se apliquen conocimientos y experiencias disponibles de

gaiarteko ikuspegi batetik ekitea, produktuaren inguruan arlo desberdinak bil daitezen.

– Planteamendu didaktikoak gogoetazko iharduera intelektual eta eskuzkoan kokatu behar dira, ikaskuntza erakargarriko giroan. Berreskuratu egin behar da, bizi garen gizarte teknifikatu honetan, norberak egindako lanaren kontzeptua eta eskulan burutsua.

– Ebaluaziorako irizpideek garatutako tresnaren oinarrizko funtzionamenduarekin lotuta egon behar dute. Kontuan izan behar da ziklo honetako ikasle gehienek ez dituztela irizpide zorrotzak sendotasun fisiko eta estetikoari, funtzionamenduari, egonkortasunari, etab.i dagokienez.

– Jakintzagai hau gizarte-harremanetarako eta jarrerazko edukinen ikaskuntzarako espazio pribilegiatua da, lankidetzazko iharduerak, konpromisuak hartzea, taldearen barruan erantzukizuneko zereginak garatzea etab. indartuz.

Asmakuntzen eta Makinen Tailerraren garapen didaktikoa zenbait eratara egin daiteke, lehen ideia nork ematen duenaren arabera; ikasleak ala irakasleak. Lehen kasuan ikasleak bere interesak indibidualki garatzen eta defendatzen ditu edo baita taldean ere ideia bat bideragarritasun tekniko, ekonomiko etab.aren arabera irakasleak onartu beharreko proiektuaren zirriborro bihurtuz. Bigarren kasuan irakasleak talderen bati proiektu irekiak eta malguak eskaintzen dizkio, ziklo honetako ikasleen baldintza eta ezaugarriei egokitzen zaizkienak.

Hona zenbait adibide:

– Kide pare batek txotxongilo bat diseinatu eta egin nahi dute.

– Ikasle batek gerrikoan ezkutuko kartera txiki bat egin nahi du.

– Liburu bateko ilustrazioetatik abiatuz, ikasle-talde batek gerra-makinak egin nahi ditu: Katapultak, Dorreak, Baleztak, etab.

– Apunteak enkoadernatu beharrak zenbaitzuri prentsa txiki bat eta gainazalak egiteko inprenta txiki bat eraikitzeko ideia ematen die.

– Zenbait ikasleren magiarako zaletasunak trukuak egiteko tresnak egitera bultzatzen die, hala nola hondo bikoitzeko kaxak, poltsiko ezkutuak, etab.

– Material moldeagarria erabiliz, Euskal Herriko zona bateko erliebeko mapa txiki bat egitea.

– Palankaren funtzionamendua behatuz, objektu txikiak pisatzeko tresna bat asmatzea.

– Poleadun tresnak diseinatu eta egitea.

– Efektu kateatuko mekanismo bat diseinatu eta eraikitzea, etab.

Azkenik, kontuan hartu behar dira adin hauetako ikasleengan sortzen diren interes desberdinak eta, batzuetan, beren itxaropen eta interpretazio desberdinak, hau bezalako materialek esanahi desberdinak izatea mutilentzat eta neskentzat; honek ahalegin berezia egi-

antemano. Resulta especialmente interesante abordar la actividad desde una óptica multidisciplinar en la que, alrededor del producto, se den cita diferentes áreas.

– Los planteamientos didácticos han de situarse en la actividad intelectual y manual reflexiva, dentro de un ambiente de aprendizaje atractivo. Es preciso recuperar, en la sociedad tecnificada en que vivimos, el concepto del trabajo hecho por uno mismo y el trabajo manual reflexivo.

– Los criterios de evaluación han de estar asociados al funcionamiento básico del artefacto desarrollado. Hay que tener en cuenta que criterios exigentes de solidez física, estética, funcionamiento, estabilidad, etc. no están al alcance de la mayoría de los alumnos/as de este primer ciclo.

– Esta materia es un espacio privilegiado para el aprendizaje de las relaciones sociales y de los contenidos del tipo actitudinal, reforzándose actividades cooperativas, la asunción de compromisos, el desempeño de tareas de responsabilidad en el seno del grupo, etc.

El desarrollo didáctico del Taller de Inventos y Máquinas puede hacerse de varias formas dependiendo de quien aporta la primera idea, el alumno/a o el profesor/a. En el primer caso el alumno/a desarrolla y defiende sus intereses de forma individual o en grupo convirtiendo una idea en un esbozo de proyecto que ha de ser aprobado por el profesor/a de acuerdo con su viabilidad técnica, económica, etc. En el segundo caso el profesor/a propone a algún grupo proyectos abiertos y flexibles que se ajustan a los requisitos y características de los alumnos/as de este ciclo

Algunos ejemplos pueden ser:

– Un par de compañeros quieren diseñar y construir una marioneta.

– Un estudiante desea hacerse una pequeña cartera oculta en el cinturón.

– Partiendo de las ilustraciones de un libro, un grupo de estudiantes desea reproducir en la realidad antiguas maquinas de guerra: Catapultas, Torres, Ballestas, etc.

– La necesidad de encuadernar apuntes sugiere á algunos la construcción de una pequeña prensa y de una pequeña imprenta para hacer portadas.

– La afición a la magia de varios alumnos/as les anima a construir objetos para la realización de trucos como cajas de doble fondo, bolsillos ocultos, etc.

– Realizar, con material moldeable, un pequeño mapa en relieve de una zona del País Vasco.

– Inventar un dispositivo para pesar pequeños objetos observando el funcionamiento de la palanca.

– Diseñar y realizar mecanismos de poleas.

– Diseñar y construir un mecanismo de efectos encadenados, etc.

Finalmente, es preciso tener en cuenta los diferentes intereses que en estas edades se presentan en los alumnos y en las alumnas y, a veces, sus distintas expectativas e interpretaciones, que llevan a provocar que materias como esta adquieran distintos significados para los

tea eskatzen du jakintzagai hau bai neskentzat eta bai mutilentzat interesgarria izan dadin. Horretarako giro erakargarria sortu behar da, guztiek beren interesak inkorpora ditzaten eta beren itxaropenak aberas ditzaten.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Problema praktikoak prozedura tekniko sinple eta baliabide material mugatuen bidez asmamenez eta irudimenez ebaztea, talde-laneko prozesuak erabiliz, autonomia pertsonala eta erabakiak hartzeko konfidantza garatuz.

2. Aurrez definitutako futnzionamendu tekniko bat jarrai dezaten tresnak diseinatu eta eraikitzea.

3. Atrtisautzako objektu originalak prozedura intuitibo eta logikoen bidez egitea, egiteko prozesuan gozatuz eta sormena hobetuz.

4. Artisautza-iharduerako material eta erremintak ezagutu eta erabiltzea, erabiltzerakoan segurtasun- eta kontserbazio- arauak errespetatuz.

5. Iharduera honetako edukinak beste arlotan hartutako ezagutzekin erlazionatzea eta objektu eta tresnen ikerkuntza-, diseinu- eta egite-prozedurei aplikatzea.

6. Prozedura desberdinen bidez -aldizkariak, ikusentzunezko muntaia, erakusketak, etab.– asmakuntzen eta makinen tailerrean egindako ikerkuntzak, esperientziak eta produktuak publikoki jakinaraztea.

7. Asmakuntzak eta makinak egiterakoan birziklapen-materialak bilatu, aurkitu eta berrerabiltzea, ingurugiroa errespetatzeko beharraren garrantziari eutsiz.

8. Eremu honetan Euskal Herrian dauden ekipamendu eta instalakuntzarik garrantzitsuenak ezagutzea, kultur esanahaiak eta kontserbazioak duen garrantzia baloratuz.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. DISEINUA ETA ERAIKUNTZA

Multzo honetako edukinek aurrez ezarritako forma edo ereduetara egokitu gabeko produktu originalak sortzen lagundu nahi dute,. Edukin hauen trataera ikuspegi ekinkor baten inguruan dago bildua, artisautzako objektu eta tresnak sormenez sortzera bideratua.

Diseinua ikasleak berak egiten du eta objektua eraiki arteko burutzapenak beste eraikuntza-aukerak ikertzera eramango du, bai eta beste konponbide osagarriak sortzera ere.

Nahiz eta edukin hauetako asko beste zenbait arlotan jorratzen diren, bereziki Teknologian eta Plastika eta Ikus-Hezkuntzan, aldea honetan datza: ikasleen interesekiko testuinguru irekian erabiltzen dira, sorme-

chicos que para las chicas; esto conlleva la necesidad de hacer un especial esfuerzo por incorporar y atraer a esta materia el mismo interés tanto a los alumnos como a las alumnas, ofreciéndoles un espacio atractivo en el que pueden incorporar todos sus intereses y pueden enriquecer sus expectativas personales.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Resolver con ingenio e inventiva problemas prácticos mediante procedimientos técnicos simples y recursos materiales limitados, a través de procesos de trabajo cooperativo, desarrollando la autonomía personal y la confianza en la toma de decisiones.

2. Diseñar y construir artefactos que respondan a un funcionamiento técnico definido de antemano.

3. Realizar objetos artesanos originales mediante procedimientos intuitivos y lógicos, disfrutando en el proceso de realización y mejorando su creatividad.

4. Conocer y utilizar materiales y herramientas propias de la actividad artesanal, respetando en su uso las normas de seguridad y conservación.

5. Reconocer y relacionar contenidos de esta actividad con los conocimientos adquiridos en otras áreas y aplicarlos a los procedimientos de investigación, diseño y realización de objetos y artefactos.

6. Comunicar públicamente, por diferentes procedimientos, -revistas, montaje audiovisual, exposiciones, etc.– las investigaciones, experiencias y productos hechas en el taller de inventos y máquinas.

7. Buscar, encontrar y reutilizar materiales de reciclaje a la hora de realizar inventos y maquinas, observando la necesidad de respetar el medio ambiente.

8. Conocer los equipamientos e instalaciones más importantes existentes en el País Vasco en este ámbito, valorando su significado cultural y la riqueza que supone su conservación.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. DISEÑO Y CONSTRUCCIÓN

Los contenidos de este bloque pretenden ayudar a la creación de productos originales, sin ajustarse a formas o modelos preestablecidos. El tratamiento de estos contenidos esta presidido por una concepción eminentemente activa, que conduce a la producción creativa de objetos artesanos y artefactos.

El diseño lo realiza el propio alumno/a y su ejecución, hasta construir el objeto, le llevará, en la practica, a investigar otras posibilidades de construcción e incluso crear otras soluciones complementarias.

Aunque muchos de estos contenidos son abordados en otras áreas, especialmente en Tecnología y en Educación Plástica y Visual, la diferencia se halla en que, en este caso, se utilizan en un contexto abierto a los intere-

nezko ikuspegiz, artisautza-teknikekin eta oso material ezagun eta sinpleak erabiliz.

A) Kontzeptuzko Edukinak:

1. Objektu eta tresnak diseinatzea. Irizpide funtzionalak eta irizpide estetikoak.

2. Gelan garatutako artisautza-iharduerarekin erlazionatutako erreminta eta teknika espezifikoak.

3. Tailerreko segurtasun- eta higiene-arauak.

4. Proiektu baten diseinu- eta eraikuntza-faseak.

B) Prozedurazko Edukinak:

1. Pruduktu eta tresnen diseinua edo birdiseinua, aurrez ezarritako funtzio eta ezaugarri batzuen arabera.

2. Artisautzako oinarrizko erreminta eta teknikak erabiltzea, erabileraren arriskua kontrolatuz.

3. Eskulanaren plangintza.

4. Ingurugiroa kaltetzen ez duten materialak hautatu eta erabiltzea (berreskuratuak, birziklatuak, berrerabiliak).

5. Objektuak eta tresnak gogoetaren ondoren eta lan-metodo arrazionalez eraikitzea, birziklapen edo hondatutako materialak erabiliz.

6. Taldeko lanaren antolakuntza eta banaketa.

7. Tresna xumeen eraikuntzari dagozkion infomazioen bilketa ordenatua eta balorazioa.

8. Informazio-bilketa zenbait bitartekoren bidez, besteren artean Euskal Herriko erakunde eta ekipamendu teknologiko desberdinetarako bisitaldiak planifikatuz.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Lortutako produktuaren kalitate-mailaren balorazioa, ondo egindako lana dela-eta gustora geratu arte ukituak emanez.

2. Objektuak, makinak eta tresnak planifikatu eta kontu handiz eraikitzeko interesa.

3. Materialak eta erremintak prestatu eta behar bezala zaintzea.

4. Materialez eta erremintez behar bezala baliatzeko eta hauek ondo zaintzeko interesa eta begirunea.

5. Ikaskideekin lan egiteko jarrera, beren ideiak errespetatuz.

6. Tailerrean segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzea.

7. Ingurugiroan eragina duten materialak erabiltzearen aurrean sentiberatasuna, zenbait materialen kaltegarritasunaren aurrean zuhur jokatuz.

8. Euskal Herriko ekipamendu eta baliabide teknologikoen balorazioa.

ses de los alumnos/as, con un enfoque claramente creativo, con técnicas artesanales elementales y usando materiales muy familiares y simples.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Diseño de objetos y artefactos. Criterios funcionales y criterios estéticos.

2. Herramientas y técnicas especificas relacionadas con la actividad artesanal desarrollada en el aula.

3. Normas de Seguridad e Higiene en el taller.

4. Fases en el diseño y construcción de un proyecto

B) Contenidos Procedimentales:

1. Diseño o rediseño de productos y artefactos de acuerdo con unas funciones y características previamente establecidas.

2. Utilización de herramientas y técnicas artesanales elementales controlando el riesgo de su uso.

3. Planificación del trabajo manual.

4. Selección y utilización de materiales que son respetuosos con el medio ambiente (recuperados, reciclados, reutilizados)

5. Construcción práctica de objetos y artefactos de modo reflexivo y con métodos de trabajo racionales empleando materiales de reciclado y/o de deshecho.

6. Organización y reparto de las tareas en equipo

7. Recopilación ordenada y valoración de informaciones referentes a la construcción de artefactos sencillos

8. Recogida de información a través de diferentes medios, entre otras, planificando visitas de diferentes entidades y equipamientos tecnológicos del País Vasco.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración del grado de calidad del producto obtenido, retocándolo hasta sentirse satisfecho por la obra bien hecha.

2. Interés por planificar y construir, cuidadosamente, objetos, máquinas y artefactos.

3. Preparación y conservación de los materiales y las herramientas en buen estado.

4. Interés y respeto por el buen aprovechamiento y conservación de materiales y herramientas.

5. Predisposición a colaborar con los compañeros, respetando sus ideas.

6. Respeto a las normas de seguridad e higiene en el taller

7. Sensibilidad ante la utilización de materiales que afecten al Medio Ambiente, siendo precavidos ante la nocividad de ciertos materiales.

8. Valoración de los equipamientos y recursos tecnológicos del País Vasco.

2. MULTZOA. KOMUNIKAZIOA

Egindako asmakuntza, objektu eta tresnak gainerako ikaskideei transmititu behar zaizkie, bai eta tailerra kanpoko munduarekin lotzen duten ateak ireki ere. Emaitzen komunikazio hau bi plano desberdinetan egiten da.

Hasteko, lana amaitutakoan ikaskide-taldeen arteko komunikazioa dugu. Esperientzia desberdinak ezagutzera ematen dira, egindako probak, hurbileko inguruan egindako ikerkuntza txikiak, erabilitako erreminta- eta material-mota desberdinak, zailtasunak, satisfakzioak edo anekdotak.

Ondoren, hedapena daukagu, ikasturtean zehar egindako lorpenak tailerretik kanpora ezagutzera ematea. Tailer honetako prozesuak eta emaitzak institutu osoari, edo herrian bertan jakitera emateak ikasleen lana interesgarriagoa bihurtzen du.

Bi komunikazio-egoera horietan transmititzeko moduarekin zerikusia duten edukinak agertzen dira. Hau da, egoera horietan ikasleak ez du objektu edo makina bat planeatu, ikertu edo eraiki beharko, bere lana prozedura desberdinen bidez aurkeztu baizik: klasean aurkezpena, erakusketak, buletinak, institutuko aldizkaria, etab. Honek komunikazio-teknika hitzezkoak, grafikoak edo ikus-entzunezkoak erabili beharra esan nahi du.

A) Kontzeptuzko edukinak:

1. Produktu bat aurkezteko estrategiak. Komunikazio-motak.

2. Egindako lan teknikoaren transmisioari aplikatutako ikus-hizkuntza.

3. Artikuluak, kartelak, muralak, argazkiak, etab. eratzea.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Objektu, makina edo tresna baten ezaugarrien adierazpena, ikus-baliabide eta baliabide grafikoen bidez: artikuluak, kartelak, muralak, argazkiak, etab.

2. Garatutako iharduerak transmititzeko planak eta gidoiak egitea, bakarka edo taldean, gelan bertan edo gelaz kanpo.

3. Jarraitutako prozesuari buruzko txostenak egitea.

C) Jarrerazko Edukinak:

1. Beste ikaskideen lana aintzatetsi eta errespetatzea.

2. Norberaren iritzia beste ikaskideenarekin kontrastatzeko interesa.

3. Taldeak egindako lana azaltzen duten proiektuetan lankidetzazko jarrerak edukitzea.

4. Egindako lana aurkezterakoan landutako baliabideen ordenerako eta garbitasunerako gustua.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Inguruko objektu xume bat aztertzea, tresnaren forma, neurriak eta materialak eta osaera behatuz, pie-

BLOQUE 2. COMUNICACIÓN

Los inventos, objetos y artefactos realizados han de transmitirse a los demás compañeros e, incluso, abrir las puertas que unen el taller con el mundo exterior. Esta comunicación de resultados se realiza en dos planos distintos.

En primer lugar está la comunicación entre los propios grupos de compañeros al acabar el trabajo. En ella se transmiten sus distintas experiencias, las pruebas hechas, las pequeñas investigaciones llevadas a cabo en el entorno próximo, los distintos tipos de herramientas y materiales usados, las dificultades, las satisfacciones o las anécdotas.

En segundo lugar está la divulgación, puertas afuera del taller, de los logros alcanzados durante el curso. La posibilidad de divulgar los procesos y resultados de este taller al resto del instituto, o en la propia localidad, añade interés a la actividad de los alumnos/as

En ambas situaciones de comunicación aparecen contenidos que tienen que ver con la forma de transmitir. Es decir, en esas situaciones el alumno/a no sólo ha de planear, investigar y realizar un objeto o maquina sino que deberá diseñar la presentación de su trabajo a través de diferentes procedimientos: Presentación en clase, exposiciones, boletines, revista del instituto, etc. Esto significa aplicar técnicas de comunicación verbales, gráficas o audiovisuales.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Estrategias para la presentación de un producto. Tipos de comunicación.

2. Lenguaje visual aplicado a la transmisión del trabajo técnico realizado.

3. Composición de artículos, carteles, murales, fotografías, etc.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Expresión de las características de un objeto, máquina o artefacto mediante recursos visuales y gráficos: Artículos, carteles, murales, fotografías, etc.

2. Elaboración de planes y guiones para transmitir las actividades desarrolladas, de manera individual o en grupo, dentro o fuera de la propia aula.

3. Elaboración de informes sobre el proceso seguido

C) Contenidos Actitudinales:

1. Reconocimiento y respeto del trabajo de otros compañeros/as.

2. Interés por contrastar la propia opinión con la otros compañeros/as.

3. Mantenimiento de actitudes cooperativas en la elaboración de proyectos que transmitan el trabajo realizado por el grupo.

4. Gusto por el orden y la limpieza de los recursos elaborados para la presentación del trabajo realizado.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Analizar un objeto sencillo del entorno observando la forma, dimensiones, materiales y composición del

zarik garrantzitsuenak nabarmenduz, teknologiako arloan eta beste jakintzagaietan ikasitako baliabide grafikoak, sinbologia eta terminologia erabiliz.

Irizpide honekin ikaslea objektu eta tresna tekniko xumeak eta arruntak identifikatu eta aurkitzeko gai ote den ikusi nahi da. Zein zatiz dauden osatuta, erabilitako materialak eta formak eta neurriak aztertu, deskribapenean eta analisian kode, sinbologia eta terminologiarik egokiena erabiliz.

Tresnak eraikitzeko prozesuan, hauek aztertzea baliabide aparta da hauetako bakoitzaren irtenbidea eta eraikuntzari buruzko informazioa lortzeko. Analisi-gaitasuna zenbat eta gehiago garatu izan, hainbat eta hobea izango da eraiki behar dituzten tresnen eta objektuen gainean lortuko duten ulermena, erabilera eta kontrola.

Ikasleak tresna osatzen duten zatiak ezagutu beharko ditu, zatien arteko erlazioa ikusiz, muntaketarako eta desmuntaketarako sekuentzia logikoak erabiliz.

2. Objektu xume bat metodikoki eta tajuz eraikitzea, lan-plan logiko eta intuitiboa jarraituz eta artisautzari dagozkion erremintak, materialak eta eragiketak behar bezala erabiliz, ahal den akaberarik egokiena lortzeko.

Irizpide honekin pieza-kopuru mugatu batekin eta funtzionamendu jakin batez osatutako asmakuntzak eta makinak (tresna) eraikitzeko lanean zehar, ikasleak era ordenatuan egiten ote duen, ikasleek aurrez ezarritako sekuentzia logiko bat jarraituz eta ikuspuntu estetikotik eta funtzionaletik ona den emaitza lortuz.

Ikasleak lan-materiala bilatzeko, biltzeko eta hautatzeko nahiko baliabide dituela azaldu beharko du, egoera berrien aurrean azkar erreakzionatuz, beste arlo batzuetan hartutako ezagupenak aplikatuz eta taldean parte hartzean bere hutsegiteak eta besterenak asumituz.

3. Objektu baten produkzioak ingurugiroarengan daukan eragina baloratzea, birziklapen, berrerabilera, erabilera-kalitate eta eraginkortasun energetiko, ekonomiko etab.eko kontzeptuak kontuan hartuz, bai produkzioari dagokionez bai eta mantenimenduari dagokionez ere.

Irizpide honekin objektu edo tresna baten eraikuntza-prozesuaren zati desberdinek Ingurugiroan duten eraginari dagokionez ikasleak iritzi pertsonalak osatzen ote dituen baloratu nahi da; Ingurugiroa errespetatzen duten oinarrizko arauak asumituz, ikasleak iharduera teknikoaren gizarte-dimentsiorantz garatu duen interes-maila ebaluatu nahi da halaber. Era berean ikasleek beren irizpideak azaldu eta defendatu beharko dituzte lan egiteko erabiliko duten materiala aukeratzeko garaian.

artefacto resaltando sus piezas más importantes, utilizando los recursos gráficos, simbología y terminología estudiados en el área de tecnología y en otras asignaturas.

Con este criterio se pretende observar si el alumno/a es capaz de identificar y descubrir los elementos más importantes que componen los objetos y artefactos técnicos sencillos y comunes. Las partes de que están compuestas, los materiales utilizados y las formas y dimensiones utilizando en su descripción y análisis los códigos, simbología y terminología más apropiada.

En el proceso de construcción de artefactos el análisis de artefactos es un recurso excelente para obtener información para la solución y construcción de los mismos. Cuanto más hayan desarrollado su capacidad de análisis, tanto más habrá mejorado su compresión, uso y control sobre los artefactos y objetos que van a construir.

El alumno/a deberá reconocer las partes que componen un artefacto, viendo la interrelación que existe entre ellas, utilizando secuencias lógicas de montaje y desmontaje.

2. Construir de forma metódica y ordenada un objeto sencillo siguiendo un plan de trabajo lógico e intuitivo y empleando correctamente las herramientas, materiales y operaciones propias de la actividad artesanal para conseguir el acabado más perfecto posible.

Con este criterio se trata de evaluar si en el transcurso de las tareas de construcción de los inventos y máquinas (artefactos) constituidos por un numero de piezas limitados y de funcionamiento concreto, el alumno/a lo hace de una forma ordenada, siguiendo una secuencia lógica establecida de antemano por los propios alumnos/as, llegando a un resultado que ha de ser razonablemente bueno desde el punto de vista estético y funcional.

El alumno/a deberá demostrar tener recursos suficientes para buscar, recopilar y seleccionar el material de trabajo, reaccionando con rapidez ante situaciones nuevas, aplicando conocimientos adquiridos en otras áreas y asumir errores propios y ajenos en la participación en grupo.

3. Valorar los efectos que ejerce la producción de un objeto sobre el medio ambiente, atendiendo a conceptos de reciclaje, reutilización, calidad de uso y de eficiencia energética, económica, etc. tanto en su producción como en su mantenimiento.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno/a elabora juicios personales en torno a la repercusión que en Medio Ambiente tienen las diferentes partes del proceso constructivo de un objeto o artefacto; así mismo se trata de evaluar el grado de interés que el alumno/a ha desarrollado hacia la dimensión social de la actividad técnica, asumiendo aquellas normas básicas que respetan el Medio Ambiente. Así mismo los alumnos/as deberán emitir y defender sus criterios a la hora de elegir el material con el que van a trabajar.

4. Tailerreko lanean norberaren eta taldearen osasuanarentzat laneko segurtasun- eta higiene-arauak errespetatzeak duen eraginaz jabetu eta berau baloratzea.

Irizpide honekin ikasleak egoera jakin batzuetan, tresnak eraikitzeko bere ideia eta irizpide propioak eta taldekoak eratzean eta defendatzerakoan, laneko Segurtasun- eta Higiene-Arauak errespetatzen ote dituen baloratu nahi da; joan aurretik tailer-gela garbitzen eta ordenatzen ote duen, lanean erabilitako erremintak zaintzen eta biltzen ote dituen, tailerreko lana segurtasunez antolatzen ote duen, etab.

5. Eraikiko diren tresnen plangintza eta garapenean besteekin parte hartzea, ideiak eta laguntza emanez eta gainerakoen ideiak onartuz eta tolerantziaz jokatuz.

Irizpide honekin, eraikiko diren tresna desberdinen plangintzan eta garapenean zehar, ikaslea besteekin harkorra eta tolerantea ote den eta elkarrekiko lanean lankidetza-jarrerak erakusten ote dituen, inolako diskriminaziorik gabe eta ideiak emanez eta emaitza ona izan dadin ahaleginduz.

6. Eukal herrian dauden ekipamenduei ta instalakuntza teknologikoei buruzko informazioa biltzeko prozesuak planifikatu eta garatu eta informazio hauek gainerako ikaskideei jakinaraztea, beren kultur eta gizarte-baloreak nabarmenduz, bai eta balore horiei eutsi eta hobetzeko beharra ere.

Irizpide honekin ikaslea informazio-bilketako prozesu bat zenbait baliabidetan (informazio bibliografikoa kontsultatzea, Euskal Herriko instalakuntza eta ekipamenduetara bisitaldiak egitea, etab.) oinarrituz planifikatzeko gai ote den baloratu nahi da. Informazioa antolatzeko eta bere ikaskideei nahiko argitasun eta ordenaz jakinarazteko gai ote den, bereziki bere alderdi eta ezaugarri propioak azpimarratuz, bai eta beren kultur balioa ere, instalkuntza eta ekipamendu hauek hobetzeko eta kontserbatzeko ahalegina egiteak merezi duela ikustaraziz.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Teknologiaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak Teknologia, Teknologia Elektrikoa, Automozioaren Teknologia eta Metalaren Teknologia espezialitateetako irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

4. Observar y valorar la influencia que para el trabajo en el taller tiene el respeto a las normas de seguridad e higiene en el trabajo para la salud tanto individual como colectiva.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno/a, en situaciones concretas, en el momento de elaborar y defender ideas y criterios propios o colectivos para la construcción de artefactos, respeta las normas de Seguridad e Higiene en el trabajo, limpiando y ordenando el aula-taller antes de marcharse, cuidando y almacenando las herramientas utilizadas en el trabajo, organizando el trabajo en el taller de una forma segura, etc.

5. Colaborar con los demás participando activamente en la planificación y desarrollo de los distintos artefactos que se vayan a construir aportando ideas y esfuerzos y siendo tolerante y receptivo ante las ideas de los demás.

Con este criterio se pretende valorar si, tanto en el momento de la planificación como durante el desarrollo de los distintos artefactos que se vayan a construir, el alumno/a es receptivo y tolerante con los demás y muestra actitudes de colaboración en la tarea común, sin discriminaciones de ningún tipo y aportando ideas y haciendo esfuerzos para que el resultado sea satisfactorio.

6. Planificar y desarrollar procesos de recogida de información sobre equipamientos e instalaciones tecnológicas existentes en el País Vasco y comunicar estas informaciones al resto de los compañeros, destacando sus valores culturales y sociales, así como la necesidad de su conservación y mejora.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno/a es capaz de planificar un proceso de recogida de información, a partir de diferentes medios (información bibliográfica, visitas de instalaciones y equipamientos existentes en el País Vasco,...), es capaz de organizar esta información y transmitirla a sus compañeros y compañeras con suficiente claridad y orden, incidiendo de forma especial en sus aspectos y características propias, así como en su valor cultural y la pertinencia de hacer un esfuerzo para mejorar y conservar estas instalaciones y equipamientos.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de inventos y máquinas).

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Area de Tecnología, pudiendo impartirla además los profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en las especialidades de Tecnología, Tecnología Eléctrica, Tecnología de Automoción y Tecnología del metal.

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que a título personal, demuestren.

INGURU SOZIOKULTURALAREN IKERKETARAKO TAILERRA

1.– SARRERA

Garai hauetan, beste batzuen artean ohiturak, lan egiteko moduak eta pertsonarteko harremanak homogenotzeko nahiz sortzen den informazioa zentrazilatzeko joerek ezaugarritzen duten kulturaren estandarizazio-prozesu batean barneratuta dagoen gizarte honetan, zenbait nerabek gizarte eta kultur nortasuna galtzeko eta duela gutxi arte Euskal Herrian arrotzak ziren ereduak, bizimoduak eta portaerak kritikoki eskuratzeko benetako arriskua dago.

Euskal Herria, beste errealitate soziokultural batzuekiko intentsitate aldakorreko harreman-prozesu korapilatsu eta luze baten ondorioz eratu diren gizarte batek eta kultura batek osatzen dute eta bertan nortasun espazialaren eta komunitate nazionalaren (kulturalaren eta sozialaren) kontzientzia garatu da. Beraz, espazio honen ezaugarri nagusienetako bat inguru fisikoaren, ekonomiaren, hizkuntz egoeraren eta abarren konplexutasun sakona da eta egitura nahiz erakunde desberdinetan antolatuta dago.

Euskal gizarteak, bere osakeran, egitura ekonomikoan, kulturalen eta politikan nahiz bere lurraldean transformazio-prozesu garrantzitsuak jasan ditu eta, denbora berean, bilbe ideologiko konplexu eta anitz batekin batera gizartearen esparru guztiak blaitu dituen nortasun nazionalaren sentimendu gero eta handiago baten hedapena ezagutu du.

Era berean, espazio soziokultural zabalagoei -eta neurri batean unibertsalei- amankomunak zaizkien balioen onarpenak, arian-arian Europan sartzeak eta nazioarteko harreman-esparru berriak, inguru soziokulturala bera baldintzatu dute.

Gainera, egungo euskal gizartearen egituran nabarmenak dira eta modu desberdinetan bertan azaleratzen dira oinarrian landatarra den mundu baten ondoriozko oinarri tradizionalaren alderdiak. Mundu hau, aldaketa azkarrak jasaten dituen (familia egituran, sexu bakoitzari esleitutako roletan, ingurugiroaren degradazioan, marginazio-poltsa berriak, langabezia estrukturala, etab.) eta eskaera nahiz erronka berriei (kulturartekotasunari, bake-mugimenduei, ingurugiroaren babesari eta abarri) erantzunak aurkitu behar dizkion gure gizartean bakarrik ematen ez diren hiri inguruekin elkarbizi da, dialektikoki eta kontraesan ugariren artean.

Hau guztia kontuan izanik, Derrigorrezko Bigarren Etaparen bi zikloetan eskaintzen den «Inguru soziokulturalaren ikerketarako tailerra» jakintzagaia, honen helburu eta xede nagusienetakoak betetzen lagunduko duen aukera ezinhobea bihurtzen da eta inguruaren ezaugarrietara hurbiltzeko espazio pribilegiatua izateaz gain, bere kulturako oinarrizko elementuen ezagutza eta balorazioa ahalbidetuz, talde jakin batekoa izatearen sentimendua areagotzen du eta ikasleak beren gizartean gogo gehiagoz parte hartzea ahalbidetzen du.

TALLER DE INVESTIGACIÓN DEL ENTORNO SOCIOCULTURAL

1.– INTRODUCCIÓN

En unos tiempos como los actuales, con una sociedad inmersa en un proceso de estandarización cultural, caracterizada entre otros perfiles por la tendencia a la homogeneización de las costumbres, los modos de trabajo y de relación interpersonal, y a la centralización de la información que se genera, existe un peligro real de pérdida de identidad social y cultural por parte de los y las adolescentes, y de asunción acrítica de patrones y modos de vida y comportamiento hasta hace poco tiempo ajenos a la realidad cotidiana del País Vasco.

Euskal Herria conforma un espacio social y culturalmente construido a lo largo de un intrincado proceso de relaciones de intensidad variable con otras realidades socioculturales, en el que se ha desarrollado una conciencia de identidad espacial y de comunidad nacional (cultural y social). Así, este espacio, caracterizado por una profunda complejidad en lo físico, económico, lingüístico..., se ha vertebrado a través de diferentes estructuras e instituciones.

La sociedad vasca contemporánea ha experimentado procesos importantes de transformación en su composición, en sus estructuras económica, cultural y política e incluso en su territorio y, simultáneamente, ha vivido la extensión de un creciente sentimiento de identidad nacional que, en convivencia con un entramado ideológico complejo y plural, ha calado en todos los ámbitos sociales.

Al mismo tiempo, la asunción de valores comunes a espacios socioculturales más amplios -en cierta forma universales-, la progresiva integración en Europa y el nuevo marco de relaciones internacionales, mediatizan el propio entorno sociocultural.

Además, en la estructura social vasca actual son patentes y afloran en distinta forma aspectos del sustrato tradicional, pervivencia de un mundo básicamente rural que, dialécticamente y no exentos de contradicciones, conviven junto a otros urbanos, no privativos de nuestra sociedad, que, además, está sometida a rápidos cambios (en la estructura familiar, en los roles asignados a cada sexo, en la degradación ambiental, nuevas bolsas de marginación, paro estructural,...) y que debe dar respuesta a nuevas demandas y retos (interculturalidad, pacifismo, protección del medio ambiente, etc.).

Teniendo en cuenta todo esto, la materia «Taller de investigación del entorno sociocultural», que se oferta en ambos ciclos de la Etapa Secundaria Obligatoria, constituye una oportunidad extraordinaria para contribuir al cumplimiento de las principales finalidades y objetivos generales de la misma, suponiendo un espacio privilegiado para el acercamiento a las características del entorno y posibilitando que el conocimiento y la valoración de sus elementos culturales básicos favorezca el sentimiento de pertenencia crítica a una colectividad y facilite una participación más consciente de alumnos y alumnas en la sociedad a la que pertenecen.

Honela, «Inguru soziokulturalaren ikerketarako tailerra» jakintzagaiak, askotan esteroetipo gisa ulertzen diren eta, etengabeko gatazkan eta elkarreraginean egon arren, talde-oroimenaren bidez transmititu eta sustraitu diren sozialki adostutako joera desberdinen emaitza konplexua den euskal kulturari buruzko gogoeta egiteko gunea izan beharko du.

Ondorioz, Tailer honek, euskal gizartearen balioak eta ezaugarriak kritikoki onartzen ikasteko aukera ematen die DBHko ikasleei. Gainera taldean barneratzea errazagoa egiten duen eta gizarte-lan mota desberdinetara eta horretarako erabiltzen diren tresnetara hurbiltzeko beharrari erantzuten dion ingurugiroa ulertzeko tresna bat da.

Planteamendua «lekuko» izaera duten gauzetatik, hau da, ikasleengandik hurbil dagoen ingurutik abiatzen da, honela erroak eta funtsa ezagutu eta gero eta oreka zailagoan bizi diren eta elkarrekiko menpekotasun gehiago duten esparru zabalagoen arteko harreman gero eta ugariagoak identifikatu eta kritikoki baloratzeko. Hau da, gure bizimoduak neurri batean gure ingurutik oso urrun dauden lekuek baldintzatzen dituztela ulertzen lagundu nahi zaio ikasleari.

Euskal gizartearen eta kulturaren errealitate heterogenoa onartu ondoren, bereziki garrantzitsua da jakintzagai hau Ikastetxea kokaturik dagoen inguruaren ezaugarri berezietara egokitzea, espazio soziokulturala mugatzerakoan, hain konplexua eta anitza den errealitate baten ikuspegi partziala edo deformatua ez ematen arreta berezia jarri behar da, hauek integraziorako tresna izan beharrean diskrimazio-tresna bihur ez daitezen.

Bestalde, Tailerraren formulazioak berak erakutsiko digu jakintzagaia egituratuko duten ardatzak zeintzuk izan behar duten. Alde batetik, «ikerketarako tailer» gisa planteatu da, hau da, kontzeptuzko edukinen gainetik prozedurazko eta jarrerazko izaera duten edukinak nagusituko dira jakintzagai honetan. Bestetik, izaera ikertzailearekin definitzen da eta alderdi honek garrantzi berezia du, ikasleek ikaskuntza-prozesu autonomoan parte hartzea eta bertako protagonista izatea ahalbidetu behar baitu. Ikerketa-prozesu honek, sozialki eta pertsonalki garrantzia duten arazoen ebazpenean oinarritzen diren Gizarte-Zientzien metodologia eta teknika berezietan trebatzea ahalbidetuko dio.

Puntu honek jakintzagaiaren hurrengo ardatzera bideratzen gaitu, hau da, inguru soziokulturalera. Jakintzagaia ikaslearen hurbileko espazioaren eta denboraren inguruan antolatzea planteatzen da, alde batetik ikaslearen interesei eta beharrei erantzuteko eta bestetik ikasleari bere definizioan parte hartzera bultzatzeko. Ingurua, aztertzen dugun jakintzagaiaren euskarri nagusiena da eta gizabanakoak gizarteratzeko helburua lortzen lagundu dezake, bereziki beren ikasketak DBH-rekin amaitzen dituzten haiek. Gainera, curriculumeko zehar-lerroen tratamendurako aukera onak eskaintzen ditu.

«Inguru soziokulturalaren ikerketarako tailerra»ren asmoa, ikasleak bizi diren eta beren harremanak gara-

Así pues, el «Taller de investigación del entorno sociocultural» deberá ser marco de reflexión sobre la cultura vasca, resultado complejo de tendencias diversas en conflicto e interacción, socialmente consensuadas, percibidas en muchas ocasiones como estereotipos y que están arraigadas y son transmitidas a través de la memoria colectiva.

Este Taller propicia, en consecuencia, a los adolescentes de ESO el reconocimiento crítico de los valores y características de la sociedad vasca, es un instrumento de percepción de su entorno que les facilita su integración en la colectividad e intenta, además, responder a la necesidad de acercamiento a las formas e instrumentos de trabajo social.

El planteamiento parte de «lo local», del entorno más próximo a los alumnos para descubrir sus raíces y fundamentos y para identificar y valorar críticamente las crecientes relaciones en esferas cada vez más amplias, interdependientes y en creciente desequilibrio. Es decir, se pretende ayudar al alumnado para que llegue a comprender que nuestros modos de vida están en buena medida mediatizados desde lugares a veces muy alejados del propio entorno.

A partir del reconocimiento de la heterogénea realidad social y cultural vasca, es en esta materia especialmente importante realizar una adecuación a las características específicas del entorno en el que esté situado el Centro escolar, poniendo buen cuidado, al delimitar ese espacio sociocultural, en evitar visiones parciales o distorsionadoras de una realidad compleja y múltiple, que puedan convertirse en instrumentos de discriminación más que de integración.

Por otra parte, la formulación misma del Taller nos da las claves de cuáles deben ser los ejes estructuradores de la materia. Por un lado, se plantea como un «taller de investigación», es decir, como una materia donde primarán, sobre los contenidos conceptuales, los de carácter procedimental y actitudinal. Y, por otro, se define como de carácter investigativo, aspecto éste especialmente relevante, pues debe permitir la activa participación del alumnado en el proceso autónomo de aprendizaje, del cual será el protagonista. Este proceso de investigación le permitirá familiarizarse con la metodología y técnicas específicas de las Ciencias Sociales, centradas en la resolución de problemas social y personalmente relevantes.

Este punto conduce al siguiente eje de la materia, el entorno sociocultural. Se plantea la organización de la materia en torno al espacio y tiempo próximos del/a alumno, tanto para responder a los intereses y necesidades del alumnado, como para impulsar su participación en su definición. E1 entorno constituye un pilar imprescindible sobre el que sustentar la materia que nos ocupa y puede favorecer la consecución del objetivo de integrar a los individuos en su propia comunidad, especialmente para aquéllos que finalicen su escolarización al acabar la ESO. Además, abre grandes posibilidades al tratamiento de las líneas transversales al currículo.

El «Taller de investigación del espacio sociocultural» pretende aproximarse a la comprensión de la socie-

tzen dituzten gizartearen ulerketara hurbiltzea da, hauentzat bertan gizarteratzea eta ihardutea errazagoa izan dadin lortzeko. Horrela, jakintzagai honek egungo portaeren (adibidez, pentsamoldeen) jatorriari buruzko erantzunen bilaketan laguntzen du, hau da, ikasleak, gure (eta bere) gizarteak jarraitzen duen edo jarraitu behar lukeen bideari buruzko hipotesiak formulatzeko gai izateko moduan artikulatzea eta, prozedurazko dimentsioa sustatuz, ikaskuntzan autonomia izateko estrategiak bultzatzea proposatzen da. Zentzu honetan, bi ideia azpimarratzea beharrezkoa da: motibazioa, ikasleak jakintzagaiaren garapenean izango duen inplikazioaren motore gisa alde batetik, eta Gizarte-Zientzien (Antropologia, Geografia, Ekonomia, Etnografia, etab.), bere tekniken, ikerketa-metodoen eta abarren ezagutza bestetik.

Jakintzagaiaren antolaketari dagokionez, bi eredu iradokitzen dira, biak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren bi zikloen ingurukoak. Lehenengoa, jakintzagai honetarako proposatu diren edukin-multzoetatik abiatuz, lehenengo ziklorako edukin-multzo bat edo gehiago eta bigarren ziklorako beste desberdin batzuk aukeratzean datza. Honela, lehenengo ziklorako «Familiaren Historia» eta «Soziologiako Tailerra» iradokitzen dira, bigarren ziklorako «Lekuko Historia» eta «Etnologiako Tailerra» edukinak landu daitezkeen bitartean.

Bigarren antolaketa-ereduan, hau da, konplexuenean, ikerketa-ardatzak (arazo esanguratsuak) hautatzea planteatzen da, haien inguruan edukin-multzo desberdinetatik datozen edukina bilduko direlarik.

Bi kasuetan, lehenengo zikloan edukinek izaera globala izan behar dutela eta, beti ere DBHko ikasleen maila-psikoebolutiboari egokituta egongo diren diziplinarekin zerikusia duten erreferentzia batzuk, bigarrenean bakarri kontuan izango direla gogoratu behar da.

dad donde los alumnos viven y se relacionan, para facilitar su integración y su actuación consciente en la misma. Pues bien, se propone que esta materia ayude a la búsqueda de respuestas al origen de comportamientos actuales (como, por ejemplo, las mentalidades), que se articule de modo que los alumnos sean capaces de formular hipótesis sobre la dirección por la que camina o debería conducirse nuestra sociedad, la suya, y que se impulsen estrategias de autonomía en el aprendizaje fomentando la dimensión procedimental. En este sentido, es preciso resaltar dos ideas: la motivación, como motor de implicación del alumnado en el desarrollo de la materia, y la familiarización con las Ciencias Sociales (Antropología, Geografía, Economía, Etnografía, etc.), sus técnicas, métodos de investigación...

En lo que se refiere a la organización de la materia, se sugieren dos modelos, ambos en torno a los dos ciclos de Secundaria Obligatoria en que se distribuye. E1 primero consistiría en, a partir de los bloques propuestos para la materia, seleccionar uno o más bloques de contenido para el primer ciclo y otros distintos para el segundo, marcando una diferenciación a partir de los contenidos y los problemas tratados. Así, en el primer ciclo se sugiere «La Historia Familiar» y el «Taller de Sociología», mientras que en segundo ciclo se podrían trabajar los contenidos de «La Historia Local» y el «Taller de Etnología».

El segundo modelo organizativo, más complejo, plantea la selección de ejes de investigación (problemas significativos) en torno a los que se aglutinarían contenidos procedentes de los diferentes bloques.

En ambos casos, se debe recordar que en el primer ciclo los contenidos deben ser de carácter global y sólo será en el segundo cuando se tomen en consideración ciertos referentes disciplinares, siempre adaptados al nivel psicoevolutivo propio de los alumnos de ESO.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Euskal kultura tradizionala osatzen duten ohiturak, jarrerak, balioak eta honen ezaugarri orokorrak identifikatzea eta kritikoki baloratzea, Euskal Herriko egungo gizartearen eta kulturaren aniztasuna aberastasun gisa ulertuz eta honen artapenean parte hartzera konprometituz.

2. Egungo gizarteko jarrerak, mekanismoak, balioak eta pentsamoldeak (eta bereziki hiritarren eskubideei eta betebeharrei dagozkienak) kritikoki interpretatzea, beste garai eta toki batzuetako ereduekin alderatzea eta kulturak nahiz gizarteak jasandako prozesu luze baten balio erlatiboko eta etengabe berrikusi beharreko emaitza gisa azaltzea.

3. Gaurkotasuna eta interesa duten arazoei buruzko landa-ikerketa laburrak garatzea, soziologiaren eta beste gizarte-zientzia batzuen teknikak aplikatuz (Etnografia, Antropologia, Historia, etab.), honen emaitzak kritikoki interpretatzea, koherentziaz jakinaraztea eta inguruko bizi-kalitatea hobetzeko gizarte-iharduketak burutzeko proposamenak ondorioztatzea.

4. Informazio-iturri desberdinak (lehentasunez gizarte-komunikabideak) nahiz egungo baliabide teknologikoak kritikoki erabiltzea eta komunikazioko nahiz adierazpen grafikoko lengoaia eta kode desberdinak ezagutzea eta sormenez nahiz autonomiaz erabiltzea.

5. Taldeko zereginak burutzea eta eztabaidetan nahiz simulazio-iharueretan errespetuz eta tolerantziaz parte hartzea eta elkarrizketaren nahiz argumentazioaren bidez bere ekarpenak, proposamenak eta iritziak konstruktibismoz azaltzea.

6. Egungo kultur eta komunikazio-korronteen homogenotzeko eta estandarizatzeko joerak kritikoki baloratzea.

7. Munduan zehar mehatxupean dauden gutxiengoen kulturekiko elkartasun-jarrerak eta arrazoi soziokulturalengatik diskriminazioa jasaten duten haiekiko enpatia garatzea nahiz hauei laguntzeko eta jendea kontzientziarazteko kanpainetan eta/edo programetan elkartasunez parte hartzeko prest egotea.

8. Bere etorkizuneko itxaropenak zabaltzeko, jakintzagaiaren proiekzio diren esparru sozioprofesional desberdinekin hark dituen harremanak aintzatestea.

3.– EDUKINAK

Inguru soziokulturalaren ikerketarako tailerrak, biltzen dituen disziplina desberdinei nahiz hau barneratzen duten aukerazko jakintzagaien ezaugarriei esker, oso ongi mugatuta dauden zenbait edukin definitzerakoan zailtasunak eskaintzen ditu.

Ondoren, jakintzagai honentzat proposatzen diren tailer desberdinei amankomunak zaizkien edukin oro-

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Identificar las costumbres, actitudes, valores y características generales de la cultura vasca tradicional y valorarlos críticamente, estimando la pluralidad actual de la sociedad y la cultura del País Vasco como una riqueza y comprometiéndose a participar en su conservación.

2. Interpretar críticamente las actitudes, los mecanismos, los valores y las mentalidades de la sociedad actual (en especial los relativos a derechos y deberes de los ciudadanos), contrastarlos con modelos de otros tiempos y lugares y explicarlos como el resultado de un largo proceso cultural y social, con una validez relativa y sometido a permanente revisión.

3. Desarrollar pequeñas investigaciones de campo sobre problemas de actualidad e interés, aplicando técnicas de la sociología y otras ciencias sociales (Etnografía, Antropología, Historia, etc.), interpretar críticamente los resultados, comunicarlos coherentemente e inferir propuestas de actuación social para mejorar la calidad de vida del entorno.

4. Emplear críticamente tanto las diferentes fuentes de información (preferentemente los medios de comunicación social) como los medios tecnológicos actuales y conocer y servirse de los diferentes lenguajes y códigos de comunicación y representación gráfica con creatividad y autonomía.

5. Realizar tareas en grupo y participar en debates y actividades de simulación con respeto y tolerancia, y manifestar sus aportaciones, propuestas y opiniones de forma constructiva, a través del diálogo y la argumentación.

6. Valorar críticamente las tendencias de homogeneización y estandarización de las corrientes culturales y de comunicación actuales.

7. Desarrollar actitudes de solidaridad acerca de las culturas minorizadas del mundo que están amenazadas en su existencia, y de empatía hacia quienes padecen discriminación por razones socioculturales y estar dispuesto a participar solidariamente en campañas y/o programas de apoyo y concienciación.

8. Reconocer las relaciones de la materia con los distintos ámbitos socioprofesionales hacia los que tiene proyección como forma de ampliación de sus expectativas futuras.

3.– CONTENIDOS

El Taller de investigación del entorno sociocultural, tanto por la diversidad de disciplinas que engloba, como por las características propias de las materias opcionales a las que pertenece, ofrece ciertas dificultades en la definición de unos contenidos perfectamente acotados.

A continuación se señalan una serie de contenidos generales, comunes a los distintos talleres que se propo-

kor batzuk aipatzen dira. Funtsean, gizarte-esparrueta-ko arazoak, teknika eta metodologia egokienekin ikertzeko eta haiei konponbide bat aurkitzeko nahiz aurre egiteko oinarrizko moduekin eta euskal gizartean aktiboki integraturiko hiritarren prestakuntzarekin zerikusia duten prozedurazko eta jarrerazko edukinekin du harremana.

A) Kontzeptuzko edukinak:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren aukerakotasunezko eremuan, kontzeptuzko edukinak ez dira jakintzagaiak artikulatzeko ardatz nagusia. Hala ere, hauen artean garrantzi handiena dutenetako batzuk identifika daitezke, adibidez:

1. Gizarte-Zientzien oinarrizko kontzeptuak eta printzipio metodologikoak.

2. Gizarte-Zientzietako ikerketa-prozesuaren faseak.

3. Ingurua ikertzeko proiektuak garatzeko tresna eta teknika zorrotz egokiak.

4. «Aldakuntza, «iraunkortasuna», «aniztasuna», «arazoa» eta «pluraltasuna» kontzeptuak eta euskal gizartean aurki daitezkeen hauen adibideak ezagutzea.

5. Gizartearen eta etnografiaren ikuspegitik, euskal gizartea ezaugarritzen duten arauak, ezaugarriak, sinboloak eta formak.

6. Ikastetxearen inguru soziokulturalaren ezaugarri tradizionalak eta desagertutako lanbideak.

B) Prozedurazko edukinak:

1. Arazoak eta hipotesiak formulatzea:

– Inguruko arazo garrantzitsuak identifikatu eta formulatzea.

– Ikaslearen interesen arabera garrantzitsuak diren arazoak aukeratzea, haiei buruzko hipotesiak lantzea eta soluzioak ematea.

– Ikerketa-bide berriak nahiz arazo edo zalantza berriak formulatzea.

2. Informazioa bilatzea eta tratatzea:

– Iturri desberdinetatik (idatziak, grafikoak, bisualak, etab.), familiaren historiari, lekuko historiari eta Euskal Herriko gizarteko ohiturei, pentsamoldeei eta abarri buruzko informazioa lortzea.

– Iturrien analisi, konparaketa eta tratamendu kritikoa egitea.

– Inkestak eta behaketa-fitxak diseinatzea, hormirudiak, grafikoak nahiz azalpen-mapak lantzea eta teknologia berriak erabiltzea (ordenadorea, bideoa).

– Landako ikerketa eta lana (elkarrizketak, inkestak, behaketak, ikus-entzunezko erregistroak, zirriborroak, etab.) egitea.

– Zereginak egituratzea, proiektuak garatzea eta arakatzeko nahiz emaitzak aurkezteko (ahoz, idatziz edo ikus-entzunezkoen nahiz euskarri grafikoen eta abarren bidez) prozedurak aplikatzea.

– Denborazko sekuentziak eta aldaketa-prozesuak taulen edo mapa kronologikoen bidez adieraztea.

nen para esta materia. Tienen que ver en esencia con todos aquellos contenidos de procedimientos y de actitudes relacionados con las formas básicas de enfrentarse, investigar y solucionar problemas de los ámbitos sociales, con las técnicas y metodologías más apropiadas, así como con la formación de ciudadanos y ciudadanas integrados activamente en la sociedad vasca.

A) Contenidos Conceptuales:

En el ámbito de opcionalidad de la Secundaria Obligatoria los contenidos conceptuales no constituyen el eje principal en torno de articulación para las materias. No obstante, se pueden identificar algunos de los más relevantes en ésta, tales como:

1. Principios metodógicos y conceptos básicos propios de las Ciencias Sociales.

2. Fases del proceso de investigación en Ciencias Sociales.

3. Instrumentos y técnicas apropiadas para el desarrollo de proyectos de investigación del entorno de carácter rigurosos.

4. Conceptos de «cambio», de «permanencia», de «diversidad», de «problema» y de «pluralidad» y reconocimiento en la sociedad vasca de ejemplos de ambas.

5. Normas, rasgos, símbolos y formas distintivos de la sociedad vasca, desde un punto de vista social y etnográfico.

6. Oficios desaparecidos y rasgos tradicionales del entorno sociocultural del Centro.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Formulación de problemas e hipótesis:

– Identificación y formulación de problemas relevantes del entorno.

– Selección de problemas relevantes para los intereses del alumnado, elaboración de hipótesis sobre ellos y aportación de soluciones.

– Formulación de nuevas vías de investigación, nuevos problemas o interrogantes.

2. Búsqueda y tratamiento de información:

– Obtención de información a partir de fuentes diversas (escritas, gráficas, visuales, etc.) sobre la historia familiar, la historia local, y las costumbres, las mentalidades, etc. de la sociedad de Euskal Herria.

– Análisis, comparación y tratamiento crítico de las fuentes.

– Diseño de encuestas y fichas de observación, elaboración de murales, gráficos, mapas explicativos,... y utilización de nuevas tecnologías (ordenador, vídeo).

– Investigación y trabajo de campo (entrevistas, encuestas, observaciones, registros audiovisuales, bocetos, etc.).

– Estructuración de tareas, desarrollo de proyectos, aplicación de procedimientos de indagación y presentación de resultados (oralmente, por escrito, con audiovisuales, soporte gráfico, etc.).

– Representación de secuencias temporales y procesos de cambio mediante cuadros o mapas cronológicos.

– Baliabide teknikoak behar bezala erabiltzea (grabatzailea, argazki-kamera, bideoa, ordenadorea, etab.).

– Artxibategietara, liburutegietara, museoetara, erakusketetara eta bestelako ekipamendu eta erakundeetara bisitaldiak egitea, datuak biltzeko teknika egokiak erabiliz.

– Lekuko historian, batez ere ikuspegi sozial eta kulturaletik nolabaiteko esanahia duten gertakarien, pertsonaien, lekuen eta abarren bidez ibilbide historikoen diseinuan parte hartzea.

3. Azalpen-prozedurak:

– Euskal gizarteko fenomeno ezaugarriak deskribatzea eta analizatzea.

– Familiaren historiak eta lekuko historiak, mundumailan garrantzia izan duten gertakariekin lotzea.

– Ikaslearen inguruko gizartean gertatutako aldaketak eta iraunkortasunak analizatzea.

– Egungo euskal gizartea iraganeko beste garai batzuetakoarekin ikuspuntu etnografikotik alderatzea.

– Gertaera historiko orokorren eta familiaren nahiz lekuko historiakoen arteko kausa/ondorio harremana identifikatzea.

– Inguruko arazo nagusienak zerrendatzea eta haietako batzuk azaltzea, izan ditzaketen kausak eta ondorioak onartuz.

4. Komunikazioa:

– Eztabaidetan, simulazio-jokoetan, dramatizazioetan, etab. parte hartzea, zereginak beregain hartzea eta funtsatutako iritzi koherenteak ematea.

– Azalpenerako material desberdinak lantzea (panelak, hormirudiak, bideoak, diaporamak, etab.).

– Ikerketa-prozesuaren autoebaluazioa egitea.

– Ikerketa txikien eta lanen emaitzak azaltzea, komunikazio-lengoaia desberdinak erabiliz.

C) Jarrerazko edukinak:

1. Ezaguerarekiko jarrerak eta balioak:

– Lanean zorrotza izatea eta bere gaitasuna hobetzeko prest egotea: hobetzeko grina.

– Inguruko gizarte-errealitatearen ikerketarekiko, familiaren iraganaren eta norbere sustraiekiko, lekuko historiarekiko eta gertakari garrantzitsuenekiko nahiz esperimentazio zientifikoarekiko interesa azaltzea, familiaren nahiz gizartearen oraina ulertzeko eta interpretatzeko iturri den neurrian.

– Euskal gizartearen kontraesanak eta akatsak aitortzeko eta gizartea aldatzen nahiz gatazkak konpontzen laguntzeko borondatea izatea.

– Gizarte-Zientziei dagokien ezagueraren subjektibotasunaren eta ikertzaileak duen zereginaren balorazioa.

– Euskal Herriaren ezaugarriak eta bereizgarri etnografiko nahiz sozialak ezagutzeagatiko interesa izatea,

– Manejo adecuado de los medios técnicos (grabadora, máquina fotográfica, vídeo, ordenador, etc.).

– Visitas a archivos, bibliotecas, museos, exposiciones y otros equipamientos e instituciones, empleando técnicas adecuadas de recopilación de datos.

– Participación en el diseño de itinerarios históricos a partir de acontecimientos, personajes, lugares,... significativos en la historia de la localidad, sobre todo desde un punto de vista social y cultural.

3. Procedimientos explicativos:

– Descripción y análisis de fenómenos característicos de la sociedad vasca.

– Relación de la historia familiar y de la historia local con acontecimientos relevantes de carácter universal.

– Análisis de los cambios y de las permanencias en la sociedad del entorno del alumno y de la alumna.

– Comparación, desde un punto de vista etnográfico, de la sociedad vasca actual con la de otros momentos del pasado.

– Identificación de las relaciones de causa-efecto entre los acontecimientos históricos generales y los de la historia familiar y local.

– Enumeración de los principales problemas del entorno y explicación de alguno de ellos, reconociendo sus posibles causas y consecuencias.

4. Comunicación:

– Participación en debates, juegos de simulación, dramatizaciones..., asunción de papeles y emisión de opiniones fundamentadas y coherentes.

– Elaboración de diferentes materiales (paneles, murales, vídeos, diaporamas, etc.) de carácter explicativo.

– Autoevaluación del proceso de investigación.

– Exposición de los resultados de trabajos y pequeñas investigaciones utilizando diversos lenguajes de comunicación.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valores y actitudes acerca del conocimiento:

– Rigor en el trabajo y disposición a mejorar su competencia; afán de superación.

– Interés por la investigación de la realidad social del entorno, por el pasado familiar y las propias raíces, por la historia local y sus acontecimientos más relevantes y por la experimentación científica, como fuente de interpretación y comprensión del presente, tanto familiar como social.

– Voluntad de reconocer las contradicciones y errores de la sociedad vasca y de contribuir a la transformación de la sociedad y la resolución de conflictos.

– Valoración de la subjetividad del conocimiento en Ciencias Sociales y el papel que desempeña el/a investigador/a.

– Interés por el conocimiento de las características y rasgos etnográficos y sociales del País Vasco, como

egungo gizarteko pentsamoldeak, helburu politikoak eta nortasuna azaltzeko iturri diren neurrian.

– Lekuko ondare artistiko eta kulturalarekiko sentsibilitatea izatea, pertsonaren behar estetikoak asetzeko bide den neurrian.

2. Tolerantzia, enpatia eta elkartasun-jarrerak eta balioak:

– Desberdintasunak gainditzeko, ideia eta iritzi desberdinak errespetatzeko eta elkarrizketarako jarrera harkorra izatea.

– Talde-lanaren fase desberdinetan lankidetza eta gaitasuna azaltzea.

– Euskal gizarteko berariazko kultur adierazpenak positiboki baloratzea eta bultzatzea.

– Bere kideak ez diskriminatzeko portaera solidarioak bereganatzea.

– Aurreko belaunaldietako emakumeak familian nahiz inguruan bizi zuen egoera egungo emakumeenarekin alderatuz baloratzea.

– Historiaren eraikuntzan gizabanako partikularrek izan zuten zereginaren garrantzia ulertzea.

– Pluraltasun ideologikoa eta aniztasun soziokulturala gizartearen aberastasun gisa baloratzea eta dogmatismoa nahiz edozein fanatismo-mota gaitzestea.

– Gerren ondorioak eta gizarteko tirabirak jasan edo jasaten dituzten komunitate bateko pertsonen edo taldeenganako enpatia; baita genero, gizarte edo ekonomi arrazoiek eragindako diskriminazioak jasan dituztenenganakoa ere.

– Euskal gizartearen sustraien interpretazio okerrean edo etnozentrikoan oinarritutako diskriminazio-forma guztietaz jabetzea eta hauek gaitzestea; Euskal Herriko eskubide historikoak ukatu edo hauek jazartzeko joera duen edozein politika arbuiatzea.

– Desagertzeko arriskuan dauden herri eta kultura minorizatuekiko enpatia eta elkartasuna; zehazkiago esanda, Euskal Herrian gure kulturaren funtsezko adierazpena den euskararekikoa.

– Euskadin euskal kulturarekin elkarbizi diren beste kultur adierazpen batzuekiko tolerantzia azaltzea eta haiei laguntza ematea.

3. Partaidetza-jarrerak eta balioak:

– Desberdintasunak eta diskriminazio-egoerak errotik kentzeko gizarte-hobekuntzarako proiektuetan parte hartzeko borondatea izatea.

– Funtsezko euskal kultur formen biziraupen-arazoekiko sentsibilitatea izatea eta haiek gorde eta belaunaldietan zehar transmititzen laguntzeko prest egotea.

– Gizartea eta ingurua bera hobetzeko proiektuetan lankidetza, elkartasuna eta gizarte-partaidetzaren aldeko jarrera azaltzea.

fuente de explicación de las mentalidades, de las aspiraciones políticas y de la personalidad de la sociedad actual.

– Sensibilidad hacia el patrimonio artístico y cultural de la localidad como vía de satisfacción de las necesidades estéticas de la persona.

2. Valores y actitudes de tolerancia, empatía y solidaridad:

– Actitud receptiva y dialogante, superadora de diferencias y respetuosa con ideas y opiniones diferentes.

– Cooperación y responsabilidad en las distintas fases del trabajo en equipo.

– Valoración positiva y apoyo a aquellas manifestaciones culturales específicas de la sociedad vasca.

– Asunción de comportamientos solidarios y no discriminatorios hacia los compañeros.

– Valoración de la situación de la mujer en las generaciones anteriores en relación con la actual, en la propia familia y en el entorno inmediato.

– Apreciación de la importancia del papel desempeñado por los individuos particulares en la construcción de la Historia.

– Valoración de la pluralidad ideológica y de la diversidad sociocultural como una riqueza de la sociedad y rechazo del dogmatismo y de cualquier forma de fanatismo.

– Empatía hacia aquellas personas o colectivos de la comunidad que padecen o han padecido las consecuencias de guerras y situaciones de tensión social, así como los que son objeto de discriminación económica, de género o social.

– Toma de conciencia y rechazo de todas las formas de discriminación basadas en una interpretación sesgada o etnocéntrica de las raíces de la sociedad vasca; rechazo, asimismo, de toda política tendente a negar o perseguir los derechos históricos del pueblo vasco.

– Empatía y solidaridad hacia aquellos pueblos y culturas minorizadas amenazadas en su existencia; en particular, en el marco de Euskal Herria, hacia el euskara, manifestación sustancial de nuestra cultura.

– Tolerancia y apoyo hacia otras expresiones culturales que conviven en Euskadi con la cultura vasca.

3. Valores y actitudes participativas:

– Voluntad de participar en proyectos de mejora social para la erradicación de desigualdades y situaciones discriminatorias.

– Sensibilidad hacia los problemas de supervivencia de formas culturales vascas fundamentales y disposición a contribuir a su mantenimiento y transmisión generacional.

– Actitud favorable a la cooperación, la solidaridad y la participación social en proyectos de mejora social y del propio entorno.

Zentzu honetan, «Inguru soziokulturalaren ikerketarako tailerra» jakintzagaiaren edukinak ondorengo tailer hauen inguruan egitura daitezke:

1. Familiaren Historia.

DBHko ikasleen interes eta bizipenetatik hurbil dagoen Historia garaikidearen ikaskuntza esanguratsua ahalbidetzen duen bideetako bat familia-ingurua ikertzen duen objektu baten erabilpena da. Hurbileko iragana ezagutzeko eskurago dagoen iturria izateaz gain, ikerketarako teknika eta iturri dibertsifikatuetara hurbiltzeko aukera bat da. Prozedurazko izaera duen helburu honez gain -ikerketa historiko-soziologikorako teknikekin eta metodologiarekin trebatzea-, eskolako ezaguera familia eta gizarte-inguruarekin lotzea, sustraitzea eta zentzua ematea ahalbidetzen die ikasleei.

Tailer hau DBHren lehen zikloan gara daiteke, informazio-iturriekiko hurbiltasunari esker, Historiaren tratamenduari eta bere metodo eta teknika ezaugarriei buruzko hastapenak emateko erabil bait daiteke. Hala ere, beste tailer batzuekin konbinatuz, bi ziklotan ere antola daiteke, Familiaren Historia Tailerra ikasleengandik hurbilen dagoen motibatzailea eta ikerketa-esparrua bihurtzen delarik.

Ikerketa-prozedurak, iturri desberdinetan lan egitea ahalbidetzen du: idatzitakoak (soldaduzka-txartela, oroigarriak, familia liburuak, eskola-txartelak, etab.), antzinako lanabesak eta, nagusiki, hitzezko iturriak, familiako kideei zuzenean elkarrizketak eginez eta aurreko belaunaldietako lanbideak, ohiturak, jarrera politikoak, kultur prestakuntza, etab. azpimarratuz. Bertan Historiaren -letra larriz idatzia- eta pertsonen nahiz familiaren eguneroko historiaren -letra txikiz idatzita- arteko loturak eta desberdintasunak finkatuko dira.

Ikasleek, zalantzarik gabe, gizarteak azken hamarkadetan jasan dituen aldaketa nagusiak zein izan diren asmatu ahal izango dute eta hauek eragin dituzten arrazoiei buruzko hipotesiak formulatzeko aukera izango dute. Aldaketa eta iraunkortasuna dira tailer honetako oinarrizko kontzeptuak, Ardatza euskal gizartearen pentsamoldearen bereizgarri esanguratsuenen identifikazioa den bitartean.

2. Lekuko Historia

Ikastetxea kokatuta dagoen herriaren historia, beste batzuek ez bezala ikaslearen ingurutik oso hurbil dagoen eta bere ikaskuntza-prozesuan elementu motibatzaile gisa funtziona dezakeen tailer bat da. Gainera, historiako teknika eta metodologia desberdinekin eta bereziki prozedurazko alderdiekin, adibidez iturrien eta datubaseen tratamendua, elkarrizketen bidez informazio zuzena lortzea, komunikabideekiko lana, etab. lotzea ahalbidetuko dio.

DBHaren lehenengo nahiz bigarrengo zikloan barnera daiteke, programatzen diren helburu berezien eta haiek beste edukin-multzo batzuekin artikulatzeko moduaren arabera. Ondorengo iharduera-motak proposatzen dira:

Gertaera historikoak definitzea eta hiri-inguruan zehar ibilbideak diseinatzea, hauei buruzko informazioa

En este sentido, los contenidos del «Taller de investigación del entorno sociocultural» se podrían estructurar en torno a los siguientes talleres:

1. La Historia familiar.

Una de las vías de acceso a un aprendizaje significativo de la Historia contemporánea que se sitúe cercana a los intereses y vivencias del alumnado de ESO es la utilización como objeto de investigación del medio familiar. Constituye la fuente más cercana de conocimiento del pasado inmediato y una posibilidad de acercarse a fuentes y técnicas de investigación diversificadas. Además de este objetivo de carácter procedimental -familiarizarse con las técnicas y metodología de investigación histórico-sociológica-, permite a los alumnos relacionar su conocimiento escolar con el entorno familiar y social, enraizarlo y dotarlo de significación.

Este Taller puede desarrollarse en el primer ciclo de la ESO, pues dada la cercanía a las fuentes de información, puede servir de iniciación al tratamiento de la Historia y de los métodos y técnicas que le son propios. No obstante, también podría organizarse a lo largo de los dos ciclos, en combinación con otros talleres, sirviendo el Taller de la Historia Familiar como referente motivador y ámbito de investigación de lo más próximo a los alumnos.

El procedimiento investigativo permitirá el trabajo de diversas fuentes: las escritas (cartillas militares, recordatorios, libros de familia, cartillas escolares...), las iconográficas (fotografías, cuadros,...), utensilios antiguos y, fundamentalmente, las fuentes orales, a partir de entrevistas directas a integrantes de la familia, destacando los oficios, las costumbres, las actitudes políticas, la formación cultural... de las generaciones anteriores, y donde se establezcan los lazos y disparidades entre la Historia -con mayúsculas- y la historia personal y familiar -con minúsculas- más cotidiana.

Las alumnas podrán, sin duda, percibir cuáles han sido los cambios más destacados de la sociedad de las últimas décadas, y tendrán la oportunidad de formular hipótesis sobre las causas que los han producido. Cambio y permanencia son dos de los conceptos básicos de este taller, mientras que el Eje sería la identificación de los rasgos más significativos de la mentalidad de la sociedad vasca.

2. La Historia local.

La historia de la localidad donde está situado el Centro es un taller próximo como pocos otros al entorno del alumnado y que puede funcionar como elemento motivador en su proceso de aprendizaje. Además, permitirá ponerle en contacto con las diversas técnicas y metodología histórica y, en especial, con los aspectos más procedimentales, como tratamiento de fuentes y bases de datos, obtención de información directa mediante entrevistas, trabajo con medios de comunicación, etc.

Puede incluirse tanto en el primero como en el segundo de los ciclos de la ESO, en función de los objetivos específicos que se programen y de su posible articulación con otros bloques de contenido, proponiéndose los siguientes tipos de actividades:

– Definición de hitos históricos, diseño de itinerarios por el medio urbano para su localización y recogida

kokatu eta bilatzeko (bideoa, fotografia, ahozkoa, idatzia, etab.) eta ondoren ikasgelan tratatzeko: azkenean, emaitzak aurkeztea. Lekuko historian nolabaiteko garrantzia izan duen gai monografiko bat aukera daiteke, bai zorrozki historikoa (adibidez, gerra zibila eta bonbardaketak Gernika edo Durango hirien kasuan; edo Erdi Aroa Gasteizen, etab.) edo ekonomikoa (arrantzarekin zerikusia duten ibilbideak izan daitezke Hondarribia edo Bermeo bezalako portuetan, etab.), lekuaren nortasuna azpimarratuz.

Lekuko historiaren iragana gogoraziko duten pertsonaiak edo gertaerak aukeratzea. Aukeratutako gertaeraren inguruan garaiaren, gizarte-zirkunstantzien, politikaren, kulturaren eta abarren ezagutza jakin batzuk proiektatuko dira -lan monografikoak, dramatizazioak, etab. eginez.

Herriko adierazpen artistikoen azterketa; obra arkitektonikoen, eskultura publikoen, pinturen, beirateen eta ikaslearen eskura dauden beste adierazpen batzuen irudiak (bideoak eta diapositibak). Ikasgelan hauek garaien, estiloen, egileen, mezenasgoaren, zirkunstantzia historiko eta sozialen arabera identifikatzeko lana egingo da. Eta azkenean diaporama bat edo soinudun bideo bat egin daiteke.

Ikastetxea kokatzen den herriaren eta eskualdearen irudiekin eta dokumentu idatziekin «Datu-banku» bat egin daiteke, euskarri desberdinetan. Hauek prozedurazko zereginetarako, lanak egiteko, etab. edo diziplinarteko esperientziak nahiz zehar-lerroetako batekin zerikusia dutenak burutzeko laguntza gisa erabilgarriak izan daitezke.

3. Etnologiako Tailerra

Tailer honen helburuak, Gizarte-Zientzien arloko ikerketa-metodoen ulerketari, dagozkion lan-tekniketan trebatzeari (behaketa, elkarrizketak, informazio grafikoaren eta soinuzkoaren bilketa, artxibategien kontsulta, datu eta informazio desberdinen tratamendua eta antolaketa, etab.), orokorrean Euskal Herriaren eta, dagokionean, beste herri batzuen ezaugarri etnologikoak kultur ondare paregabe gisa baloratzearekin eta hauek artatzeko jarrera enpatikoak sustatzearekin zerikusia dute. Era berean, ikasleek, oso ezagunak ez badira ere gizartean nahiz lan munduan gero eta proiekzio zabalagoa duten Gizarte-Zientzietako talde batekin (Etnografia, Etnologia, Antropologia, Psikologia, etab.) harremanetan jartzeko aukera ezinhobea eskaintzen dute.

Tailer honetan ikerketa-esparru desberdinak sar daitezke, desagertutako edo egungo gizartean desagertzen ari diren lanbideak adibidez; gizarte-maila edo talde desberdinei buruzkoak (agoteak, ijitoak, etab.), gure aitona-amonen garaiko eta gure garaiko elikatze-ohiturei, bidaiei, aisiari, jaiei, pertsonarteko harremanei eta abarrei buruz egindako azterketa konparatiboari buruzkoak (aldaketa eta bizirik irautea), ekonomi mundu tradizionalari lotutako teknika eta tresnei buruzkoak (arrantza, nekazaritza, abelazkuntza, basoen ustiapena, etab.) eta beste gauza askori buruzkoak izan daitezke eta Ikastetxea kokatzen den herriaren baliabideen nahiz ikaslearen interesen arabera egingo dira. Era berean,

de información (vídeo, fotografía, oral, escrita...) y tratamiento posterior en el aula; finalmente, presentación de los resultados. Puede elegirse un tema monográfico relevante en la historia local, bien estrictamente histórico (por ejemplo, la guerra civil y el bombardeo en el caso de las villas de Gernika o de Durango; o la Edad Media en Vitoria-Gasteiz...) o de tipo económico (podrían ser itinerarios relacionados con las actividades pesqueras en puertos como Hondarribia o Bermeo...), que den personalidad a la localidad.

– Elección de un personaje o de un acontecimiento que hayan marcado el pasado de la historia local. En torno al hito elegido se proyectará un conocimiento más especifico -mediante la realización de trabajos monográficos, dramatizaciones- de la época, las circunstancias sociales, políticas, culturales... que le rodearon, etc.

– Estudio de las manifestaciones artísticas de la localidad; recopilación de imágenes (vídeo y diapositiva) de las obras arquitectónicas, de las esculturas públicas, de pinturas, vidrieras y otras manifestaciones accesibles a los alumnos. En el aula se desarrollará una labor de identificación de las mismas según períodos, estilos, autoría, mecenazgo, circunstancias históricas y sociales en que se producen,... Y, finalmente, se puede realizar un diaporama o un vídeo sonorizado.

– Realización de un «banco de datos», con imágenes y documentos escritos de la localidad y la comarca del Centro, en distintos soportes, que puedan ser útiles para tareas procedimentales, realización de trabajos, etc., o como apoyo para experiencias de tipo interdisciplinar y relacionadas con alguna de las líneas transversales.

3. Taller de Etnología.

Los objetivos de este taller se refieren a la comprensión del método de investigación en este campo de las Ciencias Sociales, a la familiarización con las técnicas de trabajo correspondientes (observación, entrevistas, recogida de información gráfica y sonora, consulta en archivos, tratamiento y organización de datos e informaciones diversas, etc.) y a la valoración de las características etnológicas de Euskal Herria y, eventualmente, de otros pueblos como patrimonio cultural irreemplazable, y la promoción de actitudes empáticas en orden a su conservación. Constituye, asimismo, una buena oportunidad para que los alumnos establezcan contacto con un grupo de Ciencias Sociales no muy conocidas (Etnografía, Etnología, Antropología, Psicología, etc.) y que tienen una creciente proyección social y laboral.

En este taller tienen cabida ámbitos de investigación diferentes como pueden ser los oficios desaparecidos o en trance de desaparición en la sociedad actual; puede referirse a un grupo o estrato social determinado (agotes, gitanos,...), a un estudio comparativo entre los hábitos alimentarios, los viajes, el ocio, las fiestas, las relaciones personales, etc. de la época de nuestros abuelos y los de hoy en día (cambio y pervivencia); a técnicas o instrumentos ligados al mundo económico tradicional (pesca, agricultura, ganadería, explotación forestal,...), y un largo etcétera que dependerá de las posibilidades de la localidad donde esté el Centro y de los intereses del alumnado. Asimismo, sería interesante

genero-ikuspegi batetik, hau da, emakumeak Euskal Herriko inguru soziokulturalaren esparruan bizi izan duen egoeraren eta izan duen rolaren bilakaerari buruzko irakurketa bat egitera zuzendutako ikuspegi batetik abiatzea interesgarria izango litzateke.

Etnologiako Tailerra, aurrez Gizarte-Zientziekin (Geografia, Historia, etab.) oinarrizko harreman bat izan duela kontuan izanik, DBHko bigarren ziklorako egokiagoa da, neurri batean disziplinen ezaguera jakin bat inplikatzen baitu. Hala ere, kontzeptuzko edukinak ahalik eta gutxienera mugatu behar direla gogoratu behar da.

4. Soziologiako Tailerra

Soziologiako tailerra, ikasleak bizi duen errealitate anitza eta aberatsa kritikoki eta irakurketa estereotipatuen gainetik analizatzeko proposamenik eraginkorrena izan daiteke ziurrenik. Gainera, Soziologiako berezko metodologiak eta teknika erabiltzea eta haiekin trebatzea ahalbidetzen diote, ikaskuntzan autonomia bultzatuz.

Tailer hau DBHko lehenengo nahiz bigarrengo zikloan edo bietan berdin gara daiteke, Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan jasotzen diren helburu espezifikoen arabera.

Ikerketa-esparrua eskola-elkartea bera izan daiteke, estamentu bakoitzaren kezkak eta arazoak analizatuz, elkarren arteko ulermena bultzatu eta harreman sakonagoak erraztu bait daitezke. Hala ere, Tailer honen espazio naturala, Ikastetxea aurkitzen den herria bera izango da. Zentzu honetan, inguruari buruzko arazo garrantzitsuenak identifikatzea, honi buruzko informazioaren bilketa eta tratamendu-faseak planifikatzea (inkestak, komunikabideen erabilera, etab.), emaitzak lantzea eta dibulgatzea da asmoa. Honela, Soziologiaren teknika eta metodoekiko harreman interesgarriak izateaz gain, arazo eta gatazka-egoeren aurrean, eta bereziki bere interesei dagokienez (aisia, kontsumoa, sexualitatea, harreman pertsonalak, etab), haiek analizatu, norbere iritzia osatu eta jarrera jakin bat hartzeko aukera izango du ikasleak Tailer honetan.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Euskal gizartean esanguratsuenak diren ohiturak, balioak eta bizimoduak identifikatzea, gizarte anitz hau ezaugarritzen duten bereizgarri exogenoetatik desberdinduz.

Irizpide honekin, ikasleek eguneroko iharduerak burutzen dituzten gizarte-inguruko alderdi garrantzitsuenak, adibidez, balioak, ohiturak, pentsamoldea, lan egiteko moduak, denbora librearen antolaketa, etab. ezagutzeko, euskal gizartean bereziak eta bakarrak direnak nabarmentzeko nahiz, aldaketa, iraunkortasuna, berezitasuna, etab. ideien arteko diferentzia ezarriz, erabilera sustraitua dutenak ezarri berriak direnetatik bereizteko gai ote diren baloratu nahi da.

2. Ikerketa laburrak egitea eta inguru hurbileko auziei buruzko txostenak lantzea, banaka nahiz taldean egokiro planifikatuz, jatorri desberdineko iturrietatik

partir de un enfoque de género, orientado a la realización de una lectura de la evolución de la situación de la mujer y el rol que ha desempeñado, en el marco del entorno sociocultural del País Vasco.

El Taller de Etnología, por la conveniencia de poseer un contacto previo con Ciencias Sociales más básicas (Geografía, Historia,...) sería más apropiado para el segundo ciclo de la ESO, ya que, de alguna manera, implica un cierto conocimiento disciplinar. No obstante, se debe recordar que los contenidos conceptuales deben limitarse al mínimo imprescindible.

4. Taller de Sociología.

Un taller de Sociología es probablemente la propuesta más eficaz para que el/a alumno analice críticamente la realidad múltiple y rica en que vive, por encima de lecturas estereotipadas. Además, le permitirá familiarizarse y emplear la metodología y las técnicas propias de la Sociología, favoreciendo la autonomía en el aprendizaje.

Este Taller puede desarrollarse indistintamente tanto en el primero, como en el segundo ciclos de la ESO o en ambos, en función de los objetivos específicos que se contemplen en el Proyecto Curricular de Centro.

El ámbito de investigación puede ser el de la propia comunidad escolar, ya que analizando las inquietudes y problemas que preocupan a cada estamento puede favorecerse la mutua comprensión y facilitar unas relaciones más fluidas. No obstante, el espacio natural de este Taller será el de la localidad del Centro educativo. En este sentido, se trata de identificar problemas relevantes en ese entorno, planificar las fases de recogida y tratamiento de información sobre el mismo (encuestas, uso de medios de comunicación, etc.), elaboración de resultados y su divulgación. Así, además del interesante contacto con el método y técnicas de la Sociología, el alumnado encontrará en este taller una oportunidad para analizar, formarse una opinión propia y tomar postura ante situaciones problemáticas y conflictivas, especialmente respecto a polos de su interés (ocio, consumo, sexualidad, relaciones personales, etc.).

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Identificar las costumbres, valores y formas de vida más significativos de la sociedad vasca, diferenciándolos de los rasgos exógenos que caracterizan esta sociedad plural.

Mediante este criterio se quiere valorar la capacidad de los alumnos para reconocer los aspectos más relevantes del entorno social en el que desarrollan su actividad cotidiana, tales como los valores, hábitos, mentalidad, formas de trabajo, organización del tiempo libre, etc., singularizando los que son particulares y específicos de la sociedad vasca, y distinguiendo aquellos que proceden de un arraigado uso de los de reciente implantación, diferenciando las ideas de cambio, de permanencia, de singularidad, etc.

2. Realizar pequeñas investigaciones y elaborar informes sobre cuestiones referidas al entorno cercano, planificando adecuadamente tanto individualmente

informazio garrantzitsuak lortuz, metodo eta teknika desberdinak zorroztasunez erabiliz eta Gizarte-Zientzien berezko oinarrizko lengoaia egokia erabiltzeko gaitasuna eskuratuz.

Lan zientifikoko -batez ere izaera soziologikoa, antropologikoa eta etnologikoa duten ikerketetako- teknika eta metodoak erabiliz lortutako ezaguera eta trebetasun-maila ebaluatu nahi da, landa-lanera eta datu-banku eta iturri desberdinen (batez ere gizarte komunikabideen) erabilpenera zuzenduta dauden eta ikaslearen interes-arloetan (bake-mugimenduak, ekologia, ohiturak, denbora librea, etab.) sustraituta dauden haietan arreta berezia jarriz. Era berean, Historiako, Antropologiako, Ekonomiako, Soziologiako, Etnologiako eta orokorrean Gizarte-Zientzietako hiztegi tekniko zehatza oinarrizko edo hastapeneko mailan ulertzen eta zuzen erabiltzen ote duen ere egiaztatu nahi da, etapa honetako arloetan nahiz bizitza aktiboan sartzeko erabilgarria izango baitzaio.

3. Euskal Herriko arazo nagusiak ezagutzea eta garatzen direneko testuinguru soziokulturalarekin lotzea.

Ikasleak, Euskal Herriko gizartearen ezaugarri konplexuak eta bertan gaur egun dauden arazoak (langabezia, indarkeria, ingurugiroaren narriadura, baliabideen banaketa desberdina, kultur eta kirol ekipamenduen defizita, etab.), ematen direneko testuinguruaren arabera analizatu eta hauei konponbide bat aurkitzerakoan bere partaidetzak duen garrantzia ulertzeko gai ote diren egiaztatu nahi da. Ikaslearen interesen arabera, tenstuinguruan garrantzi gehiena duten arazoak ebaluatuko dira batez ere.

4. Euskal Herriko gizartearen kultur adierazpeneko eremu eta baliabide desberdinak nahiz hauek egungo gizartean duten zeregina kritikoki analizatzea eta bere egitea.

Kultur adierazpeneko eta adierazpen artistikoko formen pluraltasuna nahiz lengoaien aniztasuna eta haiek irudikatu eta zabaltzeko erabilitako moduak bereizteko duen gaitasuna eta azalpen esperimental eta heterodoxoenekiko harmena ebaluatu nahi dira: arte klasikoetatik (pintura, arkitektura, eskultura, musika, etab.), kultur ekintza desberdinetara (arte eszenikoak, dantza, bertsolaritza, literatur edo arte-lehiaketak, arte erakusketak, komiki erakusketak, etab.), erabilitako lengoaia eta euskarrietatik igaroz (tradizionalenetatik beste esperimentalago batzuetara: mimika, kale-antzerkia, musika garaikidea, bideoa, etab.), eta bereziki bere inguruan adierazitakoak.

5. Kulturaniztasuna, pluraltasunaren eta gizartearen aberastasunaren adierazpen gisa ulertzea.

Irizpide honen helburua, ikasleak, Euskal Herriko tradizionalekiko desberdinak diren kultur eta gizarte-adierazpen batzuekiko tolerante izateko, haiek defendatzeko gogoa azaltzeko eta beste kultur errealitate batzuk ezagutzea, nortasuna osatzeko gustoko iharduera gisa ikusteko duten gaitasuna neurtu nahi da. Era berean, Euskal kulturaren nortasuna mantentzeko borondatearen arabera, kultur sinkretismoa eta aniztasuna gure garaiko gizarteen balio eta ezaugarri gisa

como en equipo, obteniendo informaciones relevantes a partir de fuentes de distinta naturaleza, empleando con rigor diferentes métodos y técnicas y adquiriendo competencia en el uso adecuado de un lenguaje básico propio de las Ciencias Sociales.

Se pretende evaluar el grado de conocimiento y destreza alcanzado en el empleo de las técnicas y métodos propios del trabajo científico -sobre todo en investigaciones de carácter sociológico, antropológico y etnológico-, con especial hincapié en los orientados al trabajo de campo y al manejo de diferentes fuentes y bancos de datos (sobre todo de los medios de comunicación social), y enraizados en áreas de interés del alumnado (pacifismo, ecología, hábitos, tiempo libre...), así como su comprensión y empleo correcto de un vocabulario técnico preciso, característico de Ciencias Sociales como la Historia, la Antropología, la Economía, la Sociología, la Etnología, etc., en un nivel básico o inicial, que pueda serle de utilidad tanto en las áreas de la etapa como para su inserción en la vida activa.

3. Reconocer los principales problemas del País Vasco y relacionarlas con el contexto sociocultural en el que se desarrollan.

Se trata de comprobar si los alumnos son capaces de analizar las complejas características de la sociedad de Euskal Herria y los problemas que en ella existen en la actualidad (paro, violencia, deterioro ambiental, desigual reparto de los recursos, déficit de equipamientos culturales y deportivos,...) en relación al contexto en que se producen y apreciar la importancia de su participación en su solución. Sobre todo se evaluarán aquellos problemas que sean más significativos para el contexto e intereses del alumnado.

4. Analizar y asumir los diferentes ámbitos y medios de expresión culturales de la sociedad del País Vasco de forma crítica, así como el papel que juegan en la sociedad actual.

Se pretende evaluar su capacidad para discernir la pluralidad de formas de expresión artística y cultural y los múltiples lenguajes y modos empleados para su plasmación y difusión y su receptividad sobre aquellas muestras más experimentales y heterodoxas; desde las artes clásicas (pintura, arquitectura, escultura, música...), a actos culturales diversos (artes escénicas, danza, bertsolaritza, concursos literarios o artísticos, exposiciones de arte, muestras de cómic, etc.), pasando por los lenguajes y soportes empleados (también desde los más tradicionales, hasta otros experimentales: mímica, teatro de calle, músicas contemporáneas, vídeo, etc.), y especialmente los manifestados en su entorno.

5. Asumir la multiculturalidad como una expresión de pluralidad y de enriquecimiento social.

Este criterio tiene por objeto conocer en qué medida los alumnos y las alumnas muestren tolerancia hacia formas de expresión cultural y social diferentes a las tradicionales del País Vasco, se manifiesten dispuestos a defenderlas y encuentren en el conocimiento de otras realidades culturales una actividad satisfactoria para la formación de su personalidad. Asimismo, desde la voluntad del mantenimiento de la identidad cultural de Euskadi, se pretende determinar el grado de asunción del sincre-

ulertzeari dagokionez lortu duen maila finkatu nahi da.

6. Eztabaiden, dramatizazioen edo simulazioen esparruan, antolatzeko, diseinatzeko partaidetza kritikorako eta komunikaziorako prozedurak garatzea, aztertzen den arazoaren rol desberdinak beregain hartuz.

Irizpide honekin ikasle bakoitzak, eztabaidara, elkarrizketara, simulazio-jokoetara eta antzekoetara zabalik dauden prozesuen esparruan antolaketarako eta komunikaziorako tekniken eta tresnen garapenean nahiz haietan definitutako zeregin desberdinak (bozeramale, subjektu partaide, behatzaile neutral, moderatzaile, etab.) argumentaturiko datu, iturri eta iritzien arabera interpretatzeari dagokionez, garatu duen gaitasun-maila ebaluatu nahi da.

7. Euskal Herriko tradizioei eutsi eta euskara eta kulturaren nahiz nortasunaren beste ezaugarri batzuekiko interesa gordetzen laguntzeko komenigarritasunari buruz eztabaidatzea.

Euskal kulturaren eta gizartearen nortasuna artatzeko ahalegin pertsonalaren inplikazio-maila egiaztatzea eta, ikasleengan konpromisu honekiko nolabait esnatu den interes-maila finkatzea da asmoa, bereziki etengabeko aldaketa-prozesu bizkorra jasaten duen gizartean.

8. Etorkizuneko gizarte-ereduari eta bere ezaugarri izan behar luketen gizarte, familia eta pertsona-harremanei buruzko eztabaida.

Egungo euskal gizarteak izan ditzakeen akatsen eta okerren zuzenketan ikasleak lortu duen inplikazio-maila identifikatzea eta hauek azaleratu ondoren, bere balioak, interesak eta jarrerak gizarte-mailan nahiz pertsonalki ebaluatzea da irizpide honen asmoa. Era berean, egungo ikasleek biharko hiritar aktibo diren neurrian, existituko duen gizarte-motaren eta arazo nagusienen (ingurugiroa, langabezia, toxikomaniak, bakardadea, etab.) konponbideari buruzko erantzukizun zuzenari dagokionez lortutako gogoeta-maila ezagutu nahi da.

9. Gure gizarte garaikideko gertaera historikoen, familikoen eta lekukoen arteko harreman argitzaile bat finkatzea.

Irizpide honen asmoa, lekuko historian eta bereziki familiaren historian eragina izan duten izaera desberdineko (gizarteko, ekonomiako, erlijioko, politikako, kulturako eta abarreko) gertakari historikoak identifikatzeko eta, beren eboluzioa argitzeko bide gisa, testuinguru globalaren eta hurbileko inguruaren artean kausa-ondorio harremanak finkatzeko ikasleak duen gaitasuna ebaluatzea da.

10. Inguru soziokulturaleko arazoei buruz egindako lan eta ikerketa laburren emaitzak eta sintesia azaltzea, abiapuntuko hipotesia, helburuak, jarraitutako prozesua, ondorioak, etab. zehaztuz eta ahozko nahiz idatzizko komunikabideak eta komunikabide grafiko nahiz ikonografiko desberdinak zuzen erabiliz.

Ikasle bakoitzak, banaka nahiz taldean egindako ikerketen, dramatizazioen, eztabaiden, azterlanen eta abarren esparruan lortutako emaitzei dagokienez,

tismo y de la multiplicidad cultural como valor y característica de las sociedades de nuestro tiempo.

6. Desarrollar procedimientos de organización, diseño, participación crítica y comunicación en el ámbito de debates, dramatizaciones o simulaciones, asumiendo roles diferentes respecto al problema objeto de estudio.

Se persigue evaluar con este criterio el nivel de capacitación desarrollado por cada alumno y alumna en el desarrollo de técnicas e instrumentos de organización y comunicación en el ámbito de procesos abiertos de debate, coloquios, juegos de simulación y similares, y su interpretación de los diferentes papeles definidos en los mismos (portavoz, sujeto participante, observador/a neutral, moderador/a, etc.), a partir de datos, fuentes y opiniones argumentadas.

7. Debatir sobre el interés de contribuir al mantenimiento de las tradiciones y favorecer el interés por el euskera y por otros rasgos culturales y de la personalidad propios de Euskal Herria.

Se pretende comprobar el grado de implicación personal en la conservación de la personalidad cultural y social vascas y establecer, de alguna manera, el nivel de interés despertado en el alumnado para con este compromiso, especialmente en una sociedad sometida a un vertiginoso y constante proceso de cambios.

8. Debatir sobre el modelo de sociedad futura y el tipo de relaciones sociales, familiares y personales que deberían caracterizarla.

Se persigue identificar el grado de implicación del alumnado en la corrección de los errores o defectos que pueda tener la sociedad vasca actual y de hacer aflorar, para evaluarlos, sus propios valores, intereses y actitudes a nivel social y personal. Asimismo, se pretende conocer el nivel de reflexión alcanzado en la materia sobre la responsabilidad directa que los alumnos de hoy en día tendrán como ciudadanos activos de mañana sobre el tipo de sociedad que vaya a existir y sobre la solución de los problemas más significativos (medio ambiente, paro, toxicomanías, soledad, etc.).

9. Establecer una relación explicativa entre los acontecimientos históricos relevantes en nuestra sociedad contemporánea y los familiares y locales.

Este criterio pretende evaluar la capacidad de identificación por los alumnos de los acontecimientos históricos de distinta naturaleza (sociales, económicos, religiosos, políticos, culturales...) que han influido en la historia local y particularmente en la historia familiar, y la capacidad de establecer relaciones de causa-efecto entre el contexto global y el entorno más próximo, como medio para explicar su evolución.

10. Exponer los resultados y síntesis de los distintos trabajos y pequeñas investigaciones realizadas, sobre problemas del entorno sociocultural, explicitando la hipótesis de partida, los objetivos, el proceso seguido, las conclusiones..., y utilizando correctamente los diversos medios de comunicación oral, escrito, gráfico e iconográfico.

Se trata de conocer la competencia de cada alumno y alumna en el ámbito de los procedimientos de comunicación, respecto a los resultados obtenidos en el marco

komunikazio-prozeduren esparruan nahiz lengoaia eta baliabide teknologiko desberdinen erabilpen zuzenean (idatzitako laburpenak, ahozko azalpenak, ikus-entzunezko aurkezpenak, euskarri informatikoa, etab.) lortu duen gaitasuna ezagutzea da irizpide honen asmoa.

11. Inguruko alderdi desberdinen azterketari esker, ikaslea beraren eta hezkuntza-elkartea osatzen duten gainerako pertsona guztien eguneroko bizitza inplikatzen duten mezu, informazio eta proposamen interesgarriak lortzea.

Irizpide honen bidez, sexu-berdintasunari, diskriminazio-ezari, elkarrizketa-ohiturak zabaltzeari, zarrastelkeria, zentzuzko kontsumo-motengatik aldatzeari, lan giroko lankidetzari, arazoen konponbideari eta abarri dagokionez, gizabanako bakoitzean eta eskola-elkartean orokorrean ihardun dezaketen jarrera eta balio-transmisioen bidez, Ikastetxeko eskola-elkartea osatzen dutenen eguneroko bizimodu eta ohituretan eragin positiboa izateko aukera ote dagoen ebaluatu nahi da batez ere.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Gizarte-zientzien, Geografiaren eta Historiaren arloa aitortzen dien irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak «Geografia eta Historia» espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere antzekotasunagatik eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

## GORPUTZA ETA OSASUNA MANTENTZEKO TAILERRA

### 1.– SARRERA

Etapa honetako irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak ikasle bakoitzak bere gorputzaren ezagutza esanguratsua lor dezan sustatu eta ahalbidetu behar du. Ikasleari, gainera, ezagutzak, prozedurak, jarrerak eta ohiturak lortzen lagundu behar zaio, horiek ahalbidetuko baitiote bizi eta osasun-baldintzak hobetzea eta mugimenduak eskaintzen dituen aukerez gozatu eta baloratzea, aberastasun pertsonala lortzeko eta pertsonarteko harremanak ezartzeko bide gisa.

Adin horietako ikasleei honako hauetan lagundu behar zaie: beren gorputzaren irudi aldakorra egituratzen, osasuna zaintzen eta hobetzen, eta gorputz-ekintzen esparruan lorpenak erdiesten autoestimazioa handitu eta beren adinekoen taldean eta beren gizarteingurunean integratzeko hain zuzen. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren lehentasunetako bat ohitura eta jarrera horiek lortzea da.

de las investigaciones, dramatizaciones, debates, estudios,... realizados, tanto individualmente como en grupo, así como el empleo adecuado de diferentes lenguajes y medios tecnológicos (resúmenes escritos, explicaciones orales, presentaciones audiovisuales, en soporte informático, etc.).

11. Aportar mensajes, informaciones y propuestas de interés que impliquen la vida cotidiana del propio alumnado y del resto de las personas que integran la comunidad educativa, a partir del estudio de los diversos aspectos del entorno.

Mediante este criterio se pretende evaluar, sobre todo, la posibilidad de incidir positivamente en los hábitos y formas de vida cotidianas de los/as integrantes de la comunidad educativa del Centro, a través de la transmisión de actitudes y valores que sean susceptibles de actuar en cada individuo y en el colectivo educativo en su conjunto, referidos a la igualdad de sexos, la no discriminación, la extensión de hábitos de diálogo, la sustitución del despilfarro por formas de consumo más racionales, la cooperación en el trabajo y en la resolución de los problemas, etc.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de investigación del entorno socio-cultural)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los que el R.D. 1701/1991 atribuye el Área de Ciencias de Ciencias Sociales, Geografía e Historia, pudiendo impartirla como afín los profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de «Geografía e Historia»

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

## TALLER DE MANTENIMIENTO DEL PROPIO CUERPO Y DE LA SALUD

### 1.– INTRODUCCIÓN

El proceso de enseñanza y aprendizaje en esta etapa ha de promover y facilitar que cada alumno y cada alumna llegue a comprender significativamente su cuerpo, ayudándole a adquirir los conocimientos, procedimientos, actitudes y hábitos que le permitan mejorar sus condiciones de vida y salud, así como disfrutar y valorar las posibilidades del movimiento como medio de enriquecimiento personal y de relación interpersonal.

Hay que ayudar a los alumnos y alumnas de estas edades a estructurar su imagen corporal cambiante, a conservar y mejorar su salud, a conseguir logros en el marco de la actividad física que fortalezcan su autoestima y favorezcan su integración en su grupo de edad y en su entorno social. La consecución de estos hábitos y actitudes es una de las prioridades en la Educación Secundaria Obligatoria.

Gorputza eta Osasuna Mantentzeko Tailerraren proposamenaren asmoa etapa honetatik, eta lehen zikloan, eskakizun eta egoera jakin batzuei erantzutea da:

Batetik, kontuan izanik antzematen den gizarte-eskaria gorputza eta osasuna zaintzeko, gorpuzkera eta sasoia hobetzeko, eta iharduera motrizen bidez aisia era konstruktibo batean erabiltzeko, gorputza ulertu gabe ezin da bere jokabide motriza ulertu.

Bestetik, adin horietan higiene-funtzioa garatzen da, osasuna eta sasoia zaindu eta hobetzeko, eta gaixotasun eta disfuntzio batzuk prebenitzeko.

Eta azkenik, kontuan izanik ikaslearen ahalbide kognitiboek ihardueraк zergatik eta zertarako burutzen dituen jakiteko baliagarriak direla, ezagutza horrek arrazoitutako erabakiak hartzea, eta osasuna, ariketak egiteko ohitura, eta gorputz-ekintzen praktika bezalako edukinak gizarteratzeko eta aisia prestakuntzaren ikuspegitik erabiltzeko bide gisa hartzea ahalbidetzen dio.

Bigarren Hezkuntzan, zehar-edukinen barruan osasun-hezkuntza da garrantzitsuenetakoa. Horregatik, beti agertu behar du prozesu osoan zehar, eta batez ere ondoren adierazitako eremuetan egin beharko dira aurrerapenak:

• Ekintza fisikoak gorputzean dakartzan funtsezko eraginak.
• Prebentzio eta mantenimendurako ohiturak.
• Praktika motrizean segurtasun-neurriak hartzea eta istripuak eragoztea.
• Istripu-arriskuaz eta kontrolaz jabetzea.
• Iharduera motriza, elikadura eta osasuna.

Ez dugu ahaztu behar adin horretan ikasleak bere gorputzarekiko interesa erakusten duela; beraz, hezitzaileak interes hori sakabanatu baino gehiago (Naturan, biologia; Etikan, morala; Gorputz-Hezkuntzan, motrizitatea, etab.), ikasleak gorputza bere osotasunean hartuta ezagutu dezan lortu behar du. Jakintzagai honen bidez, saio desberdinetan izandako bizipen, esperientzia, joko, etab.etan oinarrituta, gorputz eta osasun-ekintzen ardatzaren inguruan ikasleek bakarka eta taldean gogoeta egin dezaten lortu nahi da.

Proposamen honetan ezinbestekoa da ikaslea protagonista dela sentiaraziko dioten egoerak sustatzea; horietan, bakoitzak gune bat aurki dezake bere berezitasunak eta taldearekiko jarrera irekia adierazteko, nork bere burua eta gainerakoak onartzeko modu gisa.

Aldaketak sortzen diren etapa honetan, Gorputzaren eta Osasunaren Ezagutza-Arloa oso erakargarria da ikaslearentzako. Tailer hau aukeratzen duenak askatasun osoz parte hartuko du; beraz, ikaslea jarrera lasai eta positibo batekin ager daiteke bertara.

Hau bezalako jakintzagai batek izaera praktiko nabarmena izan behar du eta funtsezkoa da ekintzari buruz gogoeta egitea, ikasleak ez baitu bere ezagutza

La propuesta del Taller de Mantenimiento del Propio Cuerpo y de la Salud intenta ser una respuesta a una serie de exigencias y situaciones a las que desde esta etapa, y en el primer ciclo, es preciso dar una respuesta:

Por una parte, teniendo en cuenta la demanda social de educación en el cuidado del cuerpo y de la salud, de la mejora de la imagen corporal y la forma física, así como de la utilización constructiva del ocio mediante las actividades motrices, tendiendo a la comprensión de que la conducta motriz, por tanto, no puede aislarse de la comprensión del propio cuerpo.

Por otra parte, desarrollando en estas edades la función higiénica, relativa a la conservación y mejora de la propia salud y forma física, así como a la prevención de determinadas enfermedades y disfunciones.

Y finalmente, siendo conscientes de que es este el momento en el que las posibilidades cognitivas de los alumnos y alumnas permite educarles en el porqué y el para qué de las actividades que realizan, llevándoles a tomas de decisiones razonadas; así como a poder contemplar los contenidos de salud, hábitos de ejercicios y práctica de las actividades físicas como medio de inserción social y de empleo formativo del ocio.

Dentro de los contenidos transversales en Secundaria, la educación para la salud es uno de los más relevantes. Por ello, su presencia debe ser constante en todo el proceso y se deberá progresar, fundamentalmente, en los siguientes ámbitos:

• Efectos fundamentales de la actividad física en la salud.
• Hábitos de prevención y mantenimiento.
• Medidas de seguridad en la práctica motriz y prevención de accidentes.
• Conciencia del riesgo y control de accidentes.
• La actividad motriz, alimentación y salud.

No hay que olvidar que, a esta edad, el alumno o la alumna vive su cuerpo con interés, por lo que el educador no debe compartimentar este interés (en Naturaleza, lo biológico; en Ética, lo moral; en E.Física, lo motriz...), sino que debe favorecer que el aprendizaje corporal se realice de forma integrada. Con esta materia se pretende promover que a partir de vivencias, experiencias, juegos... vividos en las diferentes sesiones, se pueda facilitar la reflexión personal y en grupo del alumnado en torno al eje de la actividad física y de la salud.

En esta propuesta resulta imprescindible promover situaciones en las que el alumnado se sienta protagonista; en ellas cada uno puede encontrar un espacio donde expresar su peculiaridad y su apertura al grupo como forma de aceptarse y aceptar de una forma positiva a las demás personas.

El Ámbito del Conocimiento del Propio Cuerpo y Salud resulta muy atractivo en esta etapa de cambios para el alumno/a. La elección de este taller posibilita la libre participación, por lo que el alumno/a puede acudir con una actitud relajada y positiva.

Lo fundamental en una materia como esta, que debe ser eminentemente práctica, es la reflexión sobre la acción, ya que no podrá existir afianzamiento o apren-

sendotuko ez eta ikasiko ere egiten duen horri buruz gogoetarik egiten ez badu. Beraz, iharduera motrizaren azterketa garatu nahi da, arian-arian nork bere iharduerak eratzeko, hain zuzen ere aberastasun eta hobekuntza pertsonala lortzearren.

Gainera, ikasleari behar adina material eskaini nahi diogu, iharduerak bultzatu eta gorputz-ekintzaren aldeko motibazioa handitzen duten eredu positibo eta negatibo desberdinen inguruko gogoeta sustatzeko.

2.– HELBURUAK

1. Gorputzaren, keinuaren eta mugimenduaren adierazpen-ahalmena ezagutzea, komunikaziorako eta sorkuntzarako bide gisa.

2. Gorputz-ekintzarako ohiturak berekin dakartzan onurak ezagutu eta baloratzea, bai eta higieneak, elikadura orekatuak eta bizimodu osasuntsuak ere.

3. Gizartean agertzen diren gorputz-ereduek nork bere irudiaren gain duten eraginari buruz gogoeta egitea, bakoitzak bere mugekin eta gaitasunekin orijinalak garela kontuan izanik.

4. Gorputz-sistema desberdinen funtzionamendua funtsean autoestimazio handiagoa lortzeko bide gisa hartzea.

5. Edozein gorputz-ihardueraren aurreko eta ondorengo baldintzak ezagutu eta ikuspegi praktiko batean oinarrituta kontuan hartzea.

6. Talde-lanetan parte hartzea, elkartasunezko eta tolerantziazko jarrera erakutsiz, eta gainerakoen berezitasuna errespetatuz.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. SASOIA ETA OSASUNA

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Sasoian egoteko kontuan hartu beharreko faktoreak eta sistemak: hezur, muskulu, nerbio, zirkulazio eta arnas-sistemak.

2. Beroketa: prebentzio orokorretik espezifikora.

3. Arreta, babes eta segurtasunari buruzko oinarrizko arauak.

4. Gorputz-ekintzen garapenean osasunarekin zerikusia duten faktoreak kontuan hartzea:

– garbitasun eta higiene pertsonala;
– iharduera eta atsedena;
– elikadura eta nutrizioa;
– segurtasun-neurriak eta istripuen prebentzioa.

B) Prozedurazko edukinak

1. Gorputz-sistema batzuen funtzionamendua esperimentatzea.

2. Gorputza doitzeko baliagarria izango den beroketa landu, aztertu eta egitea.

dizaje si no se reflexiona sobre lo que se hace. Se pretende, por lo tanto, desarrollar el análisis de la actividad motriz, de manera que pueda ir construyendo progresivamente las suyas propias, para un enriquecimiento y mejora personal.

Así mismo, queremos dotar al alumno/a del material suficiente que promueva la reflexión sobre los diferentes modelos positivos y negativos que favorecen actividades y que refuerzan la motivación por la actividad física.

2.– OBJETIVOS

1. Reconocer la riqueza expresiva del cuerpo, del gesto y del movimiento como medio de comunicación y creación.

2. Conocer y valorar los beneficios que suponen los hábitos de actividad física, de la higiene y de la alimentación equilibrada, así como el llevar una vida sana.

3. Reflexionar sobre la influencia que modelos corporales que se dan en la sociedad tienen sobre la propia imagen, tomando conciencia de ser original, con sus límites y capacidades.

4. Asimilar básicamente el funcionamiento de los diferentes sistemas corporales, como forma de alcanzar un mayor autoconocimiento.

5. Conocer y tener en cuenta de forma práctica las condiciones anteriores y posteriores a cualquier actividad física.

6. Participar en actividades de grupo, con actitudes solidarias y tolerantes, respetando la singularidad del otro/a.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. CONDICIÓN FÍSICA Y SALUD

A) Contenidos Conceptuales:

1. Factores y sistemas a considerar en el desarrollo de la condición física: sistemas óseo, muscular, nervioso, circulatorio y respiratorio.

2. El calentamiento: de la prevención general a la específica.

3. Normas básicas de precaución, protección y seguridad.

4. Factores a considerar en el desarrollo de las actividades físicas relacionadas con la salud:

– limpieza e higiene personal;
– actividad y descanso;
– alimentación y nutrición;
– medidas de seguridad y prevención de accidentes.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Experimentación del funcionamiento de algunos sistemas corporales.

2. Elaboración, análisis y realización de un calentamiento que sirva para la adquisición de una puesta a punto corporal.

3. Sasoia mantentzeko eta handitzeko plangintza:

– abildadearekiko exekuzio motrizari dagokionez;

– oreka organikoari dagokionez.

4. Taldean gorputz-ekintza saioak egitea, horietan erabakiak era autonomoan hartzeko.

C) Jarrerazko edukinak

1. Nor bere osasunaz jabetzea eta bere bilakaerarekiko erantzukizuna hartzea.

2. Gorputzaren errealitatea baloratzea eta horretaz jabetzea.

3. Ikaskideen proposamenen aurrean jarrera positiboa erakustea.

4. Iharduerak burutzean gozamen hartzea.

5. Gorputz-ekintzak burutzeko bitarteko desberdinetan autonomiaz eta errespetuz jokatzea, beharrezko segurtasun eta babes-neurriak hartuz.

6. Garbitasun, higiene, instalazio, material eta segurtasunari buruzko araudiak errespetatu, kontrolatu eta onartzea.

2. MULTZOA. GORPUTZ-ADIERAZPENA

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Gorputz-adierazpena lengoaia gisa.

2. Gorputz adierazkorra: adierazpide metriko desberdinetan adierazpenerako eta komunikaziorako aukerak.

B) Prozedurazko edukinak

1. Espazioan eta norbanakoaren nahiz taldearen denboran gorputzaren adierazpen-elementuak landu eta erabiltzea: dramatizazioa, mimoa, gorputz-adierazpena, pantomima.

2. Nork berak nahiz taldean gorputz-konposizioak landu eta adieraztea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Nork bere gorpuzkera, mugak eta gaitasunak baloratu eta horietaz jabetzea.

2. Komunikabideek eskaintzen dizkiguten irudiei lotutako fenomeno soziokulturalen aurrean jarrera kritikoa erakustea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Gorputz-ekintza bat burutu aurreko eta ondorengo baldintzak planifikatzea, garapen motoreari dagokion mailaren arabera gaitasun fisikoa erabiliz eta ekintzaren oinarrizko printzipioak errespetatuz.

Irizpide honen bidez ikasleak gorputz-ekintza batean esku hartzen duten elementuak ezagutzen ote dituen jakin nahi da, bai eta ekintza horren aurreko (beroketa) eta ondorengo baldintzak kontuan hartzen ote dituen ere, prozesuan zehar sistema funtzionaletan sortzen diren aldaketak antzemanez. Gainera, praktika

3. Planificación del mantenimiento y desarrollo de la condición física:

– en relación a la ejecución motriz respecto a una habilidad;

– en relación al equilibrio orgánico.

4. Elaboración en grupo de sesiones de actividad física, en las que sea necesario tomar decisiones de forma autónoma.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Toma de conciencia de la propia salud y responsabilidad en el desarrollo de la misma.

2. Valoración y toma de conciencia de la propia realidad corporal.

3. Actitud positiva ante las propuestas de los compañeros y compañeras.

4. Disfrute en la realización de las actividades.

5. Autonomía y respeto en diferentes medios de actividad física, adoptando las medidas de seguridad y protección necesarias.

6. Respeto, control y aceptación de las normativas sobre limpieza, higiene, instalación, material y seguridad.

BLOQUE 2. EXPRESIÓN CORPORAL

A) Contenidos Conceptuales:

1. La expresión corporal como lenguaje.

2. El cuerpo expresivo: posibilidades de expresión y comunicación en distintas manifestaciones métricas.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Elaboración y utilización de los elementos expresivos del cuerpo en el espacio y en el tiempo personal y colectivo: dramatización, mimo, expresión corporal, pantomima.

2. Elaboración y representación de composiciones corporales individuales y colectivas.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración y toma de conciencia de la propia imagen corporal, sus limites y sus capacidades.

2. Actitud critica ante los fenómenos socio-culturales asociados a las imágenes que nos ofrecen los medios de comunicación

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Planificar las condiciones anteriores y posteriores para llevar a cabo una actividad física, haciendo uso de las capacidades físicas de acuerdo con el nivel de desarrollo motor y respetando los principios básicos de la actividad.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna conoce los elementos que intervienen en una actividad física, tiene en cuenta las condiciones anteriores (de calentamiento) y posteriores de la misma, vivenciando los cambios que se producen en los sistemas funcionales durante el proceso. Así mismo, debe ser capaz

motrizean egindako ahaleginak eta exigentzia baloratzeko gai izan behar du, bere gorputzak dituen mugak errespetatuz, hobeto ezagutuz eta erregulazio-mekanismoak garatuz.

2. Taldean egindako gorputz-errepresentazioetan jarrera konstruktibo batekin elkarlanean aritzea eta parte hartzea, ezpazioan eta denboran gorputzaren adierazpen-elementuak erabiliz, eta bere adierazkortasuna ezagutu eta komunikatzeko era bat dela ulertuz.

Irizpide honen bidez ikasleak taldean gorputz-errepresentazioari lotutako ekintzetan lotsarik gabe parte hartzen ote duen baloratu nahi da. Halaber, gainerako partaideen berezitasuna eta baldintzak errespetatzen ote dituen, eta gorputz-adierazpeneko taldeko partaidetza hori ikaskideekin komunikatzeko eta bere sentimenduak eta ideiak adierazteko ahalmen handiko baliabidea dela jabetzen ote den ikusi nahi da.

3. Exekuzio-ereduak erreproduzitzearekin zerikusirik ez duten egoera motriz berriei era autonomo eta eraginkorrean irtenbidea ematea.

Irizpide honen bidez erabat berriak diren edo neurri batean berriak diren egoera motrizei irtenbidea aurkitzean ikasleak bere garapen eta gorputz eta adierazpen-ahalbideen mailan nolabaiteko autonomia lortu ote duen ziurtatu nahi da, ekintza motriz horren aurreko eta ondorengo baldintzak bere gaitasun fisikoei egokituz, baina dagoeneko landutako beste exekuzio-eredu batzuk automatikoki erreproduzitu gabe, ordea.

4. Gizartean eskaintzen diren gorputz-eredu desberdinak aztertzea, nork bere irudian eta jokabide eta iritzi jakin batzuk hartzean duten eraginaz jabetuz.

Irizpide honen bidez ikaslea gizartean eta bereziki komunikabideen bitartez eskaintzen diren zenbait gorputz-ereduri buruz gogoeta egiteko gai ote den ziurtatu nahi da, eta eredu horiek bere iritzietan, pertsonei buruzko balorazioan eta osasunari eta elikadurari lotutako bestelako ohiturak eta jokabideak bereganatzean zein neurritan eragiten duten ikusi nahi da.

5. Gorputz-ekintzak, higieneak eta elikadura orekatuak norbanakoaren eta taldearen osasunari egiten dioten mesedea baloratzea, bizimodu osasuntsuaren adierazle gisa.

Irizpide honen bidez ikasleak bizimodu osasuntsuaren oinarrizko adierazleak edo faktoreak zeintzuk diren ba ote dakien baloratu nahi da, hau da: gorputz-ekintza, bakoitzaren ahalbideen arabera, norbanakoaren eta taldearen higiene eta garbitasuna, atsedena, prebentzio-neurriak eta elikadura egokia, eta adierazle horiek bere bizitzan eta besteekiko harremanetan kontuan hartzen ote dituen jakin nahi da.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. 1701/1991 Errege Dekretuak Natur Zientzien

de valorar el esfuerzo y la exigencia en la práctica motriz, respetando los límites del propio cuerpo, desarrollando el conocimiento del mismo y sus mecanismos de regulación.

2. Colaborar y participar con actitud constructiva en la representación de formas corporales colectivas, utilizando en el espacio y en el tiempo los elementos expresivos del cuerpo , como medio para reconocer la riqueza expresiva del mismo y entenderlo como una forma de comunicación.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna participa de forma deshinibida en actividades grupales de representación corporal, respetando la singularidad y condiciones del los y las demás participantes, así como si esta participación en actividades grupales de expresión corporal le sirve para tomar conciencia de las potencialidades de la misma, como formas de comunicación con sus compañeros y compañeras y expresión de sus ideas y sentimientos.

3. Resolver de forma autónoma y eficaz situaciones motrices nuevas no ligadas a la reproducción de modelos de ejecución

Con este criterio se trata de comprobar si el alumno o la alumna ha adquirido cierta autonomía, al nivel de su desarrollo y posibilidades corporales y expresivas, en la resolución de situaciones motrices total o parcialmente nuevas, adaptando las condiciones anteriores y posteriores de esa actividad motriz a sus capacidades físicas y sin reproducir de forma automática otros modelos de ejecución ya trabajados.

4. Analizar diferentes modelos corporales que se ofrecen en la sociedad, tomando conciencia de la influencia que los mismos tienen en su imagen personal, así como en la adopción de determinados hábitos de comportamiento y opiniones.

Con este criterio se trata de comprobar si es capaz de reflexionar sobre diferentes modelos corporales que se ofrecen en la sociedad, especialmente a través de los medios de comunicación social, así como en qué medida estos modelos le influyen en sus opiniones, en la valoración sobre las personas y en al adopción de unos u otros hábitos y comportamientos relacionados con la salud y la alimentación.

5. Valorar los beneficios que para la salud individual y colectiva tienen los hábitos de actividad física, de higiene y de alimentación equilibrada, como indicadores de un modo de vida saludable.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna es consciente de cuáles son algunos de los indicadores o factores básicos de los que puede significar una vida saludable, como son la actividad física , según las posibilidades de cada cual, la higiene y limpieza personal y colectiva, el descanso, las medidas preventivas y una buena y adecuada alimentación, así como si los tiene en cuenta en su vida personal y la relación con los demás.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller de mantenimiento del propio cuerpo y de la salud)

1. Su impartición corresponderá a los profesores a los

arloa aitortzen dien irakasleei eta Gorputz-hezkuntzako irakasleei dagokie gai hori ematea. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak «Biologia eta Geologia» espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

MUSIKA ETA INSTRUMENTUEN TAILERRA

1. SARRERA

Gazteentzako musikaren praktika oso erakargarria da eta jakintzagai honen eskaria handia izateaz gain, gizartean eta baloreen sorkuntzan eragin handia dauka; hori kontuan izanik parte hartuko duen ikasleak motibazio-maila handia eta aldeko jarrera erakutsiko duela uste dugu.

Jakintzagai honetan interesa erakusten duen ikasleak musika-praktikan garrantzizko alderdi batzuk ezagutzea lortu nahi da, esaterako, taldean edo bakarka interpretatzea, inprobisatzea, sorkuntzaren garapena, instrumentuen soinuen ezaugarriak ezagutzea eta, azkenik, soinu eta egitura berriak ezagutzeko aukera. Gainera, ikaslea inguruneko musika-ihardueretan parte hartzera bultzatzea da asmoa, bai eta bere musika-ezagutzak zabaldu ahal izateko musika-eskoletara joatea, eta zentzu horretan instrumentu-talde batean parte hartzeko aukera izatea, hori guztia ikaslearentzako lanbide eta bokazio-orientabidea eskaintzearren.

Garrantzi handia du Euskal Herriko tresna autoktonoen ugaritasuna kontuan izateak; horietako asko ezezagun samarrak dira, baina oso adierazkortasun oparoa eta gizarte-mailan garrantzi handia dute. Tresna autoktono horietako asko belaunez belaun transmititu izan dira, forma, erabilitako material, soinu eta gizarte-erabilerari dagokionez erreferentziak gordetzen ahalegindu direlarik.

Arlo honetan, hainbeste musika-tresna kanpotik ekartzeak, gure ikasleei ez lieke Euskal Herriko musika-tresnen aberastasuna eta originaltasuna ezkutatu behar.

Isturitzeko xirulak, munduan ezagutzen den zaharrenak, duela hogei mila urteko mundura hurbiltzen gaitu eta euskaldunek beren musika-akonpainamendu propioa egiten zutela adierazten digu. Berriagoa, baina hura bezain originala, Gernika inguruko Atxetako korneta dugu: tresna honek zortzi bat mila urte dituela pentsatzen da.

Aipatu bi tresnak euskal historiaurreak Europako kulturari egin dion benetako bi altxorren ekarpena izateaz gain, kontuan hartzekoak dira euskaldunen bizi-

que el R.D. 1701/1991 atribuye el Area de Ciencias de la Naturaleza, así como los profesores de educación física y aquellos profesores con titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de «Biología y Geología».

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

TALLER MÚSICO-INSTRUMENTAL

1.– INTRODUCCIÓN

El atractivo que para la juventud tiene la práctica de la música y la demanda que de ella hacen, así como la gran influencia social y de creación de valores cabe pensar en el nivel de motivación y disposición favorable que va a presentar el alumnado participante en esta materia.

Esta materia tiene la finalidad de dar al alumnado interesado la posibilidad de ejercitarse, a niveles básicos, en aspectos importantes de la práctica musical, tales como la interpretación en grupo e individual, la improvisación, el desarrollo de la creatividad, conocimiento de las características sonoras de los instrumentos y por último la oportunidad de descubrir nuevos sonidos y estructuras musicales. Asimismo, intenta acercar al alumnado al conocimiento musical para motivarle a participar en actividades musicales del entorno, así como asistir a centros de música en los que puede ampliar sus conocimientos musicales y tener la oportunidad de participar en un conjunto instrumental en este sentido, tiene claramente, una finalidad de orientación profesional y vocacional para el alumnado.

Es importante tener muy en cuenta la gran riqueza de instrumentos autóctonos del País Vasco, algunos de ellos bastante desconocidos, pero de gran riqueza expresiva e importante significado social. Muchos de estos instrumentos autóctonos se han transmitido de generación en generación, intentando mantener sus referencias en cuanto a forma, material utilizado, sonido y uso social que se hacía de los mismos.

En este ámbito, la masiva importación de instrumentos musicales foráneos no debiera ocultar a nuestros alumnos la riqueza y la originalidad de los instrumentos musicales de Euskal Herria.

La flauta de Isturitz, la más antigua que se conoce en el mundo, nos acerca al mundo de hace veinte mil años y nos garantiza la confección por los vascos de su propio acompañamiento musical. Más recientemente, pero no menos original, es la corneta de Atxeta, cerca de Gernika: se le atribuyen a este instrumento unos ocho mil años de antigüedad.

Si los dos mencionados instrumentos pueden considerarse como dos auténticos tesoros que la prehistoria vasca ha aportado a la cultura europea, también son de

tzaren erritmoan, bakoitza bere modura, egon diren beste batzuk ere. Hala nola albokak, oso-osorik material naturalez eginak, artzainak nagusi zireneko mundura eramaten gaitu; txalapartaren soiltasuna, gure izakeraren adierazgarririk onena izan daiteke; txistua, nolabait esatearren, euskal musika-tresna nagusi bihurtu da; urtero Pastoraletan jotzen duten xirulak, Zuberoaz hitz egiten digu; eskusoinuak, Euskal Herriko edozein festatan toki garrantzitsua du.

Gehienetan naturalak diren materialekin egindako haize-, hari- eta perkusio-instrumentu mordo honek gai honetako ildo nagusi bihurtu behar du eta ikasleek horiekin harremanetan jarri behar dute. Horretarako eta horiek ezagutzeko, Euskal Herriko kultur eta ondare-aberastasunari lagunduko dioten iharduerak sustatu behar dira.

Gai hau, beraz, alderdi musikal nabariaz gain, kontuan izatea komeni den hezkuntza eta kulturaren sustatzaile izan daiteke.

Baina irakaskuntza/ikaskuntza-prozesu hutsera itzuliz, ikasleak sentitzeko eta entzuteko dituen ahalbideetan oinarritu behar du, bai eta ahozko adierazpen eta instrumentuen exekuzio-ahalbideetan ere, honako hauek lortzen laguntzearren:

– Ikasleari arte-lengoaia honen ezagutza, ariketa eta balorazio-prozesuan lagungarriak izango zaizkion ikaskuntza-egoerak sortzea.

– Musika-eremuko berariazko gaitasunen garapena eta heziketa integrala jaso duen pertsona gisa izango duen garapena sustatzea.

Jakintzagai honen izaera praktiko nabarmena eta prozedurazko edukinen nagusitasuna kontuan izanik, jarraitu beharreko metodologiak aktiboa izan behar du, ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista izan dadin.

Prozedurazko edukinen gaineko lanaren bidez, ikasleak bere egiten zailak izan daitezkeen kontzeptuak ezagutzea lortu ahal izango du; horixe da, hain zuzen, «Soinuaren azterketa eta analisia» multzoaren kasua. Gainera, prozedura horien bidez jakintzagai honetan planteatutakoak bezalako musika-esperientzietan ezinbestekoak diren jarrerak azpimarratu ahal izango dira.

Irakasleak ikasle bakoitzaren garapen-mailara egokitu beharko du ihardueren erritmoa, eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan zehar ikasle bat ere diskriminatuta ez sentiaraztea kontuan hartu behar du, guztiek egindako lanean gero eta konfiantza eta autonomia handiagoa lor dezaten saiatuz.

Musikaren inguruko esperientzia guztietan bezala, honek ere atsegina eta ludikoa izan beharko du, ikasleak libreki aukeratu duen ikasgaia dela kontutan hartuta, batez ere.

Jakintzagaia bakarka eta taldean lantzeko planteatu da. Ikasleak teknikak bereganatzeko eta interpretazio-

tener en cuenta otros instrumentos que han acompañado, cada uno a su manera, el ritmo de la vida de los vascos. De este modo, la alboka, hecha enteramente de materiales naturales, nos retrotrae a un mundo predominantemente pastoril; la sobriedad de la txalaparta podría ser un buen exponente de nuestra manera de ser; el txistu, por decirlo de algún modo a llegado a ser el instrumento vasco por excelencia; la xirula, anualmente actualizada en las Pastorales, nos habla de Zuberoa; el acordeón, de hecho, ocupa un puesto importante en cualquier fiesta de Euskal Herria...

Esta gran variedad de instrumentos de viento, cuerda y percusión realizados con materiales, la mayoría de las veces, naturales debe convertirse en un referente importante de esta materia y servir para poner en contacto al alumnado con los mismos, promoviendo actividades que sirvan para su conocimiento y valoración como elementos que contribuyen a la riqueza cultural y patrimonial del País Vasco.

Esta materia, como vemos, puede revestir un profundo sentido educativo y cultural, además de su dimensión musical obvia, que convendría no desperdiciar.

Pero volviendo al estricto proceso de enseñanza-aprendizaje habría que partir de las posibilidades sensorio-auditivas del alumnado, de sus posibilidades expresivas vocales y de la ejecución instrumental, contribuyendo a:

– Crear situaciones de aprendizaje que ayudan al alumnado en su proceso de conocimiento, ejercicio y valoración de este lenguaje artístico.

– Promover el desarrollo de capacidades específicas del ámbito musical así como su desarrollo como persona educada integralmente.

Teniendo presente la naturaleza preferentemente práctica de la materia y la preponderancia de los contenidos procedimentales, la metodología a seguir ha de ser activa de forma que el alumno y alumna sea protagonista del propio proceso de aprendizaje.

A través del trabajo sobre los contenidos de procedimientos se puede conseguir que el alumnado vaya descubriendo aquellos conceptos que pueden resultar complicados de asimilar; tal es el caso del bloque de «Exploración y análisis del sonido». Asimismo, será a través de estos procedimientos que se podrán inculcar aquellas actitudes que son imprescindibles en experiencias musicales del tipo de las planteadas en esta materia.

El profesorado debe adaptar el ritmo de las actividades al nivel de desarrollo propio de cada alumno y alumna, así como tener en cuenta que durante el proceso de enseñanza-aprendizaje ningún alumno o alumna se sienta discriminado, intentando que todos vayan adquiriendo un grado cada vez mayor de confianza y autonomía en el trabajo realizado.

Como en toda experiencia musical, el componente lúdico y de disfrute debe estar siempre presente y sobre todo teniendo en cuenta que se trata de una materia de libre elección por parte del alumnado.

La materia está planteada para ser trabajada de forma individual y en grupo. La adquisición de técnicas y la

rako gaitasuna garatzeko bakarka lan egin beharko du; ordea, soinua aztertzeari, instrumentuak egiteari eta taldean interpretatzeari dagokienez adibidez, taldean lan egitea gomendatzen da.

Jakintzagaiaren edukinak hiru multzotan sailkatzen dira:

1.– Soinuak behatu eta aztertzea.
2.– Instrumentuak egitea.
3.– Musika interpretatzea.

Blokeak aurkezten diren ordena edukinen planteamenduko sekuentzia logiko baten ondorio bada ere, horrek ez du multzo desberdinetako edukinak aldi berean aztertu edo bestelako ordena batean landu ahal izatea eragotzi behar.

Prozedurazko edukinak beste bi edukin-moten, hau da, kontzeptuzko eta jarrerazko edukinen antolatzaile gisa hartzen dira. Horrek zera esan nahi du, jakintzagaia irakastean prozedurazko edukinak oinarrizkoak direla kontzeptuzkoak asimilatu ahal izateko eta jarrerak eta balioak eskuratu ahal izateako. Hortik dator jakintzagaiaren izaera praktikoaren eta funtzionalaren beharra.

Jakintzagai hau irakasteko bitarteko eta baliabide egokiak eskueran izan behar dira. Zentzu horretan, gero eta instrumentu gehiago izan orduan eta hobeto, jakina. Eta ez da ahaztu behar instrumentu horien kalitatea, kontuan izanik horien soinuen ezaugarriak eta kualitateak ikertzea dela asmoa.

Hasieratik behar adina instrumentu ez izateak ez du eragozpide bat izan behar jakintzagai hau irakasteko, Musikaren Mintegiak gutxinaka-gutxinaka lortuko baititu eta, gainera, ikasleek familian instrumenturen bat izanez gero ahal badute ikasgelara eramaten saiatuko dira eta asmoetako bat instrumentu batzuk egitea da.

Kontuan hartu beharra dago jakintzagai hau ikasleak etapako 1. eta 2. zikloetan zehar aukeratu ahal izango duela eta, beraz, beharrezkoa da jakintzagai honetan landutako edukinek beste arloetako edukinekin koherentzia izatea. Jarrerazko eta prozedurazko edukinei dagokienez, bi zikloetan berak dira, eta ikaslearen ezagutza eta trebetasunetara eta ikastetxearen eta taldearen antolamendu-ahalbideetara egokitutako berariazkotasun eta konplexutasun-maila gero eta handiagoa izango da.

Kontzeptuzko edukinei buruzko gogoetak berariazkoagoa izan behar du 2. zikloan, eta ikaslearen sormena eta prozedurazko eta jarrerazko ikaskuntzak izango dira 1. zikloaren antolamendu-ardatzak.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea izango da:

1. Instrumentuak egitean material desberdinen soinu-kualitateak erabiltzea.

capacidad interpretativa exigen un trabajo individualizado; sin embargo, hay otras como el análisis sonoro, la construcción de instrumentos y la interpretación grupal, que aconsejan trabajo en grupo.

Los contenidos de la materia se agrupan en tres bloques:

1.– Observación y análisis del sonido.
2.– Construcción de instrumentos.
3.– Interpretación musical.

Aunque el orden de presentación de los bloques obedece a una secuencia lógica en el planteamiento de los contenidos, ello no debe ser impedimento para tratar contenidos de diferentes bloques de forma simultánea, o trabajarlos en un orden diferente.

Los contenidos procedimentales se consideran como los organizadores de los otros dos tipos de contenidos, conceptuales y actitudinales. Esto supone que al impartir la materia los procedimientos son básicos para acceder a la asimilación de los conceptuales y a la adquisición de actitudes y valores. Todo esto explica la necesidad del carácter práctico y funcional de la materia.

La impartición de esta materia implica disponer de los medios y recursos adecuados. En tal sentido, es evidente que cuanto mayor sea la diversidad de instrumentos con que se cuenta, mejor será. No hay que olvidar la calidad de dichos instrumentos teniendo en cuenta que se trata de la investigación de las características y cualidades sonoras de esos instrumentos.

El que desde un principio no se pueda disponer de los instrumentos suficientes no debe ser un impedimento para que se imparta esta materia, sino que el Seminario de Música debe irlos adquiriendo poco a poco y procurar que los alumnos y alumnas puedan traer a clase instrumentos de los que disponen en su ámbito familiar, y asimismo debe contarse con el trabajo de construcción de instrumentos que va a realizarse.

Hay que tener en cuenta que esta materia puede ser elegida por el alumno o alumna a lo largo del 1.º ó del 2.º ciclo de la etapa por lo tanto es necesario que los contenidos trabajados en esta materia guarden una coherencia con los contenidos de las otras áreas. En cuanto a los contenidos actitudinales y procedimentales son los mismos a lo largo de los dos ciclos, con un progresivo nivel de especificidad y complejidad adecuado a los conocimientos y destrezas del alumnado y a las posibilidades organizativas del centro y del propio grupo.

La reflexión sobre los contenidos conceptuales deberá abordarse de una forma más específica en el 2.º ciclo dejando que la creatividad del alumnado y los aprendizajes procedimentales y actitudinales sean los ejes organizadores en el primer ciclo.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Utilizar las cualidades sonoras de diversos materiales en la construcción de instrumentos.

2. Musika-instrumentu desberdinak, tradizionalak edo tradiziorik gabeak, jotzeko beharrezkoak diren oinarrizko teknika eta trebetasun batzuk aztertu eta praktikatzea.

3. Bakarka nahiz taldean musika-mota desberdinak ulermenaren bidez eta autonomiaz interpretatzea.

4. Isiltasunak soinua behar bezala antzemateko eta musika-gertakaria ulertzeko ezinbesteko elementu gisa due garrantzia baloratzea.

5. Soinuari lotutako fantasia eta irudimena garatzea, inprobisazioen eta bakarkako nahiz taldeko interpretazioen bidez, eta kode konbentzionalak eta ez-konbentzionalak erabiltzea.

6. Musika-instrumentu sinpleak diseinatu eta egitea, euskal musika tradizioa osatzen duten instrumentuak barne direla.

7. Beste pertsona batzuekin harremana izatea eta taldean parte hartzea, elkarlanerako eta tolerantziazko jarrerak hartuz, eta autonomiaz eta ekimenez ihardutea ahalbidetuko dioten iritzi eta irizpide pertsonalak lantzea.

8. Euskal Herriko tradizioan erabilitako instrumentu autoktono batzuk ezagutzea, gaur egun oraindik erabiltzen direnak eta adierazpen artistiko kolektiboetan parte hartzen dutenak bereziki.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. SOINUAREN BEHAKETA ETA ANALISIA

Edukin-multzo honen asmoa soinua eta bere parametroak (altuera, iraupena, intentsitatea eta tinbrea) eta inguruneko musika-munduarekiko duten erlazioa aztertzea da, bai eta ikasleari instrumentu tradizionalekin eta instrumentu berriekin, elektronikoak izan ala ez, egindako sonoritate berriak aurki ditzan ahalbidetzea ere. Hezkuntza orokorrean ikasleari etorkizunean plantea daitezkeen arazoei irtenbidea emateko beharrezko tresnak ematea planteatzen den bezalaxe, zalantzarik ez dago musika-hezkuntzak ikasleari planteatuko zaizkion egoerei irtenbidea emateko eskaini behar dituen ekarpenak zeintzuk izan behar duten.

Bereziki ikasleak Euskal Herriko musika-instrumentu tradizionalak ezagutzea eta haiekin harremana izatea da asmoa; instrumentu horien ezaugarriak, soinua eta gaur egungo erabilgarritasuna ezagutuz eta erabili ohi diren gizarte-egoerak ere bai.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Soinuaren fenomenoa: jaulkipena, transmisioa eta harrera.

2. Soinu/musika produkzioaren prozesua:

I. Harietan.
II. Tutuetan.
III. Mintzetan.
IV. Plaketan.
V. Hagatxoetan.
VI. Musika-instrumentu elektrikoetan.

2. Analizar y practicar técnicas y habilidades básicas necesarias para el manejo de diversos instrumentos musicales, tanto tradicionales como no tradicionales.

3. Interpretar de forma comprensiva y autónoma diversos tipos de música tanto de forma individual como colectiva.

4. Valorar la importancia del silencio como elemento imprescindible para una correcta apreciación del sonido y para la comprensión del hecho musical.

5. Desarrollar la fantasía y la imaginación sonoras a través de improvisaciones y composiciones individuales y colectivas, utilizando códigos convencionales y no convencionales.

6. Diseñar y construir instrumentos musicales sencillos, incluyendo aquellos instrumentos que forman parte de la tradición musical vasca.

7. Relacionarse con otras personas y participar en grupo, adoptando actitudes de cooperación y tolerancia, elaborando juicios y criterios personales que le permitan actuar con autonomía e iniciativa.

8. Conocer algunos de los instrumentos autóctonos usados en la tradición popular vasca, especialmente aquellos que actualmente se siguen utilizando y que forman parte de las manifestaciones artísticas colectivas.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. OBSERVACIÓN Y ANÁLISIS DEL SONIDO

Este bloque de contenidos pretende abordar el sonido y sus parámetros (altura, duración, intensidad y timbre) y el análisis de estos en relación con el mundo musical del entorno, permitiendo al alumnado la búsqueda de nuevas sonoridades realizadas con instrumentos tradicionales y con instrumentos nuevos eléctricos y no eléctricos. Al igual que la educación general se plantea el dar al alumnado las herramientas necesarias para resolver los problemas que se le puedan plantear en un futuro no cabe duda de cuáles deben ser las contribuciones que la educación musical tiene que dar para resolver las situaciones que se le planteen al alumnado.

Interesa de forma especial que los alumnos y alumnas puedan conocer y tener un contacto con instrumentos musicales autóctonos del País Vasco, reconociendo sus características básicas, su sonido y la utilidad actual, así como las situaciones sociales en las que se utilizaba.

A) Contenidos Conceptuales:

1. El fenómeno sonoro: emisión, transmisión y recepción.

2. Proceso de la producción sonoro-musical:

I. En cuerdas.
II. En tubos.
III. En membranas.
IV. En placas.
V. En varillas.
VI. En instrumentos musicales eléctricos.

3. Tinbrearen oinarri fisikoak.

4. Euskal musika-tradizioan gehien erabilitako instrumentuak.

B) Prozedurazko edukinak

1. Inguruneko soinu-gertakariak behatu eta erreproduzitzea.

2. Soinuari dagokionez, material (hari, metal, egur, plastiko, etab.) eta objektu desberdinak aztertu eta manipulatzea.

3. Erabiliko diren material desberdinetan eskala tenperatuaren proportzioak aztertzea.

4. Instrumentu-mota desberdinen tinbre-izaera diferentziala identifikatzea: hari pultsatua, igurtzia eta kolpea, tutuak, mintzak, hagatxoak, plakak, etab.

5. Material-mota bereko desberdintasun eta bariazio fisikoek tinbrean sortutako aldaketak ziurtatzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Soinu/musika gertakariari dagokionez, behaktara ohitura hartzeko interesa erakustea.

2. Musika-instrumentu desberdinen soinuaren ezaugarriak ezagutu eta bereizteko jakinmina erakustea, bereziki euskal-musika tradizioko instrumentuei dagokienez.

3. Soinua behar bezala aztertzeko ezinbestekoa den isiltasun-giroa baloratzea.

2. MULTZOA. INSTRUMENTUAK EGITEA

Edukin-multzo honen asmoa instrumentu tradizionalak eta sortu berri batzuk egitea da. Instrumentu tradizionalak egiteari dagokionez, ikastetxearen ahalbide teknikoak gainditzen dituen fabrikazio-prozesua behar duten horiek saihestu behar dira, eta ikasgelan erabiltzeko interesgarriak diren soinu-ezaugarriak dituztenak bakarrik aukeratu.

Instrumentu sortu berriak egiteari dagokionez, eguneroko erabilerarako eta beraz erraz lor daitezkeen materialez baliatzea nahikoa izango da, eta ikastetxean musika-lanerako eskura dauden soinu-baliabideak gehitzeko eta aldi berean ikasleak asmatzeko duen gaitasuna handitzeko aukera bat da.

Ikasleek egingo dituzten instrumentuen artean honako hauek barne har daitezke: soinu-tutuak, hari nahiz perkusio-instrumentuak, soinu laburrekoak (egurrezko plakak, kaxa txinatarrak, partxe txikiak, klabeak, botilak, etab.) nahiz pixkanaka iraungitzen direnak (pianoa, gongak, platertxoak, kanpaiak, tutu-kanpaiak, xilofonoak, karriloiak, triangeluak, etab.).

Interesgarria izan daiteke, Ingurugiro Hezkuntzako estrategiekin bat egin eta bloke honetako iharduerak gauzen birziklapen-, eta berrerabilpen-edukiekin erlazionatzea.

Erabiliko diren materialek erraz eskuratzekoak izan beharko dute eta beharrezkoa izango da irakasleek erabiliko den materialaren ezaugarrial (egurra, metala, plastikoa, larrua, …ea.), horiek lantzeko modu egokia eta kasu bakoitzerako erramintak ezagutzea.

3. Fundamentos físicos del timbre.

4. Instrumentos más usuales en la tradición musical vasca.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Observación y reproducción de hechos sonoros del entorno.

2. Exploración y manipulación de diversos materiales (cuerdas, metales, maderas, plásticos, etc.) y objetos en su aspecto sonoro.

3. Análisis de las proporciones de la escala temperada en los diversos materiales que se empleen.

4. Identificación del carácter tímbrico diferencial de diversos tipos de instrumentos: cuerda pulsada, frotada y golpeada, tubos, membranas, varillas, placas, etc.

5. Comprobación de los cambios tímbricos producidos por las diferencias y variaciones físicas en un mismo tipo o clase de material.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés por adquirir hábitos de observación en lo que al fenómeno sonoro-musical se refiere.

2. Curiosidad por conocer y diferenciar las características sonoras de los instrumentos musicales, especialmente de la tradición musical vasca.

3. Valoración del clima de silencio necesario para la realización de una correcta exploración sonora.

BLOQUE 2. CONSTRUCCIÓN DE INSTRUMENTOS

Este bloque de contenidos tratará tanto de la construcción de instrumentos tradicionales, como la de otros de nueva creación. En cuanto a la construcción de instrumentos tradicionales debe evitarse la construcción de aquellos cuyo proceso de fabricación escape a las posibilidades técnicas del centro y seleccionar sólo aquellos que ofrezcan unas características sonoras interesantes para su empleo en el aula.

En cuanto a la construcción de instrumentos de nueva creación, aprovechando materiales de uso cotidiano, y por lo tanto fáciles de obtener, suponen un aporte a los recursos sonoros disponibles en el centro para la tarea musical y al mismo tiempo aumenta la inventiva del alumnado.

La construcción de instrumentos puede abarcar a los tubos sonoros, cuerdas y percusión tanto de sonido corto (placas de madera, cajas chinas, parches pequeños, claves, botellas...) como de sonido de extinción gradual (piano, gongs, platillos campanas, campanas tubulares, xilófonos, carillones, triángulos...).

Puede ser interesante aprovechar las actividades de este bloque para relacionarlas con contenidos como el reciclaje o la reutilización de objetos, de acuerdo con las estrategias de la Educación Medioambiental.

Los materiales que se utilicen deberán ser de fácil adquisición y es preciso que el profesorado conozca las características del material a utilizar (madera, metal, plástico, cuero, etc.), la manera adecuada de trabajarlos y las herramientas necesarias para cada caso.

Instrumentuak egiteko moduak, erabilitako materialak, eta Euskal Herriko instrumentu autoktonoen oinarrizko ezaugarriak, ikastetxearen ahalbideen barruan, edukin-multzo honetako lan-erreferentzia bikaina izan daitezke.

Ez dugu ahaztu behar soinu ona duen instrumentu bat egitea ez dala lan erraza. Horretarako, instrumentua osatzen duten zatien proportzioak errespetatu behar dira, bai eta material egokiak erabili eta fabrikazio-prozesua zaindu ere, horren guztiaren arabera emaitza ona edo txarra izan baitateke.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Ikaslearen eguneroko soinu-ingurunean gehien erabiltzen diren instrumentuak.

2. Instrumentuak egitean gehien erabiltzen diren materialak, motak eta ezaugarriak.

3. Instrumentuak diseinatzeko oinarrizko estrategiak.

4. Instrumentu desberdinak egiteko oinarrizko teknikak.

B) Prozedurazko edukinak

1. Ikaslearen inguruneko instrumentu arruntenen formak, tamainak eta egiturak aztertzea.

2. Egunero erabiltzen diren tresnak musika-instrumentu bihurtzea.

3. Mintz, plaka eta hagatxozko musika-instrumentu sinpleak, orijinalak edo existitzen direnak, diseinatu eta egitea.

4. Perkusiozko tutu-instrumentuak eta putz egiten diren tutu-instrumentuak, orijinalak edo existitzen direnak, diseinatu eta egitea.

5. Hari-instrumentu sinple eta sortu berriak diseinatu eta egitea, interpretazio-prozedura desberdinetarako erabiltzeko.

C) Jarrerazko edukinak

1. Ikaslearen ingurunean ohizkoenak diren instrumentuak ezagutu eta bereizteko jakinmina erakustea.

2. Diseinuen aurkezpen zuzena eta ondo egindako lanaren atsegina.

3. Taldean lan egiteko ohitura hartzeko interesa.

4. Gainerakoen lana errespetatu eta baloratzea.

3. MULTZOA. MUSIKA-INTERPRETAZIOA

«Musika-interpretazioa» izena duen multzoa honako hauetan oinarritzen da: egiten diren edo besterik gabe ezagutzen diren eta ikasgelan egon daitezkeen instrumentuen teknika egokiaren erabileran eta ikasleek instrumentu sortu berri batera egokitutako kode berriak landuz horretarako propio sor dezaketen musika-interpretazioan.

Ildo horretatik, instrumentu jakin batzuen berezko euskal musika-tradizioaren lanak interpretatzea multzo honetako lan-erreferentzia bikaina izan daiteke. Euskal

Las formas de construcción, los materiales utilizados, así como las características básicas de los instrumentos autóctonos del País Vasco pueden ser, dentro de las posibilidades del centro, un buen referente de trabajo en este bloque de contenidos.

No hay que olvidar que el fabricar instrumentos con buen sonido es tarea difícil. Para ello hay que respetar la proporción entre las partes que lo componen, usar materiales adecuados y cuidar la fabricación; de todo ello dependerá el resultado sonoro.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Instrumentos más usuales en el entorno sonoro y cotidiano del alumnado.

2. Materiales más utilizados en la construcción de instrumentos, tipos y características.

3. Estrategias básicas para el diseño de instrumentos.

4. Técnicas básicas para la elaboración de distintos instrumentos.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Análisis de las formas, tamaños y estructuras de los instrumentos más comunes en el entorno del alumnado.

2. Transformación de utensilios de uso cotidiano en instrumentos musicales.

3. Diseño y elaboración de instrumentos musicales sencillos de membrana, placas y varillas tanto originales como ya existentes.

4. Diseño y elaboración de instrumentos musicales de tubos de percusión y tubos de soplo humano, tanto originales como ya existentes.

5. Diseño y elaboración de instrumentos musicales sencillos de cuerda de nueva creación para ser utilizados con procedimientos interpretativos diversos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Curiosidad por conocer y diferenciar los instrumentos más habituales en el entorno del alumnado.

2. Presentación correcta de los diseños y gusto por el trabajo bien hecho.

3. Interés por la adquisición de hábitos de trabajo en equipo.

4. Respeto y valoración del trabajo de los demás.

BLOQUE 3. INTERPRETACIÓN MUSICAL

El bloque de «Interpretación musical» se centra en la utilización de la técnica adecuada de los instrumentos que se construyan o simplemente se conozcan y sea posible tenerlos en el aula y en la interpretación de música que, a tal efecto, los mismos alumnos y alumnas pueden crear, elaborando códigos nuevos adecuados a un determinado instrumento de nueva construcción.

En este sentido, la interpretación de obras de la tradición musical vasca propia de algunos instrumentos autóctonos puede convertirse en un interesante referen-

Herriko produkzio musikal moderno joria osatzen duten gaur egungo melodia eta kantuak baztertu gabe. Gogoan hartzekoak dira festa batzuekin loturiko produkzio musikal batzuk: Donostiako danborrada, adibidez.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Perkusio, haize eta hari-instrumentuekin nahiz instrumentu elektrikoekin musika praktikatzeko oinarrizko teknikak.

2. Euskal Herrian ohizkoenak diren musika-egitura formalak.

3. Musika-laneko isiltasuna.

4. Musika-adierazpena eta komunikazioa.

B) Prozedurazko edukinak

1. Perkusio-instrumentuekin musika-zati laburrak interpretatzea, eskuen jarrera eta teknika zainduz.

2. Haize-instrumentuekin musika-zatiak interpretatzea, arnasaren eta aireari eutsi eta putz egiteko teknika egokiak erabiliz.

3. Hari-instrumentuekin musika-zatiak interpretatzea, jarrera kontrolatuz.

4. Bakarka eta taldean musika-praktikak egitea.

5. Ikasleak berak musika-interpretaziorako sormena garatuz sortutako musika-zatiak interpretatzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Musika-interpretazioan norbanakoak aurrerapenak egiteko interesa erakustea.

2. Taldean elkarlanean aritzeko interesa erakustea.

3. Sonoritate berriak aurkitzeko interesa erakustea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Ikaslearen ingurunean ohizkoenak diren instrumentuen tinbrea ezagutzea.

Irizpide honen bidez ikasleak bere ingurunean ohizkoenak diren instrumentuei buruz lortu duen ezagutza-maila ziurtatu nahi da, bereziki Euskal Herriko instrumentu autoktonoei batzuei dagokienez.

2. Aldez aurretik memorizatu ondoren musika-zati eta pieza errazak interpretatzea, barne-entzumena garatuz.

Irizpide honen bidez ikasleak musika-zati eta pieza errazak entzun ondoren interpretatzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da, eta entzundakoaren melodiaren, erritmoaren eta interpretazioaren zehaztasuna baloratuko da.

3. Perkusio eta/edo hari-instrumentu sinpleak egitea, soinu-maila egokia eta zuzena lortzen saiatuz.

Irizpide honen bidez ikasleak egindako instrumentuen soinuaren afinazioan eta zehaztasunean instrumen-

te de trabajo en este bloque. Sin olvidar melodías y canciones actuales que forman parte de la abundante producción musical moderna en Euskal Herria. A tener en cuenta algunas producciones musicales inherentes a ciertas fiestas: tamborrada de Donostia, por ejemplo.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Técnicas básicas y elementales para la práctica musical con instrumentos de percusión, viento, cuerdas y eléctricos.

2. Estructuras formales musicales más habituales en el País Vasco.

3. El silencio en la obra musical.

4. Expresión y comunicación musical.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Interpretación de fragmentos musicales breves en instrumentos de percusión cuidando la postura y la técnica manual.

2. Interpretación de fragmentos musicales en instrumentos de viento utilizando técnicas respiratorias y de retención y soplo adecuadas.

3. Interpretación de fragmentos musicales en instrumentos de cuerda controlando la posición.

4. Realización de prácticas musicales individuales y en grupo.

5. Interpretación de fragmentos musicales creados por los alumnos y alumnas desarrollando la creatividad en la interpretación musical.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés por el progreso individual en la interpretación musical.

2. Interés en la colaboración con las tareas de grupo.

3. Interés por descubrir nuevas sonoridades.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Reconocer el timbre de los instrumentos habituales en el entorno del alumnado.

Con este criterio se quiere comprobar el nivel de familiarización que los alumnos y alumnas han adquirido con los instrumentos más usuales de su entorno, en especial el conocimiento que tienen de algunos instrumentos autóctonos del País Vasco.

2. Interpretar fragmentos musicales y piezas sencillas tras su previa memorización, desarrollando la audición interna.

Con este criterio se quiere evaluar la capacidad del alumnado para interpretar fragmentos y piezas sencillas, después de haberlas escuchado, valorando la precisión melódica, rítmica e interpretativa respecto a lo escuchado.

3. Construir sencillos instrumentos de percusión y/o cuerda procurando alcanzar un cuidado y correcto nivel de sonido.

Con este criterio se pretende evaluar si el alumnado ha comprendido la importancia del material utilizado y

tu horiek egiteko erabilitako materialak eta teknikak duten garrantzia ulertu ote duen ikusi nahi da.

4. Taldeko interpretazioetan parte hartzea instrumentu guztien afinazio egokia lortzearren, eta gainerakoen lana baloratu eta errespetatzea.

Irizpide honen bidez ikasleak taldera egokitzeko eta taldeko kide guztien aurrerapena bultzatuko duen musika-interpretazioa lortzeko erakusten duen interesa ebaluatu nahi da, eta gainerakoen ekarpenak onartu eta baloratzen ote dituen ikusi nahi da.

5. Taldean konposizio bat egitea, sortu berri den instrumentu bati egokitua, eta konposatutako musikaren eta instrumentuaren soinu-ezaugarrien arteko koherentzia gordetzen saiatzea, gainerakoen ekarpenak baloratuz.

Irizpide honen bidez ikasleak instrumentuaren soinu-ezaugarriak eta musika-estilo jakin batzuekin duen erlazioa antzemateko duen gaitasuna ebaluatu eta gainerakoen ekarpenak errespetatu eta onartzen ote dituen ikusi nahi da.

6. Edozein soinu eta musika-iharduerarako beharrezkoak diren isiltasun-baldintzak errespetatu eta sustatzea.

Irizpide honen bidez ikasleak isiltasuna soinua eta musika garatzen diren esparru gisa hartzen ote duen ziurtatu nahi da, proposatutako iharduerar en aurretik, ihardueran zehar edo ondoren bada ere.

Gai hau eman dezaketen irakasleek

1. Gai hori ematea Musikako irakasleei egokituko zaie. Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren 1995eko abenduaren 5eko Erabakiak Musika espezialitateko irakasle izateko 1. lehentasunarekin aitortzen dituen tiulazioak dituzten irakasleek ere eman ahal izango dute.

2. Beste edozein espezialitatetako irakasleek baimena eskatu ahal izango diote Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzari. Zuzendaritzak irakasle bakoitzak duen prestakuntza ikusi eta, horren arabera, baimena eman edo ukatu egingo du.

## III. ERANSKINA

### KOMUNITATEAN MOLDATZEKO TREBETASUNAK

1.– SARRERA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren (DBH) etapan, ikasleak bere curriculuma itxuratzeko aukera dauka; eta aukera hori zabaldu egiten da egituratzen den zikloetako 1.tik 2.era, derrigorrezko irakaskuntzaren azken faseak izan behar duen izaera orientatzailearen ondorioz, hain zuzen.

Gazteei bizitza heldu eta aktiborako igarobidea

la técnica de construcción instrumental empleada en la afinación y precisión sonora de los instrumentos realizados.

4. Participar en actividades de interpretación en grupo con la finalidad de contribuir a una adecuada afinación del conjunto instrumental valorando y respetando el trabajo de los demás.

Con este criterio se quiere comprobar el interés de los alumnos y alumnas por conseguir una adaptación al grupo y obtener una interpretación musical que favorezca el progreso de todos sus componentes con actitudes de aceptación y valoración de las aportaciones de los demás.

5. Realizar una composición en grupo adaptada a un instrumento de nueva creación procurando que exista una coherencia entre la música compuesta y las características sonoras del instrumento, valorando las aportaciones de los demás.

Con este criterio se quiere evaluar la capacidad del alumno y alumna para apreciar las características sonoras del instrumento y su relación con un determinado estilo musical así como el respeto y aceptación a las aportaciones de los demás.

6. Respetar y promover las condiciones del silencio necesarias para cualquier actividad sonora y musical.

Con este criterio se quiere comprobar si el alumnado valora el papel del silencio como marco en el que se desarrolla el sonido y la música ya sea antes, durante y después de la actividad propuesta.

Profesorado que puede impartir esta materia:

(Taller músico e instrumental).

1. Su impartición corresponderá a los profesores de Música, pudiendo impartirla además aquellos profesores que posean titulaciones a las que la Resolución de la Dirección de Gestión de Personal de 5 de diciembre de 1995 reconoce prioridad 1 para impartir docencia en la especialidad de Música

2. Los profesores de cualquier otra especialidad podrán solicitar autorización de la Dirección de Renovación pedagógica, que la concederá o negará a la vista de la formación que, a título personal, demuestren.

## ANEXO III

### HABILIDADES PARA EL DESENVOLVIMIENTO EN LA COMUNIDAD

1.– INTRODUCCIÓN

En la etapa de Educación Secundaria Obligatoria (ESO) el alumnado tiene la posibilidad de configurar su propio currículo; y ésta posibilidad aumenta del 1.º al 2.º de los ciclos en que se estructura, como consecuencia del mayor carácter orientador que ha de tener la última fase de la enseñanza obligatoria.

Se constata la necesidad de facilitar a los y las jóve-

errazteko beharra egiaztatzen da eta, beraz, dauzkaten edo edukiko dituzten behar eta interesetara hurbildu gara, horiek hezkuntzakoak ez ezik gizarte, kultur, lan eta asiakoak izanik, beti ere bizi diren gizartearen eta ezaugarri berezi batzuk dituen eta, aldi berean, beste behar eta interes batzuk sortarazten dituen testuinguruan. Hain zuzen ere gure elkartean eta garatutako herri guztietan gertatutako aldaketa politiko, ekonomiko, teknologiko, sozial, kultural eta bestelakoek egoera berriak eta konplexuak planteatzen dituzte, gazteek ezagutu eta aurre egiten ikasi beharrekoak.

Euskal Herriko gizartean badira alderdi batzuk gazteak saihestu ezin dituenak. Aitzitik, alderdi horiei aurre egin eta asumitu behar ditu, bilakaera pertsonala lortzeko eta gizartean behar bezala integratzeko. Gure gizartean politikoki autonomoak diren zerbitzuak eta erakundeak ditugu, eta gazteak ezagutu egin behar ditu, bizi beharreko ezparrua baitira. Gure gizartea elebiduna da, hizkuntzetako batek gutxiengoaren eta gutxitua dagoen gizarte-erabilera du, eta horrek gizartean eta kulturan eragin eta ondorio ukaezinak dakartza berekin. Langabezi maila handiko gizartea da, batez ere narriatutako zenbait ingurunetan, eta aldaketa teknologikoko fasean dago. Gure gizartea gatazkatsua da politika-arloan. Balore eta arazo jakin batzuen aurrean sentsibilitate handia duen gizartea da. Labur esanda, gizarte konplexua eta anitza da, erabateko dinamismoan murgilduta bizi dena.

Bestalde, nabarmenak dira nerabeen kolektiboek sarritan komunikatzeko eta gizartean parte hartzeko dituzten zailtasunak, zenbait arrazoirengatik, horien artea, gutxiengoan eta kaltetuta dauden talde soziokulturaletakoak izatea, prestakuntzarik eza, harreman eta/edo estimulu urriak, lotsa, segurtasunik eza, etab.; izan ere, gabezia horiek gatazka-iturri eta bereizketaren arrazoi izan daitezke.

Gazteak gizarte konplexu eta anitz batean integratu behar du, arau, balore, ohitura eta bizi-ereduei dagokienez. Zalantzarik gabe, konplexutasun eta aniztasun hori dibertsitatearen adierazpenak dira, eguneroko bizitzako elementu nabarmen eta zatiezin gisa agertzen direnak; hala eta guztiz ere, sarritan, gatazka eta desakordio-iturri izan daiteke baita ere. Gatazka bizitza errealaren osagaietako bat gehiago bailitzan hartzea esan nahi du horrek, norbanakoaren heziketan garrantzizko zeregina betetzen baitu, eta hortxe dugula onartu eta aurre egin behar diogu.

Multikulturalismoaren fenomenoak berak ere, elebitasuna edo eleaniztasuna horren adierazpena izanik, indar handia du gure gizartean, eta hezkuntza-sistemaren barrutik nahiz kanpotik erantzun beharreko behar berriak planteatzen ditu.

Gainera, gizarte konplexu eta aldakor batean beharrezkoa da ikasleari gogoeta egitea, erabakiak hartzea eta hartutako erabaki hori (prestakuntza-ibilbideei -lehenik- eta bizi-proiektuei -epe luzera- dagokienez) praktikan jartzea ahalbidetuko dioten prozesu autoorientatzaileak bultzatzea. Horren ondorioz, autoafirmazioa eta nork bere buruarenganako eta besteenganako

nes la transición a la vida adulta y activa haciendo una aproximación a las necesidades e intereses que tienen o tendrán, no únicamente educativas, sino también de orden social, cultural, laboral y de ocio, siempre en el contexto de la sociedad en que viven, con unas características peculiares y que genera, al mismo tiempo, nuevas necesidades e intereses. Precisamente los cambios políticos, económicos, tecnológicos, sociales, culturales y de todo tipo ocurridos tanto en nuestra comunidad como en el conjunto de los países desarrollados plantean situaciones nuevas y complejas que los jóvenes deben conocer y aprender a encarar.

Hay aspectos de la sociedad del País Vasco que no pueden ser soslayados por el joven, sino, más bien, deben ser afrontados y asumidos, tanto para su propio desarrollo personal como para una adecuada integración social. Se trata de una sociedad con servicios e instituciones políticamente autónomas que es preciso conocer por ser el marco en el que va a vivir. Se trata de una sociedad bilingüe, con una lengua de uso social minoritario y minorizado, hecho que tiene incidencia y repercusiones sociales y culturales innegables. Es una sociedad con una alta densidad de paro, principalmente en algunos entornos deteriorados, y que se halla en fase de cambio tecnológico. Es una sociedad políticamente conflictiva. Es una sociedad con una gran sensibilidad a determinados valores y cuestiones. En suma, se trata de una sociedad compleja, plural y en pleno dinamismo.

Se observan, por otro lado con facilidad las dificultades que para la comunicación y participación social presentan, con cierta frecuencia y por diversas razones, (pertenencia a grupos socio-culturales minoritarios y/o desfavorecidos, falta de preparación, pobreza de relaciones y/o estímulos, timidez, inseguridad, etc.), presentan con cierta frecuencia colectivos de adolescentes; carencias que pueden ser fuente de conflictos y motivo de segregación.

El joven ha de integrarse en una sociedad compleja y plural en cuanto a normas, valores, costumbres, pautas de vida. Esta complejidad y pluralidad es, sin duda, expresión de la diversidad como elemento presente e indisoluble de lo cotidiano; sin embargo, a menudo, llega a ser también fuente de conflictos y discrepancias a diferentes niveles. Ello significa entender el conflicto como un componente más de la vida real, que desempeña un papel importante en la educación del individuo y cuya existencia es preciso asumir y encarar.

El mismo fenómeno del multiculturalismo, del cual el bilingüismo o plurilingüismo no es sino una expresión más o menos simple o compleja, se asienta con fuerza en nuestra sociedad y plantea necesidades nuevas a las que dar respuesta tanto desde dentro como desde fuera del sistema educativo.

Resulta también necesario e interesante favorecer, en una sociedad compleja y cambiante, procesos autoorientativos que faciliten al alumnado la reflexión, toma de decisiones y puesta en práctica de la determinación adoptada (respecto a itinerarios formativos -en primera instancia- y proyectos de vida -a más largo plazo-). En consecuencia, el desarrollo de la auto afirmación, de la

konfiantza garatzea, taldekoa eta komunitatekoa izatearen sentimendua indartzea, erabakiak hartzeko eta gatazkei behar bezalako irtenbidea emateko trebetasunak lantzea, egoerak aztertu eta ulertzeko gaitasuna areagotzea edo besteengana hurbiltzeko jokabideak garatzea, hezkuntza-fase honetan bultzatu beharreko alderdiak dira, norbanakoaren bilakaera integrala lortzen laguntzen duten faktoreak baitira.

Horrez gain, komeni da arlo zehatz honi dagokionez ikasleen artean batzuek izan ditzaketen behar eta interes espezifikoei erantzutea.

Aurretik adierazitako guztiagatik, aipatutako aukerakotasunaren gunean «Komunitatean moldatzeko trebetasunak» izeneko jakintzagaia justifikatzen da. Trebetasun horiek jarrera, ohitura, teknika, metodo eta estrategiek osatzen dituzte, eta gero eta era autonomoagoan ondoren adierazitako alderdiei aurre egiteko aukera gehiago eta hobeak eskaintzen dizkigute: besteekiko elkarrekintzak, eguneroko bizitzako oztopo edo arazoen irtenbidea, ingurune sozioekonomikoko partaidetza, talde-laneko zereginen banaketa.

Jakintzagai hau lau edukin-multzo handitan artikulatzea proposatu da. Edukin-multzo horietan honako hauek kontuan hartu dira: etxeko eta komunitateko bizitzaren alderdiei eta arazoei tajuzko irtenbidea ematea, trebetasun funtzionalak eta eguneroko bizitzaren hainbat egoeratan aplika daitezkeenak lortzea, testuinguru soziokomunitarioa ezagutu, bertan moldatu eta parte hartzea, eta lan-munduan errazago sartzeko jarrerak, jokabideak, teknikak eta estrategiak eskuratzea.

Multzo horietan oinarritutako programa batek, funtzio integratzaile nabarmena ez ezik, gatazkatsuak izan daitezkeen egoeren edo errealitateen prebentziozko funtzio interesgarria beteko luke. Errealitatearen elementu normal gisa aniztasuna eta gatazkaren eta desakordioaren presentzia onartzeak eta horiei aurre egiten ikasteak aniztasuna onartzea ahalbidetzeaz gain gazteari bere ingurunean hobeto integratzen eta gatazkatsuak izan daitezkeen egoerek adierazpide eta irtenbide egokiak izan ditzaten lagunduko dute.

Bloke horietan ardaztutako programa batek funtzio integratzaile garrantzitsua beteko luke eta gainera, hori bezain garrantzitsua den beste bat ere bai, hain zuzen ere, gatazkatsuak izan daitezkeen egoerei edo errealitateei aurrea hartzekoa. Aniztasuna eta, errealitatearen elementu arruntak diren aldetik, auziak eta adostasun ezak onartzeak eta horiei aurre egiten ikasteak pluraltasuna onartzen lagunduko duter, gazteari bere ingurunean hobeto integratzen lagunduko diote eta gatazkatsuak izan daitezkeen egoeretarako adierazpide eta irtenbide egokiak bilatzen laguduko dute.

Jakintzagai honen helburuak eta edukinak kontuan izanik, komeni da ondoren adierazitakoei lehentasuna emango dieten irakaskuntza/ikaskuntza prozesuei jarraitzea:

– Lankidetzazko eta berdinen arteko ikaskuntza ahalbidetuko duten metodologia aktiboak eta partaidetzazkoak (arazoak aztertu, eztabaidatu eta konpontze-

confianza en uno mismo y en los demas, el refuerzo del sentimiento de pertenencia al grupo y a la comunidad, el cultivo de las habilidades para la toma de decisiones y para la resolución adecuada de los conflictos, el desarrollo de la capacidad de análisis y comprensión de las sitaciones o el desarrollo de conductas de acercamiento a los demás, son aspectos a favorecer en esta fase educativa, ya que son factores que contribuyen al desarrollo integral del individuo.

Y no es menos conveniente responder a las necesidades e intereses específicos que sobre este campo concreto pueda presentar un segmento del alumnado.

En consecuencia, el desarrollo de la autoestima, el refuerzo del sentimiento de pertenencia al grupo y a la comunidad, el cultivo de las habilidades para la toma de decisiones y para la resolución adecuada de los conflictos, el desarrollo de la capacidad de análisis y comprensión de las situaciones o el desarrollo de conductas de acercamiento a los demás, son aspectos a favorecer en esta fase educativa, ya que son factores que contribuyen al desarrollo integral del individuo.

Por todo lo anterior se justifica en el mencionado espacio de opcionalidad la materia de «Habilidades para el desenvolvimiento en la comunidad» entendida como el conjunto de actitudes, hábitos, conductas, técnicas, métodos y estrategias que nos aportan mayores y mejores posibilidades para afrontar, de forma cada vez más autónoma, las interacciones con los demás, la solución de las dificultades o problemas que la vida cotidiana presenta, la participación en el entorno socioeconómico y el compartir tareas y trabajo en equipo.

Los cuatro grandes bloques de contenidos a partir de los cuales se propone articular esta materia hacen referencia a la solución eficiente de aspectos y problemas de la vida doméstica y comunitaria, la adquisición de una serie de habilidades funcionales y transferibles a múltiples situaciones de la vida cotidiana, el conocimiento, desenvolvimiento y participación en el contexto sociocomunitario y la adquisición de actitudes, conductas, técnicas y estrategias, que faciliten el acceso al mundo laboral.

Un programa centrado en estos bloques cumpliría, además de una importante función integradora, otra no menos interesante función preventiva de situaciones o realidades potencialmente conflictivas. La aceptación de la diversidad y de la presencia del conflicto y la discrepancia como elementos normales de la realidad, así como el aprendizaje de su afrontamiento, favorecerán la aceptación de la pluralidad, ayudarán al joven a integrarse más adecuadamente en su entorno y ayudarán también a que las situaciones potencialmente conflictivas puedan hallar cauces adecuados de expresión y solución.

A la vista de los objetivos y contenidos de esta materia, resultan aconsejables procesos de enseñanza-aprendizaje en los que se primen:

– metodologías activas y participativas que posibiliten el aprendizaje cooperativo y entre iguales (proyectos de: análisis, discusión, resolución de problemas,

ko proiektuak, bizitza errealeko egoerak ikertu, aztertu edo simulatzeko);

– antolamendu-eredu malguak, ikasleei dagokienez (bakarka nahiz talde txiki edo handitan lan egitea ahalbidetuko dietenak); espazioari dagokionez (espazio berean iharduera desberdinak eta leku desberdinetan iharduera bera edo desberdinak bete ahal izateko); eta denborari dagokionez (ikasleari autonomia handiagoa eskaintzea lanean antolatzeko, zenbait ihardueratan bi ikasgelarako irakasle bakarra, ikasgela baten barruan beste batzuetarako lanean diharduten bi irakasle, ohizkoa -ordutik ordura- ez den antolamendua, etab.);

– edukin desberdinak arlo edo jakintzagai biren edo gehiagoren ikuspegitik plantea daitezkeen disziplinarteko ikuspegiak (solasaldi bat hasi eta iraunaraztea, lanelkarrizketa batera aurkeztea, edo «curriculum vitae» bat idaztea, hizkuntza-arlo guztitik; erakunde eta organismoetako funtzionamendua eta partaidetza, hizkuntza-arlotik ez ezik, Gizarte-Zientzietan eta Geografia eta Historian oinarrituz azter daitezke; eguneroko bizitzako arazo zehatz batzuetarako irtenbidea -elektrizitatea, iturgintza, higienea eta osasuna- Natur Zientziatik eta Oinarrizko Teknologian oinarriturik azter daiteke);

– parte hartzen duten ikasleen interes eta behar espezifikoak egoerak aukeratzean eta edukinak garatzean oinarrizko ardatzetako bat izatea;

– konfiantza, onarpen eta errespetuzko giroa, jakintzagai hau garatzean.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Komunitateko ingurunearen ezaugarriak ezagutzea, bertan moldatzea eta ekimena erakutsiz eta erantzukizunak nork bere gain hartuz parte hartzea, komunitateko erakundeen oinarrizko funtzionamendua ezagutuz: osasuna, hezkuntza, justizia, gizarte-zerbitzuak, udala, etab.

2. Informazioa lortu, aukeratu eta interpretatzea, ikuspegi kritiko batetik eta era autonomoan lortu nahi den helburuaren arabera erabiltzea, eta gainerakoei era antolatu batean jakinaraztea.

3. Komunikaziorako trebetasunak garatzea, sentimenduan eta arrazoian oinarrituz espresatzeko eta ulertzeko, elkar onartzeko, autonomiazko, enpatiazko eta elkarlanerako gaitasunak indartuko baitituzte, gainerakoen ekarpenak baloratuz.

4. Balore sozio-komunitarioak eta bizi-kalitatea aztertzea, mekanismo burokratiko, legal edo judizialen bidez eskubideak eta betebeharrak betez.

5. Elkarlanerako, tolerantziazko eta elkartasunezko jarrerak garatzea, kaltetutako kolektiboen diskriminazioak gaitzetsiz.

6. Ikaslearen autokontzeptu, autoezagutza eta autobalorazio-mailak handitu eta egokitzea.

investigación, análisis o simulación de situaciones de la vida real);

– modelos organizativos flexibles, tanto del alumnado (en los que tenga cabida trabajar tanto de forma individual como en pequeño y gran grupo); como del espacio (pudiendo darse en un mismo espacio actividades diferentes e inclusive la misma o distintas actividades en lugares diversos); y del tiempo (mayor autonomía al alumnado para la organización de éste, un único docente con dos aulas en determinadas actividades, dos profesores trabajando dentro de un aula para otras, organización diferente a la habitual -de hora en hora-, etc.);

– enfoques interdisciplinares en los que diversos contenidos se pueden plantear desde la perspectiva de dos o más áreas o materias (iniciar y mantener una conversación, presentarse a una entrevista de trabajo o redactar un «curriculum vitae», desde todo el área de lenguas; funcionamiento y participación en instituciones y organismos, además desde el área de lenguas se puede también abordar en Ciencias Sociales, Geografía e Historia; la solución de determinados problemas de la vida cotidiana relacionados, con electricidad, fontanería, higiene o salud, pueden ser tratados desde las Ciencias de la Naturaleza y Tecnología Básica);

– que los intereses o necesidades específicas del alumnado participante sea uno de los ejes básicos en la selección de situaciones y en el desarrollo de los contenidos;

– un clima de confianza, mutua aceptación y respeto en el desarrollo de esta materia;

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Conocer las características del entorno comunitario, desenvolverse en él y participar con iniciativa y responsabilidad, conociendo el funcionamiento básico de las instituciones comunitarias: sanidad, servicios sociales, ayuntamiento,...

2. Obtener, seleccionar e interpretar la información, utilizarla de forma crítica y autónoma de acuerdo con el fin perseguido y comunicarla a los demás de forma organizada.

3. Desarrollar habilidades comunicativas que desde el sentimiento y la razón potencien la capacidad de expresión y comprensión, de aceptación mutua, de autonomía, empatía y cooperación, valorando las aportaciones de los demás.

4. Analizar los valores socio-comunitarios y la calidad de vida, ejerciendo los derechos y deberes mediante mecanismos burocráticos, legales o judiciales.

5. Desarrollar actitudes de cooperación, tolerancia y solidaridad rechazando las discriminaciones de colectivos desfavorecidos.

6. Aumentar y ajustar los niveles de autoconcepto, autoconocimiento y autovaloración, del alumnado.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. ETXEKO BIZITZA

Ikasleei zainketa pertsonalarekin eta etxeko erantzukizunekin zerikusia duten gaitasunak lortzen laguntzea da asmoa. Sarritan, etxearen esparruan eguneroko arazoen inguruan dagoen ezjakintasuna eta arazo horien konponbidean antzematen den banaketa sexista nabarmena ikusita, ezinbestekoa da arazo horiek hezkuntza-ihardunean barne hartzea, etxean ekimen eta konpromisu pertsonalak bultzatzeko bide gisa. Hezkuntza-ihardunean baztertu ohi den multzo hau oinarritzat hartu behar dela uste dugu, nork bere eta gainerakoen ongizatea lortzeko ez ezik, autonomia pertsonala eta konpromisu eta partaidetza kolektiboa areagotzeko ere.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Higienea, garbitasuna eta ordena. Arropa zaintzea. konponketa eta instalazio txikiak. Oinarrizko laguntza. Etxeko segurtasuna. Nutrizioa eta elikadura. Janarien plangintza eta prestaketa. Hondarren eta hondakinen sailkapena eta banaketa. Zereginen eta erantzukizunen banaketa. Agiriak, fakturak eta aurrekontuak.

B) Prozedurazko edukinak

1. Etxeko lanen egituraketa eta plangintza.

2. Norbere denboraren plangintza.

C) Jarrerazko edukinak

1. Etxeko lana baloratzea eta eremu horri dagozkion zereginak eta erantzukizunak nork bere gain hartzea, sexua dela-eta diskriminaziorik egin gabe.

2. Talde-gaietan partaidetza aktiboa eta elkartasuna erakustea.

3. Nork bere buruarekiko eta besteekiko errespetua.

4. Bizi eta osasun-baldintzak hobetzen direnean bilakaera pertsonalean antzematen den eragin positiboa baloratzea.

2. MULTZOA. GIZARTE-TREBETASUNAK

Gizarte-harremanak hobetzeko beharrezkoak diren trebetasun batzuk lortzea, esaterako, entzuten jakitea, solasaldi bat hasi eta iraunaraztea, laguntza eskatzea, zorretan ematea eta eskatzea, taldeetan parte hartzea eta elkarlanean aritzea, hutsegiteari erantzutea, taldearen presioari aurre egitea, erabakiak hartzea, etab. beharrezko elementuak dira elkarbizitzarako ohiturak eratzeko eta nork bere buruaren kontzeptua egokitzeko. Multzo honekin, giza harremanetan esku hartzen duten elementuak identifikatzeaz gain, gatazkak gainditzeko eta erantzukizunaren eta desadostasunaren aurrean jarrera positiboa adoretzea lortzen da.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Famili harremanak: eskakizunak, igurikapenak: lagunak, bizilagunak, etab.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. VIDA DOMESTICA

Trata de contribuir a que los alumnos y alumnas adquieran capacidades relacionadas con los cuidados personales y responsabilidades en el hogar. El desconocimiento que a menudo existe sobre los problemas cotidianos en el terreno doméstico y la marcada división sexista en su resolución, hacen necesarios su inclusión en la práctica educativa como una manera de impulsar iniciativas y compromisos personales en el ámbito doméstico. Este bloque, tradicionalmente marginado de la práctica educativa, entendemos que es el punto de partida no sólo para el bienestar propio y ajeno sino para alcanzar también, mayores cotas de autonomía personal y de compromiso y participación colectiva.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Higiene, limpieza y orden. Cuidado de la ropa. Pequeñas reparaciones e instalaciones. Primeros auxilios. Seguridad en el hogar. Nutrición y alimentación. Planificación y preparación de comidas. Clasificación y distribución de desperdicios y residuos. Distribución de tareas y reparto de responsabilidades. Recibos, facturas y presupuestos.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Estructuración y planificación de las actividades domésticas.

2. Planificación del tiempo personal.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Valoración del trabajo doméstico y asunción de tareas y responsabilidad propios de este ámbito, sin discriminaciones por razones de sexo.

2. Participación activa y solidaria en los asuntos colectivos.

3. Respeto por uno mismo y por los demás.

4. Apreciación de los efectos positivos en el desarrollo personal cuando mejoran las condiciones de vida y de salud.

BLOQUE 2. LAS HABILIDADES SOCIALES

La adquisición de una serie de habilidades necesarias para la mejora de las relaciones sociales como el saber escuchar, iniciar y mantener una conversación, pedir ayuda, prestar y pedir prestado, participar y cooperar en los grupos, responder al fracaso, hacer frente a la presión del grupo, la toma de decisiones,... constituyen elementos necesarios para construir hábitos de convivencia y un ajustado autoconcepto. Con este bloque se pretende no sólo identificar los elementos que intervienen en las relaciones humanas, sino desarrollar destrezas para la superación de conflictos y alentar la responsabilidad y la actitud positiva ante la discrepancia.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Relaciones familiares y afectivas: normas de convivencia y relación,...

2. Pertsonarteko komunikazioa: entzutea, parte hartzea, kexu bat adieraztea, eskubideak defendatzea, etab.

3. Protokolo eta kortesiari buruzko arauak. Agurtzea, eskertzea. Barkamena eskatzea, barkamena ematea, etab.

4. Gatazkak, hutsegiteak, etab. konpontzea.

5. Asertibitatea.

6. Taldearen presioa.

7. Erabakiak hartzea.

8. Talde-lana.

9. Gizarte-trebetasunak. Ingurunea ezagutzea eta bertara moldatzea.

B) Prozedurazko edukinak

1. Giza harremanetan esku hartzen duten elementuak identifikatzea.

2. Estandarizatutako gizarte-iharduerak betetzea.

3. Komunitate-harremanei dagozkien zirkunstantzietan hitzezkoak diren edo hitzezkoak ez diren baliabideak erabiltzea.

4. Nork bere iritziak eta jarrerak justitikatu eta defendatzeko argudioak erabiltzea.

5. Taldeko erabakiak eta akordioak planifikatu eta betetzea.

6. Taldeko teknika desberdinak erabiltzea.

7. Gatazka bat konpontzean jarrera desberdinak identifikatu eta aztertzea.

8. Nork bere jarrerez eta iritziez jabetzea.

9. Nork bere gizarte-trebetasunez jabetzea.

10. Gainerakoekin harremanak izateko, komunikatzeko eta elkarrizketan aritzeko trebetasunak. Entzutea, adi egotea, ulertzea. Azalpenak ematea eta eskatzea. Galderak egitea, informazioa eskatzea. Laguntza eskatzea. Barkamena eskatzea. Mesedeak eskatzea, etab.

11. Trebetasun afektiboak. Nork bere sentimenduak ezagutu eta adieraztea. Gainerakoen sentimenduak ulertzea. Estimua adieraztea. Estimua onartzea.

12. Arazoak konpontzeko trebetasunak. Arazoak aztertzea eta konpontzea. Bakarka nahiz taldean erabakiak hartzea.

13. Autokontrolerako trebetasunak.

C) Jarrerazko edukinak

1. Nork bere ahalmenak baloratu eta horietan konfiantza izatea.

2. Eguneroko komunikaziorako eta talde-lanerako jarrera positiboa erakustea.

3. Nork bere ekintzak betetzean autonomiaz eta erantzukizunez jokatzea.

4. Egoera gatazkatsuen aurrean nork bere burua kontrolatzea.

2. La comunicación interpersonal: escuchar, participar, formular una queja, defender los derechos, explicar y pedir información,...

3. Normas protocolarias y de cortesía. Saludar. Dar las gracias. Disculpase, aceptar disculpas....

4. Resolución de conflictos y problemas. Toma de decisiones.

5. La asertividad.

6. La presión del grupo.

7. Toma de decisiones.

8. El trabajo en grupo.

9. Habilidades sociales. Conocimiento y adecuación al entorno.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Identificación de los elementos que intervienen en las relaciones humanas.

2. Ejecución de actividades sociales estandarizadas.

3. Uso de los recursos verbales y no verbales en circunstancias de relaciones comunitarias.

4. Utilización de argumentos para la justificación y defensa de las propias posiciones y actitudes.

5. Planificación y ejecución de las decisiones y acuerdos colectivos.

6. Utilización de diversas técnicas grupales.

7. Identificación y análisis de diferentes posturas en la resolución de un conflicto.

8. Toma de conciencia de las propias actitudes y posiciones.

9. Toma de conciencia de las propias habilidades sociales.

10. Habilidades de interrelación, comunicación y diálogo con los demás. Escuchar, atender, comprender. Explicar, pedir explicaciones. Formular preguntas, pedir información. Pedir ayuda, Disculparse. Pedir favores...

11. Habillidades afectivas. Conocer y expresar los propios sentimientos. Compreder los sentimientos de los demás. Expresar afecto. Aceptar afecto.

12. Habilidades para la resolución de problemas. Análisis y solución de problemas. Toma de decisiones personales y grupales.

13. Habilidades de autocontrol.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Estima y confianza en las propias posibilidades.

2. Actitud positiva para la comunicación cotidiana y el trabajo en grupo.

3. Autonomía y responsabilidad en la ejecución de las propias acciones.

4. Control personal ante situaciones conflictivas.

5. Desakordioa eta gatazkak bilakaerarako iturri gisa ikuspegi positibo batetik baloratzea, elkarrizketarako eta komunikaziorako jarrerak baloratuz, sexua, arraza edo ideologia kontuan hartu gabe.

6. Gainerakoen iritziekiko errespetua erakustea.

7. Gizarte-trebetasunak erabiltzeko prest egoeta.

3. MULTZOA. HIRITARREN PARTAIDETZA

Ikasleek komunitateko erakunde ofizialak eta ofizialak ez direnak ezagutu ditzaten eta horietara aktiboki eta erantzukizunez hurbil daitezen lortu nahi da, norbanakoaren eta taldearen eskubideak eta betebeharrak betez, kolektibo kaltetuenekiko interesa eta elkartasuna piztuz, eta talde-gaietan konpromisua bultzatuz.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Erakundeak: Komunitate eta lurralde-erakundeak. Legebiltzarra, Aldundia. Tokiko erakundeak: Udala. Bestelako komunitate-erakunde batzuk: zerbitzu judizialak, ospitale eta anbulatorio-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, babes zibila, etab. erakunde-baliabideen gidak. Informazio eta aholkularitza-zerbitzuak: gazteak, emakumeak, enplegua, sariak, bekak, lehiaketak, proiektuak. Adimen-osasuna. Famili-plangintza. Drogamenpekotasunen prebentzioa eta tratamendua.

2. Gazteentzako informazio eta iharduera-zentroak; prestakuntzarako eta aisiarako eskaintza, erakundeak eta asoziazionismoa. Boluntaritza eta Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

3. Hiritarren partaidetza, taldearen eskubideak betetzea. Kontsumitzaileen elkarteak. Erreklamazio-sistemak, aktak, instantziak, etab. Instalazioen erabilera eta mantenimendua: garraio-bideak, polikiroldegiak, liburutegiak, ludotekak, espazio amankomunak: plazak eta lorategiak. Animaliak eta landareak.

4. Dokumentazioa: liburutegiak, artxibategiak, museoak, etab. Informazio ofiziala: aldizkari ofizialak (Estatukoa, Euskal Herrikoa eta Lurraldekoa).

B) Prozedurazko edukinak

1. Informazioa biltzeko eta sistematizatzeko teknikak.

2. Informazio-zentroei eta bestelako antolamendu-erakundeei buruzko fitxategi bat lantzea.

3. Erakundeen eta Asoziazionismoaren ezaugarriak aztertzea, Udaletara eta beste erakunde eta elkarte batzuetara bisitak eginez.

4. Arazo soziokomunitario espezifikoei buruzko eztabaidetan parte hartzea, irtenbideak bilatzearren.

5. Erreklamazioak, aktak eta instantziak egitea.

6. Komunitatean aisiarako dagoen eskaintza aztertzea eta nork bere interesekin eta beharrekin alderatzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Hiritarren partaidetzarako motibazioa eta ekimena izatea.

5. Valoración positiva de la discrepancia y conflictos como fuente de crecimiento, valorando las actitudes de diálogo y comunicación, independientemente de su sexo, raza o ideología.

6. Respeto a las posiciones de los demás.

7. Disposición a utilizar las habilidades sociales

BLOQUE 3. LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Se trata no sólo de dar a conocer las instituciones oficiales y no oficiales de la comunidad, sino de lograr el acercamiento a las mismas de una manera activa y responsable, ejerciendo los derechos y deberes individuales y colectivos, despertando el interés y la solidaridad por aquellos colectivos más desfavorecidos y suscitar el compromiso en los asuntos colectivos.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Las Instituciones: Instituciones comunitarias y territoriales: Parlamento, Diputación. Instituciones locales: El Ayuntamiento y otras instituciones oficiales comunitarias: servicios judiciales, servicios hospitalarios y ambulatorios, servicios sociales, protección civil,... guías de recursos institucionales. Servicios de información y asesoramiento: jóvenes, mujeres, empleo, premios, becas, concursos, proyectos. La salud mental. Planificación familiar. Prevención y tratamiento de las drogodependencias.

2. Centros de información y actividades juveniles; oferta formativa y de ocio; entidades y asociacionismo (Voluntariado y Organizaciones No Gubernamentales).

3. La participación ciudadana, el ejercicio de los derechos colectivos. Las asociaciones de consumidores. Sistema de reclamaciones, actas, instancias,... Utilización y mantenimiento de las instalaciones: medios de transporte, polideportivos, bibliotecas, ludotecas, espacios comunes: plazas y jardines. Animales y plantas.

4. Documentación: bibliotecas, archivos, museos,... Información oficial: boletines oficiales (Estado, País Vasco, Territorio)

B) Contenidos Procedimentales:

1. Técnicas de recopilación y sistematización de la información.

2. Elaboración de un fichero sobre los centros de información y otra entidades organizativas.

3. Análisis de las características de las Instituciones y el Asociacionismo a partir de visitas al Ayuntamiento y a otras entidades y asociaciones.

4. Participación en debates sobre los problemas sociocomunitarios específicos para la búsqueda de soluciones.

5. Realización de reclamaciones, actas e instancias.

6. Análisis de las ofertas de ocio comunitario y cotejo con los intereses y necesidades personales.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Motivación e iniciativa para la participación ciudadana.

2. Elkarteen eta hiritarren mugimendua ezagutzeko eta parte hartzeko interesa erakustea.

3. Integrazio soziokomunitarioa lortzea eta taldegaien erantzukizuna hartzea.

4. Gai kolektibioetan alkartasuna eta erantzukizuna sutatzea

4. MULTZOA. ENPLEGUA BILATZEA

Derrigorrezko irakaskuntzaren azken fase honi dagokion izaera orientatzailea dela-eta, ezinbestekoa da lanmundua aipatzea. Lehen enplegura sartzeko zailtasuna eta, horrekin batera, konplexutasuna eta zalantza, prestakuntzaren eta hezkuntzaren eremuan kontuan hartu beharreko zirkunstantziak dira. Multzo honetan oinarrituz, ekimena landu eta garatu nahi da, gazteak lanmunduari lotutako ezagutza, irizpide eta baloreetan barneratuz, eta lan-etorkizunari aurre egiteko tresnez hornituz.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Informazioa aukeratu eta erabiltzea: lan-boltsak, komunikabideetako iragarkiak, INEM, EGAILAN, aldi baterako enplegu-bulegoak, langileak akeratzeko bulegoak, etab.

2. Enplegua bilatzeko ahozko eta idatzizko baliabideak: curriculuma, elkarrizketa, gutuna eta aurkezpena, instantziak, eskariak, etab.

3. Langileen eskubideak eta betebeharrak, kontratuak eta motak, autoenplegua, Administrazioko enplegua, etab.

B) Prozedurazko edukinak

1. Dokumentuak idaztea: gutunak, instantziak, eskariak, etab.

2. Enplegua bilatzeko egoera desberdinak behatu eta dagozkien ezaugarriak adieraztea: telefono bidezko hizketaldia, elkarrizketa, etab.

3. Lan-boltsa, prentsako iragarki, etab.etan oinarrituz fitxategiak eratu eta erabiltzea.

4. Enplegu-eskaintza aztertzea.

5. Informazioa eta enplegua bilatzeko plangintza eta antolamendua.

C) Jarrerazko edukinak

1. Lan-ihardueraren funtzionamenduarekiko interesa eta jakinmina erakustea.

2. Gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko garaian jarrera positiboa izatea.

3. Adin, sexu eta arrazaren araberako aurriritzien aurrean jarrera kritikoa erakustea.

4. Enplegua bilatzean balorazio positiboa egitea eta iraunkortasunez jokatzea.

5. Nork bere gaitasun, ezaugarri eta mugak positiboki baloratzea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Higienea, garbitasuna, ordena, korronte elektrikoa, elikadura orekatua, zerbitzu publikoa, partaidetza,

2. Interés por conocer y participar en el movimiento asociativo y ciudadano.

3. Integración sociocomunitaria e interés por contribuir a su desarrollo.

4. Fomento de la solidaridad y la responsabilidad en los asuntos colectivos.

BLOQUE 4. LA BÚSQUEDA DE EMPLEO

El carácter orientador de esta última fase de la enseñanza obligatoria hace necesario referirnos al mundo laboral. La dificultad del acceso al primer trabajo, unido a la complejidad y a la incertidumbre, son circunstancias a tener en cuenta en los niveles de formación y educación. Desde este bloque se pretende ejercitar y desarrollar la iniciativa introduciendo a los jóvenes en los conocimientos, criterios y valores del mundo del trabajo, dotándoles de herramientas para afrontar su futuro laboral.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Selección y utilización de la información: bolsas de trabajo, anuncios en mass-media, INEM, EGAILAN, oficinas de empleo temporal, de selección de personal,...

2. Recursos orales y escritos para la búsqueda de empleo: curriculum, entrevista, carta de presentación, instancias, solicitudes,...

3. Derechos y deberes de los trabajadores, contratos y tipología, autoempleo, empleo en la Administración,...

B) Contenidos Procedimentales:

1. Redacción de documentos: cartas, instancias, solicitudes,...

2. Observación y características de diferentes situaciones en la búsqueda de empleo: conversaciones telefónicas, entrevistas,...

3. Confección y utilización de fichero a partir de bolsas de trabajo, anuncios en prensa,...

4. Análisis de la oferta de empleo.

5. Planificación y organización de la búsqueda de información y empleo.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés y curiosidad por el funcionamiento de la actividad laboral.

2. Actitud positiva para la resolución de conflictos y la toma de decisiones.

3. Actitud crítica ante los prejuicios en función de la edad, sexo y raza.

4. Valoración positiva y constancia en la búsqueda de empleo.

5. Apreciación y valoración positiva de las propias capacidades, características y limitaciones.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Utilizar con corrección y exactitud conceptos básicos como higiene, limpieza, orden, corriente eléc-

erreklamazioa, kontratua, etab. bezalako kontzeptuak zuzentasunez eta zehaztasunez erabiltzea, edozein komunikazio-egoeratan.

Bereganatutako kontzeptuek ikasleari komunikazio-ingurunearen klabeak ulertu eta interpretatzea eta bertan behar bezala barneratzea ahalbidetzen ote dioten ikusi nahi da.

2. Entzutea, parte hartzea, jokabide asertiboa izatea, taldean lan egitea, etab. bezalako komunikaziorako trebetasunak praktikan jartzea elkarrekintza-mota guztietan.

Ikasleak famili eta komunitate-ingurunearekin harremanetan jartzeko dituen baliabide pertsonalak gehitzeko duen gaitasuna baloratu nahi da, eta taldelanetan inplikatzen ote den eta hurbileko ingurunean zuzentzen duten arauak eta konpromisuak asumitzen ote dituen ikusi nahi da.

3. Norbanakoaren eta taldearen eskubideak defendatzeko eta erakundeetan eta elkarteetan partaidetza aktiboa izateko ahozko eta idatzizko proposamen koherenteak eta zehatzak lantzea.

Ikasleak era autonomoan iharduteko ekimenerako duen gaitasuna baloratu nahi da, egoera jakin batzuen aurrean proposamen zehatzak eginez.

4. Informazio desberdinak bilatu, aukeratu, sistematizatu eta integratzea, eta horiek ikuspegi kritiko batez erabiltzea, gertakariak iritzietatik bereiziz.

Bide desberdinetatik (ahozkoa, idatzizkoa, ikus-entzunezkoa, etab.) eta jakintzagaian proposatutako laneremu desberdinetan ikasleak eskura dituen informazio desberdinak aukeratu, laburtu, integratu eta jakinarazteko duen gaitasuna baloratu nahi da.

5. Edozein pertsonaren aurrean sentsibilizazioa eta errespetua erakustea eta haren iharduera baloratzea, batez ere desberdintasun-baldintzak direla-eta (gizarte-jatorria, gutxiengo etnikoa, hezkuntza-premia bereziak eta/edo beste edozein elementu diskriminatzaile) kaltetuenak dauden horien kasuan.

Irizpide honen helburua ikaslea eguneroko bizitzan sexua, arraza eta gizarte-jatorria direla-eta agertzen diren gizarte-arazoen aurrean sentsibilizatzea lortu nahi da.

6. Ahozko eta idatzizko baliabideak behar bezala planifikatu, landu eta erabiltzea, esaterako: aktak, instantziak, eskariak, erreklamazioak, bermeak, aurkezpen-gutunak, curriculum vitaea, elkarrizketak, etab., baliabide horiek ahalbidetuko baitiote eskubideak eta betebeharrak betetzea, gizartean parte hartzea eta lanmunduan sartzea.

Irizpide honen asmoa ikasleak gizartean hobeto moldatzea ahalbidetuko dioten baliabideak ba ote dituen ikustea da.

LANBIDE-HASTAPENA

1.– SARRERA

Derrigorrezko Hezkuntzak ikasle guztien gaitasun orokor batzuk sustatzen ditu, Batxilergoko edo Erdimailako Prestakuntza-Zikloetako ikasketen jarraipena-

trica, alimentación equilibrada, servicio público, participación, reclamación, contrato, etc., en todo tipo de situaciones comunicativas.

Sirve para evaluar si los conceptos adquiridos le permiten comprender e interpretar claves del entorno comunitario y su adecuada inserción en el mismo.

2. Poner en práctica habilidades comunicativas relacionadas con la escucha, participación, comportamientos asertivos, trabajo en grupo,... en todo tipo de interacciones.

Se pretende valorar las capacidades de los alumnos y alumnas para incrementar los recursos personales para relacionarse con el entorno familiar y comunitario, si se implica en la realización de tareas colectivas, si asume las normas y compromisos que rigen en su entorno inmediato.

3. Elaborar propuestas coherentes y concretas, orales y escritas encaminadas a la defensa de los derechos individuales y/o colectivos, a la inserción y participación activa en instituciones o asociaciones.

Se pretende valorar la capacidad de iniciativa par actuar de forma autónoma, formulando propuestas concretas ante determinadas situaciones.

4. Buscar, seleccionar, sistematizar e integrar distintas informaciones y hacer uso crítico de las mismas, distinguiendo los hechos de las opiniones.

Se pretende evaluar la capacidad de seleccionar, sintetizar, integrar y comunicar las distintas informaciones a las que puede tener acceso por diversas vías (oral, escrita, audiovisual,...) en los diferentes ámbitos de trabajo que se propone en la materia.

5. Valorar la sensibilización, respeto y actuación hacia todo tipo de personas, sobretodo a las menos favorecidas por condiciones de desigualdad: origen social, minorías étnicas, necesidades educativas especiales y/o cualquier otro elemento discriminatorio.

Este criterio tiene por objeto facilitar que el alumnado sea sensible a las problemáticas sociales presentes en la vida cotidiana, originadas por razones de sexo, raza u origen social.

6. Planificar, elaborar y utilizar adecuadamente recursos orales y escritos: actas, instancias, solicitudes, reclamaciones, garantías, cartas de presentación, curriculum vitae, entrevistas,... que faciliten el ejercicio de derechos y deberes, la participación social y el acceso al mundo laboral.

Este criterio pretende valorar si el alumnado posee recursos que le faciliten un mejor desenvolvimiento social.

INICIACIÓN PROFESIONAL

1.– INTRODUCCIÓN

La educación obligatoria promueve el desarrollo de unas capacidades generales para todos los alumnos y alumnas que les prepare para realizar opciones sobre su

ren bidez etorkizunerako aukerak egiteko edo lan-munduan sartzeko prestatuta egon daitezen. Eskakizun horiei erantzuteko, Derrigorrezko Hezkuntzak -Bigarren Hezkuntzako etapan- beste zenbait neurriren artean curriculumaren gero eta aniztasun handiagora jo du. Aniztasun hori, batetik, ikastetxeak ikaslearen interes, motibazio eta gaitasunetatik gertuago daduen jakintzagaiak eskaintzeko duten obligazioan eta, bestetik, ikasle horiek beren kezketatik hurbilago dagoen curriculum bat eratzeko duten eskubidean zehazten da, eta beti ere eskaintzen diren aukera desberdin guztiek balioko dute etaparako ezarritako gaitasunak garatzeko.

Jakintzagai hau aukerakotasunaren gunean barne hartzea komeni da, honako arrazoi hauengatik:

Lan-munduarekin zerikusia duten alderdiei buruzko informazioa, prestakuntza eta orientabidea osatzeko beharra, ikuspegi praktiko batean oinarriturik. Ikuspegi horretatik abiatuta, lanbidean egiteko moduetara hurbildu ahal izango dira ikasleak.

Interes, motibazio eta gaitasunen aniztasunari erantzuteko beharra, lanbide-eremuetara hurbiltzeko proposamen espezifikoen bitartez, eguneroko bizitzan eta bizitza aktiboan eta erraz aplika daitezkeen eta baliagarriak diren ezagutzak eskuratzearren.

Komenigarritzat jo da aukerako jakintzagai honen diseinuan, Dekretuak aukerakotasunaren gunerako adierazitako hiru helburuak nahitaez elkarrekin joatea, horrelakorik gerta ez dadin: jakintzagaia lanbide-espezializazio goiztiarrerako gune, orientabidearen funtsezko alderdien oinarri edo teknikei loturiko trebakuntza eta ikaskuntzarako gune gisa hartzea. Ordea, orokorrean ardatz-arloetan eta aukerakotasunaren guneko jakintzagai batzuetan agertzen den Oinarrizko Lanbide-Heziketa indartzeko eta zentzu handiagoa hartzeko balioko luke, honela: erabateko zentzu praktikoa eta erperimentala hartuz, ikasten dutenaren funtzionaltasuna antzemanez, «egiten jakitearen» eta «egoten jakitearen» garrantzia baloratuz eta lanbide-munduaren aldeko jarrerak sortzera bideratuz.

Lanbide-Hastapenak hiru helburu horiek sustatu ahal izateko, lanbide bati lotutako alderdi zehatzetan oinarrituta egon behar du, eta horietan oinarrituz, gogoeta egin eta lanbide-arloa edo testuinguruaren ingurune sozioproduktiboa bezalako esparru abstraktuagoetarantz mugitu behar du. Gainera, oinarrizkotzat joko diren jakintza funtzionalen inguruan mugitu, eguneroko bizitzako arazoak konpondu edo interes eta zaletasun berriak sortarazi behar ditu (olioa aldatzea, paretak pintatzea, brikolagea, etab.).

Hau da, Lanbide-Hastapenaren jakintzagaiaren barruan lehentasuna hartzen duen ikuspegia ez da trebakuntza-izaera duen lanbide-kualifikazioan oinarritutako ikuspegia, lanbidearekin zerikusia duten alderdietatik abiatuta etaparako ezarritako gaitasun orokorren lanketan oinarritutakoa baizik. Berariazko lanbide-gaitasunak lortzeak baino gehiago gaitasun orokorrak lortzeak hartzen du lehentasuna, gaitasun horiek beti ere

futuro, bien sea a través de la continuación de estudios en el Bachillerato, en los Ciclos Formativos de Grado Medio o bien incorporarse a la vida activa en el mundo laboral. Para responder a estas exigencias, la educación obligatoria -en la etapa de secundaria- establece, entre otras medidas, una progresiva diversificación, del currículo concretada, por una parte, en la obligación del centro de ofertar materias que se aproximen más hacia los intereses, motivaciones y capacidades del alumnado y, por otra, en el derecho de éste a configurar un currículo más cercano a sus inquietudes, e insistiendo que todas las diferentes opciones que se le ofrezcan sean válidas para el desarrollo de las capacidades establecidas para la etapa.

Es importante que esta materia se contemple dentro del espacio de opcionalidad por las siguientes razones:

La necesidad de completar la información, formación y orientación sobre aspectos relacionados con el mundo laboral a partir de un enfoque práctico donde el alumno y la alumna podrá experimentar y aproximarse a los modos de hacer en la profesión.

La necesidad de responder, a través de propuestas específicas de acercamiento a los ámbitos profesionales, a la pluralidad de intereses, motivaciones y capacidades favoreciendo la adquisición de saberes relacionados con lo profesional fácilmente aplicables y útiles para la vida cotidiana y activa.

Se considera conveniente que en el diseño de esta materia optativa, las tres finalidades señaladas en el Decreto para el espacio de opcionalidad, vayan necesariamente unidas, evitando de esta forma que la materia se contemple como un espacio para la especialización profesional prematura, que sobre la materia recaigan aspectos esenciales de la orientación o que la materia sea un espacio para el adiestramiento y aprendizaje de técnicas. Si servirá para potenciar y dar mayor sentido a la Formación Profesional de Base presente de forma general en las áreas troncales y en algunas materias del espacio de opcionalidad dándole un sentido eminentemente práctico y experimental percibiendo la funcionalidad de lo que aprenden, valorando la importancia del «saber hacer» y «saber estar» y encaminados a crear actitudes favorables a la vida profesional.

Para que la Iniciación Profesional pueda promover las tres finalidades, ha de basarse en aspectos concretos ligados a una profesión, y a partir de ellos, reflexionar y moverse hacia marcos más abstractos, como puede ser la familia profesional o el entorno socioproductivo del contexto. Además ha de girar en torno a saberes funcionales que se consideren básicos, resolver problemas de la vida cotidiana o abrir nuevos intereses, aficiones (cambio de aceite, pintar una pared, bricolage...).

Es decir, el enfoque que prima dentro de la materia de iniciación profesional no es un enfoque basado en la cualificación profesional de carácter adiestrador, sino un enfoque en el que, partiendo de aspectos relacionados con la profesión se trabajan las capacidades generales establecidas para la etapa. No se primará el logro de competencias profesionales específicas, sino el logro de capacidades generales pero ejemplificadas y contextua-

lanbideaurreko eremuan adibide eta testuinguruen bidez lortzen direnean. Ez da ahaztu behar berariazko prestakuntza Lanbide-Heziketako Prestakuntza-Zikloen eta Gizarte-Garantiako Programen bidez lortu behar dela, ez ordea aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen bidez.

Sarrerako azken oharra: ikasleak lan-antolamenduaren errealitatearekin harremanetan jartzeko aukera, autokudeaketaren bidez. Zentzu horretan, Euskal Herriak aukera ugari ezkaintzen ditu ikasleek lankidetzan eta lanaren eta kapitalaren banaketan oinarritutako lan-mundua ezagutu dezaten.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Lanbide-eremuari lotutako arazo praktikoak planifikatu eta konpontzea, prozesu egokiei jarraituz.

2. Lanbide-arloarekin zerikusia duten oinarrizko prozesuak eta material eta tresna ohizkoenak ezagutzen hastea.

3. Arazo teknologikoak konpontzea helburutzat duen talde bateko partaide izatearen garrantzia azpimarratzea, erantzukizunak nork bere gain hartuta eta elkarlanerako, tolerantziazko eta elkartasunerako jarrerak kontuan izanik.

4. Lanbide-arloarekin zerikusia duten proiektuak burutzeko garaian azaldutako ideiak eta hartutako erabakiak adierazi eta jakinaraztea, horretarako sinbologia eta hiztegi egokiaren bidez.

5. Lanbide-arloari dagozkion ahozko eta idatzizko informazioak interpretatzea -argibideak, zehaztapen teknikoak- bai eta laneko edo eguneroko arloko beste batzuk ere.

6. Lan-eremuarekin zerikusia duten egoeretan komunikatzeko trebetasunak garatzea: lan-elkarrizketak, hornitzaile, bezero, lankide, etab.ekiko harremanak.

7. Norbere eta taldearen osasunaren eta segurtasunaren gainean, bai eta ingurugiroaren gainean ere, produkzio-sektorerako ezarritako segurtasun eta higieneari buruzko arauak aplikatzeak dakartzan ondorioak ulertzea, eta arau horiek betetzeak duen garrantzia baloratzea.

8. Arazoei irtenbidea ematen jakiteak dakarren atsegintasunaz eta gozamenaz jabetzea, eta lanbide-aukera posibleen aurrean dituen gaitasunak eta interesak ezagutzea.

9. Produkzioaren eta enpresaren antolamendu eta ekonomi esparrua ulertzea, bai eta prestakuntzarako eta promoziorako dauden bideak ere.

10. Bere ingurune sozioproduktiboaren eta hezkuntza-ibilbide posibleen informazioari buruz gogoeta egitea, ibilbide horiek lanbide-arlo jakin baten barruan

lizadas en un ámbito pre-profesional. Es necesario no olvidar que la formación específica se han de conseguir a través de los ciclos formativos profesionales y de los programas de Garantía Social, y no a través de esta materia en el espacio de opcionalidad.

Un último apunte introductorio: la posibilidad de poner en contacto a chicos y chicas con la realidad laboral de la organización del trabajo de forma autogestionaria. En este sentido, Euskal Herria presenta multitud de posibilidades para que los chicos y chicas conozcan un mundo laboral basado en la cooperación y en la compartición del trabajo y del capital.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Planificar y resolver problemas prácticos ligados al ámbito profesional siguiendo los procesos adecuados.

2. Iniciar el conocimiento sobre procesos básicos relacionados con la familia profesional así como sobre los materiales y herramientas más habituales.

3. Mostrar una actitud positiva hacia el trabajo como miembro de un equipo en la resolución de problemas prácticos, asumiendo sus responsabilidades, con actitud de cooperación, tolerancia y solidaridad.

4. Expresar y comunicar las ideas y decisiones adoptadas en el transcurso de la realización de proyectos relacionados con el ámbito profesional, utilizando la simbología y el vocabulario más adecuado.

5. Interpretar informaciones orales y escritas propias del campo profesional, ya sean instrucciones, especificaciones técnicas, u otras del ámbito laboral o cotidiano.

6. Desarrollar habilidades de comunicación en situaciones relacionadas con el ámbito laboral: entrevistas de trabajo, relación con proveedores, clientes, compañeros...

7. Comprender los efectos que sobre la salud y seguridad personal y colectiva así como sobre el medioambiente tiene la aplicación de las normas de seguridad e higiene establecidas para el sector productivo valorando la importancia de su cumplimiento.

8. Adquirir y valorar el sentimiento de satisfacción y disfrute producidos por su habilidad para resolver problemas de forma eficaz, adquiriendo conciencia de sus capacidades e intereses en relación con posibles opciones de tipo profesional.

9. Comprender el marco organizativo y económico del mundo productivo y de la empresa relacionado con la familia profesional objeto de estudio así como las vías de formación y promoción existentes.

10. Reflexionar sobre la información referida a su entorno socioproductivo y posibles itinerarios educativos, conducentes a las adquisición de sucesivos niveles

elkarren segidako kualifikazio-mailak lortzera bideratutakoak izanik.

3.– EDUKINAK

Ikastetxe bakoitzean eskainitako lanbide-hastapenerako proposamenek ikastetxean edo bere inguruan dauden lanbide-arlo eta eremuen sarrerari lotuta egon behar dute, eta planteamenduetan lanbide-arlo oso bati edo gertuko lanbide-arloei lotutako ikuspegi globalizatzaile bat izan behar dute.

Ez da ahaztu behar jakintzagai honek funtsean zentzu orientatzailea duela, hau da, ikasleak lanbide-eremuetara lehen aldiz hurbiltzekoa; beraz, beharrezkoa da berariazko sekuentzien burutzapenari eta tekniken ezagutzari baino gehiago lan-prozesu osoen ezagutzari garrantzia ematea, ikasleak lan-egoeretan ezarriz, horrela, eginkizun aktiboa beteko baitute, aurrez ezarritako sekuentzien errepikatzaile soilak izan beharrean.

Ildo horretatik, jakintzagaiaren aukeraketan kontuan hartu beharreko irizpideak ondoren adierazitakoak dira:

– Ikastetxean irakasten diren Prestakuntza-Zikloak.
– Ikasleen interesak.
– Ikastetxearen ezaugarri sozioekonomikoak.

Edukinak bi multzo handitan banatuko dira:

– Inguruneko lan-munduaren ezagutza.
– Lanbide-arlo baten ezagutza arlo horretako lanbide baten bidez.

Ikastetxe bakoitzean multzo bakoitzari komeni den hedadura eman ahal izango zaio, ikasleen ezaugarrien eta ikastetxearen ezaugarrien arabera, beti ere horien bitartez planteatutako helburuak lantzen badira.

Bi multzo horietan hiru edukin-motak landuko dira. Prozedurazko edukinak jarrerazko eta kontzeptuzko edukinen garapenaren oinarri izango dira.

Edukinen aukeraketan, horiek ikastetxearen gertuko ingurune sozioproduktiboaren arabera zehazteko beharra kontuan hartu behar da, mundu errealera ahalik eta gehien hurbilduz eta lanbide edo lanbide-arlo batean zehaztuz. Horrek hauxe dakar berekin, lanbidean barne hartzen diren alderdi desberdinak erreferentzi gisa hartzea, hau da, lanbide-irudi desberdinak dagozkien lanbide-gaitasunekin, iharduera adierazgarriekin eta lanbide-eremuarekin.

Bi multzoetan adierazitako edukinak garatzeko orduan, komeni da bataren eta bestearen edukinak elkarlotzea, horrela, horien ikaskuntza osotasunean hartu ahal izateko. Gainera, DBHko beste arlo batzuei -oinarrizkotzat hartutakoei- lotuta dauden eta jakintzagaia garatzeko beharrezkoak izango diren edukinak aintzat hartuko dira, eta errealitatean agertzen diren bezalaxe aurkeztuko dira, osotasunean hartuta.

Planteamendu honek hauxe dakar berekin, jakintzagaia garatuko den lekua ikasgelarena gainditzea, eta

de cualificación dentro de una determinada familia profesional.

3.– CONTENIDOS

Es necesario que las propuestas de iniciación profesional ofertadas en cada centro estén ligadas a la introducción de familias y ámbitos profesionales presentes en el centro o en la zona, y tengan en su planteamiento, un claro enfoque globalizador ligado a una familia profesional completa o a familias profesionales cercanas.

No ha de olvidarse que esta materia tiene un sentido básicamente orientador, de inicial acercamiento a los ámbitos profesionales por parte del alumno o de la alumna, es necesario por lo tanto, un mayor énfasis en el conocimiento de procesos de trabajo completos, más que en el conocimiento y ejecución de secuencias y técnicas específicas, poniéndoles en situaciones de trabajo en los que los alumnos o las alumnas tengan un papel activo y no de mero repetidor de secuencias preestablecidas.

En este sentido, algunos de los criterios, ha tener en cuenta en la selección de la materia son:

– Ciclos Formativos impartidos en el centro.
– Intereses de los alumnos y alumnas.
– Características socioeconómicas del centro.

Los contenidos se van a dividir en dos grandes bloques:

Conocimiento del mundo laboral del entorno.

Conocimiento de una familia profesional a través de una profesión de la misma.

En cada centro escolar se podrá dar la amplitud que sea conveniente a cada uno de los bloques, en función de las características de los alumnos y de las alumnas y las características de dicho centro, siempre que a través de ellos se trabajen los objetivos planteados.

En ambos bloques se trabajarán los tres tipos de contenidos. Los contenidos procedimentales serán el eje a partir del cual se desarrollarán los actitudinales y conceptuales.

En la selección de contenidos, se ha de tener en cuenta la necesidad de concretarlo en función del entorno socioproductivo cercano al centro aproximándose lo más posible al mundo real y concretándose en una profesión o familia profesional. Ello implica tomar como referencia los distintos aspectos que se incluyen en la profesión, es decir, diferentes figuras profesionales con sus correspondientes capacidades profesionales, actividades significativas y ámbito profesional.

A la hora de desarrollar los contenidos señalados en ambos bloques es conveniente interrelacionar contenidos de uno y otro, de modo que se globalice el aprendizaje de los mismos. Además, se tomarán en consideración contenidos relacionados con otras áreas -consideradas básicas- de la ESO, que sean necesarios para el desarrollo de la materia presentándolos de forma globalizada tal y como en la realidad se manifiestan.

Este planteamiento supone que el espacio físico en el que se desarrolle esta materia transciende el marco del

horretarako beharrezkoa izango da tailer bat erabiltzea, bai eta eskolaren testuingurutik kanpoko beste lekuren batzuk ere, adibidez enpresak, horietara bisitaldiak eginez, egiten diren lan errealak behatuz, etab.

1. MULTZOA. INGURUNEKO LAN-MUNDUA EZAGUTZEA

Multzo honetan prozedurazko edukinak landuko dira. Edukin horiek honako hauei lotuta daude: informazioaren bilaketa eta bilketa, behaketarako teknikak, komunikaziorako eta elkarrizketarako trebetasunak, talde-lana, sektore bateko lanpostu desberdinen eta beharrezko lanbide-gaitasunen azterketa, txostenak, etab. Horietan oinarrituz, jarrerazko eta kontzeptuzko edukinak landuko dira.

Jarrerazko edukinak honako hauei lotuta agertzen dira: besteei entzuteko ohitura, errespetua, norbere buruaren aurkezpena komunikazio-testuinguruaren arabera, segurtasun eta higienerako arauei jarraitzeko beharraren balorazioa, «lanbidearen aurrean jarrera onaren» balorazioa, produkzio-prozesuek ingurugiroan duten eraginarena eta autokudeaketa-prozesuetako partaidetzarena ...

Kontzeptuzko edukinei dagokienez, honako hauei loturiko oinarrizko kontzeptuak landuko dira: kontratazio-motak, langileen eskubideak eta betebeharrak, profesionalen prestakuntzarako bide posibleak, sektore arteko koordinazioa, alderdi sozioekonomikoak, ingurugiroarekiko eragina ...

Multzo hau lantzeko egokia izango litzateke enpresa-munduarekin benetako harremana izatea, batez ere gertuko inguruneko produkzio-sektore nagusien bitartez, bisitaldiak eta elkarrizketak antolatuz, informazioa eskaintzeko eta prestakuntza-ibilbideei buruzko informazioa izateko profesionalak ikastetxera ekarriz, etab.

Edukinak ondoren adierazitako faseen arabera antola daitezke:

– prestaketa-fasea: aldez aurretik bisita, elkarrizketa, solasaldia, etab. prestatzea litzateke. Horretarako, beharrezkoa izango da aldez aurretik informazioa biltzea, elkarrizketa bat egiteko edo elkarrizketaren eguna jartzeko asmoarekin telefonoz deitzeko gizarte-trebetasunak praktikatzea edo entseiatzea, informazioa biltzeko tresnak edo eskemak lantzea, elkarrizketaren gidoia prestatzea, etab.

– burutzapen-fasea: aldez aurretik planifikatutako iharduera burutzea (bisita, elkarrizketa, etab.), ezarritako eginkizunen sekuentzia praktikan jarriz (eginkizunen banaketa, oharrak hartzea, interpretazioa, elkarrizketak).

– azken txostena egitea eta egindako lana ebaluatzea: iharduera bete den moduari buruzko azterketa eta gogoeta egitea, eta bildutako informazio guztia egituratu eta interpretatzen den, eta ondorioak ateratzen diren txosten bat prestatzea.

aula, siendo necesario la utilización de un taller, y otros espacios fuera del contexto escolar, visitando empresas, observando la realización de trabajos reales.

BLOQUE 1. CONOCIMIENTO DEL MUNDO LABORAL DEL ENTORNO

En este bloque se trabajarán contenidos procedimentales, relacionados con la búsqueda y recogida de información, técnicas de observación, habilidades de comunicación y de entrevista, trabajo en equipo, análisis de los diferentes puestos de trabajo que hay en un sector y las capacidades profesionales que se requieren, diferentes organizaciones del trabajo (autogestionaria,...) realización de informes,... A partir de estos se trabajarán contenidos actitudinales y conceptuales.

Los actitudinales estarán relacionados con hábitos de escucha, respeto, presentación personal según el contexto de comunicación, valoración de la necesidad del seguimiento de normas de seguridad e higiene, del «buen ser o estar profesional», valoración de la incidencia de procesos productivos en el medio ambiente y de la participación en procesos de autogestión...

Por lo que respecta a los contenidos conceptuales se trabajarán conceptos básicos relacionados con los tipos de contrataciones, derechos y deberes de los trabajadores, posibles vías para la formación de profesionales, coordinación de sectores, aspectos socioeconómicos, impacto medioambiental...

Para trabajar este bloque sería adecuada la relación real con el mundo de la empresa, preferentemente a través de los sectores productivos predominantes en el entorno cercano, bien sea a través de visitas, entrevistas, profesionales que vengan al centro a proporcionar información, informaciones sobre itinerarios formativos...

Los contenidos se pueden organizar en función de las siguientes fases:

– fase de preparación: donde se realizará la preparación previa de la visita, entrevista, charla,... Para ello será necesario una recogida de información previa, práctica o ensayo de las habilidades sociales necesarias para realizar una entrevista o llamar por teléfono para concertarla, elaboración de instrumentos o esquemas de recogida de información, guión de entrevista...

– fase de realización: ejecución de la actividad previamente planificada (visita, entrevista...) llevándose a la práctica la secuencia de tareas establecidas (reparto de tareas, toma de notas, interpretación, diálogos).

– realización de informe final y evaluación del trabajo realizado: el análisis y la reflexión sobre cómo se ha realizado la actividad y un informe donde se estructure toda la información recogida, se interprete y se extraigan conclusiones.

2. MULTZOA. LANBIDE-ARLO BATEN EZAGUTZA ARLO HORRETAKO LANBIDE BATEN BIDEZ

Multzo honetan hauxe lortu nahi da: ikaslea lanbide jakin bati dagozkion teknikak, materiala, tresnak eta egiteko moduak ezagutzea, lanbide horrekin zerikusia duten praktikak eginez.

Multzo honetako edukinak definitzeko, lanbidearen iharduera garrantzitsuenak, lanbide-gaitasunak (teknikoak, harremanetarako eta antolamendurako, eta kontingentziei erantzuteko) eta lanbide-eremua hartuko dira erreferentzia gisa.

Edukin horien trataerak ondokoak izango ditu oinarritzat: lanbide baten egoerak, iharduerak, eta topiko xinpleak eta oinarrizkoak. Egoera eta iharduera horiek konpondu beharreko arazo batekin planteatuko dira.

Prozedurazko edukinak arazoak konpontzeko erabilitako ikuspegiari dagozkion faseen arabera aukeratu daitezke:

Arazoak planteatu eta definitzea

Informazioa bilatu eta biltzea
- Materialei buruzko fitxa teknikoetako informazioa biltzea, erreminten erabilerarako argibideak, laguntza eskatzea, etab.
- Informazioa biltzeko teknikak erabiltzea: oharrak hartzea, eskemak, etab.
- Ahozko eta idatzizko testuak irakurri eta interpretatzea.

Prozesuak planifikatzea: baliabideak eta estrategiak planifikatzea, eginkizunak eta denbora banatzea, etab.
- Erremintak, materialak, etab. identifikatu eta aukeratzea
- Aurrekontuak zenbatestea
- Eginkizunak antolatu eta banatzea

Objektu bat eraikitzea edo zerbitzu bat eskaintzea
- Lanerako guneak egokitzea
- Prestaketa-eragiketak egitea
- Lanabesak erabiltzea
- Teknikak aplikatzea, etab.

Egindako lana eta jarraitutako prozesua ebaluatzea
- Hartutako erabakiak jakinaraztea
- Jarraitutako pausuak aztertzea
- Jarraitutako pausu desberdinen arteko loturak ezartzea
- Kausa/ondorio erlazioak baloratzea

Jarrerazko eta kontzeptuzko edukinak prozedurazkoetan oinarriturik aukeratuko dira, lantegi-eskolako lanaren ardatza izango baitira. Kontzeptuzko edukinen aukeraketa jakintzagaia aztertzeko ezinbestekotzat joko diren horiek barne hartzera mugatu behar da.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Lanbide-eremuarekin zerikusia duen arazo bati irtenbidea emateko beharrezko pausuak planifikatzea, eta jarraitu beharreko pausu horiek, tresnak eta mate-

BLOQUE 2. CONOCIMIENTO DE UNA FAMILIA PROFESIONAL A TRAVÉS DE UNA PROFESIÓN DE LA MISMA

En este bloque se pretende familiarizar al alumnado con las técnicas, materiales, instrumentos y formas de hacer de una determinada profesión a través de realizaciones prácticas relacionadas con la profesión.

Para definir los contenidos de este bloque se tomarán como referencia las actividades más relevantes de la profesión, las capacidades profesionales (técnicas, relacionales, organizativas y de respuesta a las contingencias) y el ámbito profesional.

El tratamiento de estos contenidos se centrará en situaciones, actividades, tópicos sencillos y básicos de una profesión. Estas situaciones y actividades se plantearán como un problema a resolver.

Los contenidos procedimentales se pueden seleccionar en función de las fases del enfoque de resolución de problemas:

Planteamiento y definición del problema.

Búsqueda y selección de información:
- Recogida de información de fichas técnicas de materiales, instrucciones de uso de herramientas, solicitar ayuda...
- Utilización de técnicas de recogidas de información: toma de notas, esquema...
- Lectura e interpretación de textos orales o escritos

Planificación de proceso: planificación de los recursos estrategias, reparto de tareas, tiempos.
- Identificación selección de herramientas, materiales...
- Cálculo de presupuestos
- Organización y reparto de tareas

Construcción de un objeto o realización de un servicio
- Acondicionamiento de las zonas de trabajo
- Realización de operaciones de preparación
- Utilización de los utensilios de trabajo
- Aplicación de técnicas...

Evaluación del trabajo realizado y del proceso seguido
- Comunicación de las decisiones tomadas
- Análisis de los pasos seguidos
- Establecimiento de relaciones entre los diferentes pasos seguidos....
- Valoración de las relaciones causa-efecto

Los contenidos actitudinales y conceptuales se seleccionarán a partir de los procedimentales que habrán de ser el hilo conductor en el trabajo del aula-taller. La selección de contenidos conceptuales se ha de limitar a la inclusión de aquellos que se consideren fundamentales para el tratamiento de la materia.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Planificar los pasos necesarios para llevar a cabo la resolución de un problema relacionado con un ámbito profesional señalando los pasos a dar, los instrumentos

rialak adieraztea, era antolatu eta metodikoan eraikuntza bat egiteko edo zerbitzu xinple bat eskaintzeko.

Irizpide honen bidez ikasleak lan bat planifikatzeko, eta jarraitu beharreko pausuak edo bete beharreko eginkizunak adierazteko duen gaitasuna egiaztatu nahi da, horretarako ordena logikoari jarraituz, materialen eta informazioen beharrei, antolamendurako neurriei buruz, etab. gogoeta eginez, kasuan-kasuko lan-eremuaren zehaztapenak kontuan izanik. Plangintza horretan maila desberdinak antzeman daitezke, ahozko enuntziatutik hasi eta proiektu bat lantzeraino, alegia.

2. Arazo bati irtenbidea emateko pausuak edo faseak jorratzea, eta horretarako aurrez ezarritako sekuentzia logikoari eta eginkizun bakoitzaren zehaztapen espezifikoei jarraitzea.

Lanbide-arlo jakin bateko arazo bati irtenbidea emateko, ikaslea ordena bati jarraituz aldez aurretik planifikatutako sekuentzia desberdinak praktikan jartzeko gai ote den ebaluatu nahi da; hori, hain zuzen, pausu jakin bateko argibide xinpleei jarraitzetik hasi eta aurrikusitako eginkizun guztiak bere kasa betetzeraino izan daiteke.

3. Talde-lanaren banaketan ikasleak egokitu zaion eginkizuna betetzea, elkarlanerako jarrera erakutsiz, besteen ideiak onartuz eta lan-antolamendutik sortutako erantzukizunak bere gain hartuz.

Bakoitzak eginkizun jakin bat betetzen duen lantalde batean ikasleak dagozkion eginkizunak bere gain hartzen ote dituen ikusi nahi da. Lana aurrera eramateko eta lan horretatik emaitza onak ateratzeko, ikasleak kontuan hartu behar du elkarlanean aritu behar duela, guztiek parte hartu behar dutela, besteen ekarpenak errespetatu behar direla, eta ikaskideekin ideiak eztabaidatzeko estrategia egokiak erabili behar direla.

4. Ahoz nahiz idatziz ideiak interpretatu eta adieraztea, eta horretarako lanbide-eremuaren berezko grafikoak, sinboloak eta terminologia erabiltzea.

Lanbideari lotutako eta testuinguruaren araberako hizkuntza edo sinbologia desberdinen bidez ikasleak ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzen eta sortzen ote dituen jakin nahi da. Testu horiek aldatu egin daitezke, honako hauen arabera: materialen erabilerarako argibideak, krokisak, elkarrizketa batean solaskidearen arabera jarrera bat edo beste hartzea...

5. Gizabanakoaren eta taldearen segurtasunari eta higieneari buruzko arauak landu eta aplikatzea, erabiliko diren erremintak eta materialak ondo zaintzearen beharrak eta horiek gaizki erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak antzemanez, hori guztia norbere ingurunean giro atsegina eta segurua lortzeko asmoz.

Irizpide honen bidez ikasleak lanbide-arloari dagozkion ezagutza hauek zein neurritaraino identifikatu eta aplikatzen dituen jakin nahi da: erreminten eta makineriaren erabilerari eta mantenimenduari buruzko arauak, materialaren erabilera egokia ahalik eta gehien aprobetxatzearren, eta lantegi-eskolaren barruan giro

y materiales para la realización de una construcción o un servicio sencillo de forma ordenada y metódica.

Se trata de comprobar el grado en que el alumno y alumna es capaz planificar su trabajo, de señalar los pasos o tareas a realizar reflexionando sobre su orden lógico, sobre las necesidades de materiales, informaciones, medidas organizativas teniendo en cuenta las especificidades del campo profesional de que se trate... Esta planificación puede tener distintos grados de realización desde el enunciado oral, hasta la elaboración de un proyecto.

2. Realizar los pasos o fases en la resolución de un problema siguiendo la secuencia lógica previamente establecida así como las indicaciones específicas de cada tarea.

Se trata de evaluar si los alumnos y alumnas son capaces de llevar a la práctica las diferentes secuencias previamente planificadas de forma ordenada para la resolución de un problema de una determinada familia profesional; esto puede ir desde seguir instrucciones sencillas de un determinado paso, hasta la realización autónoma de todas las tareas previstas siempre y cuando se tengan en cuenta las indicaciones respecto de la utilización de los materiales, aplicación de técnicas...

3. Realizar las tareas que le corresponden en el reparto del trabajo en equipo con una actitud de colaboración y de aceptación de las ideas de los demás así como asumiendo la responsabilidad que de la organización de trabajo se deriven.

Se trata de comprobar si en un trabajo en equipo donde cada uno realiza unas tareas determinadas, el joven o la joven asume las que le corresponden, percibiendo que el avance en el proceso de trabajo y el resultado dependen de su actitud colaboradora y de la participación de todos, el respeto hacia las aportaciones de los demás y sus estrategias de discusión de ideas con los compañeros y compañeras.

4. Interpretar y expresar ideas tanto de forma oral como escritas utilizando los recursos gráficos, la simbología y la terminología específica del ámbito profesional.

Se trata de comprobar si comprende y producen textos orales o escritos expresados en distintos lenguajes o simbologías relacionados con una profesión y en función del contexto. Estos textos pueden variar desde instrucciones que aparecen en la utilización de materiales, croquis, utilización de formas adecuadas ante una entrevista en función del interlocutor....

5. Elaborar y aplicar normas sobre seguridad e higiene personal y colectiva interpretando las necesidades de cuidados que precisan las herramientas, materiales a utilizar así como los peligros que se pueden derivar de su incorrecta utilización todo ello encaminado a conseguir un ambiente agradable y seguro.

Se trata de evaluar si se han identificado y aplicado los conocimientos relacionados con la familia profesional objeto de estudio relativos a las normas de utilización y mantenimiento de las herramientas y maquinaria, apropiado uso de los materiales contribuyendo a su aprovechamiento así como las normas de seguridad,

atsegina eta arriskurik gabea ahalbidetuko duten segurtasun, ordena eta garbitasunari buruzko arauak.

LAN-MUNDURAKO SARRERA

1.– SARRERA

Gaur egun gure gizartean eta industrializatutako mundu osoan gertatzen ari diren aldaketa ekonomikoek egoera berriak eta konplexuak eragiten dizkiete gazteei bizitza aktibora eta heldura igarotzeko garaian.

Aurretik aipatutako aldaketa horiek enpresa-antolamolde berriek eta teknologi berrikuntza etengabeak planteatutakoak dira, eta horren ondorioz gero eta zailagoa da bizitza aktibora eta heldura igarotzea.

Gainera, gure gizartean emakumea, bereziki emakume gazteak, hezkuntza eta lan-munduan integratzen ari da, errealizazio pertsonal eta profesional zabalago baten bila.

Hori guztiagatik, hezkuntza-sistematik adin haueta-ko ikasleei lagundu behar diegu zalantzak argitzen eta bizitza heldu eta aktiborako igarobidean aurkituko dituzten oztopoei aurre egiteko prestatzen. Horretarako, ezagutza, kontzientzia, motibazioa eta erabateko erantzukizuna bereganatu behar dituzte, bai eta gero eta gehiago okertzen ari den igarobide horretan aurkituko dituzten trabak gainditzeko eta irtenbide egokiak bilatzeko gaitasuna ere.

Hezkuntza-eremutik, hain zuzen, gazteak bere burua ezagutu eta ofizio eta lanbide desberdinak ezagutu ditzan lortu behar dugu, bere gaitasunak garatzeko eskola eta lanbide-orientabiderako beharrezko elementuak eskainiz.

Jakintzagai honekin hauxe lortu nahi da, gazteak bizitza heldura eta aktibora igarotzeko aukera desberdinak ezagutzea. enpresa-munduaren ezagutzaren bidez. Horretarako enpresa-proiektu bat egin behar du, taldelanak eginez eta enpresa bat aurrera eramateko beharrezko funtzio eta ofizio desberdinak aztertuz.

Egingo dituen ikasketa guztiei esker gazteak enpresaren ikuspegi orokor bat lortuko du; horrekin, gainera, bere ekimena eta gaur egungo gizartearen barruan moldatzeko gaitasuna sustatu nahi dira.

Ingurune honetan ez dugu ahaztu behar enpresa-errealitatea oso errotuta dagoela Euskal Herri osoan, esaterako, kooperatibismoa zentzurik zabalenean: kooperatibak, lan-sozietate anonimoak, etab. Lan, kapital eta kudeaketako partaidetzan oinarritzen den kooperatibismoa enpresa-antolamolde bat da eta ondoren adierazitako balore demokratikoak ditu euskarritzat: pertsona bat/boto bat, kudeaketako erantzukizunezko partaidetzari lotutako baloreak, etab.

orden y limpieza dentro del aula taller que posibiliten un ambiente agradable y seguro.

INTRODUCCIÓN AL MUNDO LABORAL

1.– INTRODUCCIÓN

Los cambios económicos que se están produciendo actualmente en nuestra sociedad y en el conjunto del mundo industrializado general situaciones nuevas y complejas para la transición de los jóvenes a la vida activa y adulta.

Los cambios enunciados anteriormente vienen planteados por las nuevas formas de organización empresarial así como por la constante innovación tecnológica lo cual implica que el tránsito a la vida activa y adulta sea cada vez más difícil de producirse.

Asimismo, nuestra sociedad esta viviendo la integración de las mujeres, en especial las jóvenes, dentro del mundo educativo y laboral y por tanto a la búsqueda de horizontes de realización personal y profesional más amplios.

Por todo ello, desde el sistema educativo se debe de contribuir a ayudar a los estudiantes de estas edades a despejar dudas y a prepararles para que afronten su transición a la vida adulta y activa en condiciones de conocimiento, consciencia, motivación y plena responsabilidad y los capacite para afrontar y resolver de manera positiva esta transición que cada vez se hace más difícil.

Lo que se debe de intentar desde el ámbito educativo es el autoconocimiento por parte de los jóvenes, así como el conocimiento de los diferentes oficios y profesiones, aportando los elementos de orientación escolar y profesional que el joven necesite para el desarrollo de estas capacidades.

Con esta materia, se intenta que el joven observe las diferentes posibilidades de tránsito a la vida adulta y activa mediante el conocimiento del mundo empresarial realizando un proyecto de empresa, lo que implica sesiones de trabajo en grupo así como el estudio de las diferentes funciones y oficios necesarios para llevar una empresa adelante.

Todos los estudios a realizar van a llevar a l@s jóvenes a adoptar una perspectiva general de lo que es una empresa; además se intenta fomentar su propia iniciativa y a la vez el desenvolvimiento de los mismos dentro de la sociedad actual.

No podemos olvidar en este entorno una realidad empresarial firmemente enraizada en todo Euskal Herria como es el cooperativismo en su sentido más amplio: cooperativas, sociedades anónimas laborales.... Es una forma de organización empresarial basada en la participación en el trabajo, en el capital y en la gestión. Parte de valores democráticos como: una persona-un voto..., valores de participación responsable en la gestión...

Bestalde, ezagutzen ari garen egiturazko krisialdietan, autoenpleguaren eta lankidetzaren inguruan ari da enplegu-dinamikarik handiena sortzen.

Beraz, antza denez, aukerako jakintzagai honetan kontzeptuzko eta jarrerazko edukinak nabarmenduko dira gehienbat.

Bestalde, jakintzagai honek aurriritzirik gabeko jarrerak sustatu eta aukera-berdintasuna indartzen du, sor daitezkeen jarrera sexistak zuzenduz eta hezkuntza-ihardunean bertan lankidetzaren eta berdintasunaren baloreak zuzpertuz. Edukinen garapenean sexu arteko aukera-berdintasunari dagozkion alderdiak osotasunean hartuta eta zeharka barne hartu behar dira, lanbide-aukera anitzetan txertatzearren.

Azkenik, komeni da jakintzagai honen izaera aktiboa eta partaidetzazkoa azpimarratzea, talde-lana eta enpresa-proiektuen lanketa eta abiamena indartu eta garatuko dituzten egoera anitzen bidez gara daitekeena. Izan ere, enpresa-proiektu horretan ikaslea izango da protagonista, horrek ekimenerako eta autonomia pertsonalerako gaitasunak garatzen laguntzen baitu.

2.– HELBURUAK

Aukerakotasunaren guneko jakintzagai honen helburua ondoren adierazitako gaitasunak ikasleengan garatzen laguntzea da:

1. Europako esparruko bizitza aktiboan moldatzen jakitea, sormena, ekimena, hizkuntzen ezaguera eta lanerako gaitasuna garatuz.

2. Prestakuntzarako eta lanbideratzeko estrategia pertsonalak lantzean irudimenez, norbere ekimenez eta ahaleginez ihardutea, norbere ezaugarrietan eta ahalmenetan oinarrituz.

3. Erakunde publiko eta pribatuetara bisitak planifikatzea, enpresa-munduari buruzko informazioa bilatu eta biltzearren.

4. Enpresen funtzionamenduaren, produkzio-bideen eta lan-harremanen mekanismoak eta oinarrizko baloreak ezagutu eta ulertzea, gizarteratzea eta lanbideratzea ahalbidetzen duten jarreren garrantzia baloratuz.

5. Enpresan esku hartzen duten faktore desberdinei buruzko informazioa bilatzea, adibidez: lehengaien hornitzaileak, produkzio-prozesuak eta hasierako kostuak, eta enpresen funtzionamendua ezagutzen duten adituen aholkularitza teknikoa.

6. Produktuaren edo zerbitzuaren xede den gizarte-ingurunearen araberako merkatuaren azterketa bat egitea, emaitzak interpretatuz eta baloratuz, bideragarritasunari dagokionez produktu edo zerbitzu egokia aukeratzearren. Publizitate-kanpaina, enpresaren logotipoa eta izen komertziala diseinatzea, eta oinarrizko finantza-iturriak ezagutu eta erabili ondoren, produkzio-kostuak, errentagarritasunaren ataria eta salmentako prezioa kalkulatzea.

Por otro lado, en los momentos de crisis estructural que se están viviendo, es en el entorno del autoempleo y de la cooperación donde más dinámica de empleo se está produciendo.

Parece, por lo tanto, que debe ser un contenido tanto conceptual como actitudinal, que puede impregnar el ámbito de esta optativa.

Por otro lado, esta materia contribuye al fomento de actitudes libres de prejuicios y al refuerzo de la igualdad de oportunidades, corrigiendo las actitudes sexistas que puedan presentarse y estimulando los valores de cooperación e igualdad desde la propia práctica educativa. En el desarrollo de los contenidos se han de incluir de forma integrada y transversal aspectos correspondientes a la igualdad de oportunidades entre los sexos para su incorporación a las diversas posibilidades profesionales.

Finalmente, conviene resaltar el carácter activo y participativo de esta materia, que puede desarrollarse a través de una amplia variedad de situaciones que potencien y desarrollen el trabajo en equipo y la elaboración y puesta en práctica de proyectos empresariales en los que el alumnado sea el protagonista, lo que puede propiciar el desarrollo de capacidades de iniciativa y autonomía personal.

2.– OBJETIVOS

Esta materia del espacio de opcionalidad tendrá como objetivo contribuir a desarrollar en los alumnos y alumnas las siguientes capacidades:

1. Conocer cómo desenvolverse en la vida activa en el marco europeo, desarrollando la creatividad, el espíritu emprendedor los conocimientos lingüísticos y la capacidad de trabajo.

2. Actuar con creatividad, iniciativa y espíritu emprendedor en la elaboración de estrategias personales de formación y profesionalización, a partir del conocimiento de sus características y potencialidades.

3. Planificar y realizar visitas a entidades públicas y privadas con el objetivo de recabar información acerca del mundo empresarial.

4. Conocer y comprender los mecanismos y valores básicos del funcionamiento de la empresa y del modo productivo y sus relaciones laborales, valorando la importancia de las actitudes y que favorecen la integración social y profesional.

5. Buscar información sobre los distintos factores que intervienen en una empresa, tales como proveedores de materias primas, procesos de producción y costes iniciales y asesoramiento técnico de expertos que conozcan el funcionamiento de las empresas.

6. Elaborar un estudio de mercado, según el entorno social a que se destine el producto o servicio, interpretando y valorando los resultados para escoger el producto o servicio adecuado según su viabilidad y diseñar la campaña publicitaria, el logotipo de la empresa y el nombre comercial, calculando los costes de producción, el umbral de rentabilidad y el precio de venta, después del conocimiento y uso práctico de las fuentes básicas de financiación.

7. Prestakuntza-aukeretan eta lanbideen munduan sexuaren arabera antzematen diren desberdintasunez jabetzea, aukera-berdintasunaren aldeko jarrerak indartzen ahaleginduz.

3.– EDUKINAK

1. MULTZOA. ERABAKIAK HARTZEKO ESTRATEGIA. HAUSNARKETA INDIBIDUALA. NORBERE BURUAREN EZAGUTZA

Ikasleak erabakiak hartzeko mekanismo desberdinak ezagutu ditzan lortu nahi da, hori oinarrizkoa baita enpresa-proiektu bati ekiteko edo proiektu hori garatzeko. Horretarako, norbere edo besteren ideiak aurkeztu, informazioa aztertu, bilera bat egiteko teknikak eta erabakiak hartzeko praktika barneratu behar dira.

Gainera, edukin honen barruan enpresa barruko eginkizunen banaketa egokia lortu nahi da. Taldeko kide bakoitzak atxiki zaion lanpostuari dagozkion erantzukizunak ezagutu eta bere gain hartu behar ditu, eta horretarako lanpostu bakoitzean erantzukizun horiek atxikitzeko garaian pertsona bakoitzak dituen trebetasunak ezagutu behar dira.

Pertsona bakoitzaren trebetasunak autoebaluazioaren eta taldeko ebaluazioaren bidez ezagutuko dira.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Enpresa baten barruan betetzen diren iharduera desberdinak ezagutzea, bai eta bertan dauden lanpostu desberdinak ere.

2. Pertsonarteko komunikazioa: entzutea, parte hartzea, kexu bat adieraztea, eskubideak defendatzea, etab.

3. Gatazkak, hutsegiteak, etab. konpontzea.

4. Erabakiak hartzea.

5. Talde-lana.

B) Prozedurazko edukinak

1. Ideiak sortzeko teknika desberdinak ezagutzea.

2. Erabakiak hartzeko prozedurak.

3. Talde-lana egituratzea eta planifikatzea.

4. Gure iritziak defendatzeko argudioak erabiltzea.

5. Taldean hartutako erabakiak eta akordioak planifikatzea eta gauzatzea.

6. Taldean lan egiteko teknikak erabiltzea.

7. Gatazka bati irtenbidea ematean jarrera desberdinak identifikatu eta aztertzea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Norbere ahalmenak baloratu eta horietan konfiantza izatea.

2. Norbanakoaren lana baloratzea eta eginkizunak eta erantzukizunak nork bere gain hartzea, sexua dela-eta diskriminaziorik egin gabe.

7. Tomar conciencia de las desigualdades existentes por razón de sexo en las opciones formativas y en el mundo de las profesiones, contribuyendo activamente a potenciar actitudes que favorezcan la igualdad de oportunidades.

3.– CONTENIDOS

BLOQUE 1. ESTRATEGIA PARA UNA TOMA DE DECISIONES. EXPLORACIÓN INDIVIDUAL. AUTOCONOCIMIENTO

Se trata de familiarizar a los estudiantes con distintos mecanismos para la toma de decisiones, cuestión que es básica para el inicio de un proyecto de empresa o para la continuación de su desarrollo, mediante la presentación de ideas propias y ajenas, el tratamiento de la información, la introducción de técnicas para el desarrollo de una reunión, así como practicar la toma de decisiones.

Asimismo, dentro de este bloque se pretende conseguir un reparto de las tareas dentro de la empresa. Se trata de que cada miembro conozca y asuma las responsabilidades propias del puesto de trabajo asignado, a través del conocimiento de las habilidades de cada persona a la hora de realizar la asignación de las mismas en cada puesto de trabajo.

El conocimiento de las habilidades de cada persona se habrá de realizar mediante la autoevaluación y la evaluación grupal de las mismas.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Conocimiento de las diferentes actividades que se realizan dentro de una empresa, así como de los diferentes puestos de trabajo existentes.

2. La comunicación interpersonal: escuchar, participar, formular una queja, defender los derechos, etc.

3. Resolución de conflictos, fracasos, etc.

4. Toma de decisiones.

5. El trabajo en grupo.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Conocimiento de las diferentes técnicas de generación de ideas.

2. Procedimientos de toma de decisiones.

3. Estructuración y planificación del trabajo grupal.

4. Utilización de argumentos para la defensa de nuestras posiciones.

5. Planificación y ejecución de las decisiones y acuerdos colectivos.

6. Utilización de técnicas de trabajo en grupo.

7. Identificación y análisis de diferentes posturas en la resolución de un conflicto.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Estima y confianza en las propias posibilidades.

2. Valoración del trabajo individual y asunción de tareas y responsabilidades, sin discriminación por razones de sexo.

3. Egoera gatazkatsuen aurrean norbere burua kontrolatzea.

4. Taldeari dagozkion arazoetan aktiboki eta elkartasunezko jarrera erakutsiz parte hartzea.

5. Bilakaera pertsonalaren gainean nork bere burua ezagutzeak dakartzan ondorio positiboak ezagutzea.

2. MULTZOA. BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA

Enpresa-munduari buruzko beharrezko informazioa bilatzea da helburua, hasierako ideiak merkatuaren barruan lekurik ba ote duen ikusteko; horretarako, merkataritzaren arloko informazioa eta informazio orokorra bildu eta aztertu behar da.

Gainera, merkatuarekin zerikusirik ez duten baina enpresa bat sortzeko garaian ezinbestekoak diren aldagaiak aztertu beharko dira. Aldagai horiek izaera desberdinekoak dira arloaren arabera, hau da: teknikoak, juridiko legalak, gizarte-ingurunekoak, plangintza estrategikoari dagozkionak eta ekonomi/finantzazkoak.

Komeni da multzo hau garatzean erakunde eta enpresa pribatuekin eta merkataritza-arloko, arlo juridiko eta finantza-arloko adituekin harremanak izatea; horrek, beraz, gazteek hezkuntza-arlokoak ez diren pertsonekin harremanetan jartzea dakar berekin.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Erakundeak: Udalak, Aldundiak, Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala; erakunde-baliabideei buruzko gida aztertzea. Informazio eta aholkularitza-zerbitzuak; gazteak, emakumeak, enplegua, dirulaguntzak, bekak, lehiaketak, proiektuak.

2. Enpresa pribatuak: funtzionamendua, barne-antolamendua, finantzaketa-bideak.

3. Merkatuaren azterketa bai eta bertan dauden teknika, forma juridiko eta finantzaketa-bideena ere.

4. Liburutegi, artxibategi, erakunde ofizial eta enpresa pribatuetan dokumentazioa biltzea.

5. Gizarte-ekonomia: kooperatiben antolamendua eta funtzionamendua.

B) Prozedurazko edukinak

1. Informazioa biltzeko eta sistematizatzeko teknikak.

2. Informazio-zentroei eta bestelako antolamendu-erakundeei buruzko fitxategiak lantzea.

3. Erreklamazioak, aktak eta instantziak egitea.

4. Zenbait gairi buruz adituen aholkularitza izatea.

C) Jarrerazko edukinak

1. Talde-lanerako motibazioa eta ekimena izatea.

2. Gizartean moldatzeko jarrera positiboa erakustea.

3. Ikasteko beti prest egotea, hezkuntza-eremukoak ez diren iturrien bitartez.

4. Autokudeaketa baloratzea, enpresaren bestelako antolamendu-sistemen alternatiba gisa.

3. Control personal ante situaciones conflictivas.

4. Participación activa y solidaria en los asuntos colectivos.

5. Apreciación de los efectos positivos en el desarrollo personal mediante el autoconocimiento.

BLOQUE 2. ANÁLISIS DE VIABILIDAD

Se trata de recoger la información necesaria acerca del mundo empresarial para ver si esa idea inicial tiene cabida dentro de mercado; para ello se ha de tomar y analizar información de carácter comercial e información de carácter global.

Así mismo, se habrán de estudiar las variables que no tienen relación con el mercado pero que son fundamentales a la hora de crear una empresa, estas variables son de tipo técnico, jurídico legal, del entorno social, planificación estratégica y económico financieras.

Es conveniente que en el desarrollo de este bloque se mantengan contactos con instituciones y empresas privadas así como con expertos en temas comerciales, jurídicos y financieros, lo que implica una relación de l@s jóvenes con personas externas al mundo educativo.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Las instituciones: Ayuntamientos, Diputación, Gobierno Vasco; Gobierno Central, análisis de las guías de recursos institucionales. Servicios de información y asesoramiento; jóvenes, mujeres, empleo, subvenciones, becas, concursos, proyectos.

2. Empresas privadas: funcionamiento, organización interna, vías de financiación.

3. Estudio de mercado y de las técnicas existentes en el mismo, formas jurídicas, formas de financiación.

4. Recogida de documentación en bibliotecas, archivos, instituciones oficiales, empresas privadas.

5. La Economía Social: la organización y funcionamiento de las sociedades cooperativas.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Técnicas de recopilación y sistematización de la información.

2. Elaboración de un fichero sobre los centros de información y otras entidades organizativas.

3. Realización de reclamaciones, actas e instancias.

4. Asesoramiento por parte de expertos en diversos temas.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Motivación e iniciativa para el trabajo en grupo.

2. Actitud positiva para el desenvolvimiento dentro de la sociedad.

3. Disposición hacia el aprendizaje, mediante fuentes externas al mundo educativo.

4. Valoración de la autogestión como alternativa a otros sistemas de organización de la empresa.

3. MULTZOA. ENPRESA-PLANA

Aurreko multzoetan bildutako informazioarekin, ezarri nahi den enpresari buruzko erabakiak hartu behar dira; zer teknika edo teknologia aplikatu behar diren eta enpresaren forma juridikoa zein izango den erabaki, enpresaren kostuak zenbatetsi eta, azkenik, merkatuan jarrera bat hartu behar da.

Aurretik aipatutako informazioa bildu ondoren, enpresaren alderdi batzuei buruz -izena eta forma juridikoa- erabaki behar da, bai eta teknika, finantza eta merkataritza-alderdietan oinarrituz berau hedatu ere. Horretarako, enpresa barrutik ezagutu behar da.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Proiektuan zehar bildutako informazioa aukeratu eta erabiltzea.

2. Produkzio-prozedurak eta prozesuak, fabrikazio eta banaketa-prozesu teknikoak.

3. Diseinatuko den enpresaren kostuak ezagutzea.

4. Langileen eskubideak eta betebeharrak, autoenplegua, kooperatibizazioa, etab.

B) Prozedurazko edukinak

1. Enpresaren negozio-plan bat prestatzea.

2. Enpresaren kostuak aztertzea.

3. Lana eta kapitala banatzeko moduari buruzko erabakiak hartzea.

4. Enpresaren hedadurari buruzko erabakiak hartzea: alderdi teknikoak, merkataritza, finantza eta giza baliabideei dagozkien alderdiak.

C) Jarrerazko edukinak

1. Lan-ihardunaren funtzionamenduarekiko interesa eta jakinmina erakustea.

2. Gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko garaian jarrera positiboa izatea.

3. Norbere gaitasun, ezaugarri eta mugak onartzea eta baloratzea.

4. MULTZOA. SOZIETATE BAT ERATZEKO ETA MARTXAN JARTZEKO KUDEAKETAK

Enpresa bat martxan jartzeko beharrezko xehetasunetan arreta jarri behar da; horretarako, kudeaketa egokiak egin behar dira giza baliabideen, finantza-baliabideen eta material-baliabideen ikuspegian oinarriturik.

A) Kontzeptuzko edukinak

1. Erakunde ofizialetan bildutako informazioa aukeratzea eta erabiltzea.

2. Finantzaketa-bideei buruzko informazioa erabiltzea.

3. Langileak kontratatzeko prozedurak ezagutzea.

B) Prozedurazko edukinak

1. Enpresa bat eratzeko erakundeekin kudeaketak egitea.

BLOQUE 3. PLAN DE EMPRESA

Con la información recogida en los bloques anteriores hay que tomar decisiones sobre la empresa que se quiere establecer, hay que decidir qué técnicas o tecnologías se van a aplicar, cuál va a ser la forma jurídica de la empresa, calcular los costes de la empresa y, por último, hay que posicionarse en el mercado.

Una vez obtenida toda la información anterior hay que decidir sobre aspectos relativos a la empresa tales como el nombre, la forma jurídica y dimensionar la empresa desde aspectos técnicos, financieros y comerciales, lo cual implica el conocimiento interno de una empresa.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Selección y utilización de la información recogida en el transcurso del proyecto.

2. Procedimientos y procesos productivos, técnicos de fabricación y distribución.

3. Conocimiento de los costes de la empresa a diseñar.

4. Derecho y deberes de los trabajadores, autoempleo, cooperativización...

B) Contenidos Procedimientos:

1. Redacción del plan de negocios de la empresa.

2. Análisis de los costes de la empresa.

3. Toma de decisiones acerca de la forma de reparto del trabajo y del capital.

4. Toma de decisiones en el dimensionamiento de la empresa, aspectos técnicos, aspectos comerciales, aspectos financieros y de recursos humanos.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Interés y curiosidad por el funcionamiento de la actividad laboral.

2. Actitud positiva para la resolución de conflictos y la toma de decisiones.

3. Apreciación y valoración positiva de las propias capacidades, características y limitaciones.

BLOQUE 4. GESTIONES DE CONSTITUCIÓN Y DE LA PUESTA EN MARCHA DE LA SOCIEDAD

Se ultiman los detalles necesarios para poner en marcha una empresa realizando para ello las gestiones necesarias desde el punto de vista de los recursos humanos, recursos financieros y recursos materiales.

A) Contenidos Conceptuales:

1. Selección y utilización de la información recogida en instituciones oficiales.

2. Utilización de la información sobre formas de financiación.

3. Conocimiento de los procedimientos de contratación de personal.

B) Contenidos Procedimentales:

1. Gestiones con las instituciones para formar una empresa.

2. Finantzaketa-bide posibleak ikusteko banketxeekin kudeaketak egitea. Finantzaketa kolektiboa.

C) Jarrerazko edukinak

1. Lan-munduan sartzeko aurretik prest egotea, autoenplegua edo kooperatibak sortuz.

2. Administrazio publikoekin eta enpresa pribatuekin harremana izatea.

4.– EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1. Informazioa lortu, aukeratu eta interpretatzea, lortu nahi den helburuaren arabera era autonomo eta kritikoan erabiltzea, eta era antolatu eta ulergarrian besteei jakinaraztea.

Irizpide honen bidez iturburu desberdinetan oinarrituz ekonomi ihardueran eta enpresan esku hartzen duten faktore desberdinei buruzko informazioa biltzeko ikasleak duen gaitasuna baloratu nahi da. Gainera, ekonomi iharduerei eta bere interesetara gehien hurbiltzen diren lanbideei buruz lortutako informazioa aztertzeko eta ondorio batzuk ateratzeko duen gaitasuna ere baloratu nahi da. Era berean, komeni da ikasleak informazio-mota horren aurrean jarrera positiboa erakusten ote duen antzematea, bai eta informazio hori ikuspegi kritiko batetik aztertzeko eta datuak aukeretatik bereizteko gaitasuna ote duen ikustea ere.

2. Produkzio-sistemaren funtzionamenduari dagozkion oinarrizko mekanismoak eta balioak ezagutzea eta ulertzea, gizartean integratzeko eta autonomia pertsonala bermatzeko lanak duen garrantziaz jabetuz.

Irizpide honen bidez ikasleak lan-munduaren esanahia behar adina ulertzen ote duen, hau da, bere hedadura bikoitzean -indibiduala eta sozioekonomikoa - ulertzen ote duen ikusi nahi da. Gainera, esparru orokor gisa lana atxikita dagoen produkzio eta enpresa-iharduera ulertzen ote duen eta lan-harremanetik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak ezagutu eta baloratzen ote dituen antzeman nahi da, bai eta harreman horiek araupetzen diren lege-esparrua eta langileak enpresarekiko harremanetan erabil ditzakeen organoak eta prozedurak ere.

3. Enpresaren antolamendua eta produkzio-iharduararen ardatz gisa duen esanahia ulertzea, enpresen elementuak eta motak identifikatuz, eta ekonomi sistemaren funtsezko elementu gisa enpresa-ekimenaren garrantzia baloratuz.

Irizpide honen bidez enpresa produkzio-iharduera betetzen den erakundea dela ulertzeko ikaslea gai ote den ikusi nahi da, ikuskera horren barruan enpresa-ekimenak gizartean eta ekonomian duen garrantzia azpimarratuz. Gainera, enpresa osatzen duten oinarrizko elementu batzuk eta funtsezko zenbait enpresa-mota ezagutzen ote dituen jakin nahi da, enpresa-antolakundeei buruzko ikuskera zabaldu eta aberastea baita helburua.

4. Lan-merkatuan orientatzea, norbere gaitasunak eta interesak eta horiei ondoen egokitzen zaien lanbide-ibilbidea identifikatuz.

2. Gestiones con entidades bancarias para ver las posibles vías de financiación. La financiación colectiva.

C) Contenidos Actitudinales:

1. Predisposición a la inserción laboral mediante la creación de autoempleo.o de cooperativas.

2. Trato con administraciones públicas y empresas privadas.

4.– CRITERIOS DE EVALUACIÓN

1. Obtener, seleccionar e interpretar información, utilizándola de forma autónoma y crítica de acuerdo al fin perseguido y comunicarla a los demás de manera organizada e inteligible.

Con este criterio se pretende valorar la capacidad del alumno o alumna para recopilar información sobre distintos factores que intervienen en la actividad económica y en una empresa a partir de distintas fuentes, analizar la información obtenida y elaborar unas conclusiones acerca de las actividades económicas y profesionales más cercanas a sus intereses. Es importante, así mismo, percibir si el alumno o alumna presenta una actitud favorable hacia este tipo de información, así como su capacidad para analizarla críticamente y distinguir los datos de las opiniones.

2. Conocer y comprender los mecanismos y valores básicos del funcionamiento del sistema productivo, valorando la dimensión social del trabajo como aspecto integrador en la sociedad y garantía de la autonomía personal.

Con este criterio se trata de valorar si el alumno o la alumna tiene una suficiente comprensión de lo que significa el mundo del trabajo, en su doble dimensión individual y socioeconómica, así como de la actividad productiva y empresarial como marco general en el que éste se inscribe; así mismo, se pretende valorar si tiene un conocimiento y valora los derechos y obligaciones fundamentales que se derivan de la relación laboral, el marco legal que regula estas relaciones y los órganos y procedimientos de que dispone el trabajador en su diálogo con la empresa.

3. Comprender la organización de una empresa y su significado como centro de la actividad productiva, identificando elementos y tipos de empresas, así como valorando la importancia de la iniciativa empresarial como elemento fundamental del sistema económico.

Con este criterio se trata de valorar si es capaz de comprender el hecho de que la empresa es la entidad donde tiene lugar la actividad productiva, integrando en esa concepción la idea de la importancia social y económica de la iniciativa empresarial, así como si conoce algunos elementos básicos que forman parte de una empresa y algunos de los tipos de empresas fundamentales que le lleven a ampliar y enriquecer su concepción sobre la organización empresarial.

4. Orientarse en el mercado de trabajo, identificando sus propias capacidades e intereses y el itinerario profesional más adecuado a los mismos.

Irizpide honekin ikasleak bere buruaz, ezaugarriez eta bere ingurune sozioekonomikoan dituen ahalbideez irudi egokia eratu ote duen baloratu nahi da. Horretarako, ikasleak bere interesak eta motibazioak ezagutzea ahalbidetuko dioten ihardueretan parte hartuko du, bere ezaugarrietan eta ahalmenetan oinarrituz prestakuntzarako eta lanbideratzeko estrategia pertsonalak landu eta garatuz.

5. Enpresa-simulazio proiektu bat martxan jartzen parte hartzea, elkarlanerako jarrera eta diskriminatzailea ez den jokabidea erakutsiz, besteen iritziak onartuz eta enpresa-sozietate baten plangintza, eraketa eta martxan jartze-prozesuetan rol desberdinak bereganatuz.

Irizpide honen bidez enpresa-simulazio prozesu baten kudeaketan ikaslea inplikatzeko eta ekimena izateko gai ote den baloratu nahi da, fase bakoitzean (bideragarritasuna, enpresaren plana, enpresaren eraketa, etab.) rol eta erantzukizun desberdinak bere gain hartuz eta funtsezko faktoreak kontuan izanik (kostua, errentagarritasuna, proiektura egokitzen ote den, etab.), eta kasu bakoitzean emaitzak baloratzeko duen gaitasuna ere ebaluatu nahi da. Gainera, hori guztia elkarlanerako jarrera erakutsiz eta edozein eratako jokabide diskriminatzaileak ezabatuz egiten ote duen ikusi nahi da.

# Agintariak eta Langileria

## Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

### HERRIZAINGO SAILA

**4184**

ERABAKIA, 1996ko uztailaren 24koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Krimen Ikerketarako ofizial-ondoko izateko, Ertzaintzako Ikuskaritza Eskalako ofizial-ondokoei espezializazio ikastarora sartzeko oposaketarako deia egiteko dena.

4/1992 Legearen 7. atalean eta Euskal Herriko Poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duen 315/1994 Dekretuaren 52. atalean eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorriz, Ikastegiko Zuzendaritzak, Herrizaingo Saileko Segurtasun sailburuordeak finkatutako helburuei jarraituz, Krimen Ikerketarako ofizial-ondoko izateko, Ertzaintzako Ikuskaritza Eskalako ofizial-ondokoei espezializazio ikastarora sartzeko oposaketarako deia egin du.

Se trata de valorar con este criterio si el alumno o la alumna se ha formado una imagen ajustada de sí misma como persona, de sus características y posibilidades en relación con su entorno socio-económico, a través de la participación en actividades que favorezcan el autoconocimiento respecto de sus intereses y motivaciones, actuando con cierta iniciativa y espíritu emprendedor en la elaboración y desarrollo de estrategias personales de formación y profesionalización a partir del conocimiento de sus características y potencialidades.

5. Participar activamente en la puesta en marcha de un proyecto de simulación empresarial, con una actitud de cooperación y no discriminatoria, aceptando las opiniones de las demás personas y asumiendo diferentes roles en el proceso de planificación, constitución y puesta en marcha de una sociedad empresarial.

Con este criterio se pretende valorar si el alumno o la alumna es capaz de implicarse y tener iniciativa en la gestión de un proceso de simulación empresarial, asumiendo diferentes roles y responsabilidades en cada una de las fases (viabilidad, plan de empresa, constitución empresarial...), siendo en cada caso capaz de valorar los resultados teniendo en cuenta algunos factores fundamentales (coste, rentabilidad, adecuación al proyecto...) y si todo ello lo hace mostrando actitudes cooperativas y eliminando comportamientos discriminatorios de todo tipo.

# Autoridades y Personal

## Cursos de formación y perfeccionamiento

### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**4184**

RESOLUCIÓN de 24 de julio de 1996, del Director de la Academia de Policía del País Vasco, por la que se convoca oposición para el acceso al Curso de Especialización destinado a los Suboficiales de la Escala de Inspección de la Ertzaintza que deseen adquirir la condición de Suboficial de Investigación Criminal.

De conformidad con lo establecido en el art. 7 de la Ley 4/1992 y el art. 52 y ss. del Decreto 315/1994 por el que se aprueba el reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco, la Dirección de la Academia, conforme con los objetivos establecidos por el Viceconsejero de Seguridad del Departamento de Interior, procede a la convocatoria de oposición para el acceso al Curso de Especialización destinado a los Suboficiales de la Escala de Inspección de la Ertzaintza que deseen adquirir la condición de Suboficial de Investigación Criminal.